



EUSKAL  
EKONOMIA

2018ko TXOSTENA

Ikerketa Departamentua  
Zuzendaria: Joseba Madariaga  
Lan taldea: **IKEI** research & consultancy SA

© Laboral Kutxa.

ISBN: 978-84-946432-3-1

<b>1. ESPARRU OROKORRA.....</b>	<b>12</b>
<b>1. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA).....</b>	<b>13</b>
1.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA.....	13
1.2 ESPAINIAKO EKONOMIA.....	23
<b>2. IKUSPEGI OROKORRA.....</b>	<b>34</b>
2.1 EKOIZPENA.....	37
2.2 ESKARIA.....	41
2.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK.....	46
2.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA.....	48
<b>2. INDUSTRIA.....</b>	<b>56</b>
<b>1. IKUSPEGI OROKORRA.....</b>	<b>57</b>
<b>2. ENERGIA.....</b>	<b>64</b>
2.1 EAEKO BALANTZE ENERGETIKOA.....	66
2.2 ENERGIA ELEKTRIKOA.....	70
<b>3. SIDERURGIA.....</b>	<b>74</b>
3.1 EGOERA OROKORRA.....	74
3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA.....	77
3.3 EUSKAL SIDERURGIA.....	80
<b>4. ONTZIGINTZA.....</b>	<b>89</b>
4.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	89
4.2 ONTZIGINTZA ESPAINIAN.....	91
4.3 ONTZIGINTZA EAEN.....	93
<b>5. AUTOMOBILGINTZA.....</b>	<b>98</b>
5.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	99
5.2 SEKTOREA ESPAINIAN.....	103
5.3 AUTOMOBILGINTZAKO HORNIDURA-INDUSTRIA EAE-N.....	108
<b>6. MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK.....</b>	<b>110</b>
6.1 MUNDUKO EGOERA.....	110
6.2 MAKINA-ERREMINTA ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK.....	111
6.3 MAKINA-ERREMINTA EAEN.....	112
6.4 ESKUZO ERREMINTA.....	116
<b>7. PAPERA.....</b>	<b>118</b>
7.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	118
7.2 SEKTOREA ESPAINIAN.....	120
7.3 SEKTOREA EAEN ETA NAFARROAN.....	123
<b>8. KAUTXUA.....</b>	<b>125</b>
8.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	125
8.2 KAUTXUA ERALDATZEKO SEKTOREA ESPAINIAN ETA EAEN.....	125
8.3 PNEUMATIKOEN ETA BIRKAUTXUTUAREN AZPISEKTOREA.....	128
<b>9. SEKTORE ELEKTRONIKO-INFORMATIKOA.....</b>	<b>130</b>
9.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	130
9.2 SEKTOREA ESPAINIAN.....	131
9.3 SEKTOREA EAE-N.....	132
<b>10. ERAIKUNTZA.....</b>	<b>135</b>
<b>11. SEKTOREEN ANALISI EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA.....</b>	<b>146</b>
11.1 SARRERA.....	146



11.2	METODOLOGIA.....	146
11.3	RATIOEN PIRAMIDEA.....	157
11.4	FUNTSEN ITURRI ETA ERABILEREN EGOERA.....	164
<b>12.</b>	<b>EUSKAL ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA.....</b>	<b>200</b>
12.1	SARRERA.....	200
12.2	BILAKAERA OROKORRA.....	200
12.3	SEKTORE EKONOMIKOAK.....	203
12.4	<b>SOLDATAPEKOEN ESTRATUAK.....</b>	<b>206</b>
<b>3.</b>	<b>LEHEN SEKTOREA.....</b>	<b>209</b>
1.	<b>IKUSPEGI OROKORRA.....</b>	<b>210</b>
1.1	BILAKAERA ESTATU-MAILAN.....	210
1.2	BILAKAERA EAE-N ETA NAFARROAN.....	212
2.	<b>NEKAZARITZAKO AZPISEKTOREA.....</b>	<b>220</b>
2.1	EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK.....	221
2.2	NEKAZARITZAKO PREZIOAK.....	225
3.	<b>ABELTZAINZAREN AZPISEKTOREA.....</b>	<b>227</b>
3.1	ABELTZAINZA-ERROLDA.....	227
3.2	ABERE-EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK.....	228
4.	<b>BASOGINTZAREN AZPISEKTOREA.....</b>	<b>237</b>
5.	<b>ARRANTZA-SEKTOREA.....</b>	<b>240</b>
5.1	IKUSPEGI OROKORRA.....	240
5.2	BAXURAKO ARRANTZA.....	242
5.3	ALTURAKO ARRANTZA.....	248
<b>4.</b>	<b>ZERBITZUAK.....</b>	<b>250</b>
1.	<b>IKUSPEGI OROKORRA.....</b>	<b>251</b>
2.	<b>HEZKUNTZA.....</b>	<b>252</b>
2.1	UNIBERTSITATEK KANPOKO IKASLEEN BILAKAERA.....	252
2.2	UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA.....	262
3.	<b>GARRAIOA.....</b>	<b>272</b>
3.1	TRENBIDE BIDEZKO GARRAIOA.....	272
3.2	ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA.....	276
3.3	ITSASO BIDEZKO GARRAIOA.....	282
3.4	AIRE BIDEZKO GARRAIOA.....	290
<b>5.</b>	<b>FINANTZA SEKTOREA.....</b>	<b>295</b>
1.	<b>IKUSPEGI OROKORRA.....</b>	<b>296</b>
2.	<b>KREDITU ERAKUNDEAK.....</b>	<b>302</b>
2.1	KREDITUAREN BILAKAERA.....	302
2.2	GORDAILUEN BILAKAERA.....	313
3.	<b>INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEAK.....</b>	<b>319</b>
4.	<b>BURTSA-MERKATUA.....</b>	<b>324</b>
4.1	IKUSPEGI OROKORRA.....	325
4.2	BILBOKO BURTSA.....	330

**Koadro aurkibidea**

1. koadroa	Barne Produktu Gordinaren bilakaera .....	13
2. koadroa	Gutzizko barne-eskariaren bilakaera.....	14
3. koadroa	Ondasun eta zerbitzuen truke-bolumenaren aldakuntzak.....	15
4. koadroa	Eragiketa arrunten saldoa (ondasunak, zerbitzuak eta transferentziak).....	15
5. koadroa	Kontsumo pribatuaren deflatorearen bilakaera .....	16
6. koadroa	Langileko ordainketaren bilakaera.....	16
7. koadroa	Enpleguaren bilakaera.....	17
8. koadroa	Langabezia-tasa .....	17
9. koadroa	Administrazio publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-ahalmena (+) edo -beharra (-), BPG nominalaren ehunekoaren arabera).....	18
10. koadroa	Adierazle nagusiak (EB-28).....	20
11. koadroa	Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundea (Europar Batasuna).....	21
12. koadroa	Europar Batasuneko per capita BPGa (2018).....	22
13. koadroa	Ekonomia-aurreikuspenak (industrializatutako herrialdeak).....	23
14. koadroa	Barne-produktu gordina eta bere osagaiak (eskaria eta eskaintza).....	26
15. koadroa	Barne produktu gordinaren banaketa (errenta).....	26
16. koadroa	Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPI).....	28
17. koadroa	Errenten eta soldata-kostuen adierazleak.....	29
18. koadroa	Lan-magnitude nagusien bilakaera. Urteko batezbestekoak .....	30
19. koadroa	Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu motaren arabera. Urteko batezbestekoak.....	31
20. koadroa	Defizit publikoa.....	31
21. koadroa	Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2019).....	33
22. koadroa	Bilakaera orokorra .....	34
23. koadroa	Jarduera-adierazle batzuen bilakaera .....	36
24. koadroa	Barne produktu gordinaren (BPG) bilakaera.....	37
25. koadroa	Industria Sektoreko Adierazleak .....	38
26. koadroa	Eraikuntzaren Sektoreko Adierazleak.....	39
27. koadroa	Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak.....	40
28. koadroa	Barne-eskariaren adierazleak.....	41
29. koadroa	Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak.....	42
30. koadroa	Kanpo-merkataritzaren bilakaera EAEn eta Nafarroan .....	43
31. koadroa	EAEko esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sekzioen arabera .....	44
32. koadroa	Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera.....	45
33. koadroa	Prezioen bilakaera EAEn eta Nafarroan.....	46
34. koadroa	Soldata-adierazleak .....	48
35. koadroa	Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia.....	50
36. koadroa	Langabezia-tasa adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak.....	51
37. koadroa	Enpleguaren bilakaera, sektore ekonomikoen arabera. Urteko batezbestekoak.....	52
38. koadroa	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren bulegoetan erregistratutako kontratuak.....	53
39. koadroa	Hitzarmen kolektiboak eta grebak.....	53
40. koadroa	Biztanleriaren mugimendu naturala. Jaiotza- eta heriotza-tasak, 2017.....	54
41. koadroa	Euskal Herriko biztanleriaren mugimenduaren bilakaera .....	55
42. koadroa	Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera.....	58
43. koadroa	Euskal Herriko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen jomuga ekonomikoen arabera .....	58
44. koadroa	EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera* .....	59
45. koadroa	Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera.....	59



46. koadroa	Ratio batzuen bilakaera, euskal industria-enpresen lagin baterako.....	60
47. koadroa	Emitzen kontua. Urte arteko bilakaera (enpresa berdinei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko).....	62
48. koadroa	2017ko EAEko balantze energetikoa.....	67
49. koadroa	EAEko kontsumoa energia moten arabera.....	67
50. koadroa	EAEko azken kontsumoa sektoreen arabera.....	69
51. koadroa	Energia elektrikoaren ekoizpena eta eskaria EAEn eta Nafarroan.....	71
52. koadroa	Energia elektrikoaren kontsumo garbia lurraldearen arabera.....	72
53. koadroa	Altzairu gordinaren ekoizpena.....	75
54. koadroa	Siderurgia-produktuen kontsumoa.....	77
55. koadroa	Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak*.....	77
56. koadroa	Inportatutako lehengaiak.....	79
57. koadroa	EAEko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritza.....	81
58. koadroa	Siderurgia-jarduerak EAEko industriari eginiko ekarpena.....	82
59. koadroa	Altzairuaren ageriko kontsumoa, produktuen arabera.....	82
60. koadroa	Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena.....	83
61. koadroa	Soldadurarik gabeko hodian kanpo-merkataritza.....	84
62. koadroa	Soldadurarik gabeko hodian esportazioak helmugako herrialdeen arabera.....	85
63. koadroa	Tubos Reunidos taldearen negozio-arloak eta enpresa-unitateak. 2018.....	88
64. koadroa	Munduko merkaritza-flota.....	89
65. koadroa	Munduko merkataritza-flota, jatorrizko herrialdearen arabera.....	90
66. koadroa	Munduko merkataritza-flota, itsasontzi motaren arabera.....	91
67. koadroa	Espainiako itsasontzien ekoizpena.....	92
68. koadroa	Eskaera-zorria urte-amaieran.....	92
69. koadroa	Eskaera-zorria itsasontzi motaren arabera, urte-amaieran (2018).....	93
70. koadroa	Ontzigintza EAEn.....	94
71. koadroa	Ontzigintza EAEn. Estatuko partaidetza. Tonaje konpentsatua.....	94
72. koadroa	Eskaera-zorria EAEn.....	96
73. koadroa	Eskaera-zorria, amaitutako ontziak eta hasitako ontziak enpresen arabera.....	96
74. koadroa	Ibilgailuen ekoizpena.....	100
75. koadroa	Europako turismoen matrikulazioa.....	102
76. koadroa	Espainiako automobil-industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpoko merkataritza.....	104
77. koadroa	Turismoen matrikulazioa, markaka.....	104
78. koadroa	Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak.....	105
79. koadroa	Automobilgintza-sektoreko esportazioak eta inportazioak (ibilgailuak gehi osagaiak).....	106
80. koadroa	Automobilgintzako ekipoen eta osagaien Espainiako industriaren zifra nagusiak.....	107
81. koadroa	Automobilgintzako euskal hornidura-sektorearen bilakaera.....	108
82. koadroa	Makina-erreminta eta fabrikazio -teknologiak sektorearen ekoizpena.....	111
83. koadroa	Makina-erreminta eta fabrikazio- teknologien esportazioa.....	112
84. koadroa	Espainiar estatuko makina-erreminta sektorearen aldagai nagusien eboluzioa.....	113
85. koadroa	Makina-erreminten esportazio espainiarrak, herrialdeen arabera*.....	115
86. koadroa	Makina-erreminten inportazio espainiarrak, herrialdeen arabera*.....	115
87. koadroa	Sektorearen magnitude nagusien eboluzioa.....	117
88. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak).....	118
89. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka.....	119
90. koadroa	Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera.....	120
91. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainia, guztira.....	121
92. koadroa	Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera.....	122
93. koadroa	Ekoizpena eta kontsumoa, ore motaren arabera.....	123
94. koadroa	Paperaren eta orearen ekoizpena EAEn eta Nafarroan.....	124
95. koadroa	EAEko eta Nafarroako paperaren sektoreko enpresa nagusiak.....	124

96. koadroa	Kautxu naturalaren eta sintetikoaren munduko kontsumoa.....	125
97. koadroa	Kautxua eraldatzeko sektorearen oinarritzko datuak <sup>(1)</sup> Espainian.....	126
98. koadroa	Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza azpisektore handien arabera.....	127
99. koadroa	Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza azpisektore handien arabera.....	127
100. koadroa	Pneumatiko eta birkautxutuaren ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza.....	128
101. koadroa	Ibilgailuen ekoizpena eta salmenta Espainian.....	129
102. koadroa	Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko enpresen bilakaera EAEn.....	132
103. koadroa	Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko ekoizpenaren bilakaera EAEn.....	133
104. koadroa	Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko esportazioen bilakaera EAEn.....	133
105. koadroa	Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko enpleguaren bilakaera EAEn.....	134
106. koadroa	Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera.....	135
107. koadroa	Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EAE).....	136
108. koadroa	Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa.....	136
109. koadroa	Lizitazio ofizialaren urtetik urterako aldakuntza eta administrazioen arteko banaketa (2018*).....	137
110. koadroa	Lizitazio ofiziala obra motaren arabera (2018).....	139
111. koadroa	Hasitako eta bukatutako etxebizitzak*.....	141
112. koadroa	Birgaitze babestuaren arloko lanak EAEn*.....	144
113. koadroa	Eraikuntzan lanean ari diren herritarrak.....	144
114. koadroa	Espainiako Bankuko Balantzeen Zentraleko enpresa laguntzaileen kopurua.....	157
115. koadroa	Ondare garbiaren errentagarritasuna EAeko eta Nafarroako industria-sektoreetan.....	158
116. koadroa	Aktibo garbiaren errentagarritasuna EAeko eta Nafarroako industria-sektoreetan.....	159
117. koadroa	Leverage finantzarioa EAeko eta Nafarroako industria-sektoreetan.....	160
118. koadroa	EAeko eta Nafarroako industria-sektoreen eta Estatu osokoen arteko alderaketa, 2017.....	161
119. koadroa	Funtsen iturrien eta erabileren egoera EAeko eta Nafarroako industria-sektoreetan.....	165
120. koadroa	EAeko eta Nafarroako industria-sektoreen eta Estatu osokoen arteko alderaketa, 2017.....	166
121. koadroa	Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko ratioen piramidea.....	170
122. koadroa	Paperaren industriaren sektoreko ratioen piramidea.....	171
123. koadroa	Industria kimikoaren sektoreko ratioen piramidea.....	172
124. koadroa	Kautxu eta plastikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	173
125. koadroa	Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	174
126. koadroa	Metalurgia sektoreko ratioen piramidea (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa).....	175
127. koadroa	Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea (makineria eta ekipoa izan ezik).....	176
128. koadroa	Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	177
129. koadroa	Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	178
130. koadroa	Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	179
131. koadroa	Ibilgailu motordunen, atoen eta erdi-atoien fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	180



132. koadroa	Beste garraio-material batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	181
133. koadroa	Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko ratioen piramidea.....	182
134. koadroa	Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko ratioen piramidea.....	183
135. koadroa	Industria osoaren ratioen piramidea.....	184
136. koadroa	Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	185
137. koadroa	Paperaren industriaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	186
138. koadroa	Industria kimikoaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	187
139. koadroa	Kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	188
140. koadroa	Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	189
141. koadroa	Metalurgia sektoreko (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa) iturrien eta erabileren egoera.....	190
142. koadroa	Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko (makineria eta ekipoa izan ezik) iturrien eta erabileren egoera.....	191
143. koadroa	Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	192
144. koadroa	Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	193
145. koadroa	Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	194
146. koadroa	Ibilgailu motordunen, atoen eta erdi-atoen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	195
147. koadroa	Beste garraio-material batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	196
148. koadroa	Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	197
149. koadroa	Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	198
150. koadroa	Industria-sektore osoko iturrien eta erabileren egoera.....	199
151. koadroa	Enpresak atal ekonomikoaren arabera. 2012-2018 konparazioa.....	205
152. koadroa	Enpresak soldatapekoen estratuen arabera. 2012-2018 konparazioa.....	208
153. koadroa	Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak.....	211
154. koadroa	EAEko nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak*.....	213
155. koadroa	Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. EAE eta Nafarroa.....	217
156. koadroa	Enplegua lehen sektorean*.....	218
157. koadroa	EAE eta Nafarroako nekazaritza-ekoizpen adierazgarrienak*.....	221
158. koadroa	EAE eta Nafarroako produktu esanguratsuenekin landatutako azalera*.....	223
159. koadroa	Nekazaritza-produktu esanguratsuenek lortutako errendimenduak*.....	224
160. koadroa	Nekazaritza-produktu esanguratsuenen prezioak <sup>(*)</sup> .....	226
161. koadroa	Abeltzaintza-errola (urte guztietako azaroaren 30ean).....	227
162. koadroa	Esne-ekoizpena.....	229
163. koadroa	EAEko ekoiztutako esnearen erabilera.....	230
164. koadroa	Esnea ekoizten duten eliteko behi-ustiategi batzuetan egindako lagin baten emaitza.....	231
165. koadroa	ABEREk eta INTIA-ITGk kudeatutako ardi-esne ustiategien batezbesteko emaitza ekonomikoak.....	232
166. koadroa	EAE eta Nafarroan hildako azidaren kanaleko pisua.....	233
167. koadroa	Abere eta INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden haragitarako behi- eta ardi-ustiategien emaitzak.....	235
168. koadroa	INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-azidaren ustiategien emaitzak.....	236
169. koadroa	EAEko egurra mozteko lizentziak.....	237





170. koadroa	EAEen egurra mozteko lizentziak.....	238
171. koadroa	EAEko ontzidiaren egitura.....	241
172. koadroa	EAEko baxurako ontzidia, portuen arabera(2018).....	242
173. koadroa	EAEko baxurako ontzidia, modalitatearen arabera (2018).....	243
174. koadroa	Baxurako ontzidiaren bidez lehorreratutako arrantza, guztira.....	244
175. koadroa	Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldien bilakaera.....	245
176. koadroa	Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantza osoa, portuen arabera (2018).....	247
177. koadroa	Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa, portuen arabera (2018).....	248
178. koadroa	EAEko alturako ontzidiaren egitura, 2018.....	249
179. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza.....	252
180. koadroa	Euskalduntze-maila Haur Hezkuntza.....	253
181. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Lehen Hezkuntza.....	255
182. koadroa	Euskalduntze-maila. Lehen Hezkuntza.....	256
183. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. DBH.....	257
184. koadroa	Euskalduntze-maila. DBH.....	257
185. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa.....	259
186. koadroa	Euskalduntze-maila. Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa.....	260
187. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Batxilergoa.....	261
188. koadroa	Euskalduntze-maila. Batxilergoa.....	262
189. koadroa	Ikasle eta irakasleen bilakaera EAE eta Nafarroako unibertsitateetan.....	264
190. koadroa	Ikasleen banaketa UPV/EHU <sup>(1)</sup> .....	265
191. koadroa	Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean.....	267
192. koadroa	Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan.....	268
193. koadroa	Ikasleen banaketa Deustuko Unibertsitatean.....	269
194. koadroa	Ikasleen banaketa Mondragon Unibertsitatean.....	270
195. koadroa	Bidaiarien mugimendua*.....	272
196. koadroa	Bidaiarien mugimendua konpainien arabera.....	272
197. koadroa	Bidaiarien garraioagatiko diru-bilketa.....	273
198. koadroa	EAEen eta Nafarroan jatorria eta/edo helmuga duten merkantzien bolumena <sup>(*)</sup> .....	273
199. koadroa	Trenbide bidezko garraioan enplegatutako langileak.....	274
200. koadroa	Bidaiarien mugimendua Bilboko Metroan.....	275
201. koadroa	Ibilgailuen parkea*.....	276
202. koadroa	Kamioi, traktore industrial eta autobusen matrikulazio garbia*.....	278
203. koadroa	Motorizazio-indizeak.....	278
204. koadroa	Garraiatutako merkantziak autonomia-erkidegoaren arabera. Eskualde barruko garraioa eta eskualde arteko garraioa jatorri eta/edo helmugako autonomia-erkidegoaren arabera.....	279
205. koadroa	Hiri-garraioa. Sektoreko oinarrizko datuak.....	280
206. koadroa	Hiri-garraioaren bilakaera.....	281
207. koadroa	Itsaso bidezko munduko merkataritza.....	282
208. koadroa	Espainiako itsas merkataritza.....	282
209. koadroa	EAEko portu nagusietako trafikoa.....	283
210. koadroa	Merkantzien guztizko trafikoaren osaera.....	284
211. koadroa	Kanpoko trafikoa eta kabotajea.....	284
212. koadroa	Bilboko Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2018.....	285
213. koadroa	Pasaiaiko Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2018.....	285
214. koadroa	Bilboko Portua. Herrialdeen arabeko trafikoa, 2018.....	286
215. koadroa	Bilboko Portua. Magnitude ekonomikoak.....	287
216. koadroa	Pasaiaiko Portua. Herrialdeen arabeko trafikoa, 2018.....	290
217. koadroa	EAE eta Nafarroako aire bidezko trafikoa*.....	291
218. koadroa	Aireportukako aireontzien trafikoa*.....	291



219. koadroa	Aireportukako merkantzien trafikoa*	292
220. koadroa	Aireportukako bidaiarien trafikoa*	293
221. koadroa	Aireportuko trafikoaren hazkundea (2018/2017)*	293
222. koadroa	Kreditu-erakundeak eta EFC	299
223. koadroa	Gordailu-erakundeak. Bulego kopurua	300
224. koadroa	Afiliazioa jarduera finantzarioetan eta aseguruetaoetan	300
225. koadroa	Kreditu-erakundeen aktiboaren osaera	302
226. koadroa	Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera	303
227. koadroa	Kreditu-erakundeak. Kredituak motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk	304
228. koadroa	Gordailu-erakundeak. Kreditua jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk	305
229. koadroa	Gordailu-erakundeak. Agenteen eta lurraldearen arabera	307
230. koadroa	Etxebizitzaren gaineko hipoteka berrien eraketa	308
231. koadroa	Aldaketa notarialak erregistratu dituzten etxebizitzaren gaineko hipotekak	309
232. koadroa	Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera. Turismoak	310
233. koadroa	Gordailu-erakundeak. Zalantzasaren edo berankortasunaren gutzitako tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk	311
234. koadroa	Gordailu-erakundeak. Zalantzasaren edo berankortasun-tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk	312
235. koadroa	Gordailu-erakundeak. Zalantzasaren edo berankortasun-tasaren bilakaera, helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk	313
236. koadroa	Kreditu-erakundeak. Kreditu-erakundeetako gordailuak, agenteen arabera	314
237. koadroa	Kreditu-erakundeak. Gordailuak moten arabera. Beste sektore egoiliar batzuk	314
238. koadroa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta Administrazio Publikoen gordailuak	316
239. koadroa	Errenta gordin erabilgarria, balio erantsi gordina eta aurrezki gordina	317
240. koadroa	Kreditu-erakundeak. Etxeetarako <sup>(2)</sup> eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berriei aplikatutako interes-tasak (TEDR)	318
241. koadroa	Finantza arloko Inbertsio Kolektiboko Erakundeen ondarea eta kopurua	319
242. koadroa	Higigarrietako inbertsio-sozietateen eta -funtzen ondare-banaketa, balio eraginkorraren arabera	321
243. koadroa	Higigarrietako Inbertsio Funtzen (HIF), partaideen eta ondarearen banaketa, zorroaren osaeraren arabera (abendua 31)	322
244. koadroa	Burtsa-indize nagusien bilakaera	325
245. koadroa	Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Inbertsio-funtsetako partizipazioak eta akzioak. Jaulkipen garbiak eta salmenta-eskaintza publikoak	326
246. koadroa	Burtsa-merkatua. Negoziatutako bolumenen balio efektiboa	328
247. koadroa	Errenta finko publikoaren bigarren mailako merkatuan negoziatutako bolumenak: Estatuaren zorra <sup>(1)</sup>	329
248. koadroa	Geroko eta Aukera Finantzarioen Espainiako Merkatua (MEFF)*	330
249. koadroa	Bilboko Burtsaren Indize Orokorra (2000 indizea). Azken balioa, maximoa eta minimoa	331
250. koadroa	Bilboko Burtsako kontratazio-bolumena. Balio efektiboak*	331

**Grafiko aurkibidea**

1. grafikoa	Interes-tasen aldakuntza.....	19
2. grafikoa	Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala.....	32
3. grafikoa	BPGaren bilakaera.....	35
4. grafikoa	Industria-errentagarritasuna.....	60
5. grafikoa	EAEko azken kontsumoa energia moten arabera (ktep).....	68
6. grafikoa	Altzairuaren mundu-mailako ekoizpena.....	76
7. grafikoa	Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak.....	78
8. grafikoa	EAE eta Nafarroako siderurgia-establezimendu nagusien kokapena.....	80
9. grafikoa	2018ko zenbatekoen banaketa, merkatuaren arabera.....	86
10. grafikoa	Ontzigtzako eskaera-zorroaren eta ekoizpen haztatuaren bilakaera (mCGT).....	95
11. grafikoa	Sektoreko fakturazioaren bilakaera.....	108
12. grafikoa	Makina-erremintaren sektoreko merkataritza-balantza.....	114
10. grafikoa	Paperaren sektorearen aldagai nagusien bilakaera Espainian.....	121
11. grafikoa	Lizitazio ofiziala.....	140
12. grafikoa	Bukatutako etxebizitza kopurua.....	143
14. grafikoa	Eraikuntzan lanean ari diren herritarrak.....	145
17. grafikoa	Ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna eta bere osagaiak (aktibo garbiaren errentagarritasuna eta leverage finantzarioa) EAEko eta Nafarroako industria-sektoreetan, 2017.....	163
18. grafikoa	EAEko eta Nafarroako industria-sektoreetako ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1), Estatukoarekin alderatuta, 2017.....	164
19. grafikoa	Funtsen iturrien eta erabileren egoera EAEko eta Nafarroako industria-sektoreetan, 2017.....	168
20. grafikoa	Inbertsio-diruzaintzaren (TINV) fluxuaren alderaketa EAEko eta Nafarroako industria-sektoreen eta Estatu osokoen artean, 2017.....	169
21. grafikoa	Enpresa-kopuruaren bilakaera.....	201
22. grafikoa	Enpresa kopuruaren urte arteko aldakuntza.....	202
23. grafikoa	Estatuko guztizkoarekiko pisuaren bilakaera (Estatua=100).....	203
24. grafikoa	Enpresen bilakaera, sektore ekonomikoaren arabera (indizea 2012=100).....	204
25. grafikoa	Enpresen bilakaera, soldatapekoen tarteen arabera (indizea 2012=100).....	207
26. grafikoa	Balio erantsi gordinaren bilakaera nekazaritza-sektoreko faktoreen kostura.....	215
27. grafikoa	Enpleguaren bilakaera lehen sektorean*.....	219
28. grafikoa	EAE eta Nafarroako abere-ekoizpena, espezieen araberako eboluzioa.....	234
29. grafikoa	Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldiak.....	246
30. grafikoa	Ikasleen matrikulazioaren bilakaera EAE eta Nafarroan.....	258
31. grafikoa	Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Bilboko Portuan.....	288
32. grafikoa	Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Pasaiaiko Portuan.....	289
33. grafikoa	Kanbio-tasa: Euroa versus dolarra*.....	297
34. grafikoa	Ibex-35aren bilakaera. Hileko itxiera-balioaren gaineko urtetik urterako aldakuntza-tasa.....	298
35. grafikoa	Kreditu-erakundeak. Kreditua jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	305
36. grafikoa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituaren bilakaera.....	306
37. grafikoa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuen bilakaera.....	315
38. grafikoa	Birfinantzaketa interes-tasaren bilakaera. Europako Banku Zentrala.....	317
39. grafikoa	Kotizazio Indize Orokorra. Bilboko Burtsa (2018).....	330



# 1. ESPARRU OROKORRA

# 1. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA)

## 1.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA

### Ezaugarri nagusiak: ekoizpen-jarduera

2017 ekitaldian, munduko ekonomia indartu bazen ere, 2018 ekitaldian ahultze joera bat nabari da, bere hazkunde-erritmoa geldotu egin baita (% 3,6, eta aurreko ekitaldian % 3,8). Hauek izan dira horretarako arrazoiak: AEB eta Txinaren arteko tentsio komertzialak areagotu izana, Argentina eta Turkiako tentsio makroekonomikoak, Alemaniako automobilgintza-industriaren arazoak, Txinan kreditua gogortzea, eta baldintza finantzarioen beherakada, diru-politikaren normalizazioarekin bat, ekonomia aurreratu handietan.

Merkataritza-guduaren agertoki horretan, mundu-mailako merkataritzaren bolumena nabarmenki oztopatu da; hala, hazkundea moteldu da bai ekonomia aurreratuei (% 2,2 2018an eta % 2,4 2017an) bai suspertzen ari diren merkatuei eta garatzen ari direnei (% 4,5 2018an eta % 4,8 aurreko ekitaldian) dagokienez.

Horiek horrela, ELGak maiatzean eginiko aurreikuspenekin bat etorritz, industrializatutako herrialdeek ehuneko hiru dezima murriztu dute beren hazkunde-erritmoa: 2018an % 2,3 eta 2017an % 2,6.

### 1. koadroa Barne Produktu Gordinaren bilakaera

Herraldea	2016	2017	2018
Estatu Batuak	1,6	2,2	2,9
Japonia	0,6	1,9	0,8
Alemania	2,2	2,5	1,5
Frantzia	1,1	2,3	1,6
Italia	1,2	1,8	0,7
Erresuma Batua	1,8	1,8	1,4
Kanada	1,1	3,0	1,8
<b>Eurogunea</b>	<b>1,9</b>	<b>2,5</b>	<b>1,8</b>
<b>ELGA guztira</b>	<b>1,8</b>	<b>2,6</b>	<b>2,3</b>

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2019ko maiatza).

Lehenik eta behin, ekonomia estatubatuarrari eskainiko diogu arreta. Bloke ekonomiko gehienetan ikusitakoaren aldean, horrek bere hazkundea areagotu du (% 2,9, eta aurreko ekitaldian % 2,2), batez ere barne-eskariaren hedapena indartzearen eraginez (2018an % 3ko aurrerapena eta 2017an % 2,5ekoa).

Bestalde, suspertzen eta garatzen ari diren merkatu-ekonomien testuinguruan, Brasilek aurreko ekitaldiko ahuleziari eutsi dio (% 1,1eko hazkundera 2017an nahiz 2018an); Errusiak, bere aldetik, hazkundera indartu du (% 2,3 2018an eta % 1,6 aurreko ekitaldian); eta Txinak eta Indiak 2017an baino dinamismo txikiagoa izan dute, baina oraindik ere % 7 inguruko aurrerapen-erritmoekin.

**2. koadroa      Guztizko barne-eskariaren bilakaera**

Herraldea	(% Δ)		
	2016	2017	2018
Estatu Batuak	1,8	2,5	3,0
Japonia	0,0	1,4	0,8
Alemania	2,9	2,2	1,9
Frantzia	1,6	2,2	0,9
Italia	1,6	1,4	0,9
Erresuma Batua	2,4	1,4	1,6
Kanada	0,7	3,9	1,7
<b>Eurogunea</b>	<b>2,4</b>	<b>1,8</b>	<b>1,8</b>
<b>ELGA guztira</b>	<b>2,0</b>	<b>2,5</b>	<b>2,2</b>

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2019ko maiatza).*

Europar, Eurogunearen hazkundera moteldu egin da (% 1,8 2018an eta % 2,5 aurreko ekitaldian), batez ere Alemaniako ekonomia ahultzearen ondorioz eta, neurri txikiagoan, Brexitak piztutako ziurgabetasunagatik.

**Kanpo-merkataritza**

Esparru horretan, ELGAko herrialdeen merkataritza-trukeek aurreko ekitaldian baino dinamismo txikiagoa izan dute, eta hala esportazioek (% 3,4ko aurrerapena 2018an eta % 4,5koa 2017an) nola inportazioek (% 3,2ko hazkundera 2018an eta % 4,6koa aurreko ekitaldian) indarra galdu dute. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da, Estatu Batuak eta Kanada salbu, aintzat hartutako herrialde guztietako esportazioek bultzada galdu dutela. Era berean, inportazioek izandako geldialdia herrialde guztietan hauteman da.

## 3. koadroa Ondasun eta zerbitzuen truke-bolumenaren aldakuntzak

(% $\Delta$ )

Herrialdea	Inportazioak			Esportazioak		
	2016	2017	2018	2016	2017	2018
Estatu Batuak	1,9	4,6	4,5	-0,1	3,0	4,0
Japonia	-1,6	3,4	3,3	1,7	6,8	3,1
Alemania	4,0	5,3	3,4	2,1	5,3	2,2
Frantzia	3,1	4,1	1,2	1,5	4,7	3,3
Italia	3,8	5,8	1,8	2,3	6,4	1,4
Erresuma Batua	3,3	3,5	0,7	1,0	5,6	0,1
Kanada	0,0	4,2	2,9	1,3	1,1	3,3
<b>ELGA guztira</b>	<b>3,1</b>	<b>4,6</b>	<b>3,2</b>	<b>2,4</b>	<b>4,5</b>	<b>3,4</b>

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2019ko maiatza).

Horiek horrela, industrializatutako herrialde multzoaren eragiketa arrunten balantzeak (ondasun eta zerbitzuen merkataritza-jardueraren eta transferentzia arrunten bilakaerak markatuta) saldo positiboa gutxitu du 146,6 mila milioi dolarrera arte 2018an (202 mila milioi dolar aurreko ekitaldian). Horren arrazoi nagusiak, batez ere, Estatu Batuetako defizit-saldoa okertzea (-488,5 mila milioi dolar 2018an eta -449,1 mila milioi dolar 2017an) eta Japoniako superabit-saldoa (175,6 mila milioi dolar 2018an eta 204,4 aurreko ekitaldian) eta Eurogunekoa (486,1 mila milioi dolar 2018an eta 493,1 aurreko ekitaldian) murriztea izan dira.

## 4. koadroa Eragiketa arrunten saldoa (ondasunak, zerbitzuak eta transferentziak)

(mM\$)

Herrialdea	2016	2017	2018
Estatu Batuak	-432,9	-449,1	-488,5
Japonia	193,6	204,4	175,6
Alemania	292,0	297,7	297,7
Frantzia	-18,6	-14,4	-8,4
Italia	47,5	54,3	53,5
Erresuma Batua	-139,7	-88,1	-108,5
Kanada	-49,0	-46,5	-45,4
<b>Eurogunea</b>	<b>406,3</b>	<b>493,1</b>	<b>486,1</b>
<b>ELGA guztira</b>	<b>113,4</b>	<b>202,0</b>	<b>146,6</b>

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2019ko maiatza).

## Prezioak eta soldatak

2018an, petrolioia garestitu egin da (Brent upelaren prezioa 2017an upel bakoitzeko 54,3 dolarrekoa izatetik, azken ekitaldian, upeleko 70,9 dolarrekoa izatera igaro da). Horren ondorioz, kontsumo pribatuaren deflatorearen hazkunde-erritmoa, oro har, areagotu egin da aintzat hartutako herrialde guztietan.

Hala, ELGAren arabera, kontsumo pribatuaren deflatoreak hazkunde-erritmoa % 2ra arte indartu du Estatu Batuetan 2018an, eta % 1,5era arte Eurogunean (% 1,8 eta % 1,4 2017an, hurrenez hurren); eta industrializatutako herrialdeen multzoan, % 2,3ra igo da (% 2 aurreko ekitaldian).

**5. koadroa      Kontsumo pribatuaren deflatorearen bilakaera**

Herrialdea	(% Δ)		
	2016	2017	2018
Estatu Batuak	1,1	1,8	2,0
Japonia	-0,5	0,2	0,5
Alemania	0,7	1,6	1,6
Frantzia	-0,1	1,3	1,7
Italia	0,2	1,1	1,1
Erresuma Batua	1,5	2,1	2,3
Kanada	1,0	1,2	1,7
<b>Eurogunea</b>	<b>0,4</b>	<b>1,4</b>	<b>1,5</b>
<b>ELGA guztira</b>	<b>1,1</b>	<b>2,0</b>	<b>2,3</b>

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2019ko maiatza).*

Testuinguru horretan, Estatu Batuetako Erreserba Federaleko eta Europako Banku Zentraleko diru-politikak ez dira bat etorri: Erreserba Federalak erreferentzia-tasa ehuneko-puntu laurden batean lau aldiz areagotu den bitartean (martxoan, ekaina, iraila eta abendua), 2018 ekitaldiaren amaieran % 2,5ean finkatuz, Europako Banku Zentralak aldakuntzarik gabe mantendu du % 0an ekitaldi osoan.

Soldatei dagokienez, 2018an, langileko ordainketa indartu egin da Japonian, Alemanian, Frantzian, Italian eta Kanadan (% 1, % 3, % 1,8, % 1,9 eta % 3,4 2018an, eta % 0,4, % 2,6, % 1,7, % 0,2 eta % 2,3 2017an, hurrenez hurren); Estatu Batuetan (% 2,6 2018an eta % 2,9 aurreko ekitaldian) eta Erresuma Batuan (% 2,7 2018an eta % 3,1 aurreko ekitaldian), berriz, behera egin du.

**6. koadroa      Langileko ordainketaren bilakaera**

Herrialdea	(% Δ)		
	2016	2017	2018
Estatu Batuak	0,9	2,9	2,6
Japonia	1,1	0,4	1,0
Alemania	2,2	2,6	3,0
Frantzia	0,8	1,7	1,8
Italia	0,6	0,2	1,9
Erresuma Batua	2,8	3,1	2,7
Kanada	-0,8	2,3	3,4
<b>Eurogunea</b>	<b>1,3</b>	<b>1,7</b>	<b>2,4</b>

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2019ko maiatza).*



## Lan-merkatua

2018an jarduera ekonomikoa erlatiboki mantentzeak okupazioa aintzat hartutako herrialde guztietan oro har haztea ahalbidetu du, baina aurreko ekitaldian baino eritimo motelagoan kasu gehienetan. Era berean, langabezia-tasa, oro har, murriztu egin da.

Okupazioari dagokionez, 2018an dinamismo handiena erregistratu duen herrialdea Japonia izan da (% 2); eta, ondoren, Estatu Batuak (% 1,6) eta Kanada eta Eurogunea (% 1,3 bi kasuetan). Nolanahi ere, aintzat hartu behar da aurreratu dugun bezala, enpleguak indarra galdu duela aztertutako herrialde gehienetan, 2017 ekitaldiarekin alderatuta.

### 7. koadroa Enpleguaren bilakaera

(% Δ)

Herialdea	2016	2017	2018
Estatu Batuak	1,7	1,3	1,6
Japonia	1,0	1,0	2,0
Alemania	2,5	1,1	0,5
Frantzia	0,6	1,1	0,9
Italia	1,3	1,2	0,9
Erresuma Batua	1,5	1,0	1,2
Kanada	0,7	1,9	1,3
<b>Eurogunea</b>	<b>1,7</b>	<b>1,5</b>	<b>1,3</b>

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2019ko maiatza).

Bestalde, langabezia-tasak orokorrean beheranzko bilakaera izan du 2018an: Eurogunean nabarmen handiagoa izan da (% 8,2) Kanadarekin (% 5,8), Estatu Batuekin (% 3,9) eta industrializatutako herrialdeen multzo osoarekin (% 5,3) alderatuta.

### 8. koadroa Langabezia-tasa

(biztanleria aktiboaren %)

Herialdea	2016	2017	2018
Estatu Batuak	4,9	4,4	3,9
Japonia	3,1	2,8	2,4
Alemania	4,2	3,8	3,4
Frantzia	10,1	9,4	9,1
Italia	11,7	11,3	10,6
Erresuma Batua	4,9	4,4	4,1
Kanada	7,0	6,3	5,8
<b>Eurogunea</b>	<b>10,0</b>	<b>9,1</b>	<b>8,2</b>
<b>ELGA guztira</b>	<b>6,3</b>	<b>5,8</b>	<b>5,3</b>

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2019ko maiatza).

### Diru- eta aurrekontu-politika

2018an, gure inguruko herrialde gehienek egungo gehiegizko defizit-mailak murriztera bideratutako neurriak aplikatzen jarraitu dute, hala, beren kontu publikoen desorekak murriztuz, Estatu Batuak, Kanadak eta industrializatutako herrialdeen multzoak izan ezik, zeinek areagotu egin baitituzte.

Europa-mailan, Frantziak, Italiak eta Erresuma Batuak beren defizitak baretu dituzte  $-\% 2,5$ era,  $-\% 2,1$ era eta  $-\% 1,6$ ra, hurrenez hurren (aurreko ekitaldian,  $-\% 2,8$ ,  $-\% 2,4$  eta  $-\% 1,8$ , hurrenez hurren); Alemaniak, bere aldetik, superabita handitu du  $\% 1,7$ ra arte ( $\% 1$  2017an); eta Eurogunearen multzoaren defizita  $-\% 0,5$ ekoa izan da ( $-\% 1$  aurreko ekitaldian).

Nazioarte-mailan, Japoniak ere defizita murriztu du 2018an ( $-\% 2,5$ , eta  $-\% 3$  2017an); Estatu Batuetan, berriz, nabarmen areagotu da ( $-\% 6,6$ , eta  $-\% 4,3$  aurreko ekitaldian), eta Kanadan modu arinean egin du gora ( $-\% 0,4$ , eta  $-\% 0,3$  aurreko ekitaldian).

Horiek horrela, 2018an, ELGA osotasunean hartuta finantzaketa-beharrak zabaldu egin dira bere BPGaren  $-\% 2,8$ ra arte; hala, ehuneko sei dezimatan okertu da 2017an eskuratutako emaitza ( $-\% 2,2$ ).

#### 9. koadroa Administrazio publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-ahalmena (+) edo -beharra (-), BPG nominalaren ehunekoaren arabera)


Herraldea	2016	2017	2018
Estatu Batuak	-5,4	-4,3	-6,6
Japonia	-3,5	-3,0	-2,5
Alemania	0,9	1,0	1,7
Frantzia	-3,6	-2,8	-2,5
Italia	-2,5	-2,4	-2,1
Erresuma Batua	-2,9	-1,8	-1,6
Kanada	-0,4	-0,3	-0,4
<b>Eurogunea</b>	<b>-1,6</b>	<b>-1,0</b>	<b>-0,5</b>
<b>ELGA guztira</b>	<b>-3,0</b>	<b>-2,2</b>	<b>-2,8</b>

(BPGaren %)

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2019ko maiatza).

Diru-politikari dagokionez, lehen ere aipatu dugun moduan, Estatu Batuetako Erreserba Federalak etengabe handitu du erreferentzia-tasa  $\% 2,5$ era arte 2018an, eta Europako Banku Zentralak (EBZ) aldakuntzarik gabe mantendu du,  $\% 0$ an.

1. grafikoa Interes-tasen aldakuntza



Iturria: ELGA, Ekonomia-aurreikuspenak (2019ko maiatza).

## Europar Batasuna

Europar arreta jarri baino lehen, komeni da aipatzea horren azterketan EB-28 multzorako informazioa eskaintzen dela, Brexita alde batera utzita; izan ere, lan honen datan, Erresuma Batua Europar Batasunetik benetan irteteko prozesua oraindik ere negoziazio-fasean dago.

Europar Batasuneko udaberriko aurreikuspenetan arreta jarritz, 2018an EB-28k hazkunde-erritmoa moteldu du % 2ra arte (% 2,5 aurreko ekitaldian). Era berean, barne-eskariak ehuneko dezima batean indartu du dinamismoa (2018an % 2ko zabalkuntza eta 2017an % 1,9koa), eta esportazioek nahiz inportazioek beren aurrerapen-erritmoa murriztu dute (% 3 eta % 3,2 2018an eta % 5,4 eta % 4,3 aurreko ekitaldian, hurrenez hurren).

Arreta barne-eskarian jartzen badugu, kontsumo pribatuak aurreko ekitaldian baino indar gutxiago islatu du (% 1,6ko hazkundera 2018an, eta % 2koa 2017an), eta kontsumo publikoak nahiz inbertsioak aurrerapen-eritmo pixka bat handiagoa izan dute (% 1,1 eta % 3,2 2018an, eta % 1 eta % 3,1 2017an, hurrenez hurren).

10. koadroa Adierazle nagusiak (EB-28)

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2016	2017	2018
<b>Jarduera</b>			
– Kontsumo pribatua	2,4	2,0	1,6
– Kontsumo publikoa	1,7	1,0	1,1
– Kapital Finkoaren Eraketa Gordina	3,1	3,1	3,2
– Barne-eskaria	2,4	1,9	2,0
– Esportazioak	3,2	5,4	3,0
– Inportazioak	4,3	4,3	3,2
– BPG	2,0	2,5	2,0
<b>Prezioak eta soldatak</b>			
– BPGaren deflatorea	1,1	1,4	1,6
– Kontsumo pribatuaren deflatorea	0,6	1,6	1,7
– Banakako lan-kostu errealak	-0,1	-0,2	0,6

Iturria: *European Economy. Europako Batzordea (2019ko udaberria).*

Herrialde kideen bilakaerak aztertzen baditugu, 2018an hazkunde orokorra izan dela esan daiteke. Hala, bultzada handiena Irlanda, Malta, Polonia, Hungaria, Letonia, Eslovenia, Errumania eta Eslovakiari dagokie, % 4tik gorako zabalkuntza izan baitute guztiek (% 6,7, % 6,6, % 5,1, % 4,9, % 4,8, % 4,5 eta % 4,1 azken bi kasuetan, hurrenez hurren). Aitzitik, dinamismo txikiena izan dutenak hauek izan dira: Grezia (% 1,9), Frantzia (% 1,6), Alemania, Danimarka, Erresuma Batua eta Belgika (% 1,4 lau kasuetan) eta Italia. Zentzu horretan, aintzat hartu behar da Alemaniak, Batasuneko eragile ekonomiko nagusiak, aurrerapen-erritmoa ahuldu duela ehuneko zortzi dezimatan, aurreko ekitaldiarekin alderatuta (% 1,4 2018an eta % 2,2 2017an).

11. koadroa Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundea  
(Europar Batasuna)

*(Urte arteko aldakuntzaren %)*

Herraldea	2016	2017	2018
Irlanda	5,0	7,2	6,7
Malta	5,7	6,7	6,6
Polonia	3,1	4,8	5,1
Hungaria	2,3	4,1	4,9
Letonia	2,1	4,6	4,8
Eslovenia	3,1	4,9	4,5
Errumania	4,8	7,0	4,1
Eslovakia	3,1	3,2	4,1
Estonia	3,5	4,9	3,9
Txipre	4,8	4,5	3,9
Lituania	2,4	4,1	3,4
Bulgaria	3,9	3,8	3,1
Txekiar Errepublika	2,5	4,4	2,9
Herbehereak	2,2	2,9	2,7
Austria	2,0	2,6	2,7
Espainia	3,2	3,0	2,6
Kroazia	3,5	2,9	2,6
Luxenburgo	2,4	1,5	2,6
Finlandia	2,8	2,7	2,3
Suedia	2,7	2,1	2,3
Portugal	1,9	2,8	2,1
<b>EB-28</b>	<b>2,0</b>	<b>2,5</b>	<b>2,0</b>
Grezia	-0,2	1,5	1,9
Frantzia	1,2	2,2	1,6
Alemania	2,2	2,2	1,4
Danimarka	2,4	2,3	1,4
Erresuma Batua	1,8	1,8	1,4
Belgika	1,5	1,7	1,4
Italia	1,1	1,7	0,9

*Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2019ko udaberria).*

Per capita BPGa landuz gero, erosketa-ahalmenaren parekotasunari dagokionez, nabarmendu behar da 2018an oraindik ere alde handiak daudela Batasuneko kideen artean. Hala, lehengo kideen artean, Greziak (% 62,8), Portugalek (% 71,6), Espainiak (% 85,8), Italiak (% 89), Frantziak (% 96,3) eta Erresuma Batuak (% 97,3) dituzte maila baxuenak, EB-15eko batez bestekoa (% 100) baino apalagoak. Maila altuena, berriz, Luxenburgok erregistratu du, batez bestekoa bikoiztu eta gehiago egiten duena (% 232,6). EB-28 osoa kontuan hartuta, pixkanaka bazkide berriak sartzearen ondorioz, Europako batez besteko per capita BPGa nabarmen murrizten da.

12. koadroa Europar Batasuneko per capita BPGa (2018)

Herrialdea	EB-15=100	EB-28=100
Luxenburgo	232,6	249,6
Irlanda	174,2	186,9
Herbehereak	119,4	128,1
Austria	118,4	127,0
Danimarka	117,9	126,5
Alemania	114,3	122,6
Suedia	111,8	120,0
Belgika	107,4	115,2
Finlandia	101,8	109,2
<b>EB-15 guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>107,3</b>
Erresuma Batua	97,3	104,4
Frantzia	96,3	103,3
<b>EB-28 guztira</b>	<b>93,2</b>	<b>100,0</b>
Malta	92,4	99,1
Italia	89,0	95,5
Espainia	85,8	92,1
Txekiar Errepublika	83,8	89,9
Eslovenia	81,0	86,9
Txipre	79,8	85,6
Lituania	74,7	80,2
Estonia	74,6	80,0
Eslovakia	72,4	77,7
Portugal	71,6	76,8
Polonia	66,9	71,8
Hungaria	65,1	69,8
Letonia	64,4	69,1
Grezia	62,8	67,4
Errumania	59,7	64,1
Kroazia	58,3	62,6
Bulgaria	46,6	50,0

Iturria: *European Economy. Europako Batzordea (2019ko udaberria).*

### Aurreikuspenak

Mundu-mailan ziurgabetasuna areagotu egin dela ikusita, nazioarteko erakunde nagusiek munduko ekonomiaren hozte berri bat proiektatzen dute 2019rako, ekonomia aurreratuek nahiz supertzen eta garatzen ari diren merkatuen ekonomiek indarra galduko dutelarik; hala ere, azken horiek dinamikoenak izaten jarraituko dute. Zentzu horretan, Nazioarteko Diru Funtsaren arabera, munduko ekonomiak hazkunde-erritmoa motelduko du % 3,3ra arte 2019an.

Zehazki, ekonomia aurreratuen multzoa % 2ko atariaren azpitik haztera igaroko da hala 2018an nola 2019an (% 1,8 eta % 1,7, hurrenez hurren); eta gure ingurune hurbilari dagokionez, Euroguneak % 1,5etik beherako zifrak lortuko ditu bi ekitaldian.

Agertoki hori mehatxatzen duten arriskuen artean, hauek nabarmendu behar dira: merkataritza-esparruko tregoa prekariora dela, eta oraindik ere ziurgabetasun handia dagoela Brexitaren eta haren inplikazioen inguruan.

Horri dagokionez, beharrezkoa da lankidetzaren aldean indartzea merkataritza-gatazka ebazteko, klima-aldaketaren eta zibersegurtasunaren inguruko arriskuen aurka borrokatzea, baita nazioarteko zerga-ordainketaren eraginkortasuna hobetzea ere.

### 13. koadroa Ekonomia-aurreikuspenak (industrializatutako herrialdeak)

Kontzeptua	2019	2020
(%)		
– BPG erreala (% Δ)		
• Estatu Batuak	2,8	2,3
• Japonia	0,7	0,6
• Eurogunea	1,2	1,4
• ELGA guztira	1,8	1,8
– Inflazioa (kontsumo pribatuaren deflatorea) (% Δ)		
• Estatu Batuak	1,4	2,1
• Japonia	0,6	1,2
• Eurogunea	1,3	1,5
• ELGA guztira	2,0	2,3
– Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)		
• Estatu Batuak	3,7	3,6
• Japonia	2,4	2,4
• Eurogunea	7,9	7,7
• ELGA guztira	5,3	5,2
– Defizit publikoa (BPGaren %)		
• Estatu Batuak	-6,6	-6,7
• Japonia	-2,5	-2,0
• Eurogunea	-0,9	-0,8
• ELGA guztira	-3,0	-2,9
– Munduko merkataritza (% Δ)	2,1	3,1

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2019ko maiatza).

## 1.2 ESPAINIAKO EKONOMIA

### Ezaugarri nagusiak

2018an, Espainiako ekonomiak aurrerapen-erritmoa baretu du % 2,6ra arte; hala, jarraitutasuna eman dio 2016an hasitako hazkundearen moderazio-bideari (% 3,6ko hedapena 2015ean, % 3,2koa 2016an eta % 3koa 2017an).

Hori horrela, Espainiako ekonomiak, Europar Batasunarekin alderatuta, dinamismo handiagoa lortu izanaren ondorioz, pixka bat aurrera egin du Erkidegoko ekonomia nagusiekiko benetako konbergentzia-prozesuan.

Eskariari arreta eskainiz, 2018an BPGa areagotzearen arrazoietakoa bat barne-eskariak mundu-mailako hazkundeari ehuneko 2,9 puntuko (aurreko ekitaldiko zifra berbera) ekarpen positiboa egin izana da, eta hori zati batean konpentsatuta geratu da kanpoko sektorearen ehuneko hiru dezimako ekarpen negatiboarekin (ehuneko dezima positibo bat 2017an).

Lan-merkatuari erreparatuz gero, 2018an biztanle okupatuaren kopuruak % 2,7 egin du gora (% 2,6 2017an); enplegua oro har hedatu egin da, lehen sektorearen salbuespen bakarrekin. Bestetik, biztanle langabeen kopurua -% 11,2 uzkuritu da (-% 12,6 2017an), orotara, 2018an 3.479.100 langabe egonik, zeinak % 15,3ko langabezia-tasa suposatzen duen.

Prezioak aztertzen baditugu, KPlaren urte arteko aldakuntza 2018 ekitaldiaren amaieran (abendutik abendura) % 1,2an finkatu da (% 1,1 2017 ekitaldiaren amaieran), baina urteko batez besteko terminoetan % 1,7ra arte jaitsi da (% 2ko batezbestekoa aurreko ekitaldian).

Azkenik, aurrekontu-exekuzioari dagokionez, BPGaren -% 2,63ko defizita jaso da 2018an (kreditu-erakundeentzako laguntzak barne); erregistro horrek ia ehuneko puntu erdian hobetzen du aurreko ekitaldian lortutakoa (BPGaren -% 3,08ko defizita 2017an).

### **Agregatu makroekonomiko nagusiak**

Espainiako ekonomiak 2018an izan duen % 2,6ko hedapenak beheranzko hiruhilekoko profil bat izan du ezaugarri, ekitaldiaren ondoz ondoko hiruhilekoetan % 2,9, % 2,6, % 2,5 eta % 2,3ko urte arteko hazkundeak erregistratuta.

Puntu horretara iritsita, jarraian, jardueraren bilakaera aztertuko dugu, hainbat ikuspegi kontuan hartuta: eskaria (norakoa), eskaintza (jarduera) eta errenta (banaketa).

- 2018an, Espainiako BPG osoa 1.208.248 milioi eurora<sup>1</sup> iritsi da; horietatik 919.713 milioi azken kontsumoari dagozkio (684.632 etxeena, 12.438 etxeen zerbitzura dauden irabazi asmorik gabeko gizarte-erakundeena eta 222.643 administrazio publikoena), 256.371 inbertsioari (130.643 eraikuntzara bideratutakoak, 88.541 ekipo-ondasunetara eta 35.340 jabetza intelektualeko produktuetara), eta 8.563 izakinen aldakuntzari. Hori horrela, azken barne-eskaria 1.184.647 milioi eurokoa izan da. Kanpo-eskaria esportazioen (414.162 milioi euro) eta inportazioen

---

<sup>1</sup> Prezio arruntak.



(390.561 milioi euro) arteko aldea kalkulatuta ateratzen da; hori kontuan hartuta lortzen dugu guztizko eskaria.

- Kanpo-eskariak ehuneko 2,9 puntuko ekarpen positiboa izan du mundu-mailako hazkundearekiko 2018an; eta hori, neurri batean behintzat, konpentsatu da kanpo-eskariaren ehuneko hiru dezimako ekarpen negatiboarekin. Barne-eskariaren esparruan, kontsumo pribatuaren hazkunde-erritmoa murriztu egin da (% 2,3 2018an eta % 2,5 2017an), eta kontsumo publikoak nahiz inbertsioak erritmo hori indartu dute (% 2,1 eta % 5,3 2018an eta % 1,9 eta % 4,8 aurreko ekitaldian, hurrenez hurren). Arreta azken partida horri eskaintzen badiogu, eraikuntzarekin lotura duen alderdiak hazkundera areagotu du (2018an % 6,2 eta 2017an % 4,6); ekipo-ondasunei loturikoak, aldiz, joera beherakorra erakutsi du (2018an % 5,4 eta aurreko ekitaldian % 6).
- Sektorekako banaketa aintzat hartzen badugu, 31.625 milioi euro lehen sektoreari dagozkio, 193.691 milioi euro industriaren sektoreari (horietatik 152.718 manufaktura-industriari dagozkio), 71.083 milioi euro eraikuntzari eta 796.618 milioi euro zerbitzuei. Partida horiei zerga garbiei dagokiena gehituz gero (115.231 milioi euro), guztizko ekoizpena lortuko dugu.
- Lau sektore nagusiek gora egin dute 2018an: lehen sektorea nabarmen hazi da gora (% 2,6ko aurrerapena, aurreko ekitaldiko -% 0,9ko atzerapenaren aurrean), eraikuntzak nahiz zerbitzuek zabalkuntza-erritmoa indartu dute (% 7,6 eta % 2,7 2018an eta % 6,2 eta % 2,5 2017an, hurrenez hurren), eta industriak bere hedapena murriztu du (% 1,1 2018an eta % 4,4 aurreko ekitaldian).

**14. koadroa Barne-produktu gordina eta bere osagaiak (eskaria eta eskaintza)**

(urte arteko tasaren %, bolumen kateatua)

Eragiketak		2017	2018
ESKARIA	Azken kontsumoaren gastua	2,4	2,3
	– Etxena	2,5	2,3
	– EZIAGGEena	2,3	1,5
	– Administrazio publikoena	1,9	2,1
	Kapital finkoaren eraketa gordina	4,8	5,3
	– Eraikuntza	4,6	6,2
	– Ekipo-ondasunak eta armamentu-sistemak	6,0	5,4
	Izakinen aldakuntza*	0,1	0,1
	Barne-eskaria*	2,9	2,9
	Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	5,2	2,3
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	5,6	3,5	
<b>Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan</b>		<b>3,0</b>	<b>2,6</b>
ESKAINITZA	Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	-0,9	2,6
	Industria	4,4	1,1
	Eraikuntza	6,2	7,6
	Zerbitzuak	2,5	2,7
	Produktuen gaineko zerga garbiak	3,3	1,4

(\*): Merkatuko prezioen BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena.

Iturria: EIN.

- Errentaren alderditik begiratuta, soldatapekoen ordainketak BPGaren % 47,1 hartu du, ustiapeneko soberakin garbiak % 42,4 eta ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiek gainerako % 10,5.

**15. koadroa Barne produktu gordinaren banaketa (errenta)**

(%  $\Delta$  nominala)

Eragiketak	2016	2017	2018	2018 (M eurotan)
Soldatapekoen ordainketa <sup>(1)</sup>	2,7	3,5	4,1	569.686
Ustiapenaren soberakin gordina <sup>(2)</sup>	4,8	5,0	2,6	511.842
Ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak <sup>(3)</sup>	1,6	4,4	5,6	126.720
Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan <sup>(4)</sup>	3,5	4,3	3,6	1.208.248

(4) = (1)+(2)+(3).

Iturria: EIN.

**Kanpo-merkataritza**

2018an, estatuko kanpo-merkataritzak indarra galdu du, esportazioek nahiz inportazioek beren hazkunde-eritmoa murriztu baitute (% 2,3 eta % 3,5ko areagotzeak, hurrenez hurren, 2017ko % 5,2 eta % 5,6koen aldean).

Esportazioetan desazelerazio nabarmen handiagoa egon da inportazioekin alderatuta; hori dela eta, kanpo-eskariak hazkunde orokorrari egiten dion ekarpena negatiboa

izatera igaro da (ehuneko -0,3 puntu negatibo 2018an eta ehuneko 0,1 puntu positibo 2017an). Hiruhilekoetan, kanpo-eskariak hazkunde orokorrari egiten dion ekarpena negatiboa izan da ekitaldiko lau hiruhilekoetan.

### **Laneko prezioak eta kostuak**

Petrolio-upela garestitu egin da, intentsitate ezberdinekin, ekitaldiko lau hiruhilekoetan zehar; hori horrela, 2018an, prezioen bilakaerak urte arteko tasa positiboak izan ditu urteko hilabete guztietan, profil heterogeneoa islatuz. Hala, prezioen urte arteko hazkundera areagotu egin zen urtarriletik ekainera bitartean, apirilean salbu (% 0,6 urtarrilean, % 1,1 otsailean, % 1,2 martxoan, % 1,1 apirilean, % 2,1 maiatzean eta % 2,3 ekainean), erlatiboki egonkor mantendu zen uztailetik urrira bitartean (% 2,2 uztailean nahiz abuztuan eta % 2,3 irailean nahiz urrian), eta murriztu egin zen ekitaldiaren azken hilabeteetan (% 1,7 azaroan eta % 1,2 abenduan).

Hala, 2018 ekitaldiaren amaieran, inflazioak (urte arteko tasa, abendutik abendura) pixka bat indartu du bere aurrerapena, % 1,2ra arte (aurreko ekitaldiaren amaieran % 1,1ekoa erregistratu zen). Nolanahi ere, urteko batez besteko terminoetan, prezioek hazkundera moteldu dute 2018 osoan, % 1,7ra arte (% 2 2017an), eta azpiko inflazioa % 0,9an finkatu da (% 1,1 aurreko ekitaldian).

Kontuan hartuta ELGAREN arabera Eurogunearen inflazio-tasa, kontsumo pribatuaren deflatoaren bidez neurtuta, % 1,5ekoa izan dela 2018an (2017an % 1,4koa), Espainiako ekonomiaren eta moneta bakarraren blokearen arteko diferentziala ehuneko bi dezima positibokoa izan da (aurreko ekitaldiko diferentzial berdina).

Ondasunen multzo desberdinak aztertuz gero, garraioak taldea izan da inflazio handienekoa, alde handiarekin (% 3,6); eta, distantzia nabarmenera aurkitzen dira, etxebizitza (% 2,4), komunikazioak (% 2,2), edari alkoholduak eta tabakoa, eta hotelak, kafetegiak eta jatetxeak (% 1,9 bi kasuetan), eta elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (% 1,6). Bestalde, jantziak eta oinetakoak, besteak izeneko taldeak, irakaskuntzak, osasunak eta etxeko tresneriak % 1etik beherako tasak erregistratu dituzte (% 0,9 lehen bi kasuetan, % 0,8, % 0,3 eta % 0,1, hurrenez hurren); eta aisia eta kulturak, bere aldetik, - % 0,2ko murrizketa izan dute prezioetan.

**16. koadroa Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPI).**
*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

Kontzeptua	2016	2017	2018
KPI			
– Indize orokorra <sup>(1)</sup>	1,6	1,1	1,2
– Indize orokorra <sup>(2)</sup>	-0,2	2,0	1,7
Elikagaiak	1,3	1,3	1,7
Elikagaiak ez direnak	-0,6	2,1	1,7
• Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	1,4	1,2	1,6
• Edari alkoholdunak, tabakoa	0,5	1,7	1,9
• Jantziak eta oinetakoak	0,6	0,5	0,9
• Etxebizitza	-4,2	3,9	2,4
• Etxeko tresneria	0,2	-0,4	0,1
• Osasuna	-0,2	0,7	0,3
• Garraioak	-2,1	4,2	3,6
• Komunikazioak	2,6	1,3	2,2
• Aisia eta kultura	-1,0	1,1	-0,2
• Irakaskuntza	0,6	0,9	0,8
• Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,1	1,9	1,9
• Beste batzuk	1,6	0,9	0,9
Azpikoa	0,8	1,1	0,9
IPI			
– Indize orokorra	-3,1	4,4	3,0
• Kontsumo-ondasunak	0,2	1,9	-0,2
• Ekipo-ondasunak	0,6	0,9	0,9
• Bitarteko ondasunak	-1,5	3,4	2,6
• Energia	-10,8	10,4	8,0

*(1): Abendutik abendura.*
*(2): Urteko batez besteko aldakuntza.*
*Iturria: EIN.*

Industriako prezioei dagokienez, 2018an indize orokorraren beherakada murriztu egin da, % 3ra arte (2017an % 4,4), kontsumo-ondasunen prezioen -% 0,2ko jaitsieraren, bitarteko ondasunen eta energiaren prezioen murrizketaren (% 2,6 2018an eta % 3,4 aurreko ekitaldian) eta kontsumo- eta ekipo-ondasunei dagozkien prezioak mantentzearen ondorioz (% 0,9 bi ekitaldian).

Laneko kostuei erreparatuz gero, kontuan hartuta 2018an ekoizpena % 0,1 areagotu dela (BPGak % 2,6 egin duelako gora, eta enpleguak % 2,5, lanaldi osoko lanpostuei dagokienez), eta soldatapeko bakoitzeko ordainketak % 0,9 egin duela gora, lan-kostu unitarioa % 0,8 areagotu da (aurreko ekitaldian % 0,2).

## 17. koadroa Errenten eta soldata-kostuen adierazleak

Kontzeptua	2016	2017	2018
BPG erreala	3,2	3,0	2,6
Enplegua guztira*	3,0	2,9	2,5
Produktibitatea	0,2	0,1	0,1
Soldatapekoen ordainketa	2,7	3,5	4,1
Soldatapeko enplegua*	3,3	3,2	3,2
Sodatapeko bakoitzeko ordainketa	-0,6	0,3	0,9
Lan-kostu unitarioa	-0,8	0,2	0,8

(%Δ)

(\*): Kontabilitate Nazionalako enpleguaren datuak erabili dira: lanaldi osoko lanpostuak.

Iturria: Guk geuk eginiko balioespena, EInen datuetatik abiatuta.

**Lan-merkatua**

2018an Espainiako ekonomiak erregistratutako dinamismoaren ondorioz (BPGaren % 2,6ko aurrerapena), okupazioa areagotu eta langabezia murriztu da; hala, langabezia-tasa ere jaitsi da, baina oraindik ere oso altua izaten jarraitzen du.

Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) arabera, lanean ari diren biztanleen hazkundea arinki igo da % 2,7ra arte 2018an (% 2,6 aurreko ekitaldian), eta biztanleria aktiboa ere pixka bat igo da, oro har (% 0,3).

Bestalde, jarduera-tasa apur bat murriztu da (% 58,7 2018an eta % 58,8 aurreko ekitaldian); zehazki, gizonen tasak nahiz emakumeenak arinki egin dute behera (% 64,6 eta % 53,1 2018an eta % 64,7 eta % 53,2 2017an, hurrenez hurren).

Lehen aipatutako enpleguaren % 2,7ko gorakada (19.327.700 pertsona lanean) arrazoi honengatik gertatu da: enplegua sektore guztietan hazi da, lehen sektorean izan ezik, zeinak -% 0,8 egin baitu behera. Eraikuntzan nahiz zerbitzuetan sektoreko enpleguaren aurrerapen-erritmoa areagotu da (% 8,3 eta % 2,5 2018an eta % 5,1 eta % 1,9 aurreko ekitaldian, hurrenez hurren), eta industriaren sektorean murriztu egin da (% 2,3 2018an eta % 5 2017an).

**18. koadroa Lan-magnitude nagusien bilakaera.  
Urteko batezbestekoak**

*(mila pertsona eta %)*

Kontzeptua	2018	2016	% Δ	
			2017	2018
Biztanleria aktiboa	22.806,8	-0,4	-0,4	0,3
Biztanleria okupatua	19.327,7	2,7	2,6	2,7
– Nek., abeltz., arrantza	812,6	5,1	5,8	-0,8
– Industria	2.708,3	1,6	5,0	2,3
– Eraikuntza	1.221,8	0,0	5,1	8,3
– Zerbitzuak	14.585,1	2,9	1,9	2,5
Biztanleria langabetua	3.479,1	-11,4	-12,6	-11,2
Langabezia-tasa*	15,3	-11,0	-12,3	-11,4

*(\*): Biztanleria aktiboaren %.*

*Iturria: EIN (BAI, biztanleei buruzko oinarria, 2011. 2019ko maiatzeko datuak).*

Aldi berean, soldatapeko biztanleriaren aurrerapen-erritmoa % 3,3ra arte sendotu da 2018an (% 3,2 aurreko ekitaldian), eta soldatapekoa ez denak -% 0,5era egin du behera (-% 0,1 2017an), nagusiki autonomoen atzerapena dela eta (-% 0,2). Kontratu motaren arabera, azken urteetan ohikoa den moduan, aldi baterako soldatapekoen kopuruaren gorakadak indar handiagoa izan du kontratu mugagabea dutenenak baino (% 3,8 eta % 3,1, hurrenez hurren), baina diferentziala murriztu egin da aurreko ekitaldiekin alderatuta.

Langabezia aintzat hartuta, 2018an -% 11,2ko beherakada erregistratu da (-% 12,6 2017an), 2014an hasitako beheranzko bideari jarraikiz. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da 2018an Espainiako biztanleria langabetua hiru milioi eta erdi pertsonaren azpitik kokatu dela; hau da, 2008an eta 2009an erregistratutakoen arteko tarteko maila batean. Hori horrela, langabezia-tasa % 15,3ra jaitsi da (% 17,2 2017an). Erregistro horrek Europako bigarren altuena izaten jarraitzen du, Greziaren atzetik (% 19,3, Europako Batzordearen arabera).

### 19. koadroa Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu motaren arabera. Urteko batezbestekoak

(mila pertsona eta %)

Kontzeptua	2018	2016	% Δ	
			2017	2018
Biztanleria okupatua	19.327,7	2,7	2,6	2,7
Soldatapekoak	16.234,2	3,1	3,2	3,3
– Sektorre pribatua	13.083,7	3,6	3,8	3,1
– Sektorre publikoa	3.150,5	0,9	0,9	4,0
Soldatapekoak ez direnak*	3.093,5	0,7	-0,1	-0,5
– Enplegu-emaileak	960,1	2,4	5,7	-0,1
– Autonomoak	2.027,7	0,4	-2,4	-0,2
– Kooperatibistak	25,9	15,9	-9,5	8,8
– Familia-laguntza	72,8	-12,6	-2,2	-15,2
Kontratu mugagabedun sold.	11.882,3	1,8	2,3	3,1
Aldi baterako kontratudun sold.	4.351,9	6,8	5,6	3,8
Lanaldi osoko okup.	16.497,0	3,3	2,9	3,1
Lanaldi partzialeko okup.	2.830,7	-0,8	1,0	0,4

(\*): Batura ez dator bat guztizkoarekin, bertan sailkatu ezin direnak ere sartu baitira.

Iturria: EIN (BA), biztanleei buruzko oinarria, 2011. 2019ko maiatzeko datuak).

### Sektorre publikoa eta interes-tasak

Administrazio publikoen guztizko defizita BPGaren -% 2,63koa izan da 2018an, kreditu-erakundeei emandako dirulaguntzak barne. Hala, ia ehuneko puntu erdi hobetu da aurreko ekitaldian lortutako emaitza (-% 3,08ko defizita 2017an).

Autonomia-erkidegoen arabera, Kanariak, EAEk eta Nafarroak, Galziak eta Asturiasek superabit-saldoak erregistratu dituzte eskualdeko BPGari dagokionez 2018an (% 2,05, % 0,68, % 0,55, % 0,17 eta % 0,05, hurrenez hurren); gainerakoek defizit-saldoak izan dituzte: okerrena Murtziarena izan da (-% 1,34) eta defizit-saldoetan onena Kantabriarena (-% 0,05).

### 20. koadroa Defizit publikoa

(BPGaren %)


Kontzeptua	2017	2018
Administrazio zentrala*	-1,85	-1,50
Autonomia-erkidegoak	-0,36	-0,23
Tokiko udalbatzak	0,61	0,52
Gizarte Segurantzza	-1,44	-1,41
<b>Administrazio publikoak guztira*</b>	<b>-3,03</b>	<b>-2,63</b>
• Finantza-erakundeentzako laguntzak	-0,04	-0,01
<b>Administrazio publikoak guztira</b>	<b>-3,08</b>	<b>-2,63</b>

(\*): Finantza-laguntzarik gabe.

Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioa (2019ko martxoaren 29a).

Azkenik, berriz ere aipatu behar da 2018aren amaieran Europako Banku Zentralaren erreferentziazko tasak %0an jarraitu duela, ekitaldian zehar inolako doikuntzarik egin gabe, eta Erreserba Federalarena %2,5era igo da, martxoan, ekainean, irailean eta abenduan ehuneko puntu laurdeneko gorakadak izan ondoren.

**2. grafikoa Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala**



Iturria: EBZ, Erreserba Federala.

### Aurreikuspenak

Ekonomia eta Enpresa Ministerioak apirilaren bukaeran argitaratutako aurreikuspen makroekonomikoaren arabera, Espainiako ekonomia % 2 inguru hedatuko da datozen ekitaldietan, baina beheranzko profil argi batekin (% 2,2 2019an; % 1,9 2020an eta % 1,8 2021ean nahiz 2022an). Enplegua, lanaldi osoko lanpostu kopuruaren arabera neurtuta, igo egingo da (% 2,1), eta ondorioz, langabezia-tasa jaitsiko da; hala ere, 2021era arte % 10etik gorakoa izaten jarraituko du.



## 21. koadroa Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2019)

Kontzeptua	Urte arteko aldakuntza-tasa
<b>BPG eta ESKARI-AGREGATUAK</b>	
• Nazio-mailako azken kontsumo pribatuaren gastua	1,9
• Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua	1,9
• Kapital finkoaren eraketa gordina	4,0
– Barne-eskaria (BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena)	2,3
– Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	2,7
– Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	3,1
– Kanpo-saldoa (BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena)	-0,1
– BPG	2,2
<b>LAN-MERKATUA</b>	
– Enpleguaren aldakuntza %-tan <sup>(*)</sup>	2,1
– Langabezia-tasa	13,8

(\*): Lanaldi osoko lanpostuak kontuan hartuta.

Iturria: Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa (2019ko apirila).

## 2. IKUSPEGI OROKORRA

Mundu-mailako ekonomiaren hazkunde-erritmoaren moteltzearekin bat, 2018an EAeko BPGak ehuneko dezima bat egin du behera aurreko ekitaldiarekin alderatuta: % 2,8, eta 2017an % 2,9.

Kontzeptua	22. koadroa		Bilakaera orokorra		
	2014	2015	2016	2017	2018
<i>(Urte arteko aldakuntza-tasa)</i>					
<b>EAE</b>					
- BPG	1,6	3,0	3,3	2,9	2,8
- Enplegua	-1,0	1,3	2,9	0,3	2,1
- Langabezia-tasa <sup>(1)</sup>	16,3	14,8	12,6	11,3	10,0
- KPI <sup>(2)</sup>	-0,7	0,3	1,5	1,1	1,0
<b>NAFARROA</b>					
- BPG	1,5	2,9	2,9	3,2	3,2
- Enplegua	1,7	0,7	1,2	4,2	1,2
- Langabezia-tasa <sup>(1)</sup>	15,7	13,8	12,5	10,2	10,0
- KPI <sup>(2)</sup>	-1,2	-0,1	1,8	0,6	1,3
<b>ESPAINIA</b>					
- BPG	1,4	3,6	3,2	3,0	2,6
- Enplegua	1,2	3,0	2,7	2,6	2,7
- Langabezia-tasa <sup>(1)</sup>	24,4	22,1	19,6	17,2	15,3
- KPI <sup>(2)</sup>	-1,0	0,0	1,6	1,1	1,2

(1): Biztanleria aktiboaren %.

(2): Aldakuntza abendutik abendura.


Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN (BAI, Biztanleria-Oinarria, 2011).

Nolanahi ere, euskal ekonomiak dinamismo handiagoa erregistratu du Eurogunearen aldean (% 1,8ko hedapena 2018an, ELGAren arabera). Ondorioz, beste aurrerapen bat egon da Europako ekonomia nagusiekiko konbergentzia errealeko prozesuan.

EINen Eskualdeko Kontabilitatearen arabera, Espainiako autonomia-erkidego guztietan hazkunde orokortua izan da 2018an, baina bostek bakarrik hobetu dute aurreko ekitaldian lortutako erregistroa. Zehazki, Madrilek hauteman du hedapen handiena 2018an (% 3,7) eta Ceutak txikiena (% 1,5). Bestalde, EAE eta Nafarroa bitarteko posizio batean kokatu dira, % 2,2ko aurrerapenarekin, EINen arabera.

Lan-merkatua aintzat hartzen badugu, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestarekin bat, EAE eta Nafarroako biztanleria okupatua % 1,9 hazi da 2018an (% 2,1 EAEn eta % 1,2 Nafarroan); dinamika hori ez da Estatuan hautemandakoa bezain hedakorra izan (% 2,7). Langabezia-tasak, bere aldetik, beheranzko bideari jarraipena eman dio; % 10era jaitsi da EAEn zein Nafarroan, eta, beraz, baita EAE eta Nafarroa multzo osorako ere. Estatuan, aldiz, % 15,3ra murriztu da.

3. grafikoa BPGaren bilakaera



Fuente: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.

Prezioei dagokienez, petrolio-upela garestitu egin da. Hori horrela, 2018ko prezioen bilakaera urte arteko hazkunde positiboek markatu dute, ekitaldiko hilabete guztietan, EAEn nahiz Nafarroan; hala ere, moderazio-joera argi bat egon da urteko azken bi hilabeteetan. Hala, pilatutako inflazio-tasa (abendutik abendura) % 1ean finkatu da EAEn eta % 1,3an Nafarroan (% 1,1 eta % 0,6 2017aren amaieran, hurrenez hurren).

Azkenik, adierazi behar da EAeko BPGa urte arteko % 2,3 hedatu dela 2019ko lehen hiruhilekoan; erregistro hori 2018ko laugarren hiruhilekoan lortutakoa baino ehuneko dezima bat txikiagoa da. Hori horrela, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egungo ekitaldiko ekainean eginiko aurreikuspenetan, % 2,3ko aurrerapena proiektatu du 2019 osorako, zifra horren inguruko hazkunde-erritmo erlatiboki egonkor batek markatutako hiruhilekoko profilarekin.

**23. koadroa Jarduera-adierazle batzuen bilakaera**
*(aldakuntza-tasa)*

Kontzeptua	2016		2017		2018	
	EAE eta Naf.	Espainia	EAE eta Naf.	Espainia	EAE eta Naf.	Espainia
<b>A. EKOIZPENA ETA JARDUERA</b>						
A.1 Industria (ekoizpenak)						
Ontzigtza (T. konpentsatuak)	-49,3	-42,5	-2,8	26,2	17,1	54,6
Makina-erreminta (euro arruntan ekoiz.)	0,1	0,1	13,0	13,0	5,4	5,4
Papera eta kartoia (tonak)	3,4	0,4	-1,6	0,0	-0,2	-1,0
Elektronika (euro arruntak)*	--	--	4,6	--		
Industria Produzioaren Indizea*	3,1	1,8	5,7	3,2	2,0	0,3
• Kontsumo-ondasunak	1,5	1,8	5,6	1,0	5,7	-0,7
• Bitarteko ondasunak	2,3	2,1	7,7	5,1	1,1	1,2
• Ekipo-ondasunak	8,6	3,9	3,3	4,1	3,3	2,1
• Energia	-3,6	-0,9	3,0	2,1	1,4	-1,8
A.2 Eraikuntza						
Amaitutako etxebizitzak (kop.)	-31,2	-6,7	11,6	21,6	17,4	18,9
Hasitako etxebizitzak (kop.)	63,7	32,3	-33,7	21,5	-11,0	--
Zementuaren ageriko kontsumoa***	--	--	--	--	9,5	8,0
Lizitazio ofiziala (euro arruntak)	-22,7	-1,6	85,0	39,3	-12,0	29,4
A.3 Nekazaritzako sektorea (ekoiz.)						
Nekazaritza (euro arruntak)*	2,5	8,1	-0,2	2,3	7,0	7,8
Abeltzaintza (euro arruntak)*	1,0	6,4	5,7	8,6	-1,7	2,2
Basogintza (euro arruntak)*	25,6	--	-3,1	--	-0,2	--
Guztira (euro arruntak)*	4,3	6,1	1,4	4,5	3,1	5,5
A.4 Zerbitzuak						
Trenbide bidezko garraioa (merkantziak)*	-23,7	--	-6,8	--	-8,2	--
Trenbide bidezko garraioa (bidaiariak)*	-0,5	--	11,0	--	9,3	--
Errepide bidezko garraioa (merkantziak)	1,5	2,8	2,9	9,3	-0,1	5,0
Itsaso bidezko garraioa (merkantziak)*	-3,1	0,6	5,1	6,4	4,0	1,5
Aire bidezko garraioa (merkantziak)	11,9	11,2	13,3	15,6	1,5	9,9
Aire bidezko garraioa (bidaiariak)	8,0	11,0	9,2	8,2	10,9	5,8
A.5 Sektore finantzarioa						
Gordailu pribatuak (euro arruntak)	2,2	0,4	3,8	0,5	1,4	1,6
Sektore pribatuko kreditua (euro arruntak)	0,9	-4,1	-0,4	-1,9	-3,9	-4,1
<b>B. BARNE-ESKARIA</b>						
Ibilgailuen matrikulazioa (kop.)	5,0	12,4	8,3	9,2	4,2	6,0
Ibilgailu industrialen matrikulazioa (kop.)	4,2	6,1	5,7	6,7	22,9	12,6
Ekipo-ondasunen inportazioak (euro arruntak)**	9,6	5,8	2,5	7,8	4,5	4,6
Energia elektrikoaren kontsumoa (Kw/h)	--	0,7	--	1,6	--	0,4
<b>C. KANPO-MERKATARITZA</b>						
Esportazioak (euro arruntak)	-1,2	2,6	7,2	8,9	7,3	2,9
Inportazioak (euro arruntak)	-5,9	-0,4	15,0	10,5	8,4	5,6
<b>D. PREZIOAK ETA SOLDATAK*</b>						
Kontsumo-prezioen indizea (urteko batezbestekoa)*	0,0	-0,2	2,0	2,0	1,6	1,7
Kontsumo-prezioen indizea (abe./abe.)*	1,5	1,6	1,1	1,1	1,0	1,2
• Azpikoa (abe./abe.)	1,0	1,0	0,7	0,8	0,7	0,9
Industria-prezioen indizea*	-3,0	-3,1	3,3	4,4	3,3	3,0
• Kontsumo-ondasunak	0,7	0,2	0,9	1,9	1,2	-0,2
• Bitarteko ondasunak	-2,2	-1,5	2,8	3,4	3,6	2,6
• Ekipo-ondasunak	0,9	0,6	1,8	0,9	1,6	0,9
Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko*	-1,1	-0,3	0,1	0,1	2,4	1,0
<b>E. LAN-MERKATUA****</b>						
Biztanleria aktiboa	0,2	-0,4	-0,5	-0,4	0,7	0,3
Biztanleria okupatua	2,5	2,7	1,2	2,6	1,9	2,7
• Lehen sektorea	6,8	5,1	8,1	5,8	-11,7	-0,8
• Industria	8,3	1,6	5,3	5,0	-2,3	2,3
• Eraikuntza	-4,9	0,0	2,1	5,1	8,3	8,3
• Zerbitzuak	1,2	2,9	-0,4	1,9	3,3	2,5
Biztanleria langabetua	-13,5	-11,4	-12,4	-12,6	-9,1	-11,2
Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)	12,6	19,6	11,1	17,2	10,0	15,3
Erregisratutako kontratuak	6,5	7,6	3,5	7,6	4,3	3,7

(\*): EAEko datuak. (\*\*): EAEn, makineriaren eta garraio-ekipoen inportazioa. Nafarroan, makina eta gailuen eta material elektrikoaren inportazioa. (\*\*\*) : Iparraldea: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa. (\*\*\*\*): BAI, Biztanleria-Oinarria, 2011.

Iturria: Geuk egina, hainbat estatistika-iturritatik abiatuta.

## 2.1 EKOIZPENA

2017an, EAEko ekonomiak eta estatuko ekonomiak, oro har, moteldu egin zuten beren hazkundea aurreko ekitaldiarekiko; Nafarroako ekonomiaren hazkundea, berriz, sendotu egin zen. 2018an, EAEko eta estatu osoko BPGaren hazkundea murriztu egin da (% 2,8 eta % 2,6 2018an; % 2,9 eta % 3,0 2017an, hurrenez hurren). Aldi berean, Nafarroako BPGak aurreko ekitaldian lortutako dinamismoari eutsi dio (% 3,2ko hazkundea 2017an eta 2018an).

### 24. koadroa Barne produktu gordinaren (BPG) bilakaera

(Urte arteko aldakuntza tasa erreala)

Kontzeptua	2016	2017	2018
<b>EAE</b> <sup>(1)</sup>			
– Nekazaritza	1,0	6,8	2,3
– Industria	4,2	3,1	2,1
– Eraikuntza	0,2	3,8	4,3
– Zerbitzuak	2,8	2,7	2,9
– Guztira	3,3	2,9	2,8
<b>NAFARROA</b> <sup>(1)</sup>			
– Nekazaritza	2,2	2,1	1,7
– Industria	2,3	2,1	2,0
– Eraikuntza	0,6	1,1	2,5
– Zerbitzuak	3,6	4,1	4,1
– Guztira	2,9	3,2	3,2
<b>ESPAINIA</b> <sup>(1)</sup>			
– Nekazaritza	8,2	-0,9	2,6
– Industria <sup>(2)</sup>	5,6	4,4	1,1
– Eraikuntza	3,5	6,2	7,6
– Zerbitzuak	2,1	2,5	2,7
– Guztira	3,2	3,0	2,6

(1): Oinarritzko prezioetarako balio erantsi gordina sektoreen kasuan, merkatu-prezioetarako BPGa guztizkoaren kasuan.

(2): Energia salbu.

Iturria: Eustat, Nafarroako Estadistika Institutua eta EIN.

Hiruhileko bakoitzeko bilakaera kontuan hartuta, EAEko ekonomiaren urte arteko hazkundearen profila beherakorra izan da, argi eta garbi: % 3,1, % 2,9, % 2,6 eta % 2,4 2018ko lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan, hurrenez hurren. Nafarroako ekonomiari dagokionez, hiruhilekoko profilaren ezaugarri nagusia 2018ko lehen hiru hiruhilekoen egonkortasuna izan da (urte arteko % 3,3, % 3,4 eta % 3,3ko hazkundea, hurrenez hurren); azken hiruhilekoan, aldiz, hazkundeak beherakada bat jasan du (% 3).

Eskaintza kontuan hartuta, azpimarra daitekeena da lau sektore handienek hazkundeak jasan dituztela 2018an aintzat hartutako hiru geografia esparruetan; hala ere, kasu batzuetan indartu egin dira eta beste batzuetan ahuldu.

Zehazki, EAeri dagokionean, lehen sektorean zein industriaren sektorean, hazkundearen eritmoa moteldu egin da (% 2,3 eta % 2,1 2018an; % 6,8 eta % 3,1 aurreko ekitaldian, hurrenez hurren). Bitartean, eraikuntzen eta zerbitzuen sektoreak indartu egin dira (% 4,3 eta % 2,9 2018an; % 3,8 eta % 2,7 2017an, hurrenez hurren).

Antzeko eran, Nafarroako lehen sektorea eta industria ez dira aurreko ekitaldian bezain dinamikoki hazi (% 1,7ko eta % 2ko hazkundera 2018an, 2017ko % 2,1eko hazkundearen aldean), baina eraikuntzaren hazkundera bizkortu egin da (% 2,5 2018an, aurreko ekitaldiko % 1,1eko hazkundearen aldean). Zerbitzuen sektoreak, aldiz, eutsi egin dio aurreko ekitaldian lortutako gorakadari (% 4,1eko hazkundera 2018an eta 2017an).

Arreta industriaren sektorean jartzen badugu, industria produkzioaren indizearen (IPI) hazkundera moteldu egin dela ageri da EAEn (% 2 2018an, 2017ko % 5,7aren aldean); Nafarroan, berriz, erorialdia leundu egin da (-% 0,5 2018an, 2017ko -% 2,1aren aldean). Bestalde, industriako enpleguak -% 3,3 egin du behera EAEn (% 4,1eko gorakada Eustaten BJAren arabera), eta % 0,3 hazi da Nafarroan. Azken esparru geografiko horretan, industria-giroak, egungo eskariak eta etorkizunerako aurreikusten den eskariak bilakaera positiboa izan duela azpimarratu behar da aurreko ekitaldiaren aldean.

## 25. koadroa Industria Sektoreko Adierazleak

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2016	2017	2018
<b>EAE</b>			
- Industria Produkzioaren Indizea (IPI) <sup>(1)</sup>	3,1	5,7	2,0
- Industria-enplegua <sup>(2)</sup>	9,7	3,2	-3,3
- Industria-enplegua <sup>(3)</sup>	2,1	4,7	4,1
<b>NAFARROA</b>			
- Industria Produkzioaren Indizea (IPI) <sup>(1)</sup>	0,7	-2,1	-0,5
- Industria-giroa <sup>(4)</sup>	2	1	3
- Egungo eskaerak <sup>(4)</sup>	-2	4	9
- Aurreikusitako eskaerak <sup>(4)</sup>	12	12	13
- Industria-enplegua <sup>(2)</sup>	4,3	11,6	0,3

(1): Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

(2): EIN.

(3): BJA (Eustat).

(4): Erantzunen saldoak.

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eustat, EIN eta Nafarroako Estatistika Institutua.

Eraikuntzari dagokionez, EAEn ekoizpen indize osoaren hazkundera sendotu egin da, 2018an % 12,6 izatera iritsi arte (% 5,9 2017an); zehazki, eraikuntzari loturiko hazkundera sendotu da (13,4 2018an, eta % 8,1 aurreko ekitaldian) eta obra zibilari loturiko alderdia biziberritu da (% 5,2 2018an, 2017ko -% 9,2ren aldean). Zementuaren

itxurazko kontsumoa % 9,5 hazi da 2018an, lizitazio ofizialak -% 26,5 egin du behera (% 73,4 hazi zen aurreko ekitaldian) eta bukatutako etxebizitzak % 5,7 hazi dira (% 4,6 2017an). Gauzak horrela, sektore horretako enplegua % 4,8 hazi da (% 4,2 Eustaten BJAREN arabera).

Nafarroan, zementuaren itxurazko kontsumoa % 9,5 hazi da 2018an, lizitazio ofiziala % 82,7 hazi da (% 229,2 aurreko ekitaldian) eta bukatutako etxebizitzak % 14,9 hazi dira (% 42 2017an). Hasitako etxebizitzaren kopuruak, berriz, -% 3,2 egin du behera (% 39,5eko gorakada aurreko ekitaldian). Hala, Nafarroan, sektore horretako enplegua % 19,5 hazi da (% 21,1 2017an).

## 26. koadroa Eraikuntzaren Sektoreko Adierazleak

Kontzeptua	(Urte arteko aldakuntza-tasa)		
	2016	2017	2018
<b>EAE</b>			
- Ekoizpen-indizea <sup>(1)</sup>	2,1	5,9	12,6
- Eraikuntza	4,4	8,1	13,4
- Obra zibila	-11,3	-9,2	5,2
- Zementuaren itxurazko kontsumoa*	--	--	9,5
- Lizitazio ofiziala <sup>(2)</sup>	-15,5	73,4	-26,5
- Hasitako etxebizitzak <sup>(3)</sup>	81,1	-59,2	--
- Amaitutako etxebizitzak <sup>(3)</sup>	-35,4	4,6	5,7
- Enplegua <sup>(4)</sup>	2,9	-2,6	4,8
- Enplegua <sup>(5)</sup>	1,3	0,8	4,2
<b>NAFARROA</b>			
- Zementuaren itxurazko kontsumoa*	--	--	9,5
- Lizitazio ofiziala <sup>(2)</sup>	-62,4	229,2	82,7
- Hasitako etxebizitzak <sup>(3)</sup>	34,4	39,5	-3,2
- Amaitutako etxebizitzak <sup>(3)</sup>	-7,6	42,0	14,9
- Enplegua <sup>(4)</sup>	-27,2	21,1	19,5

(\*): *Oficemen-eko bazkideen (Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) zementuaren itxurazko kontsumoari egiten dio erreferentzia.*

(1): *Eraikuntzaren koiunturazko indizea (EUSTAT). Oinarria 2010=100*

(2): *SEOPAN.*

(3): *Eustat eta Etxebizitza Ministerioa.*

(4): *EIN.*

(5): *BJA (Eustat).*

*Iturria: Eustat, EIN, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila eta Nafarroako Gobernua.*

Zerbitzuei dagokienez, jarduera sendotu egin da, bai EAEn eta baita estatuan ere, aurreko ekitaldiarekiko. Nafarroako ekonomiaren kasuan, mantendu egin da aurreko ekitaldiko dinamismoa. Hala ere, esan beharra dago sektorea oso heterogeneoa dela eta, ondorioz, aztertutako azpisektorekako adierazleetan askotariko joerak hauteman direla.

Hala, EAEn, hoteletako gaualdiak eta aireko trafikoko bidaiari kopuruak aurreko ekitaldian baino bizkorrago handitu dira (% 7,2 eta % 10,5 2018an; % 2,6 eta % 9,2 2017an, hurrenez hurren); aldiz, txikizkako saltokietako salmentak eta portuetako salgaiak motelago hazi dira (% 0,7 eta % 7,1 2018an, eta % 1,7 eta % 9,1 aurreko ekitaldian, hurrenez hurren). Edonola ere, sektoreko enplegua, guztira, % 4,2 handitu da (% leko hazkundera Eustaten BJaren arabera).

Nafarroan, aireko bidaiarien kopurua aurreko ekitaldian baino dinamikoagoa izan da, baita autobideko trafiko astuna ere (% 24,6 eta % 10,6ko hazkundera 2018an, 2017ko % 8,1 eta % 3ko hazkunderaren aldean). Bitartean, hoteletako gaualdiak eta autobideko trafiko arina ez dira hain indartsu garatu (% 2,8 eta % 2,4ko hazkundera 2018an, aurreko ekitaldiko % 3,4ko hazkunderaren aldean). Hala, sektoreko enpleguak, guztira, erritmo beherakorra moteldu du (-% 0,4 2017an eta -% 0,2 2018an).

### 27. koadroa Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2016	2017	2018
<b>EAE</b>			
– Hoteletako gaualdiak	8,9	2,6	7,2
– Aire trafikoko bidaiariak	8,0	9,2	10,5
– Txikizkako merkataritzaren salmenten indizea	3,3	1,7	0,7
– Portuetako salgaiak	-9,4	9,1	7,1
– Enplegua <sup>(1)</sup>	0,8	-0,4	4,2
– Enplegua <sup>(2)</sup>	1,0	0,7	1,0
<b>NAFARROA</b>			
– Hoteletako gaualdiak	8,2	3,4	2,8
– Aire trafikoko bidaiariak	4,6	8,1	24,6
– Ibilgailu arinen trafikoa autobideetatik	4,6	3,4	2,4
– Ibilgailu astunen trafikoa autobideetatik	2,1	3,0	10,6
– Enplegua <sup>(1)</sup>	2,9	-0,4	-0,2

(1): EIN.

(2): BJA (Eustat).

Iturria: AENA, EUSTAT, EIN, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Estatistika Institutua.



## 2.2 ESKARIA

### Barne-eskaria

Egungo testuinguruaren ezaugarri nagusia hazkunde-ekonomikoa moteldu izana da (EAEko BPG % 2,8 igo da 2018an, aurreko ekitaldiko % 2,9ko igoeraren aldean); horrez gain, barne-eskaria ez da aurreko ekitaldian bezain dinamikoa izan: % 2,8ko aurrerakada izan du 2018an, aurreko ekitaldian baino bi hamarreko portzentual gutxiago (2017an % 3,0).

Barne-eskariaren osagaiak kontuan hartuta, hala kontsumo pribatuak nola kontsumo publikoak ez dute aurreko ekitaldiko indarra izan (% 2,6ko eta % 1,7ko gorakada 2018an; % 3koa eta % 2,4koa 2017an, hurrenez hurren). Bitartean, inbertsioaren hazkundera sendotu egin da (2018an % 4,1 eta aurreko ekitaldian % 3,3).

**28. koadroa Barne-eskariaren adierazleak**

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2016	2017	2018
<b>EAE</b>			
– Kontsumo pribatua	3,3	3,0	2,6
– Kontsumo publikoa	1,8	2,4	1,7
– Kapital Eraketa Gordina	5,5	3,3	4,1
– Barne-eskaria	3,6	3,0	2,8

Iturria: Eustat.

Arreta Nafarroako ekonomian jartzen badugu, ikus daiteke 2018an aurreko ekitaldian lortutako dinamismoari eutsi diola (% 3,2ko hazkundera bi ekitaldietan); barne-eskariak ehuneko 2,6 puntu positiboko ekarpena egin dio ekonomiaren hazkunde globalari, bai 2017an bai 2018an. Aldagaika, kontsumo pribatuaren hazkunde-erritmoa moteldu egin da (2018an % 2,9 eta aurreko ekitaldian % 3,4) eta kontsumo publikoaren erritmoa mantendu egin da (% 3,1 2017an eta 2018an); bitartean, inbertsioaren hazkunde-erritmoa nabarmen bizkortu da (2018an % 2 eta aurreko ekitaldian % 0,3).

**29. koadroa      Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak**

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2016	2017	2018
<b>EAE</b>			
– Kontsumo-ondasunen IPIa <sup>(1)</sup>	1,5	5,6	5,7
– Ibilgailuen matrikulazioa	4,9 <sup>(4)</sup>	7,7 <sup>(4)</sup>	4,6 <sup>(4)</sup>
– Ibilgailu industrialen matrikulazioa	3,8 <sup>(4)</sup>	4,0 <sup>(4)</sup>	21,7 <sup>(4)</sup>
– KPI <sup>(2)</sup>	1,5	1,1	1,0
– Soldata-igoera <sup>(3)</sup>	0,89	1,43	1,81
– Ekipo-ondasunen IPIa <sup>(1)</sup>	8,6	3,3	3,3
<b>NAFARROA</b>			
– Ibilgailuen matrikulazioa	5,3 <sup>(4)</sup>	10,4 <sup>(4)</sup>	2,9 <sup>(4)</sup>
– KPI <sup>(2)</sup>	1,8	0,6	1,3
– Soldata-igoera <sup>(3)</sup>	1,23	1,83	1,91
– Ibilgailu industrialen matrikulazioa	5,3 <sup>(4)</sup>	10,5 <sup>(4)</sup>	25,9 <sup>(4)</sup>

(1): Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

(2): Aldakuntza-tasa abendutik abendura.

(3): Hitzarmenetan itundua.

(4): Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

**Kanpo-merkataritza**

2018an, euskal kanpo-merkataritza (atzerrira) hedatu egin da, nahiz eta hedapen hori aurreko ekitaldikoa baino motelagoa izan den, besteak beste, produktu energetikoek indarra galdu dutelako. Horri dagokionez, esportazio osoen hazkundera moteldu egin da, % 5,7koa izateraino (2017an % 11,5koa izan zen), energia-esportazioetan desazelerazio nabarmena egon delako (2018an % 13; aurreko ekitaldian, % 29,9) eta, neurri txikiagoan, esportazio ez-energetikoak ere moteldu egin direlako (% 5eko hazkundera 2018an; % 9,9koa 2017an). Aldi berean, inportazio osoen hazkundera ere moteldu egin da (ekitaldi honetan % 8,5koa izan da, eta aurrekoan % 19,9koa), energia-inportazioak asko desazeleratu direlako (% 14,4ko hazkundera 2018an, aurreko ekitaldiko % 52,7ko hazkunderaren aldean) eta, neurri txikiagoan, inportazio ez-energetikoek ere indarra galdu dutelako (% 6,3ko hazkundera 2018an eta % 11,2koa 2017an).

Zehazki, 2018an, esportazioak guztira 25.487,5 milioi eurokoak izan dira (horietatik 2.566,8 energia-esportazioei dagozkie), eta zenbateko horrek aipatutako urte arteko % 5,7ko hazkundera ekarri du. Inportazioak guztira, berriz, 20.288,8 milioi eurokoak izan dira (horietatik 5.729,5 energia-inportazioei dagozkie), eta bolumen honek aipaturiko % 8,5eko gorakada suposatzen du.

Era horretan, ikusita inportazioak esportazioak baino dinamikoagoak izan direla, 2018an balantza komertzialaren saldo positiboa 5.198,7 milioi eurora jaitسي da (aurreko ekitaldian

5.402 milioi eurokoa izan zen), eta esportazioek inportazioen gainean duten estaldurata % 125,6ra jaitsi da (2017an % 128,9 izan zen).

### 30. koadroa Kanpo-merkataritzaren bilakaera EAEn eta Nafarroan

*(M euro)*

Kontzeptua	2016	2017	2018*	% Δ 18/17
<b>EAE</b>				
- ESPORTAZIOAK guztira	21.615,9	24.109,9	25.487,5	5,7
- Energia-esportazioak guztira	1.748,4	2.271,6	2.566,8	13,0
- Esportazio ez-energetikoak guztira	19.867,5	21.838,3	22.920,7	5,0
- INPORTAZIOAK guztira	15.604,1	18.707,9	20.288,8	8,5
- Energia-inportazioak guztira	3.281,0	5.009,2	5.729,5	14,4
- Inportazio ez-energetikoak guztira	12.323,1	13.698,7	14.559,3	6,3
- SALDOA GUZTIRA	6.011,8	5.402,0	5.198,7	-3,8
<b>NAFARROA</b>				
- ESPORTAZIOAK guztira	8.437,6	8.105,9	9.095,2	12,2
- INPORTAZIOAK guztira	4.543,9	4.469,2	4.843,4	8,4
- SALDOA GUZTIRA	3.893,6	3.636,7	4.251,8	16,9

(\*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat (Aduana eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera), eta Nafarroako Estatistika Institutua.

Eremu geografikoka, 2018an Eurogunea izan da, berriz ere, euskal kanpo-sektorearen helmuga eta jatorri nagusia: esportazioen % 51,5 bereganatzen du, eta inportazio guztien % 42,6. Horri lotuta, azpimarratu behar da Frantziak eta Alemaniak, batera hartuta, kanpo-salmenten % 30,3 eta kanpo-erosketen % 23,8 bereganatzen dituztela.

2018an merkaturatutako produktuei dagokienez, esportazioen alorrean, makineria eta garraio-ekipoek guztizkoaren % 46,3 bereganatu dute; artikulua manufakturuak, berriz, guztizkoaren % 31,2 izan dira. Inportazioen alorrean, berriz, erregai eta lubrikatzaile mineralek bolumen osoaren % 28,2 barneratzen dute; jarraian, makineria eta garraio-ekipoak aurkitzen dira, eta baita artikulua manufakturuak ere (% 23,9 eta % 22,9, hurrenez hurren).

**31. koadroa EAEko esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sekzioen arabera**
*(M euro)*

Kontzeptua	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2016	2017	2018*	%	% Δ 18/17	2016	2017	2018*	%	% Δ 18/17
<b>GUZTIRA (guztizkoak)</b>	<b>21.615,9</b>	<b>24.109,9</b>	<b>25.487,5</b>	<b>100,0</b>	<b>5,7</b>	<b>15.604,1</b>	<b>18.707,9</b>	<b>20.288,8</b>	<b>100,0</b>	<b>8,5</b>
HERRIALDEEN ARABERA (guztizkoak)										
– Frantzia	3.614,7	3.760,0	3.887,3	15,3	3,4	1.626,4	1.836,4	1.914,3	9,4	4,2
– Alemania	3.357,1	3.794,1	3.835,4	15,0	1,1	2.622,9	2.797,8	2.919,4	14,4	4,3
– Italia	1.050,9	1.113,7	1.252,2	4,9	12,4	866,2	937,5	994,9	4,9	6,1
– Erresuma Batua	1.308,4	1.519,6	1.731,8	6,8	14,0	827,3	1.328,4	755,6	3,7	-43,1
– Eurogunea	11.345,2	12.477,3	13.127,2	51,5	5,2	7.722,2	8.313,3	8.642,1	42,6	4,0
– ELGA	17.632,9	19.724,4	21.000,8	82,4	6,5	11.025,1	12.915,4	13.416,2	66,1	3,9
– Beste helmuga batzuk	3.983,0	4.385,5	4.486,7	17,6	2,3	4.579,0	5.792,5	6.872,6	33,9	18,6
SEKZIOEN ARABERA (guztizkoak)										
– Elikagaiak eta animalia biziak	629,8	666,4	700,1	2,7	5,1	797,2	870,7	830,5	4,1	-4,6
– Edariak eta tabakoak	230,1	243,4	232,9	0,9	-4,3	11,9	13,7	17,2	0,1	25,5
– Jateko ez diren material gordinak, erregaia salbu	280,9	310,9	347,1	1,4	11,6	930,3	1.093,4	1.432,0	7,1	31,0
– Erregaia eta lubrifikatzaile mineralak eta horiei lotutako produktuak	1.747,6	2.271,6	2.566,8	10,1	13,0	3.281,0	5.009,2	5.729,5	28,2	14,4
– Olioak, koipeak eta argizariak (animalienak edo landareenak)	34,0	16,7	44,5	0,2	166,5	166,6	214,0	167,2	0,8	-21,9
– Produktu kimikoak eta haiei lotutako produktuak, beste inon zehaztu gabeak	854,9	852,8	953,8	3,7	11,8	1.393,8	1.541,9	1.590,3	7,8	3,1
– Artikulu manufakturuak, batez ere materialaren arabera sailkatuak	6.586,9	7.435,8	7.963,8	31,2	7,1	3.567,3	4.208,8	4.641,5	22,9	10,3
– Makineria eta garraio-ekipamendua	10.471,5	11.535,4	11.803,1	46,3	2,3	4.477,0	4.692,3	4.849,0	23,9	3,3
– Hainbat artikulu manufakturu	651,2	693,4	715,1	2,8	3,1	974,8	1.061,3	1.021,4	5,0	-3,8
– NMSUren beste kontzeptu batean sailkatu gabeko salgaiak eta eragiketak	129,0	83,5	160,2	0,6	91,9	4,2	2,5	10,1	0,0	304,0

*(\*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Eustat (Aduana eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera).*

Nafarroako ekonomia aztertzen badugu, EAEn ez bezala, esportazioek eta inportazioek gora egin dute 2018an. Hala, kanpoko salmentak 9.095,2 milioi eurora iritsi dira; hau da, % 12,2ko igoera jasan dute (aurreko ekitaldian % 3,9 jaitsi ziren). Inportazioak, berriz, 4.843,4 milioi eurokoak izan dira; hau da, % 8,4ko gorakada erregistratu dute (-% 1,6ko murrizketa 2017an). Gauzak horrela, balantza komertzialaren saldo positiboa 4.251,8 milioi eurora iritsi da (3.636, 7 milioi euro izan zen aurreko ekitaldian), eta esportazioek inportazioen gainean duten estaldura-tasa % 187,8 izatera iritsi da (% 181,4 2017an).

EAEn bezalaxe, Europa (EB-28) da Nafarroako kanpo-merkataritzaren jatorri eta helmuga nagusia: 2018an, kanpoko salmenten % 71,5 bereganatu zituen, eta kanpoko erosketen

% 76,5. Zehazki, Frantziak eta Alemaniak esportazioen % 17,1 eta % 15,6 hartu zituzten, eta inportazioen % 13,4 eta % 26,6, hurrenez hurren.

Muga-zergen partidei dagokienez, 2018an garraiatutako materialek kanpoko salmenten % 42,5 hartzen dute, bai eta kanpoan erositakoen % 21,9 ere; horrek zehazten du, neurri handi batean, Nafarroako kanpo-merkataritzaren dinamika orokorra.

### 32. koadroa Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera

(M euro)

Kontzeptua	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2016	2017	2018*	%	% Δ 18/17	2016	2017	2018*	%	% Δ 18/17
<b>GUZTIRA (guztizkoak)</b>	<b>8.437,6</b>	<b>8.105,9</b>	<b>9.095,2</b>	<b>100,0</b>	<b>12,2</b>	<b>4.543,9</b>	<b>4.469,2</b>	<b>4.843,4</b>	<b>100,0</b>	<b>8,4</b>
HERRIALDEEN ARABERA (guztizkoak)										
– Frantzia	1.433,1	1.482,3	1.552,9	17,1	4,8	554,6	567,7	647,3	13,4	14,0
– Alemania	1.282,7	1.180,0	1.419,9	15,6	20,3	1.356,7	1.148,4	1.290,5	26,6	12,4
– Italia	638,9	673,1	884,6	9,7	31,4	278,0	297,1	332,5	6,9	11,9
– Erresuma Batua	608,3	568,4	441,7	4,9	-22,3	149,3	106,6	118,3	2,4	11,0
– Portugal	324,3	317,9	417,7	4,6	31,4	249,0	256,2	232,6	4,8	-9,2
– EB-28 guztira	5.912,3	5.666,3	6.500,3	71,5	14,7	3.613,7	3.421,5	3.707,5	76,5	8,4
– Gainerako Europa	568,7	413,9	466,0	5,1	12,6	148,9	152,5	186,2	3,8	22,1
– Ameriketako Estatu Batuk	311,5	335,7	382,7	4,2	14,0	42,6	51,0	53,7	1,1	5,3
– Beste helmuga batzuk	1.645,1	1.690,0	1.746,2	19,2	3,3	738,7	844,2	896,0	18,5	6,1
SEKTOREEN ARABERA (guztizkoak)										
– Lehen sektorea	520,5	650,0	652,0	7,2	0,3	392,2	449,1	446,8	9,2	-0,5
– Nekazaritzako elikagaien industria	553,6	567,4	569,9	6,3	0,4	237,3	238,2	238,1	4,9	0,0
– Industria kimikoa	122,0	144,9	187,0	2,1	29,1	238,7	210,4	254,8	5,3	21,1
– Mat. plastikoak, kautxua	266,9	296,2	315,5	3,5	6,5	280,1	291,9	304,1	6,3	4,2
– Metal komunuen manuf.	668,7	636,2	675,0	7,4	6,1	485,4	508,2	594,1	12,3	16,9
– Makinak, mat. elektrikoa	1.991,8	1.925,1	2.163,2	23,8	12,4	1.278,0	1.207,6	1.313,8	27,1	8,8
– Garraio-materiala	3.774,6	3.291,3	3.861,6	42,5	17,3	1.006,1	933,5	1.059,5	21,9	13,5
– Gainerakoak	539,5	594,8	671,0	7,4	12,8	626,1	630,3	632,2	13,1	0,3

(\*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

## 2.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK

2018 osoan Brent petrolio-upela % 30,7 garestitu denez, prezioetan urte arteko aldakuntza-tasa positiboak izan dira ekitaldiko hilabete guztietan zehar, EAEn nahiz Nafarroan. Hala ere, urteko azken bi hilabeteetan prezio horien hazkuntzan baretze-joera argia izan da. Horrela, EAEn kasuan, KPlak urte arteko aldakuntza-tasa positiboak eta gorakorrak izan ditu urtarril eta ekain bitartean; apirila izan da salbuespen bakarra, zeinetan aurrerapen-erritmoa moteldu baitzen. Abuztu eta abendu artean, bestetik, aldakuntza-tasak positiboak eta beheranzkoak izan dira; urrian izan ezik, zeinetan hazkuntza neurri txikian indartu baitzen. Nafarroari dagokionez, antzeko dinamika izan da, baina gorakada apur bat handiagoekin maiztuz aurrera.

Gauzak horrela, 2018an (abendutik abendura) pilatutako inflazio-tasa % 1 izan da EAEn, eta % 1,3 Nafarroan (% 1,1 eta % 0,6 aurreko ekitaldia ixtean, hurrenez hurren). Ekitaldi osoari dagokion urteko batez besteko tasa % 1,6 arte jaitsi da EAEn (2017an % 2) eta Nafarroari dagokionez, apur bat gora egin du, aurreko urteko % 1,6tik % 1,7ra pasaz.

### 33. koadroa Prezioen bilakaera EAEn eta Nafarroan

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

EAE	2016	2017	2018	NAFARROA	2016	2017	2018
<b>KPI</b>				<b>KPI</b>			
Orokorra <sup>(1)</sup>	0,0	2,0	1,6	Orokorra <sup>(1)</sup>	0,0	1,6	1,7
Orokorra <sup>(2)</sup>	1,5	1,1	1,0	Orokorra <sup>(2)</sup>	1,8	0,6	1,3
Elik. eta alkoho. gab. edariak	0,7	1,7	0,6	Elik. eta alkoho. gab. edariak	0,8	0,3	1,1
Edari alkoholdunak, tabakoa	0,8	1,8	1,2	Edari alkoholdunak, tabakoa	1,1	1,3	1,2
Jantziak eta oinetakoak	0,9	0,3	0,9	Jantziak eta oinetakoak	0,9	0,7	1,0
Etxebizitza	0,4	1,1	2,8	Etxebizitza	0,3	1,0	3,2
Etxeko tresneria	0,8	-0,7	0,5	Etxeko tresneria	-0,3	-0,8	0,8
Osasuna	0,7	0,4	0,3	Osasuna	0,0	0,7	2,1
Garraioak	4,6	2,0	0,1	Garraioak	5,6	1,1	0,0
Komunikazioak	3,3	0,3	2,4	Komunikazioak	3,2	-0,1	1,7
Aisia eta kultura	0,9	-0,3	-0,3	Aisia eta kultura	1,4	-1,4	-0,4
Irakaskuntza	1,0	1,6	0,8	Irakaskuntza	1,2	0,6	1,1
Hotelak eta jatetxeak	1,3	1,8	1,6	Hotelak eta jatetxeak	1,9	2,5	2,9
Beste batzuk	1,8	0,5	0,9	Beste batzuk	2,1	-0,4	1,3
<b>Industria Prezioen Indizea (IPRI)</b>				<b>Nekazariak Jasotako Prezioen Indizea</b>			
Orokorra	-3,0	3,3	3,3	Orokorra	-3,1	3,9	5,6
Kontsumoa	0,7	0,9	1,2	Nekazaritza-produktuak	-0,6	2,9	9,5
Ekipamendua	0,9	1,8	1,6	Baso-produktuak	-6,2	-0,8	2,9
Bitartekoak	-2,2	2,8	3,6	Animalia-produktuak	-6,0	5,4	0,6

(1): Urteko batez besteko aldakuntza.

(2): Abendutik abendura.

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EII.

2018ko abenduko urte arteko aldakuntza kontuan hartuta, eta ondasun talde desberdinei erreparatuz gero, EAEn etxebizitzek izan dute aurrerapen handiena (% 2,8). Horren atzetik kokatzen dira komunikazioak (% 2,4) eta, distantzia handiagora, hotelak eta jatetxeak (% 1,6) eta edari alkoholodunak eta tabakoa (% 1,2). Bestetik, jantziak eta oinetakoak, beste batzuk, irakaskuntza, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak, etxeko tresneria, osasuna eta garraioak taldeek % 1etik beherako tasak izan dituzte (% 0,9 lehenengo bi kasuetan eta gero % 0,8, % 0,6, % 0,5, % 0,3 eta % 0,1, hurrenez hurren). Aldiz, aisia eta kultura taldeko prezioak murriztu egin dira (-% 0,3). Nafarroan ere etxebizitzek izan dute inflaziorik handiena (% 3,2), eta horren atzetik honako talde hauek kokatzen dira: hotelak eta jatetxeak (% 2,9), osasuna (% 2,1), komunikazioak (% 1,7), beste batzuk (% 1,3), edari alkoholodunak eta tabakoa (% 1,2), elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak eta irakaskuntza (% 1,1 bi kasuetan), jantziak eta oinetakoak (% 1), etxeko tresneria (% 0,8) eta garraioak (aldakuntzarik ez). Kasu honetan ere aisia eta kultura taldeko prezioak murriztu egin dira (-% 0,4).

EAEko industria-prezioei dagokienez, 2018an indize orokorrak eutsi egin dio % 3,3ko gorakadari (aurreko ekitaldian zifra berdina erregistratu zen). Hala, nabarmen aurrera egin dute kontsumo-ondasunek (2017an % 0,9 eta 2018an % 1,2) eta bitarteko ondasunek (% 2,8 eta % 3,6, hurrenez hurren), eta ekipamendu-ondasunak arinki aurreratu dira (2017an % 1,8 eta 2018an % 1,6).

Nafarroako nekazariek jasotako prezioei dagokienez, 2018an % 5,6 egin dute gora, besteak beste, nekazaritzako produktuen prezioak % 9,5 areagotu direlako, baso-produktuen prezioak % 2,9 eta animalia-produktuen prezioak % 0,6.

**34. koadroa Soldata-adierazleak**

Kontzeptua	2016	2017	2018
<b>EAE</b>			
Soldata-kostuak (urte arteko aldak. tasa)			
– Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko	0,2	-0,2	2,1
– Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko	-1,1	0,1	2,4
Hitzarmenak			
– Hitzarmen kopurua	559	532	432
– Eraginpeko langileak	211.000	195.796	186.418
– Adostutako soldata-igoera	0,89	1,43	1,81
<b>NAFARROA</b>			
Soldata-kostuak (urte arteko aldak. tasa)			
– Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko	1,5	2,8	1,7
– Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko	-0,4	4,1	1,8
Hitzarmenak			
– Hitzarmen kopurua	211	211	159
– Eraginpeko langileak	122.692	124.952	70.506
– Adostutako soldata-igoera	1,23	1,83	1,91

*Iturria: Lan Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta (EIN) eta Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.*

Azkenik, lan-kostuei dagokienez, 2018an hazi egin da ordu efektibo bakoitzeko soldata-kostua, % 2,1 EAEn eta % 1,7 Nafarroan. Langile eta hilabete bakoitzeko soldata-kostua, berriz, % 2,4 hazi da EAEn eta % 1,8 Nafarroan (azken honek % 4,1eko igoera izan zuen 2017an).

## 2.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA

### Lan-merkatua Euskal Herrian

2018an EAEn eta Nafarroan nahiz estatu-mailan dinamismo ekonomikoa bere horretan mantentzeak, okupazioak hazten jarraitzea eta langabezia murriztea ahalbidetu du, bai Euskal Herrian eta baita Estatuan ere.

Euskal Herriko biztanleria aktiboa 1.339,5 mila pertsonara iritsi da 2018an, eta bolumen horrek % 0,7ko urte arteko hazkunde arina ekarri du; honela sailkatzen dira: 1.205,8 mila pertsona okupatu (aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino % 1,9 gehiago) eta 133,7 mila pertsona langabe (2017arekin alderatuta, -% 9,1 gutxiago). Era berean, estatu-mailan ere biztanleria aktiboa arinki hazi da (+% 0,3); okupazioa haziz (% 2,7) eta langabezia murriztuz (-% 11,2).



Generoari dagokionean, Euskal Herriko biztanleria okupatuaren hazkuntza 2018an emakume okupatuaren hazkuntzeak (+% 4,5) markatu du, gizon okupatuaren kopuruak behera egin baitu (-% 0,4). Estatu-mailan, berriz, guztirako okupazioa bi kolektiboen hazkuntzari esker hazi da (gizon okupatuak % 2,6 eta emakume okupatuak % 2,8). Biztanleria langabearen jaitzierari dagokionez, bai Euskal Herrian zein Estatuan, orokorrean eman den egoera izan da, bi sexuetan: -% 0,6 eta -% 16,8 Euskal Herriko gizon eta emakumeentzat; eta -% 12,1 eta -% 10,3, hurrenez hurren, Estatu-mailan. Horiek horrela, gizon aktiboen kopurua -% 0,4 murriztu da Euskal Herrian, emakume aktiboen kopurua % 1,9 areagotu den bitartean. Estatu-mailan, bi kolektiboak % 0,3 hazi dira.

Egoera horretan, jarduera-tasa modu arinean handitu da Euskal Herrian (% 56,9 2018an eta % 56,8 2017an); EAEn handitu egin da (% 56,3 2018an eta % 56,1 aurreko ekitaldian) eta Nafarroan, berriz, gelditu (% 59,1 2017an nahiz 2018an). Estatu-mailan, jarduera-tasa arinki murriztu da, 2017ko % 58,8tik 2018ko % 58,6ra. Horiek horrela, Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko diferentziala 1,7 puntu portzentualekoa izan da.

Sexuan jartzen badugu arreta, Euskal Herrian gizonezkoen jarduera-tasak bilakaera murriztailea izan du (% 61,8 2018an eta % 62,4 2017an); emakumezkoena, berriz, hazi egin da (% 52,3 2018an eta % 51,6 aurreko ekitaldian), bi tasen arteko diferentziala arinki murriztu delarik. Datuak erkatze aldera, 2018an Nafarroako jarduera-tasa EAEn dagokiona baino handiagoa da; fenomenoak gizonen nahiz emakumeen kasuan hauteman da. Estatuak, bere aldetik, gizonen eta emakumeen jarduera-tasa handiagoak erregistratu ditu (% 64,6 eta % 53,1, hurrenez hurren), Euskal Herrikoekin alderatuta (% 61,8 eta % 52,3, hurrenez hurren).

Euskal Herriko langabeak aintzat hartuta, 2018an zifrak atzera egin du, 133,7 mila pertsonara arte; hau da, -% 9,1eko beherakada egon da, bat etorritik EAEn (-% 11,3) eta Nafarroan (-% 1,3) izan diren beherakadekin. Estatu-mailan, halaber, langabeen kopurua murriztu egin da 2018an (-% 11,2).

Hala, 2018an, langabezia-tasak aztertutako geografia-eremua guztietan egin du behera. Euskal Herriaren esparruan, 2017an % 11,1 izatetik 2018an % 10 izatera igaro da, EAEn (% 10 2018an eta % 11,3 2017an) nahiz Nafarroan (% 10 2018an eta % 10,2 aurreko ekitaldian) murriztu delarik. Estatu-mailan, langabezia-tasa % 15,3ra jaitzi da (aurreko urtean % 17,2koa zen); hala ere, komeni da aintzat hartzea erregistro horrek bigarrena izaten jarraitzen duela Europa mailan, soilik Grezia aurretik duela.

**35. koadroa Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia**
*(urteko batezbestekoak, milakotan)*

Eremua		2017			2018		
		Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
EAE	Aktiboak izan daitezkeenak	871,8	944,9	1.816,7	875,0	948,0	1.822,9
	Aktiboak	538,3	481,7	1.020,0	536,6	489,3	1.025,9
	Okupatuak	481,7	423,0	904,7	482,4	441,1	923,6
	Langabeak	56,6	58,7	115,3	54,1	48,2	102,3
	Jarduera-tasa	61,7	51,0	56,1	61,3	51,6	56,3
	Langabezia-tasa	10,5	12,2	11,3	10,1	9,9	10,0
	Erregistratutako langabezia*	56,7	70,8	127,5	53,0	66,7	119,7
Nafarroa	Aktiboak izan daitezkeenak	258,7	266,5	525,3	261,2	269,5	530,8
	Aktiboak	167,0	143,6	310,5	165,7	147,9	313,6
	Okupatuak	154,1	124,7	278,8	150,7	131,5	282,2
	Langabeak	12,9	18,9	31,8	15,0	16,4	31,4
	Jarduera-tasa	64,6	53,9	59,1	63,4	54,9	59,1
	Langabezia-tasa	7,7	13,2	10,2	9,1	11,1	10,0
	Erregistratutako langabezia*	15,5	20,3	35,7	14,0	18,9	32,8
Euskal Herria	Aktiboak izan daitezkeenak	1.130,5	1.211,4	2.342,0	1.136,2	1.217,5	2.353,7
	Aktiboak	705,3	625,3	1.330,5	702,3	637,2	1.339,5
	Okupatuak	635,8	547,7	1.183,5	633,1	572,6	1.205,8
	Langabeak	69,5	77,6	147,1	69,1	64,6	133,7
	Jarduera-tasa	62,4	51,6	56,8	61,8	52,3	56,9
	Langabezia-tasa	9,9	12,4	11,1	9,8	10,1	10,0
	Erregistratutako langabezia*	72,2	91,1	163,3	67,0	85,5	152,5
Espainia	Aktiboak izan daitezkeenak	18.803,1	19.851,0	38.654,1	18.908,8	19.978,0	38.886,8
	Aktiboak	12.172,1	10.569,6	22.741,7	12.206,5	10.600,3	22.806,8
	Okupatuak	10.266,3	8.558,5	18.824,8	10.532,0	8.795,7	19.327,7
	Langabeak	1.905,8	2.011,1	3.916,9	1.674,6	1.804,5	3.479,1
	Jarduera-tasa	64,7	53,2	58,8	64,6	53,1	58,6
	Langabezia-tasa	15,7	19,0	17,2	13,7	17,0	15,3
	Erregistratutako langabezia*	1.459,7	1.953,1	3.412,8	1.337,2	1.865,1	3.202,3

*(\*): Abendua.*
*Iturria: EIN (BAIren biztanleria-oinarria, 2011. 2019ko martxoko datuak) eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.*

EAEren esparruan, 2018an langabezia-tasa murriztu egin da bai gizonen (% 10,1 2018an eta % 10,5 2017an) bai emakumeen kasuan (% 9,9 2018an eta % 12,2 aurreko ekitaldian). Nafarroan, berriz, gizonen langabezia-tasa areagotu da (% 9,1 2018an eta % 7,7 2017an), eta emakumeena, aldiz, murriztu (% 11,1 2018an eta % 13,2 aurreko ekitaldian). Nolanahi ere, langabezia-tasak atzera egin du bi sexuen kasuan, bai Euskal Herrian bai Estatuan. Azken horretan, gizonen langabezia-tasa % 13,7ra jaitsi da (% 15,7koa zen 2017an), eta emakumeena % 17ra (aurreko ekitaldian % 19koa zen). EAEn salbu, aztertutako geografia-eremu guztietan, emakumeek gizonek baino langabezia-tasa handiagoa erregistratu dute.

Puntu honetara iritsita, txostenaren aurreko edizioetan bezala, jarraian labur aztertuko dugu langabezia, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako langabeziaren ikuspegitik. Horretarako, aintzat hartu beharko da, kasu zehatz honetan, eskaintako informazioa abenduari dagokiola, eta ez ekitaldi osoari. Zentzu horretan, iturri horren arabera, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Euskal Herriko bulegoetan 2018ko abenduan erregistratutako langabezia 152,5 mila pertsonakoa zen; hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 6,6ko murrizketa (119,7 mila pertsona EAEn eta 32,8 mila Nafarroan). Kopuru horiek urte arteko -% 6,1 eta -% 8,1eko murrizketak dakartzate, hurrenez hurren. Era berean, 2018ko abenduan estatu-mailan erregistratutako langabeziak atzera egin du (-% 6,2), 3.202,3 mila pertsonara iritsi arte.

### 36. koadroa Langabezia-tasa adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak

Eremua	Urtea	16-19	20-24	25-54	55 eta gehiago	Guztira
EAE	2016	56,3	31,5	12,0	9,4	12,6
	2017	36,4	26,0	10,8	8,8	11,3
	2018	30,4	24,9	9,2	8,6	10,0
Nafarroa	2016	36,7	33,3	11,4	9,2	12,5
	2017	42,9	28,7	9,2	6,2	10,2
	2018	42,4	22,9	9,2	7,3	10,0
Euskal Herria	2016	50,0	32,0	11,9	9,4	12,6
	2017	38,9	26,7	10,5	8,2	11,1
	2018	34,3	24,4	9,2	8,3	10,0
Espainia	2016	60,0	41,4	18,2	16,4	19,6
	2017	54,5	35,2	15,9	14,8	17,2
	2018	49,7	31,0	14,0	13,3	15,3

Iturria: EIN (BAIren biztanleria-oinarria, 2011. 2019ko martxoko datuak).

Biztanleria Aktiboaren Inkesta berriro ere aintzat hartuta (urteko batezbesteko datuak), langabezia-tasan alde handiak daude adinaren arabera; hala, gazteenek balio altuenak jasotzen dituzte. Zentzu horretan, 2018an 16 eta 19 urte arteko Euskal Herriko biztanleek % 34,3ko langabezia-tasa erregistratu dute. Ondoren, 20 eta 24 urte bitartekoak (% 24,4), 25-54 tartekoak (% 9,2) eta, azkenik, 55 edo gehiagokoak (% 8,3) daude.

Aurreko ekitaldiari dagokionez, Euskal Herriaren kasuan, langabezia-tasak gora egin du adin gehieneko pertsonen taldeetan, baina behera, oro har, gainerako adin talde guztietan: pertsona gazteenen kasuan, 2017an % 38,9 eta 2018an % 34,3; 20-24 urtekoen kasuan, 2017an % 26,7 eta 2018an % 24,4; eta 25-54 urtekoen kasuan, 2017an % 10,5 eta 2018an % 9,2.

Bestetik, estatu-mailan, gazteenek izan dute langabezia-tasa altuena 2018an (% 49,7), eta bilakaera murriztailea izan da adin talde guztietan.

**37. koadroa      Enpleguaren bilakaera, sektore ekonomikoen arabera. Urteko batezbestekoak**

*(m pertsona)*

Eremua	Urtea	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
EAE	2016	12,5	201,1	49,3	638,9
	2017	12,8	207,6	48,0	636,3
	2018	9,3	200,8	50,3	663,3
Nafarroa	2016	9,6	67,2	12,3	178,5
	2017	11,1	75,0	14,9	177,8
	2018	11,8	75,2	17,8	177,4
Euskal Herria	2016	22,1	268,3	61,6	817,4
	2017	23,9	282,6	62,9	814,1
	2018	21,1	276,0	68,1	840,7
Espainia	2016	774,5	2.522,2	1.073,8	13.970,9
	2017	819,5	2.647,4	1.128,3	14.229,6
	2018	812,6	2.708,3	1.221,8	14.585,1

*Iturria: EIN (BAren biztanleria-oinarria, 2011. 2019ko martxoko datuak). (EJSN-09).*

Enpleguak Euskal Herrian izan duen dinamika sektoriala dela eta, 2018an gora egin dute eraikuntzaren eta zerbitzuaren okupazio-mailek (% 8,3 eta % 3,3, hurrenez hurren); aldiz, lehen sektorean eta industrian behera egin du okupazio-mailak (-% 11,7 eta -% 2,3, hurrenez hurren). Edonola ere, kontuan izan behar da Euskal Herriko enpleguaren zati handiena zerbitzuen sektorekoa dela (guztizkoaren % 69,7, eta gehiena EAEn kokatuta dago), atzetik beste sektore hauek dituela: industria (% 22,9), eraikuntza (% 5,6) eta lehen sektorea (% 1,7).

Estatu-mailan, lehen sektorean izan ezik, gainerako guztietan gora egin du okupazio-mailak 2018an: eraikuntzan % 8,3, zerbitzuetan % 2,5 eta industrian % 2,3. Lehen sektorean, berriz, okupazio-mailak behera egin du (-% 0,8).

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako kontratuak aintzat hartuta, 2018an hazi egin dira, oro har, aztergai ditugun geografia-eremu guztietan. Hala, ekitaldi horretan 1.386.162 kontratu jakinarazi dira Euskal Herrian; alegia, % 4,3 gehiago (% 4,5 EAEn eta % 3,6 Nafarroan). Estatuan, berriz, 22.291.681 kontratu jakinarazi dira, hots, % 3,7 gehiago.

Kontratu motaren arabera, kontratazio mugagabea gehiago hazi da 2018an aldi baterako kontratazioa baino, hala Euskal Herrian (% 20,5 eta % 3) nola Estatu osoan (% 18,4 eta % 2,2). Dena den, kontuan hartu behar da erregistratutako kontratuen % 90 inguru aldi baterakoak direla oraindik ere.

## 38. koadroa Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren bulegoetan erregistratutako kontratuak

Eremua	Urtea	Mugagabeak			Aldi baterakoak			KONTRATUAK, GUZTIRA	
		Mugagabea	Konbertsioak	Guztira	Obra eta zerbitzua	Behin-behinekoak	Gainerakoak	Guztira	
EAE	2016	44.459	21.071	65.530	262.062	393.796	205.211	861.069	926.599
	2017	48.217	25.111	73.328	268.594	418.855	197.323	884.772	958.100
	2018	56.782	31.843	88.625	276.898	444.299	191.359	912.556	1.001.181
Nafarroa	2016	11.764	7.277	19.041	80.576	157.230	100.876	338.682	357.723
	2017	13.023	8.649	21.672	89.166	171.908	88.685	349.759	371.431
	2018	14.430	11.454	25.884	90.283	180.078	88.736	359.097	384.981
Euskal Herria	2016	56.223	28.348	84.571	342.638	551.026	306.087	1.199.751	1.284.322
	2017	61.240	33.760	95.000	357.760	590.763	286.008	1.234.531	1.329.531
	2018	71.212	43.297	114.509	367.181	624.377	280.095	1.271.653	1.386.162
Espainia	2016	1.131.236	582.026	1.713.262	7.715.112	8.641.593	1.908.987	18.265.692	19.978.954
	2017	1.242.805	686.445	1.929.250	8.278.306	9.412.876	1.880.871	19.572.053	21.501.303
	2018	1.446.936	837.988	2.284.924	8.274.521	9.830.653	1.901.583	20.006.757	22.291.681

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

Gizarte- eta lan-giroa dela eta, 2018an negoziazio kolektiboak garapen txikiagoa izan du aurreko ekitaldian baino, eta hitzarmen gutxiago negoziatu dira, pertsona gutxiagori eraginez, bai EAEn, bai Nafarroan eta baita Estatuan ere. Ildo horretan, 2018an atzerapenak egon dira hitzarmen kolektiboetan: EAEn -% 18,8, Nafarroan -% 24,6 eta Estatuan -% 20.

## 39. koadroa Hitzarmen kolektiboak eta grebak

Eremua	Urtea	Hitzarmen kolektiboak			Grebak			
		Kop.	Eraginpeko langileak	Hitzartutako soldataren gorakada	Kop.	Lang. parte-hartz.	Lang. greba bakoitzeko	Jardun gabeko lanaldia
EAE	2016	559	211.000	0,89	150	13.579	91	59.095
	2017	532	195.796	1,43	180	59.389	330	100.636
	2018	432	186.418	1,81	224	46.630	208	129.709
Nafarroa	2016	211	122.692	1,23	47	4.264	91	18.881
	2017	211	124.952	1,83	43	1.956	45	4.750
	2018	159	70.506	1,91	47	2.481	53	3.407
Espainia	2016	5.640	10.738.608	1,01	641	183.120	286	388.912
	2017	5.143	10.586.047	1,47	731	482.914	661	851.444
	2018	4.116	9.921.272	1,78	728	2.921.408	4.013	1.639.775

Iturria: Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. 2019ko apirilko datuak.

Laneko gatazkei dagokienez, 2018an bilakaera heterogeneoa izan dute aztertutako geografia-eremuetan. Hala, greben kopuruak gora egin du EAEn (% 24) eta Nafarroan (% 9,3), eta behera Estatuan (-% 0,4). Hala ere, grebetako parte-hartzaileen kopuruak behera egin du EAEn (-% 21,5) eta gora Nafarroan (% 26,8), eta izugarri gora Estatu osoan (% 505). Bestetik, lanean jardun gabeko lanaldien kopurua areagotu egin da EAEn

(% 28,9) eta Estatuan (% 92,6), baina behera egin du Nafarroako Foru Komunitatean (-% 28,3).

### Biztanleria

Euskal Herriko biztanleria pixka bat hazi da 2017an (% 0,3); zehazki, % 0,2ko gorakada egon da EAEn eta % 0,4koa Nafarroako Foru Komunitatean. Hala, Euskal Herria 2.837.392 biztanle izatera iritsi da (2.194.158 EAEn eta 643.234 Nafarroan). Estatuan, 46.572.132 biztanle egon dira 2017an, eta, hortaz, aldakuntza % 0koa izan da.

2017an 22.823 jaiotza egon dira Euskal Herrian (aurreko ekitaldian baino -% 5,5 gutxiago) eta 27.478 heriotza (aurreko ekitaldian baino % 2 gehiago). Horrenbestez, saldo begetatibo negatiboa -4.655 pertsonakoa izan da, jarraipena emanez 2014an hasitako hazkunde begetatibo negatiboen joerari.

#### 40. koadroa Biztanleriaren mugimendu naturala. Jaiotza- eta heriotza-tasak, 2017

Eremua	Jaiotzak	Heriotzak	Hazkunde begetatiboa	Jaiotza-tasa (‰)	Heriotza-tasa (‰)
Araba	2.962	2.812	150	9,1	8,6
Bizkaia	8.522	11.813	-3.291	7,4	10,3
Gipuzkoa	5.593	7.009	-1.416	7,8	9,7
EAE	17.077	21.634	-4.557	7,8	9,9
Nafarroa	5.746	5.844	-98	8,9	9,1
Euskal Herria	22.823	27.478	-4.655	8,0	9,7
Espainia	393.181	424.523	-31.342	8,4	9,1

*Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). 2018ko abenduko datuak.*

Testuinguru horretan, EAeko eta Nafarroako jaiotza-tasak behera egin du (2017an ‰ 8 eta 2016an ‰ 8,5) eta heriotza-tasak, berriz, gora (2017an ‰ 9,7 eta 2016an ‰ 9,5). Estatuan, jaiotza-tasa handiagoa izan da (‰ 8,4) eta heriotza-tasa txikiagoa (‰ 9,1).

Ezkontzei dagokienez, EAEn eta Nafarroan 9.733 izan dira 2017an; hots, aurreko ekitaldian baino -% 0,3 gutxiago. Estatuan 168.989 ezkontza egon dira, aurreko urtean baino -% 1,2 gutxiago.

## 41. koadroa Euskal Herriko biztanleriaren mugimenduaren bilakaera

Urtea	Biztanleria	Ezkontzak	Jaiotzak	Jaiotza-tasa (‰)	Heriotzak	Heriotza-tasa (‰)	Hazkunde begetatiboa	Migrazio-saldoa
2007	2.747.736	11.767	27.189	9,9	24.414	8,9	2.775	-1.715
2008	2.777.489	11.720	28.339	10,2	24.725	8,9	3.614	2.481
2009	2.802.753	10.985	27.749	9,9	24.761	8,8	2.988	3.543
2010	2.815.263	10.665	27.948	9,9	24.344	8,6	3.064	3.882
2011	2.826.657	10.304	27.902	9,9	24.990	8,8	2.912	5.702
2012	2.837.659	10.171	27.264	9,6	25.657	9,0	1.607	4.764
2013	2.836.159	9.286	25.191	8,9	25.043	8,8	148	3.469
2014	2.829.775	9.595	25.562	9,0	25.677	9,1	-115	5.103
2015	2.829.733	9.861	24.856	8,8	27.191	9,6	-2.335	4.031
2016	2.830.181	9.763	24.141	8,5	26.951	9,5	-2.810	4.247
2017	2.837.392	9.733	22.823	8,0	27.478	9,7	-4.655	3.014

Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). Migrazio-mugimenduak (EIN). 2018ko abenduko datuak.

Azkenik, nabarmendu behar da 2017an Euskal Herriak migrazio-saldo positiboa izan duela, 3.014 pertsonakoa, immigrazio-kopuru handiagoa egon delako emigrazio-kopurua baino. Zehazki, EAEk migrazio-saldo positiboa izan du, 1.739 pertsonakoa, eta Nafarroak 1.275 pertsonakoa.



## 2. INDUSTRIA



## 1. IKUSPEGI OROKORRA

EAE eta Nafarroako industria-sektorean jarduera berriro hedatu da 2018an, baina aurreko ekitaldietan baino modu orekatuagoan; horrela, aurreko urteetan hasitako goranzko dinamikari eutsi dio.

Eremu geografikoak kontuan hartuta, EAEn 2018an sektoreko balio erantsi gordinak % 2,1eko gorakada erregistratu du (2017an % 3,1) eta Nafarroari dagokionean, hazkundea % 2,0koa izan da (2017an % 2,1). Hala ere, nabarmendu behar da EAEn sektoreak beheranzko joera erakutsi duela 2018ko lehen hiruhilekotik laugarrenera (% 3,7; % 3,1; % 1,9; -% 0,2). Nafarroan ez da horrelakorik gertatu, urteko hirugarren hiruhilekora arte nolabaiteko hobekuntza erregistratu baita (% 1,8; % 2,0; % 2,3; % 1,9). Dela dela, 2018an EAEn eta Nafarroan industria-sektorearen jardueran erregistratutako hedapena Estatu mailan hautemandakoa (% 1,1) baino handiagoa izan da.

Industria-enpleguari dagokionez, eta BAiren datuen arabera, 2018an EAEn % 3,3ko murrizketa jasan da (+% 4,1 BJAren arabera). Nafarroari erreparatu, ostera, % 0,3koa izan da behatutako gorakada (2017an % 11,6). Bi kasuetan, kontabilizatutako zenbatekoa Estatu mailakoaren azpitik kokatzen da (2018an % 2,3, 2017an % 5,0).

### Produkzio-adierazleak

Industria-jardueraren beste adierazle batzuk kontuan hartuta, Industria Produkzioaren Indizea (IPI) hedatu egin da 2018an, baina aurreko ekitaldietan baino modu orekatuagoan. Hori EAEn eta Estatu mailan gertatu da, ez ordea Nafarroan, produkzioaren indizeak % 0,5eko beherakada erregistratu baitu (2017an -% 2,1). Bestalde, EAeko produkzioaren indizeak % 2,0ko gorakada erakutsi du 2018an (2017an % 5,7) eta Estatu mailan % 0,3ko hazkunde arina izan du (2017an % 3,2).

**42. koadroa      Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera**

(%)

Urtea	EAE IPI <sup>(*)</sup>	Nafarroa IPI <sup>(*)</sup>	Estatua IPI <sup>(*)</sup>
2011	3,9	-2,1	-1,6
2012	-5,2	-8,0	-6,7
2013	-3,4	-1,6	-1,6
2014	1,2	3,9	1,3
2015	3,3	2,2	3,4
2016	3,1	0,7	1,8
2017	5,7	-2,1	3,2
2018	2,0	-0,5	0,3

(\*): Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

Iturria: Geuk egina, Eustaten, Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI), EINen eta Iberdrolaren datuetatik abiatuta.

**43. koadroa      Euskal Herriko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen jomuga ekonomikoen arabera**

(%)

Urtea	Bitarteko ondasunak		Ekipo-ondasunak		Kontsumo-ondasunak		Energia	
	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa
2011	5,5	-2,4	10,7	-1,2	-0,5	5,9	-7,8	-30,8
2012	-6,5	-6,7	-5,4	-10,3	-2,5	-4,9	-2	-7,1
2013	-2,9	-4,6	-3,6	3,3	-4,9	-0,2	-3	-6,8
2014	2,1	10,0	1,5	3,4	-0,1	3,2	0,1	-6,0
2015	1,0	-0,8	7,1	4,9	2,9	2,4	1,4	6,9
2016	2,3	0,9	8,6	-0,3	1,5	0,8	-3,6	12,8
2017	7,7	7,4	3,3	-4,5	5,6	-0,5	3	2,7
2018	1,1	7,3	3,3	-2,8	5,7	0,9	1,4	-12,1

(\*): Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

Iturria: Geuk egina Eustaten eta Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI) datuetatik abiatuta.

Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera kontuan hartuta, ondasunen jomuga ekonomikoaren arabera, gorakadak nabari dira EAeko helmuga ekonomiko guztien IPlan. Zehazki, % 1,1 bitarteko ondasunetan, % 3,3 ekipo-ondasunetan, % 5,7 kontsumo-ondasunetan eta % 1,4 energian. Nafarroan, ordea, ez da gauza bera gertatu, eta ekipo-ondasunetan (-% 2,8) eta energian (-% 12,1) izandako beherakadek, bitarteko ondasunen (% 7,3) eta kontsumo-ondasunen (% 0,9) produkzioan izandako gorakada indargabetzen dute.

Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera jarduera-adarren arabera aztertuz gero, EAEn bereziki nabarmentzen da erauzketa-industrietan izandako hazkunde esanguratsua (% 13,7). Horrez gain, hurrengoan IPlak ere gora egin du, baina modu orekatuagoan: Kokeria eta petrolio-findegia (% 9,7), Informatikako eta elektronikako

produktuak (% 8,5), Elikagai, edari eta tabakoaren industria (% 7,4), Material eta ekipo elektrikoa (% 6,9), Makineria eta ekipoa (% 4,9), Farmaziako produktuak (% 2,5), Altzariak eta beste manufaktura-industria (% 2,1), Garraio-materiala (% 1,9), Industria kimikoa (% 0,9), Zura, papera eta arte grafikoak (% 0,7), Kautxua eta plastikoak (% 0,4) eta Metalurgia (% 0,3). Guztira, 13 dira ekoizpenean gorakada izandako jarduera-adarrak. Beherakada bakarrak Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintzan (-% 7,4) eta Energia elektrikoa, gasa eta lurrunean (-% 1,4) hauteman dira.

**44. koadroa EAEko Industria Produktzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera\***

Kontzeptua	2016	2017	2018 (%)
Erauzketa-industriak	-18,9	-2,6	13,7
Elikagai, edari eta tabakoaren ind.	0,9	5,9	7,4
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza	3,0	2,7	-7,4
Zura, papera eta arte grafikoak	0,3	1,4	0,7
Koke-fabrikak eta petrolio-finketa	-0,5	2,3	9,7
Industria kimikoa	1,6	7,3	0,9
Farmaziako produktuak	6,2	-2,4	2,5
Kautxua eta plastikoak	4,7	8,6	0,4
Metalurgia	1,8	7,9	0,3
Informatikako eta elektronikako produk.	-3,5	17,5	8,5
Material eta ekipo elektrikoa	-2,6	2,4	6,9
Makineria eta ekipoa	2,3	0,0	4,9
Garraio-materiala	20,3	6,5	1,9
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	6,3	3,0	2,1
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-5,2	3,8	-1,4

(\*): Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.  
Iturria: Eustat.

**45. koadroa Nafarroako Industria Produktzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera**

Kontzeptua	2016	2017	2018 (%)
Nekazaritzako elikagaien industria	1,3	-2,3	-1,6
Metalurgia eta produktu metalikoak	0,3	8,7	2,7
Papera, zura eta altzariak	7,9	7,1	8,8
Garraio-materiala	-2,0	-14,6	0,1
Beste manufaktura-industria batzuk	0,5	6,4	3,5

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI).

Nafarroan 2018an eta 2017an antzeko bilakaera islatu da, baina azpimarratzekoa da Garraio-Materialean izandako hobekuntza, bere IPIa % 0,1 igo baita (2017an -% 14,6). Metalurgia eta produktu metalikoen, Papera, zura eta altzarien eta Beste manufaktura-industria batzuen kasuan, ekoizpenak gora egin du baita ere (% 2,7, % 8,8 eta % 3,5, hurrenez hurren). Ekoizpenean jaitsiera erregistratu duen bakarra Nekazaritzako elikagaien industria da (-% 1,6).

### Enpresen emaitzak

Industria-jarduerak jasan duen hobekuntza euskal industria-enpresen emaitzen kontuan ere islatu da, hurrengo taulan ikusi daitekeen moduan.

**46. koadroa** Ratio batzuen bilakaera, euskal industria-enpresen lagin baterako


Ratioak	2014	2015	2016	2017	2018
Bitarteko kontsumoak/salmentak	56,4	56,7	56,8	55,6	53,8
Langileen kostuak/salmentak	21,5	20,8	20,2	22,0	22,3
Finantza-karga garbia/salmentak	1,3	1,6	1,3	1,3	1,2
Mozkinak/salmentak	6,8	7,7	9,0	5,9	8,6
Mozkinak/berezko funtsak	12,0	14,6	16,3	8,7	16,7
Cash flow/salmentak	8,2	10,2	11,0	9,9	12,7
Salmentak/langileak (m euro)	186,6	196,8	204,4	196,3	174,5

(%)

Iturria: CNMV eta geuk egina.

Testuinguru horretan, urtero aztertutako euskal industria-enpresa nagusien laginaren arabera, mozkinak/salmentak eta mozkinak/berezko funtsak ratioak (zerga aurretik kalkulatuta) 2018an % 8,6an eta % 16,7an kokatzen dira, hurrenez hurren. Bi kasuetan, tasek gorakada nabarmena adierazten dute aurreko ekitaldikoekin alderatuta, eta aurreko urteetan erregistratutako balioetara bueltatzen dira, 2013an hasitako goranzko joerara itzuliz.

**4. grafikoa** Industria-errentagarritasuna



Iturria: Geuk egina.

Euskal industria-enpresa nagusien laginaren jardueraren emaitzek izan duten bilakaerari buruz aurretik aipatutakoa berretsi egiten da, Espainiako Bankuaren Hiruhilekoko Balantzeen Zentralaren (HBZ) emaitzak aztertzean; honakoa, 960 enpresa ez-finantzarioek igorritako 2018ko lau hiruhilekotako datuei dagokie, eta enpresa horiek enpresa ez-finantzarioen sektoreko balio erantsi gordinaren % 12,0a ordezkatzeko dute.

Testuinguru horretan, Hiruhilekoko Balantzeen Zentralaren (HBZ) informazioaren arabera, 2018an enpresen jarduerak hazten jarraitu du; hala, balio erantsi gordinak (BEG) % 3,3 egin du gora termino nominaletan (aurreko urtean % 0,5eko gorakada erregistratu zen). Dena den, aurrerapen horren intentsitatean eragin zuzena dauka hiruhilekoko laginean gehiegizko ordezkariak duten zenbait sektoreen portaerak. Zehazki, berraztatutako tasak, zeina adar bakoitzari sozietate ez-finantzarioen multzoan duen benetako pisua aplikatuz kalkulatu den, agerian uzten du BEGak gorakada handiagoa izan zuela 2017an, % 2,5era igoz, 2018ko aldakuntza-tasa oso antzeko mantentzen delarik (% 3,2). Gorakada hori, hain zuzen, barne-eskariak dinamismo handiagoa eskuratu zuen testuinguru batean sortu zen; ondorioz, Espainiako erosketek nahiz salmentek aurreko urtean baino garrantzi erlatibo handiagoa bereganatu zuten.

**47. koadroa      Emaizten kontua. Urte arteko bilakaera (enpresa berdinei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko)**

OINARRIAK	Hiruhilekoko Balantzeen Zentrala <sup>(*)</sup>		
	I-IV 16/ I-IV 15	I-IV 17/ I-IV 16	I-IV 18/ I-IV 17
<b>Enpresen kopurua/Nazioko guztizko estaldura</b>	<b>980/ % 14,0</b>	<b>991/ % 13,3</b>	<b>960/ % 12,0</b>
1. Produkzioaren balioa (dirulaguntzak barne)	-0,4	6,0	6,2
Negozio-zifra zenbateko garbia eta ustiapenaren bestelako diru-sarrerak	-3,4	7,5	7,2
2. Bitarteko kontsumoak (zergak barne)	-2,7	8,8	7,6
Erosketa garbiak	-1,0	11,2	8,5
Ustiapeneko bestelako gastuak	-2,8	4,4	4,5
S.1. BALIO ERANTSI GORDINA FAKTOREEN KOSTUAREKIKO (1-2)	4,2	0,5	3,3
3. Langileen gastuak	0,8	3,0	3,0
S.2. USTIAPENAREN EMAITZA EKONOMIKO GORDINA (S.1.-3)	7,9	-1,8	3,5
4. Diru-sarrera finantzarioak	1,7	12,2	-1,6
5. Finantza-gastuak	-12,1	-9,2	-5,2
6. Amortizazioak eta ustiapen-hornidurak	-0,1	0,6	0,8
S.3. OHIKO EMAITZA GARBIA (S.2 + 4 -5 -6)	19,5	4,7	5,0
7. Besterentzeen eta narriaduraren ondoriozko emaitzak	---	---	---
8. Arrazoizko balioaren aldakuntzak eta gainerako emaitzak	-16,7	59,2	---
9. Irabazien gaineko zergak	---	-50,8	-12,8
S.4. EKITALDIKO EMAITZA (S.3 + 7 + 8 -9)	145,6	-22,0	102,6
EKITALDIKO EMAITZA / BEG (S.4 / S.1)	30,5	23,9	48,8
ERRENTAGARRITASUNAK	---	---	---
R.1. Aktibo garbiaren ohiko errentagarritasuna (zerga aurretik)	6,0	6,1	6,5
R.2. Jasotako finantz. interesak, kostua duten besteren baliabideei dagokienez	2,6	2,3	2,2
R.3. Baliabide propioen ohiko errentagarritasuna (zerga aurretik)	8,6	9,1	9,9
R.4. Errentagarritasunaren aldea - finantza-kostua (R.1. - R.2.)	3,3	3,7	4,3

(\*): Zutabe horietako datu guztiak hiruhilekoko datuen batezbesteko haztatu moduan kalkulatu dira.

Iturria: Espainiako Bankua.

Enpleguak % 1,5 egin zuen gora 2018an; alegia, aurreko urtean baino ia puntu bat gutxiago (% 2,4). Langileen kopuruaren gorakada horren arrazoi nagusia langile finkoen kontratazioan oinarritzen da, zeinak % 1,9ko hazkundera jasan zuen.

Jardueraren dinamismo handiago horri esker, emaitza ekonomiko gordina (EEG) % 3,5 hazi zen; horri gastu finantzarioen uzkurdura gehituz gero (interes-tasen beherakada dela-eta), emaitza arrunt gordinak (EAG), orotara, % 5eko gorakada hauteman zuen 2018an (aurreko ekitaldian % 4,7 areagotu zen).

Bestetik, ezohiko diru-sarrera eta gastuen bilakaerak eragin oso positiboa izan zuen ekitaldiko emaitzan, zeina bikoiztu egin baitzen aurreko urteko datuekin alderatuta. BEGaren gaineko portzentajeak aztertuz gero, amaierako soberakina % 48,8an aurkitzen da (aurreko urtean erregistratutako balioa baino ia 25 puntu gehiago), 2018an izandako aparteko gorakada islatuz, batez ere, ezohiko emaitzen bilakaerak eraginda.

Azkenik, irabazi arrunten hazkunde horrek berekin ekarri zuen 2018ko errentagarritasunaren batez besteko ratioek gora egitea, % 6,5era arte aktibo garbiaren ohiko errentagarritasunaren kasuan (2017an % 6,1) eta % 9,9ra arte berezko baliabideen ohiko errentagarritasunaren kasuan (2017an % 9,1). Bestetik, finantzaketaren batez besteko kostuak arinki jaisten jarraitu zuen 2018an ere; horrenbestez, aktiboaren errentagarritasunaren eta finantzaketaren batez besteko kostuaren arteko diferentziala handitu egin zen berriro ere (2018an % 4,3 eta 2017an % 3,7).

## 2. ENERGIA

Klima-aldaketari buruzko Konbentzioko Aldeen 24. Biltzarra (COP24) abenduaren hasieran izan zen Katowicen (Polonia), eta Pariseko Akordioa aktibatzen arau-liburu batekin amaitu zen; testu hori duela hiru urte sinatu zuten ia 200 herrialdek Kiotoko Protokoloari jarraipena emateko.

Pariseko Akordioa 2020. urtean aplikatzea aurreikusita dago, eta klimari buruzko lehen akordio unibertsala da, nazio guztientzat juridikoki loteslea dena. Emisioak arintzeari eta murrizteari buruz, Akordioa testuaren arabera, Gobernuak hurrengo adostu zuten:

- epe luzearako helburu gisa munduko tenperaturaren batez besteko gorakada industriaurreko mailetatik 2°C baino askoz azpitik mantentzea
- gorakada 1,5°C-ra mugatzea, klima-aldaketaren arriskuak eta eragina nabarmen murrizteko
- emisio globalak ahal bezain laster maila gorenera heltzea, garapen bidean dauden herrialdeetan prozesua luzeagoa izango dela onartuz
- ondoren, eskura dauden irizpide zientifiko onenetan oinarritutako murriztapen azkarrak aplikatzea

Gainera, herrialde partaideek beste obligazio batzuk dituzte, besteak beste, gardentasuna eta beren aurrerapenei buruz kontu ematea, eta 5 urtean behin biltzeko konpromisoa, diagnostiko globala egin eta helburu handizaleagoak ezartzeko. Beste alderdi garrantzitsu bat garatutako herrialdeek hartutako konpromisoa da, garapen bidean dauden herrialdeak finantzarioki babesteko. Horretarako, 2020. urterako 100.000 milioi dolarreko helburu kolektiboa ezarri da, eta neurria 2025. urtera arte zabaldu nahi da, etorkizunari begira helburu handizaleago bat aurreikusiz. Horrez gain, klima-aldaketaren kontra borroka eraginkor bat burutzeko, Akordioak beste zenbait agente inplikatzearen garrantzia berresten du, hala nola, hiriak, administrazio azpinazionalak, sozietate zibila eta sektore pribatua.

Beraz, Katowicen "Pariseko Araudia" onartzen da, Pariseko Akordioa aktibatzen aukera emango duena, eta, lehen aldiz, sistema komun bat zehazten da herrialde bakoitzak klima-aldaketarekin lotutako arintze, moldaketa eta finantzazioari dagokionez hartuko dituen konpromisoak neurtzeko eta erdiesteko. Gobernuarteko Adituen Taldeak klima-aldaketari buruz egindako txostenaren arabera, posiblea da tenperatura globalaren igoera 1,5 gradutan mantentzea, baina aldeen konpromiso handia beharko da. Konpromiso horrek honakoa exijitzen du: 2030. urtea baino lehen emisioak, 2010eko balioekin alderatuta, % 45 murriztea, eta 2050. urtea baino lehen emisiorik gabeko



balantzea lortzea. Beraz, frogatu da "inoiz ez bezalako premiazko" aldaketak egitea oso garrantzitsua dela Pariseko Akordioko bigarren puntua betetzeko.

Halaber, azpimarratzekoa da, klima-aldaketaren alorrean garatutako jardunbide egokiaren adibide bezala, COP24ko antolatzaileek landutako neurri-sorta, goi-bileraren ondorio kaltegarriak arintzeko. Besteak beste, parte-hartzaileentzako doako garraio publikoa, material berrerabilgarriak eta hondakinen kudeaketa-politika zorrotza. Horrez gain, hurrengo 20 urteetan 6 milioi zuhaitz landatzeko konpromisoa hartu dute, Biltzarrean sortutako emisioak xurgatzeko gai izango direnak.

EBri dagokionean eta politika energetikoaren ildotik, oraindik ere hiru dira helburu nagusienak; hau da, horniketa-ziurtasuna, lehiakortasuna eta jasangarritasuna. Horretarako, 2030. urtera arteko klima eta energiari buruzko jarduera-esparruaren baitan, EBk etorkizunean jorratu beharreko politikei buruzko eztabaidak hastea proposatu du, hurrengo gaiak kontuan hartuta:

- 2050. urtera bitartean berotegi-efektuko gasen emisioak % 80-95 murriztea 1990eko mailarekin alderatuta
- energiaren prezio altuak eta EBren ahultasun ekonomikoa etorkizunean prezioek, gasarenak eta petroliorenak bereziki, izan ditzaketen gorakaden aurrean
- EBren mendekotasuna energia-inportazioen aurrean, askotan energia hori politikoki ezegonkorrak diren lurraldeetatik heltzen dela kontuan izanik
- azpiegitura energetikoak ordezkatu eta hobetzeko beharra, eta etorkizuneko inbertitzaileentzat araudi egonkor bat sortzeko premia
- EBk 2030. urterako berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko helburuari buruz akordioa ixteko beharra, klima-aldaketari buruzko nazioarteko akordio berri baten negoziazioetan bere ekarpena eginez

Bestalde, indarrean mantentzen da EBk 2008an adostutako klima-aldaketa eta energiari buruzko politika bateratua, 2020. urterako helburu handizaleak eta 2030 eta 2050erako helburu berriak dituenak.

Hauek dira 2020. urtera begira hartutako neurrien oinarritzko helburuak:

- berotegi-efektuko gasen emisioak % 20 murriztea (1990eko mailarekin alderatuta)
- % 20ko energia berriztagarriak EBn
- energia-eraginkortasuna % 20 hobetzea

2030era begira oinarrizko helburuak hiru dira baita ere:

- berotegi-efektuko gasen emisioak % 40 murriztea (1990eko mailarekin alderatuta)
- gutxienez % 27ko energia berriztagarriak
- energia-eraginkortasuna gutxienez % 27 hobetzea

2050. urteari begira, ekonomia hipokarboniko bat lortzeko bide-orriak hurrengoa zehazten du:

- 2050erako, EBk emisioak % 80-95 murriztu beharko ditu, 1990eko mailarekin alderatuta
- hori lortzeko, aurretik 2030ean % 40ko murrizketa eta 2040an % 60koa lortu beharko ditu.

Helburu horiek lortzeko beharrezkoa izango da sektore guztien laguntza, trantsizio hori, adituen arabera, bideragarria eta ekonomikoki posiblea izanik.

## 2.1 EAEko BALANTZE ENERGETIKOA

EAEko balantze energetikoari dagokionez, azpimarratu behar da ez dagoela 2018. urteari buruzko daturik, eta ondoren jorratuko den informazioa 2017ko datuei dagokiola. Hori esanda, Energiaren Euskal Erakundea (EVE), Euskadiko agentzia energetikoa, da ondoren aurkeztuko den balantze energetikoa burutu duena. EAEko balantze energetikoa Eurostat metodologiaren arabera kalkulatu da, eta askotariko energia motei jarraipena egiten die, erauzketa edo inportaziotik beren eraldaketa eta kontsumora arte. Horrela, balantzea bi ataletan banatzen da. Lehendabizikoak (1-5 puntuak) lehen mailako iturrien energia-hornidura jasotzen du, erauzketak (1. Lehen mailako energiaren ekoizpena) edo inportazioak (2. Sarrera guztiak) kontuan izanda. Kopuru horien guztizkoa, stocken mugimendurekin (3), esportazioekin (4) eta itsas-garraioarekin (5) doitua, barne-kontsumorako eskuragarri dagoena da (6. puntuak = 1+2+3-4-5). Balantzearen bigarren atalak barne hartzen ditu energiaren eraldaketa prozesuak eta konbertsio-prozesuak (7 eta 8), trukeak (9), energia-sektorearen kontsumoaren (10) eta galeren (11) ostean azken kontsumorako dagoen energia (12 = 6-7+8+9-10-11). Azken kontsumo ez energetikoari (13) kontsumorako dagoena (12) kendu eta gero, azken kontsumo energetikoa (14) lortzen dugu.

48. koadroa 2017ko EAEko balantze energetikoa

(ktep)

Sektorea	Ikatza eta deribatuak	Petrolioia eta deribatuak	Gas naturala	Energia deribatuak	Energia berriztagarriak	Energia elektrikoa	Guztira
1. Lehen mailako energiaren ekoizpena	0	0	0	26	458	0	483
2. Sarrera guztiak	37	8.537	2.344	0	78	865	11.861
3. Stocken mugimendua	0	9	-42	0	0	0	-34
4. Irteera guztiak	0	5.716	156	0	0	0	5.871
5. Bunkerrak (itsas-garraioa)	0	0	0	0	0	0	0
*6. Barne-kontsumo gordin erabilgarria	37	2.830	2.146	26	536	865	6.440
7. Sarrerak eraldaketara	0	9.128	731	10	135	0	10.005
7.1 Zentral termoelektrokoak	0	0	467	0	42	0	510
7.2 Kogenerazioa	0	9	264	10	93	0	376
7.3 Koke-fabrikak	0	0	0	0	0	0	0
7.4 Findegiak	0	9.119	0	0	0	0	9.119
8. Irteerak eraldaketatik	0	9.038	0	1	0	458	9.496
8.1 Zentral termoelektrokoak	0	0	0	0	0	244	244
8.2 Kogenerazioa	0	0	0	1	0	213	214
8.3 Koke-fabrikak	0	0	0	0	0	0	0
8.4 Findegiak	0	9.038	0	0	0	0	9.038
9. Trukeak	0	0	0	0	-59	59	0
10. Sektore energetikoaren kontsumoa	0	278	89	0	0	97	464
11. Garraio eta banaketako galerak	0	0	0	0	0	45	45
**12. Azken kontsumorako dagoena	37	2.462	1.326	16	342	1.240	5.422
13. Azken kontsumo ez energetikoa	0	139	0	0	0	0	139
<b>***14. Azken kontsumo energetikoa</b>	<b>37</b>	<b>2.323</b>	<b>1.326</b>	<b>16</b>	<b>342</b>	<b>1.240</b>	<b>5.284</b>

\* 6=1+2+3-4-5

\*\* 12=6-7+8+9-10-11

\*\*\* 14=12-13

Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EVE)

EVEk emandako informazioaren arabera, 2017ko ekitaldian EAEko azken kontsumo energetikoa 5.284 mila tepekoa izan da, aurreko urtean baino apur bat handiagoa (% 5,5). Barne-kontsumo garbiak antzeko bilakaera izan du, ekitaldia 6.440 mila tepekin itxiz, aurreko ekitaldiko 6.253 mila tepekin alderatuta (% 3ko igoera).

49. koadroa EAEko kontsumoa energia moten arabera


(ktep)

Sektorea	2015	2016	2017	% Δ 17/16
Ikatza eta deribatuak	44	31	37	19,4
Petrolioia eta deribatuak	2.133	2.214	2.323	4,9
Gas naturala	1.290	1.233	1.326	7,5
Energia deribatuak	18	18	16	-11,1
Energia berriztagarriak	260	293	342	16,7
Energia elektrikoa	1.289	1.220	1.240	1,6
<b>Guztira</b>	<b>5.034</b>	<b>5.008</b>	<b>5.284</b>	<b>5,5</b>

Iturria: EVE. Geuk egina.

2017ko datuen arabera, eta energia-iturriaren arabera EAEko kontsumoari dagokionez, ekitaldian ia energia mota guztien eskariak gora egin du, neurri handiago edo txikiagoan, energia deribatuen kasuan izan ezik; % 0,3ko pisu espezifiko du, eta bere kontsumoak % 11,1 egin du behera. Hori esanda, eta kontsumo handiena duen energia-iturriari, petrolioia eta deribatuak (partaidetzaren % 44) energiari, dagokionez, bere eskaria % 5 inguru handitu da (2016an % 3,8). Pisu esanguratsuena duten beste bi energien, gas naturalaren (% 25,1eko kuota) eta energia elektrikoaren (% 23,5ekoa), kontsumoak ere gorakada jasan du, baina berau nabarmenagoa izan da lehendabizikoan (% 7,5) bigarreanean (% 1,6) baino. Hurrengoek pisu txikiagoa baina hazkunde-erritmo handiagoa erakutsi dute: ikatza eta deribatuak -taldeko urte arteko eboluzio onenarekin (% 19,4) eta % 0,7ko garrantzi espezifikoarekin- eta energia berriztagarriak -kontsumoan % 16,7ko iguera nabarmena eta % 6,5eko partaidetza izanda-

5. grafikoa EAEko azken kontsumoa energia moten arabera (ktep)



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EVE)

50. koadroa EAEko azken kontsumoa sektoreen arabera

Sektorea	2015	2016	2017	% Δ 17/16
Lehen sektorea	70	70	72	2,9
Industria	2.016	1.960	2.058	5,0
Garraioa	1.925	2.013	2.130	5,8
Zerbitzuak	445	432	442	2,3
Egoitzakoa	578	534	581	8,8
<b>Guztira</b>	<b>5.034</b>	<b>5.008</b>	<b>5.284</b>	<b>5,5</b>

Iturria: EVE. Geuk egina.

Sektoreen araberako kontsumo energetikoaren banaketari dagokionez, 2017an gorakada orokor bat hauteman da. Lehenik eta behin, kontsumo energetiko txikiena (guztiaren % 1,4) duen sektorearekin hasiz, lehen sektorea, biurteko egonkor baten ostean, 2017an bere kontsumoak igoera arin bat sumatu du (% 2,9). Zerbitzuen sektoreak bilakaera berbera izan du (% 2,3), baina honen pisu espezifikoak esanguratsuagoa da (% 8,4). Energiaren kontsumoan intentsiboenak diren bi sektoreak, industria eta garraioa, aztertuz gero, hauek ere hazkundera jasan duten sektoreak izan dira (% 5 eta % 5,8), bakoitzak % 40 inguruko kuotak lortuz. Kontsumoaren mapa egoitzen sektoreak ixten du; % 11ko partaidetza eta urte arteko aldakuntza-tasa handiena (% 8,8) erregistratu du.

Horrez gain, eta aurreko txostenetan adierazi den moduan, Euskadiko Energia Estrategia 2030 izango da hurrengo urteetan (2016-2030) euskal politika energetikoa zehaztuko duena. EVEk argitaratutako informazioaren arabera, Estrategia hori epe luzearako ikuspegi baten barruan kokatzen da, lehiakortasun, horniduraren segurtasun eta karbono baxuarekin lotutako sistema energetiko gero eta jasangarriago bat lortzeko.

Lehen eperako, 2020. urterako, 70 ekintza zehaztu dira proposatutako 9 helburuak betetzeko, eta, horrela, 2050. urterako finkatutako helburu hauetara hurbiltzeko:

- Euskadin berotegi-efektuko gasen emisioak 2030ean gutxienez % 40 murriztea eta 2050ean % 80, 2005eko mailekin alderatuta.
- 2050ean azken kontsumoaren % 40 energia berriztagarritik eratortzea.
- Euskal lurraldean klima-aldaketaren aurreko erresilientzia ziurtatzea.

Klima-aldaketaren arintzea eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa aurreztearekin, energia-eraginkortasunarekin eta energia berriztagarriekin oso lotuta dagoenez, Euskadiko Klima-aldaketaren aurkako 2050 Estrategiak hurrengo jarraibideak ezartzen ditu Estrategia Energetikoaren helburuak lortzeko:

- Energia-eraginkortasuna hobetzea eta eskari energetikoa kudeatzea.
- Energia berriztagarriak sustatzea.

- Hirietan energia-eraginkortasun eta energia berriztagarriekin lotutako irizpideak sustatzea, "emisiorik gabeko eraikuntzara" hurbiltzeko.
- Intermodalitatea eta berotegi-efektuko gasen emisio gutxien dituzten garraiobideak sustatzea.
- Petrolioaren deribatuen kontsumoa ordezkatzea.
- Karbono baxuko eredu energetiko baten alde egitea.
- Emisiorik gabeko garraiora bideratzea.
- Lehen sektoreko emisioak murriztea.
- Berrikuntza sustatzea, eta ezagutza zientifikoa hobetzea eta transferitzea.

Horrez gain, duela gutxi Eusko Jaurlaritzak ezagutarazitako informazioaren arabera, politika energetikoaren orientazioarekin bat etorritik, 2019ko hasieran Eusko Legebiltzarrak Lege bat onartu du, jasangarritasun energetikoaren arauak ezarriz. Lege horrek administrazio publikoari zein esparru pribatuari eragiten dio, eta erantzuna ematen dio energia aurreztean, energia berriztagarrien sustapen eta ezarpenari eman beharreko bultzadan eta energia-eraginkortasunaren aldeko neurrietan oinarritutako trantsizio eredu baten beharriari. Inbertsioak errazteko asmoz, lekuko erakundeen babesarekin finantza-tresna bat sortuko da, gutxienez 100 milioi euro izango dituena.

## 2.2 ENERGIA ELEKTRIKOA

Kapituluaekin jarraituz, eta energia elektrikoari dagokionez, 2018ko ekitaldian (atal honi buruzko datu gaurkotuak daude, baina behin-behinekoak dira) Estatu-mailan energia elektrikoaren kontsumoak gorakada arin bat izan du (% 0,4), baina ekoizpenak bere balioak apur bat murriztu ditu (-% 0,5). Hori esanda, 2018ko ekitaldia 243.156 milioi kWh-ko eskariarekin itxi da, ekoizpen garbia pixka bat altuagoa, 260.906 milioi kWh-koa, izanda.

EAE eta Nafarroan, ordea, kontsumoak zein ekoizpenak goranzko joera dute. Zehazki, energiaren kontsumoa 7.930,7 milioi kWh-ra igo da, eta ekoizpena 1.146,8 milioi kWh-ra, % 4,6 eta % 5,2ko gorakaden ondorioz, hurrenez hurren.

Analisiarekin jarraituz, eta Aelec-ek<sup>1</sup> Estatuko kontsumoari buruz emandako informazioari jarraiki, ekoizpen elektrikoaren mapa asko aldatu da 2017ko maparekin alderatuta. Penintsulako sistemaren Balantze Energetikoaren eboluzioaren lehen arreta-gunea ekoizpen hidraulikoa da; honek bere ekoizpen mailak igo ditu (% 74,4)

---

<sup>1</sup> Energia Elektrikoko Enpresen Elkarteak. 2018ko Energia-Balantzearen datuak eta 2019rako Aurreikuspenak, 2019ko martxoaren 29a.

36.109 milioi kWh-ra (guztizkoaren % 13,8) helduz. Erregai fosilen kasuan, ekitaldia % 16,9ko murrizketarekin itxi da, beren ekoizpena 74.001 milioi kWh-koa izanik (guztizkoaren % 28,4). Egoera hori ikatzak eta gas naturalak beren mailak nabarmen jaitsi dituztelako gertatu da (gutxi gorabehera % 18a biek); fuel-olioak eta beste petrolio-produktu batzuek ere beheranzko joera erakutsi dute, baina berau orekatuagoa izan da (-% 4,5). Iturri berriztagarrien ekoizpena, 68.588 milioi kWh-koa, aurreko ekitaldiko ia balio berdinetan mantendu da (-% 0,3); izan ere, eguzki-energia (-% 11,5), eta biomasa eta hondakinak (-% 3,2) jaitsi diren bitartean, guztira % 19ko partaidetza duen energia eolikoak hazkundera erregistratu du (% 3,4). Energia nuklearra (% 20,4ko kuota) antzeko ekoizpen-mailatan aurkitzen da; 53.198 milioi kWh ekoiztu eta gero, jarduera % 4,2 murriztu du 2017. urtearekin alderatuta. Aldiz, kogenerazioak eta hondakinen tratamenduak ekoizpenean % 2,8ko igoera izan dute, guztizkoan % 11,1eko partaidetza lortuz. Horrela, ekoizpenaren ia % 40 energia berriztagarrietan oinarritzen da, eta % 60 inguru CO2 emisiorik gabeko ekoizpenari dagokio.

**51. koadroa Energia elektrikoaren ekoizpena eta eskaria EAE eta Nafarroan**

(M kWh)

Urtea	Ekoizpena guztira					Guztira: (1+2+3+4+5) 6	Kontsumo guztia 7	Auto-sorkuntza % (6/7) x 100
	Hidraulikoa 1	Termikoa 2	Eolikoa 3	Mini hidraulikoa 4	Kogenerazioa 5			
2012	264,6	1.922,9	323,2	11,8	443,5	2.966,1	19.698,9	15,06
2013	477,5	745,6	336,6	13,1	435,9	2.008,7	8.409,8	23,88
2014	321,0	0	328,5	12,4	350,7	1.012,5	7.583,7	13,35
2015	351,3	0	326,2	10,5	438,0	1.126,2	7.707,5	14,61
2016	306,3	0	319,1	11,8	422,8	1.060,0	7.742,7	13,69
2017	225,5	141,1	311,9	9,0	402,7	1.090,3	7.578,5	14,38
2018	360,9	0	315,7	12,5	457,7	1.146,8	7.930,7	14,46

Iturria: Iberdrola. Geuk egina.

EAE eta Nafarroako egoera aztertuz gero, eta Iberdrolak eskainitako informazioaren arabera, ekoizpen-mapatik berriz ere desagertzen den energia termikoaren kasuan izan ezik, gainerako energia-iturriek gorakadak izan dituzte. Estatu mailan gertatu bezala, ekoizpen hidraulikoak hedapen esanguratsua erregistratu du, bere balioak % 60 igoz; mini-hidraulikoa ere nabarmen hazi da (% 38,9), baina bakoitzaren pisu espezifikoak oso bestelakoak dira (% 31,5 eta % 1,1, hurrenez hurren). Kogenerazioak joera berdina erakutsi du, baina bere igoera orekatuagoa izan da; pisu espezifiko handiena duen energia da (% 39,9) eta % 13,7 areagotu da. Energia eolikoari dagokionez, 2017an bigarren iturria izatetik 2018an hirugarrena izatera igaro da (guztiaren % 27,5), % 1,2ko hazkunde arina izan eta hidraulikoak gaintitu eta gero. Ekoizpen eta kontsumo energetikoa antzeko mailatan igo diren testuinguru horretan,

auto-sorkuntzaren tasa pixka bat aldatu da aurreko urtearekin alderatuta; 2017an % 14,38, eta 2018an % 14,46.

**52. koadroa Energia elektrikoaren kontsumo garbia lurraldearen arabera**

Lurraldea	<i>(M kWh)</i>				
	2015	2016	2017	2018	% Δ 18/17
Araba	1.062,8	1.090,0	1.090,9	1.295,2	18,7
Bizkaia	2.794,8	2.917,3	2.692,9	2.753,2	2,2
Gipuzkoa	2.032,1	1.949,7	1.851,6	1.912,2	3,3
EAE	5.889,7	5.957,0	5.635,3	5.960,5	5,8
Nafarroa	1.817,8	1.785,7	1.943,2	1.970,2	1,4
EAE eta Naf. <sup>(1)</sup>	7.707,5	7.742,8	7.578,5	7.930,7	4,6
Espainia <sup>(2)</sup>	236.752	238.493	242.305	243.156 <sup>(*)</sup>	0,4

*(\*)*: Behin-behineko datuak.

*(1)*: Fakturatutako energia elektrikoa. Ez da Iberdrola ez den beste hornitzailearik eta horren kontsumorik kontuan hartzen.

*(2)*: Energia elektrikoaren kontsumo garbia.

*Iturria*: Iberdrola eta Aelec.

Lurraldearen ikuspuntutik, eta energia elektrikoaren kontsumoari dagokionez, ekitaldiak neurrizko bilakaera-portaerak erakusten ditu lurralde gehienetan, Araban izan ezik, non kontsumoak hazkunde nabarmena (% 18,7) erregistratu duen. Gauzak horrela, Estatuan egonkortasuna nagusi (% 0,4) den testuinguru batean, Nafarroako kontsumo energetikoa arinki hedatu da (% 1,4), Gipuzkoan eta Bizkaian bilakaera pixka bat nabarmenagoa izanik (% 3,3 eta % 2,2). Hori dela eta, partaidetza-kuotak aurreko ekitaldiaren antzera mantendu dira. Zerrendaren buruan Bizkaia dago kontsumoaren % 35ekin, ondoren, Gipuzkoa eta Nafarroa datoz % 25 inguruko antzeko kontsumoekin eta azken postuan Araba aurkitzen da, bere partaidetza % 16 inguruan kokatuz.

Kapitulua bukatzeko, ondoren —eta enpresak argitaratutako informazioa oinarritzat hartuz— Iberdrola Taldearen eboluzioan 2018an izandako gertakizun garrantzitsuenak aztertuko ditugu.

Iberdrola Taldeak 170 urte baino gehiagoko ibilbidea dauka; liderra da bere sektorean, baita munduko ekoizle eoliko handiena ere. Taldeak energiaz hornitzen ditu 100 milioi pertsona baino gehiago, batez ere, Espainia, Erresuma Batua, Estatu Batuak, Brasil eta Mexiko herrialdeetan, eta 34.000 langile inguru dauzka.

2018an, 35.075,9 milioi euro fakturatu zituen (2017an baino % 12,2 gehiago), eta 3.014,1 milioi euroko mozkin garbia izan zuen (% 7,5 gehiago); urte historikoa izan zen, Iberdrolak lehen aldiz 3.000 milioi euroko mozkin garbiaren muga gainditu baitzuen. Ebitda 4.915 milioi euroan kokatu zen, aurreko urtearekiko % 16,2 areagotuz, herrialde guztiek ekarpen handiagoa izanda. Iberdrolak milaka hornitzaileari egindako ondasun eta



zerbitzuen erosketak 7.753 milioi eurokoak izan ziren. Horietatik % 85 lekuko hornitzaileei dagokie, enpresak bere jarduera-esparruetako sare ekonomiko eta soziala aberasteko duen konpromisoari esker. Inbertsioei dagokienez, ekitaldiko inbertsio garbiak 5.320,4 milioi euroan kokatu ziren, horien % 78 Sare eta Berriztagarrien Negozioan geratuz.

Etorkizun hurbilari dagokionez, 2018-2022 epealdian, Iberdrola Taldeak 34.000 milioi euroko inbertsioak burutzea aurreikusi du, hurrengo hamarkadarako hazkunde jasangarriaren oinarriak sendotuz. Konpainiak balioaren sorkuntza azkartuko du, honako bost oinarri estrategiko hauen bidez: emaitzen hazkunde errentagarria, bikaintasun operatiboa, bezeroa strategiaren erdigunea, kapitalaren optimizazioa eta digitalizazioa eta berrikuntza.

### 3. SIDERURGIA

#### 3.1 EGOERA OROKORRA

2018an, nazioarteko siderurgia-merkatua estatubatuar gobernuak inportazioei ezarritako muga-zergen ondoriozko ziurgabetasunak markatu du batik bat. Erabaki horren ondorioz, hainbat merkataritza-gatazka gertatu dira, eta Txinako bezalako merkatuen gehiegizko gaitasunaren ondoriozko arazoek areagotu dute.

Testuinguru horretan, Europako Kontseiluak hainbat neurri onartu ditu, Europar Batasunean siderurgia-produktuen inportazioari eusteko helburuarekin. Hartara, merkataritza-trafikoen balizko desbideraketak saihestu nahi dira, Ameriketako Estatu Batuek ia mundu osotik datozen inportazioei bere merkatua ixteko hartutako erabakia dela eta. Neurri horiei esker, Europako merkatuan hornidurari eustea bermatu nahi da eta siderurgia-produktuen merkatua desoreka dezakeen justifikaziorik gabeko inportazioen uholdea saihestea.

Bestalde, World Steel Association erakundeak Step Up programa jarri du abian 2018an. Programa horren xedea edozein lantegi siderurgikoren eraginkortasun operatiboa hobetzea da: lehengaiak, energia-ekarpena, errendimendua eta mantentze-lanak. Halaber, hornidura-katearekin lotutako altzairuaren industriako ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-arloko (ESG) arazoek ezaugarriak finkatzen aurrera egin du.

Sektoreak 2018an izan duen bilakaerari dagokionez, *World Steel Association* erakundeak argitaratutako datuek nolabaiteko baikortasuna erakusten dute nazioarteko jarduera siderurgikoari lotuta, eta agerian jartzen dituzte ekitaldian munduko altzairu gordinaren ekoizpenean nahiz siderurgia-produktuen kontsumoan izan diren bilakaera positiboak.

Ilido horretan, altzairu gordinaren munduko ekoizpena 1.808,4 milioi tonakoa izan da 2018an eta kontsumoa, berriz, 1.712,1 milioi tonakoa. Zenbateko horiek urtetik urterako hazkundea % 4,5ekoa izatea ekarri dute altzairuaren ekoizpenean eta % 4,9koa altzairuaren munduko kontsumoan.

## 53. koadroa      Altzairu gordinaren ekoizpena

Herrialdea	2017			2018		
	M Tm	% Δ	%	M Tm	% Δ	%
AEB eta Kanada	95,2	4,5	5,5	99,5	4,5	5,5
Japonia	104,7	-0,1	6,1	104,3	-0,4	5,8
Txina	870,9	7,8	50,3	928,3	6,6	51,3
India	101,5	6,3	5,9	106,5	4,9	5,9
Alemania	43,3	2,9	2,5	42,4	-2,1	2,3
Italia	24,1	3,0	1,4	24,5	1,7	1,4
Frantzia	15,5	7,6	0,9	15,4	-0,6	0,9
Erresuma Batua	7,5	-1,3	0,4	7,3	-2,7	0,4
Espainia	14,4	5,9	0,8	14,3	-0,7	0,8
EB-28	162,2	3,7	9,4	162,5	0,2	9,0
<b>Mundu osoa</b>	<b>1.729,8</b>	<b>6,3</b>	<b>100,0</b>	<b>1.808,4</b>	<b>4,5</b>	<b>100,0</b>


Iturria: World Steel Association (lehen IISI).

Herrialdeen araberako azterketak altzairuaren ekoizpenak bilakaera desberdina izan duela erakusten du. Txina da herrialde ekoizle nagusia (guztiaren % 51,3) eta, orotara, 928,3 milioi altzairu ekoiztuz amaitu zuen urtea. Ekoizpen nabarmen txikiagoarekin, India eta Japonia 106,5 eta 104,3 milioi tona altzairura iritsi ziren (guztizkoaren % 5,9 eta % 5,8, hurrenez hurren); hain zuzen, horiek dira lehen hiru herrialde ekoizle nagusiak. Hurbil dituzte AEB eta Kanada, guztira 99,5 milioi tonarekin (guztiaren % 5,5).

Arreta inguru hurbilenean jarriz, EB-28an altzairuaren ekoizpena 162,5 milioi tonara iristen da eta altzairuaren munduko ekoizpenaren % 9 hartzen du: Alemaniak (42,4 milioi tona), Italiak (24,5 milioi tona), Frantziak (15,4 milioi tona), Espainiak (14,3 milioi tona) eta Erresuma Batuak (7,3 milioi tona) Europako altzairu-ekoizpen handiena duten herrialdeak izaten jarraitzen dute.

Alderaketak eginez gero, Txina da, altzairuaren potentzia ekoizle handiena izateaz gain, azken urtean dinamismo handiena erregistratu duena. Zehazki, urtetik urterako altzairu-ekoizpena % 6,6 handitu du. Dinamismo txikiagoa erakutsi dute Indiak (+% 4,9), AEBk eta Kanadak (+% 4,5), eta Italiak (+% 1,7). Aldiz, Erresuma Batua (-% 2,7), Alemania (-% 2,1), Espainia (-% 0,7) edo Frantzia (-% 0,6) bezalako ekonomiek atzera egin dute aurreko urtearekin alderatuta. Horren ondorioz, EB-28ko altzairuaren ekoizpenak egonkor eutsi dio, 2017 urtearekiko +% 0,2ko aldakuntzarekin.

6. grafikoa      Altzairuaren mundu-mailako ekoizpena



Iturria: World Steel Association.

2018an, munduko altzairu-kontsumoa, arestian esan bezala, % 4,9 igo da 2017ren aldean. Herrialdeen araberako azterketak argi uzten du Txina dela, kasu honetan ere, altzairu gehien kontsumitzen duen herrialdea eta 2018an siderurgia-produktuen munduko kontsumoaren % 48,8 hartzen du (urtetik urterako +% 7,9ko igoera). Indiak altzairu-kontsumoa % 8,2 areagotu du eta AEBek eta Kanadak % 2,8ko igoera izan dute.

Bestalde, EB-28ko ekonomien multzoan siderurgia-produktuen kontsumoak askotariko bilakaera izan du: siderurgia-produktuen kontsumoa igo egin da Espainian (+% 12,6) eta Italian (+% 5,2); Erresuma Batuan (-% 0,9) eta Alemanian (-% 0,5) atzerapena jasan du, eta Frantzia, berriz, bere horretan eutsi dio. Hori horrela, urtea amaitzean EB-28ren siderurgia-produktuen kontsumoa 2017an baino % 4,3 handiagoa da, eta altzairu-kontsumoaren kopuru handiena da 2008az geroztik.

54. koadroa Siderurgia-produktuen kontsumoa

Herraldea	2017			2018		
	M Tm	% Δ	%	M Tm	% Δ	%
AEB eta Kanada	114,3	6,9	7,0	117,5	2,8	6,9
Japonia	64,4	3,5	3,9	65,4	1,6	3,8
Txina	773,8	13,6	47,4	835,0	7,9	48,8
India	88,7	6,1	5,4	96,0	8,2	5,6
Alemania	41,0	1,2	2,5	40,8	-0,5	2,4
Italia	25,1	5,9	1,5	26,4	5,2	1,5
Frantzia	14,1	8,5	0,9	14,1	0,0	0,8
Erresuma Batua	10,9	0,0	0,7	10,8	-0,9	0,6
Espainia	12,7	0,8	0,8	14,3	12,6	0,8
EB-28	162,7	3,0	10,0	169,7	4,3	9,9
<b>Mundu osoa</b>	<b>1.632,5</b>	<b>7,4</b>	<b>100,0</b>	<b>1.712,1</b>	<b>4,9</b>	<b>100,0</b>

Iturria: World Steel Association.

### 3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA

Espainiako siderurgiaren merkatua, nazioarteko merkatua bezala, kanpo merkataritza-politikak markatu du 2018an. Hain zuzen ere, urte horretan, Ameriketako Estatu Batuek inportazioei muga-zergak jartzea adostu dute, eta hori erabakigarria izan da Espainiarentzat, gainerako herrialdeentzat bezala.

Zehatz-mehatz, altzairu gordinaren ekoizpena 14,3 milioi tona ingurukoa da; hortaz, urtetik urterako jaitsiera % 0,8koa izan da. Bestalde, ageriko kontsumoa 14,5 milioi tonatan finkatu da, eta, beraz, % 12,1eko urtetik urterako hazkundea hauteman da.

55. koadroa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak\*

(mila Tm)

Urtea	Ekoizpena	Esportazioa	Inportazioa	Ageriko kontsumoa
2011	15.548	10.200	9.063	13.427
2012	13.649	9.935	7.833	11.060
2013	14.294	9.978	7.634	11.183
2014	14.280	9.969	8.307	11.840
2015	14.888	9.628	8.989	13.043
2016	13.658	9.415	9.447	12.933
2017	14.441	9.710	9.972	12.892
2018	14.320	8.521	10.830	14.457


(\*): Ekoizpena eta ageriko kontsumoa altzairu gordinari dagozkio, eta kanpo-merkataritza siderurgia-produktu guztiei.

Iturria: Unesid.

Siderurgia-produktuen kanpo-merkataritzak era desberdinean eboluzionatu du: sektoreko kanporako salmentak 8,5 milioi tonakoak izan dira, eta aurreko ekitaldiari dagokionez jaitsiera nabarmena jasan dute (-% 12,2). Inportazioei jarraiki, beste herrialde

batzuei eginiko erosketak igo egin dira bosgarren urtez jarraian (+% 8,6), 10,8 milioi tonara helduz.

7. grafikoa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak



Iturria: Unesid.

Inportatutako lehengai nagusien bilakaerari dagokionez, jarraian atxikitako taulak agerian jartzen ditu sektoreak 2018an izandako zailtasunak. Hori horrela, aztertutako hiru lehengai motaren kontsumoa jaitsi egin da iazko kopuruekin alderatuta. Errealitate hori errepikatu egiten da prezioak aztertzean –txatarraren kasuan izan ezik, prezioa igo egin baitzen 2017aren aldean-. Zehatz-mehatz, koke bihur daitekeen harrikatzaren prezioa (inportatutako lehengaien % 13,4 dira) % 7,6 jaitsi da, burdin mearena (lehengaien % 54,3 hartzen du) % 3,3 murriztu da eta txatarrarena (inportatutako lehengaien % 32,2 dira) % 7,9 igo da.

## 56. koadroa Inportatutako lehengaiak

Urtea	Koke bihur daitekeen harrikatza		Burdin mea eta pelleta		Txatarra	
	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)
2009	2.058	132,8	4.232	64,9	4.930	220,3
2010	2.777	165,7	5.874	95,0	5.781	312,8
2011	2.505	218,3	5.144	127,4	4.930	384,0
2012	2.260	174,0	4.506	99,9	4.346	372,9
2013	2.528	128,9	6.259	102,9	4.925	318,1
2014	1.632	105,2	5.699	73,7	4.960	331,7
2015	1.720	102,0	6.288	50,7	5.144	292,2
2016	1.768	107,5	6.010	52,0	4.004	263,5
2017	1.767	207,3	6.572	76,3	4.242	321,0
2018	1.621	191,6	6.556	73,8	3.892	346,4
Hazk. % 17-18	-8,3	-7,6	-0,2	-3,3	-8,3	7,9

Iturria: Unesid.

Espainiako siderurgia-sektorean izandako zailtasunak dagokion enpleguan ere islatu dira, eta, enpresa gehienek enpleguari eutsi badiote ere, merkataritzako muga-zergekek gehien eragindakoez enplegua doitzeko neurri motaren bat martxan jarri behar izan dute. Ildo horretan, UNESID elkarteko enpresa-kideek, lehen eraldaketako azpisektorea barne, 22.284 pertsonari eman diote lana zuzenean; horrenbestez, enplegua % 0,5 jaitsi da 2017aren aldean (115 langile gutxiago termino absolutuetan).

Zentzu horretan, Espainiako siderurgia-sektorearen lehentasunetako bat sektoreko enpresetan emakume gehiago lanean hastea da, eta UNESIDek enpresa-kideetan emakumeen kolektiboaren enplegu-tasa handitzeko konpromisoa hartu du. Hain zuzen ere, lehenengoz, 2018an emakumeek sektoreko enplegu osoaren % 8ko muga gainditu dute.

Bigarren erronka, azken urteetan sektorea lantzen ari dena, laneko segurtasuna da, eta "zero istripu" izateko helburua lortzea. Horren harira, eta istripugarritasunak gorantz jarraitzen badu ere, garrantzitsua da azpimarratzea 2018 ekitaldian ez dela istripu hilgarririk izan UNESIDi atxikitako enpresetan.

Azkenik, etorkizunera begira giza baliabideen arloan landu beharreko hirugarren alderdia laneko absentismoa da; siderurgiaren sektorearen kasuan oso handia. Zehazki, 2018an laneko absentismoaren ratioa % 9,2koa izan da; honek, galera handiak eta sektoreko produktibitatearen murrizketa dakartza.

### 3.3 EUSKAL SIDERURGIA

Sektorea mundu-mailan nahiz estatu-mailan izaten ari den egoera ezegonkorrak EAE eta Nafarroako siderurgiaren sektoreari ere eragin dio, bereziki nazioarteko taldeetako enpresei eta AEBk ezarritako neurriek hein handienez eragin diezaieketenei.

#### 8. grafikoa EAE eta Nafarroako siderurgia-establezimendu nagusien kokapena



Iturria: Geuk egina.

EAE eta Nafarroako siderurgia-enpresen kanpo-merkataritzari dagokionez, 2018an, esportazioak 2.237,3 mila tonakoak izan dira; hau da, % 5,8 igo dira 2017ko esportazioekin alderatuta. Aitzitik, inportazioak 3.430,9 izan dira, urtetik urtera % 3,1 jaitsiz.

Kanpo-merkataritzak ekonomian duen ekarpena aztertuz gero, kanpora eginiko salmentek nahiz kanpotik eginiko erosketek aldeko bilakaera izan dute. Hori horrela,



esportazioen balioa % 22,2 igo da, eta inportazioek, berriz, % 9,9ko hazkundera erregistratu dute. Hala, esportatutako tona bakoitzeko batez besteko prezioa 817,7 mila eurokoa izan da, 2017an baino % 15,5 gehiago, eta inportazioena 586,5 mila eurokoa, aurreko ekitaldian baino % 13,4 handiagoa.

**57. koadroa EAEko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritza**

Urtea	Inportazioak		Esportazioak	
	m Tm	M euro	m Tm	M euro
2009	3.556,5	1.189,7	2.509,6	1.290,2
2010	5.394,5	2.057,1	2.990,0	1.964,9
2011	4.154,7	2.292,8	2.813,2	2.219,8
2012	3.371,8	1.829,7	2.348,5	1.843,6
2013	4.085,3	1.856,8	2.340,8	1.690,9
2014	4.330,5	1.951,4	2.791,9	1.852,9
2015	4.595,9	1.879,8	2.810,3	1.745,3
2016	3.375,0	1.467,3	2.436,7	1.406,0
2017	3.540,5	1.831,4	2.114,2	1.497,4
2018	3.430,9	2.012,2	2.237,3	1.829,6

*Iturria: Eusko Jaurlaritza, Ogasun eta Ekonomia Saila eta Eustat.*

Siderurgia-jarduerak duen garrantzi ekonomikoa Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) Industria Kontuetan emandako informazioarekin osatu da. Aurreko txostenetan bezala, garrantzitsua da kontuan izatea estatistika-sailkapena ezin dela zuzenean alderatu kapitulu honetan jasotakoarekin; izan ere, hau Eustatek merkataritza eta/edo produktu sailkapen baten aurrean egiten duen A-86 sailkapena da, eta siderurgia integralari, ez-integralari, altzairu bereziei eta soldadurarik gabeko hodieiei dagokie.

Hori horrela, 2017an (eskura dagoen azken datua) siderurgia-, galdaketa- eta forjaketa-, eta estanzazio-jarduerak sortutako BEGa 1.640,4 milioi eurokoa da; balio hori % 6,3 igo da 2016koarekin alderatuta (1.542,6 milioi euro). Ingeniaritza metalikoen eta metalezko artikuluen jarduerak 2.054 milioi euroko ekarpena egin dute; hortaz, urtetik urtera % 3,8 hazi da. Gauzak horrela, multzo siderometalurgikoak % 28,5eko ekarpena egin dio euskal industriak sortutako BEGari, eta jarduera horretan 68.937 pertsona ari dira lanean.

58. koadroa Siderurgia-jarduerak EAEko industriari eginiko ekarpena

Kontzeptua	BEG (M euro)			Enplegua (pertsonak)		
	2015	2016	2017	2015	2016	2017
Siderurgia eta burdinarekin egiten ez den metalurgia	596	668	752	10.222	9.648	9.803
Galdaketa	411	419	418	6.643	6.775	7.003
Metalezko eraikuntzak	427	417	429	9.785	9.823	9.949
Forjaketa eta estanpazioa	423	455	471	6.473	6.790	7.187
Ingeniaritza mekanikoa	992	1.059	1.122	18.498	19.089	19.792
Metalezko artikulua	870	920	932	14.703	15.054	15.203
<b>Multzo siderometalurgikoa guztira</b>	<b>3.720</b>	<b>3.939</b>	<b>4.123</b>	<b>66.324</b>	<b>67.179</b>	<b>68.937</b>
<b>Industria</b>	<b>13.543</b>	<b>14.155</b>	<b>14.443</b>	<b>194.458</b>	<b>198.141</b>	<b>203.497</b>
Partaidetza (%)						
– Siderurgia/Industria	4,4	4,7	5,2	5,3	4,9	4,8
– Siderometalurgia/Industria	27,5	27,8	28,5	34,1	33,9	33,9

Iturria: Industria Kontuak (Eustat).

Altzairu arrunta eta altzairu bereziak

Bi ekitalditan jarraian jaitsi ondoren, 2018an altzairuaren ageriko kontsumoa 14,5 milioi tonara igo da; hau da, 2017an erregistratutakoa baino % 12,8 handiagoa da. Igoera hori kontuan hartutako produktu guztien dinamismoaren ondorio da, nahiz eta bakoitza neurri desberdinean handitu den. Hori horrela, produktu luze amaituak (altzairu-kontsumo osoaren % 33,5) % 9,4 areagotu dira 2017ko kopuruaren aldean, eta 4.869 mila tona izan dira. Bestalde, produktu lau beroak 4.016 mila tonakoak izan dira (kontsumo osoaren % 27,6), eta azken urtean dinamismo handiena izan duen produktu mota izan da (urtetik urtera +% 23,4). Azkenik, produktu lau hotz eta estaliak 5.653 mila tonako kontsumoa izan dute (guztiaren % 38,9) eta horien kontsumoa % 9,1 igo da 2017. urtekoaren aldean. *Aipatu behar da ez dagoela lingote eta amaitugabeei buruzko informaziorik 2017 eta 2018 ekitaldietarako, baina informazio hori 2019ko txostenerako eguneratu ahal izatea espero da.*

59. koadroa Altzairuaren ageriko kontsumoa, produktuen arabera

(m Tm)

Produktuak	Ageriko kontsumoa			
	2016	2017	2018	% Δ 18/17
Amaitutako produktu motaren arabera*				
– Lingoteak eta amaitugabeak	406	d.e.	d.e.	--
– Produktu luze amaituak	4.400	4.449	4.869	9,4
– Produktu lau beroak	3.104	3.256	4.016	23,4
– Prod. lau hotz eta estaliak	5.016	5.183	5.653	9,1
<b>Altzairua guztira</b>	<b>12.933</b>	<b>12.892</b>	<b>14.537</b>	<b>12,8</b>

(\*): Altzairu arruntak eta bereziak barne.

Iturria: Unesid.

Beroan ijeztutako produktuen ekoizpenari dagokionez, bi produktu multzo handien azken urteko bilakaera positiboa eta antzerakoa izan da. Zehazki, beroan ijeztutako produktu lauen ekoizpena % 1,5 igo da, 4.873 mila tonara arte. Antzeko dinamika izan dute beroan ijeztutako produktu luzeek ere. Urtea % 1,3ko igoerarekin amaitu zuten, ekoizpena 8.904 mila tonakoa izanik.

Azken horren kasuan, igoera alanbre-burdin biribilduak (+% 4,1), beste merkataritza-profil batzuek (+% 2,4) eta, hein txikiagoan, pisu erlatibo txikiagoa izateagatik, trenbideetako materialak (+% 10,3) izandako dinamismoak zehaztu zuten; izan ere, egiturazko profilek (-% 1,0) eta hormigoirako biribilak (-% 1,4) izandako atzerapenak konpentsatzen dituzte.

**60. koadroa      Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena**

(m Tm)

Produktuak	Ekoizpena			
	2016	2017	2018	% Δ 18/17
<b>Beroan ijeztutako produktu luzeak</b>	<b>8.698</b>	<b>8.789</b>	<b>8.904</b>	<b>1,3</b>
– Trenbideetako materiala	176	228	252	10,3
– Egiturazko profilak	2.669	2.753	2.725	-1,0
– Alanbre-burdin biribildua	2.600	2.835	2.951	4,1
– Hormigoirako biribilak	1.677	1.425	1.405	-1,4
– Beste merkataritza-profil batzuk	1.575	1.548	1.585	2,4
<b>Beroan ijeztutako produktu lauak</b>	<b>4.600</b>	<b>4.800</b>	<b>4.873</b>	<b>1,5</b>

(\*): Bi altzairu-kalitateak barne: altzairu arrunta eta altzairu berezia.  
Iturria: Unesid.

*CIE Automotive*

Euskal Herrian kokatutako sektoreko enpresen artean CIE Automotive aipatu behar da. Enpresa 2002an sortu zen, Afora (Acerías y Forjas de Azkoitia) eta Egaña enpresek bat egin zutenean, eta bere jardueraren xede nagusia automobilgintzako osagaien eta azpimultzoen fabrikazioan erreferentziazko talde bilakatzea da. Mundu-mailan jarduten dute, presentzia eraginkorra izanik hainbat lekutan: Amerikan (Brasil, AEB, Mexiko eta Guatemala), Europan (Espainia, Portugal, Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Txekia, Lituania, Eslovakia, Errumania eta Errusia), Asian (Txina eta India) eta Afrikan (Maroko).

Siderurgiaren arloaz haratago doa, eta 113 ekoizpen-fabrika eta 23.262 langile ditu guztira. Jarduera honako segmentu hauetan gauzatzen du: estanpazioa eta hodi-konformazioa (20 fabrika), forjaketa (18 fabrika), galdaketa (3 fabrika), aluminio-injekzioa (12 fabrika), mekanizazioa (26 fabrika), plastikoa (17 fabrika) eta sabai-sistema (17 fabrika).

Taldearen 2018 ekitaldiko memoriaren arabera, urtea taldearen emaitza ekonomiko positiboek markatu dute, baita CIE Automotive IBEX 35 taldean sartzeak ere. Ildo horretan, automobilgintzako salmentek 3.000 milioiko hesia gainditu dute, marka historiko berria ezarriz, eta irabazi garbia 243 milioi eurokoa izan da (2017an baino % 20 gehiago).

2018an gauzatutako erronken artean aurkitzen da munduko sabai-sistemen hirugarren hornitzaile bihurtu izana, Intevaren sabai-sistemen dibisioa erosteko akordioari esker. Halaber, taldeak 120 milioi euro inguru inbertitu ditu bere ekoizpen-fabrikak hobetzeko eta handitzeko, eta bere salmenten % 2 inguru esleitzen du I+G+b proiektuetara.

Ingurumenaren arloan, taldeak fabriken ingurumen-ebakuazioko sistemak eta eraginkortasuna hobetzeko lan egiten du, emisio kutsatzaileak eta uraren eta lehengaien erabilera murrizteko asmoz.

Azkenik, 2018an gauzatutako gizarte-ekimenei dagokienez, CIE Automotivetik korporazio-mailan gizarte-ekintzako bere lehen proiektua sinatu du Save The Children GKErekin.

### Soldadurarik gabeko hodiak

Soldadurarik gabeko hodian kanpo-merkataritzari buruzko datuek igoerak erakusten dituzte bere produktuen esportazioen eta inportazioan. Esportazioek urtetik urterako % 3,5eko igoera izan dute 2018an; inportazioak, berriz, % 32,2 areagotu dira azken urtean.

**61. koadroa Soldadurarik gabeko hodian kanpo-merkataritza**

Urtea	Soldadurarik gabeko hodian kanpo-merkataritza		(m Tm)
	Esportazioa	Inportazioa	
2009	159	117	
2010	215	137	
2011	283	159	
2012	260	149	
2013	223	106	
2014	275	120	
2015	226	113	
2016	196	117	
2017	271	130	
2018	281	172	

Iturria: Unesid.

Soldadurarik gabeko hodian salmentaren norakoari dagokionez, AEBk helmuga-herrialde nagusia izaten jarraitzen du (% 47), eta, gainera, hazkuntza nabarmena erregistratu du 2017aren aldean (+% 10,8). Bigarren lekuan, EB-28 aurkitzen da, esportazioen % 29,2 hartuz (urtetik urterako -% 2,8). Alemaniak, Italiak eta Frantziak, elkarrekin, soldadurarik gabeko hodian esportazioen % 19,6 bereganatzen dute. Azkenik, Qatar (% 1.215,6) eta Arabiar Emirerri Batuak (% 106,9) dira dinamismo handieneko merkatuak, nahiz eta partaidetzaren garrantzia askoz ere txikiagoa izan.

**62. koadroa Soldadurarik gabeko hodian esportazioak helmugako herrialdeen arabera**

Eremua	<i>(m Tm)</i>				
	2016	2017	2018	%	% Δ 18/17
Ameriketako Estatu Batuak	27,0	106,8	118,3	47,0	10,8
Alemania	16,7	21,3	18,3	7,3	-14,1
Italia	16,3	17,7	17,1	6,8	-3,0
Frantzia	19,6	18,8	13,9	5,5	-26,0
Iran	3,6	5,7	9,8	3,9	71,3
Txina	13,3	8,1	7,2	2,9	-11,1
Egipto	1,1	7,0	7,0	2,8	0,4
Erresuma Batua	3,9	5,1	6,1	2,4	17,7
Arabiar Emirerri Batuak	3,9	2,0	4,1	1,6	106,9
Saudi Arabia	6,7	8,0	4,1	1,6	-48,2
Belgika	2,5	2,8	4,0	1,6	43,3
Herbehereak	4,6	2,5	4,0	1,6	56,2
Qatar	3,4	0,3	3,7	1,5	1.215,6
Hego Korea	6,7	5,5	3,5	1,4	-36,7
Portugal	2,4	2,4	2,9	1,2	24,5
India	3,9	2,8	2,9	1,1	1,0
EB-28 guztira	72,2	75,5	73,4	29,2	-2,8
<b>Mundu osoa</b>	<b>165,9</b>	<b>240,7</b>	<b>251,5</b>	<b>100,0</b>	<b>4,5</b>

*Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren kanpo-merkataritzako estatistikak.*

*Tubacex*


Tubacex taldearen memorian zehazten den moduan, salmentak 667 milioi eurokoak izan ziren, zeinak % 38,1eko hazkundera islatzen duen aurreko urtearekin alderatuta (490,4 milioi euro). Bestalde, irabazi garbia 17,4 milioi eurokoa izan da (2017an 19,7 milioiko galerak izanik) eta 2.383 langile dituzte (2017an baino % 2,9 gehiago; 69 langile gehiago termino absolutuetan).

lido horretan, eta zenbait ekitalditan taldearen emaitzetan krisiak eragin nabarmena izan ondoren, 2018. urtea berreskuratzeko eta berraktibatzeke urtea izan da.

Tubacex taldearen kanpo-salmenten banaketa geografikoa aldatu egin da 2017. urtearekin alderatuta. Horrela, Asiaren pisu erlatiboa nabarmen igo da, taldeak Ekialde

Ertainean izan duen salbuespenezko eskari bati esker. Hala eta guztiz ere, eta Ekialde Ertaineko eskaera alde batera utzita, Europak aurreko ekitaldietako kopuruei eutsi die eta TUBACEXEN merkatu nagusia izaten jarraitzen du. Azkenik, amerikar merkatuak guztizkoaren % 10 hartzen du eta munduaren gainerakoak % 2.

**9. grafikoa**      **2018ko zenbatekoen banaketa, merkatuaren arabera**



*Iturria: Tubacex taldea.*

Datozen bizpahiru urteetara begira taldearen kokapena hobetzea eta zabalkuntza handia lortzeko asmoz, Tubacexek hiru aliantza estrategiko garrantzitsu sinatu ditu urtean zehar: *“aliantza bat Egiptoko gobernuarekin, Egipton energia nuklearra garatzeko; Midhanirekin, Indian energia-hazkundeari aurre egiteko; eta berriki iragarritakoa, Joint Venture Senatekin (Abu Dhabiko estatuko inbertsio-taldea), petrolioaren eta gasaren arloko proiektuak garatzeko”.*

Gizarte- eta ingurumen-ekimenei dagokienez, Tubacexek *“2004an betetzeko konpromisoa hartu zuen Nazio Batuen Munduko Hitzarmenaren Hamar Printzipioei eusten die, eta bere konpromisoak lantzen jarraitzen du bere jardura modu arduratsuan gauzatzeko giza eskubideen, lanaren, ingurumenaren eta ustelkeriaren aurkako arloetan, Munduko Hitzarmenaren 10 jardura-printzipioak gidaritzat hartuz”.*

*Tubos Reunidos*

2018. urtea ekitaldi hobea izan den arren, Tubos Reunidosek nazioarteko merkataritza-ingurune zailaren eragin handia jasan du, baita AEBk ezarritako muga-zergena ere. Halaber, taldeak finantza-berregituraketako prozesu bati egin behar izan dio aurre 2018an, azkenaldiko ziurgabetasunarekin jarraitzea saihesteko eta jarduerari kaudimenez aurre egin ahal izateko.

Ikuspuntu positiboago batetik, aurreko ekitaldian TRansforma | 360° plana abian jarri ondoren, 2018an aurrera egin da ekimenean, eta gaurdaino 96 ekimen jarri dira martxan merkatu-ingurune berrian lehiakortasuneko kokapena hobetzen eta Tubos Reunidosen iraunkortasuna bermatzen laguntzeko.

Testuinguru horretan, Tubos Reunidos taldeak 2018 ekitaldia 342,5 milioi euroko negozio-zifrarekin amaitu du (2017an baino +% 9,6 gehiago) eta ustiapenaren emaitza -31 milioi eurokoa izan da (-16 milioi euro 2017an).

Jarduera hori gauzatzeko, Tubos Reunidosek 5 ekoizpen-fabrika eta 1.351 langile ditu. Zenbateko hori murriztu egin da 2017koaren aldean, eskaeraren jaitsiera puntualera egokitzeko abian jarritako aldi baterako enplegua erregulatzeko espedienteen ondorioz.

Taldeak merkatu globaletan izandako presentziari dagokionez, Tubos Reunidosen presentzia handitu egin da nazioarteko merkatuan (fakturazioaren % 91 2018an; 2017an % 87 izan zen), Estatuko merkatuan duen presentziaren kaltetan (% 9; aurreko ekitaldian % 13). Hain zuzen, honela banatu da: Ipar Amerikak hartzen du Tubos Reunidosen salmenten erdia; ondoren, Europar Batasunak (salmenten herena) eta pisu erlatibo txikiagoarekin Ekialde Urrunak, Ekialde Ertainak, Afrikak eta beste batzuek.

2019 ekitaldiari begira, Tubos Reunidosentzako erronka nagusia nazioarteko merkataritza-egoera zailari aurre egitea da, zeina bereziki zaila baita taldearentzat, AEBek abian jarritako neurri protekzionistengatik, hura baita Tubos Reunidosen merkatu nagusia.

**63. koadroa Tubos Reunidos taldearen negozio-arloak eta enpresa-unitateak. 2018**

Negozio-arloak	Unitateak/establezimenduak
Soldadurarik gabeko hodiak	Tubos Reunidos Industrial (Amurrio, Araba) Productos Tubulares (Trapagaran, Bizkaia) Acecsa (Iruñea, Nafarroa)
Hariztaketa	Tubos Reunidos Premium Threads (Iruña Oka, Araba)
Akabera eta hariztaketa	RDT, Inc (Beasley, Texas)
Banaketa	Madrid (Madril, Espainia) TR América (Houston, Ameriketako Estatu Batuak) TR Beijing Office (Pekin, Txina) TR Francia (Metz, Frantzia) TR Italia (Milan, Italia) TR Jakarta (Cilandak-Jakarta, Indonesia) TR Dubái Office (Dubai) TR Services Prefabricados (Cádiz, Espainia) TR Services Projects (Bartzelona, Espainia) TR Cuba (Habana Vieja, Kuba) TR México (Mexiko) TR Colombia (Kolonbia)

*Iturria: Urteko Txostena-Jardueren Memoria. Tubos Reunidos taldea.*



## 4. ONTZIGINTZA

### 4.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Mundu-mailako jarduera ekonomikoa 2018ko bigarren seihilekoan ahultzearekin batera, munduko itsas-merkataritzak aipatutako ekitaldiaren bigarren erdialdean bultzada galdu du, eta % 2,6 hazi da guztira urtean (% 4,2 2017an). Hala ere, garraiatutako tonei dagokionez, 2018an historian lortutako markarik onena erregistratu da (11.832 milioi tona garraiatu dira).

Itsasontzi berrien munduko kontratazioari dagokionez, 2018an 86,9 milioi tona pisu hil zenbatu dira, aurreko ekitaldiarekin konparatuz -% 1,8ko jaitsiera dakarrena. Bestalde, entregak -% 18 murriztu dira (80,4 milioi tona pisu hil lortuz), azken hamabi urteotako mailarik baxuena erregistratuz.

**64. koadroa Munduko merkaritza-flota**

Urtea	Tonak	% Δ
2000	515,4	--
2005	601,7	16,7
2010	840,6	39,7
2011	910,1	8,3
2012	991,2	8,9
2013	1.027,0	3,6
2014	1.067,1	3,9
2015	1.107,8	3,8
2016	1.148,0	3,6
2017	1.182,8	3,0
2018	1.221,3	3,3

(\*): EGT (Erregistro Gordineko Tona) 1995era arte, GT (Erregistroko Tonaje Gordina) 2000tik aurrera.

Iturria: ANAVE

Mundu-mailako merkataritzako ontzidia aztertuz gero, 2018an 1.221,3 milioi tona gordinekoa izan da; horrek urtetik urtera % 3,3 hazi dela esan nahi du, aurreko bi ekitaldietan erregistratutakoaren artean kokatuz (2016an % 3,6 eta 2017an % 3).

Flota horretan ekarpen handiena egiten duen jatorrizko herrialdeari dagokionez, aurreko urteetan bezala, Panama da protagonista nagusia, mundu osoko merkataritzako ontzidiaren % 17,3 hartzen baitu. Atzetik ditu, tarte handi samarrarekin, Liberia eta Marshall Uharteak (% 11,5 eta % 11,4, hurrenez hurren). Arreta Europar Batasunari eskainiz gero, Malta da ontzien jatorrizko herrialdeetan nagusi, mundu-mailako

merkataritzako ontzidiaren % 5,9 bereganatuz. Atzetik ditu Grezia (% 3,3), Erresuma Batua (% 2,7), eta Txipre (% 1,8), besteak beste.

**65. koadroa Munduko merkataritza-flota, jatorrizko herrialdearen arabera**

Herrialdea	2016		2017		2018		% Δ 18/17
	MGT	%	MGT	%	MGT	%	
Panama	212,3	18,5	215,8	18,2	210,9	17,3	-2,3
Liberia	127,7	11,1	135,7	11,5	140,2	11,5	3,4
Marshall Uharteak	115,8	10,1	127,6	10,8	139,6	11,4	9,4
Hongkong	101,8	8,9	106,8	9,0	113,1	9,3	5,9
Singapur	79,0	6,9	80,0	6,8	82,0	6,7	2,4
Malta	63,3	5,5	66,3	5,6	71,8	5,9	8,3
Bahamak	53,6	4,7	53,4	4,5	52,9	4,3	-1,1
Txina	41,7	3,6	42,3	3,6	44,9	3,7	6,2
Grezia	41,2	3,6	40,8	3,4	40,9	3,3	0,3
Erresuma Batua	29,8	2,6	30,9	2,6	32,6	2,7	5,6
Japonia	21,7	1,9	23,7	2,0	25,6	2,1	8,3
Txipre	20,5	1,8	21,0	1,8	21,7	1,8	3,4
Danimarka	15,1	1,3	15,1	1,3	17,0	1,4	12,5
Portugal	8,1	0,7	12,0	1,0	15,3	1,3	27,3
Italia	15,4	1,3	15,5	1,3	15,1	1,2	-2,0
Norvegia	14,0	1,2	14,6	1,2	15,0	1,2	2,6
Indonesia	12,4	1,1	12,9	1,1	14,1	1,2	8,6
Bermuda	9,9	0,9	10,4	0,9	10,2	0,8	-2,2
India	8,7	0,8	9,7	0,8	9,9	0,8	2,9
Hego Korea	10,8	0,9	10,4	0,9	9,7	0,8	-6,7
Alemania	9,9	0,9	9,3	0,8	9,0	0,7	-3,3
Estatu Batuak	8,2	0,7	8,3	0,7	8,6	0,7	3,1
Holanda	7,2	0,6	7,2	0,6	6,8	0,6	-5,5
Frantzia	5,4	0,5	5,7	0,5	5,5	0,5	-3,6
Belgika	4,7	0,4	4,8	0,4	4,8	0,4	1,8
Espainia	2,1	0,2	2,3	0,2	2,3	0,2	1,9
Suedia	2,5	0,2	2,2	0,2	2,1	0,2	-4,8
Finlandia	1,6	0,1	5,7	0,5	1,5	0,1	-74,7
Kroazia	1,3	0,1	1,3	0,1	1,3	0,1	0,5
Beste herrialde batzuk	102,2	8,9	91,0	7,7	96,7	7,9	6,3
EB-15 guztira	145,1	12,6	148,8	12,6	154,0	12,6	3,5
EB-28 guztira	231,2	20,1	238,4	20,2	249,9	20,5	4,8
<b>Mundu osoa</b>	<b>1.148,0</b>	<b>100,0</b>	<b>1.182,8</b>	<b>100,0</b>	<b>1.221,3</b>	<b>100,0</b>	<b>3,3</b>

Iturria: ANAVE

Itsasontzi mota kontuan hartzen badugu, aurreko urteetan bezala, 2018an solteko salgaien itsasontziak izan dira nagusi, guztizko ontzidiaren % 35,9 hartuz. Horien atzetik daude petrolio-ontziak, edukiontziak garraiatzeko itsasontziak eta merkataritzako beste ontzi batzuk, honako garrantzi hauekin hurrenez hurren: % 21,9, % 18,4 eta % 12,9.

Urtetik urterako bilakaerari dagokionez, aurrerapen erlatibo handiena gasa garraiatzeko itsasontzietan hauteman da (% 6,1); alabaina, kontuan izan behar da mota horretako itsasontziak mundu-mailako merkataritza itsasontzien % 6 baino ez direla.

## 66. koadroa Munduko merkataritza-flota, itsasontzi motaren arabera

Itsasontzi mota	(MGT)			
	2015	2016	2017	2018
Petrolioa garraiatzekoak	240,0	244,6	256,8	267,2
Gasa garraiatzekoak	56,3	61,3	67,1	71,2
Solteko salgaienak	405,4	415,0	425,8	438,6
Kargaontziak	62,7	63,0	62,7	62,3
Edukiontzia garraiatzekoak	200,3	215,5	216,4	224,7
Beste merkataritzako ontzi batzuk	141,6	148,7	154,1	157,2
<b>Merkataritzako ontziak guztira</b>	<b>1.107,8</b>	<b>1.148,0</b>	<b>1.182,8</b>	<b>1.221,3</b>

Iturria: ANAVE

Azkenik, nabarmentzekoa da erregistratutako entrega kopuru baxuen eta birziklatutako tonen jaitzieraren aurrean, mundu-mailako merkataritza ontzidiaren batez besteko adina 2017an 17,9 urte izatetik, 2018an 18,3 urtera igo dela. Segmenturik berriena metano-itsasontziena da (10,2 urte) eta zaharrena hozkailu-kargaontzietan (29,8 urte).

## 4.2 ONTZIGINTZA ESPAINIAN

Ikusi dugunez, nazioartean uzkurdua bat hauteman da mundu-mailako itsasontzi berrien kontratazioari dagokionean. Alabaina, Estatuko ekoizpena nabarmen areagotu da 2018an (% 54,6), 201 mila tona konpentsatu<sup>1</sup> erregistratzera helduz. Modu honetan, jarraipena eman zaio aurreko urtean ekindako gorakadari (% 26,2 2017an eta -% 42,5 2016an). Ekoizpen-fase desberdinei erreparatu gero, uretaratutako tonen nahiz entregatutakoek gora egin dute 2018an (% 101,6 eta % 33,8, hurrenez hurren). Bestalde, hasitako tonetan -% 4,2ko murrizketa erregistratu da.

<sup>1</sup> Atal honetako informazioa tona konpentsatuetan jasotzen da, kontrakoa adierazi ezean.

**67. koadroa**      **Espainiako itsasontzien ekoizpena**

(mCGT)<sup>(1)</sup>

Urtea	Tonaje haztatua <sup>(2)</sup>	Hasitako tonajea	Uretaratutako tonajea	Entregatutako tonajea	Konpentsazio koefizientea <sup>(3)</sup>
2009	351	291	413	287	0,69
2010	237	74	258	358	0,71
2011	175	121	132	318	0,63
2012	107	86	124	93	0,55
2013	161	153	161	169	0,48
2014	154	181	137	159	0,43
2015	179	280	169	99	0,92
2016	103	84	103	124	0,48
2017	130	142	122	133	0,75
2018	201	136	246	178	0,98

(1): CGT: tona gordin konpentsatuak. Erregistroko tonaje gordin konpentsatuaren neurria, tona gordinekin erlazionatuta, itsasontzi mota eta neurri bakoitzerako koefiziente baten bidez. Koefiziente horrek eraikitze konplexutasuna hartzen du aintzat, itsasontzia egiteko erabilitako lanorduak oinarri hartuta.

(2): Tonaje haztatua = (Hasitako tonajea + 2 Uretaratutako tonajea + Entregatutako tonajea)/4.

(3): Ratioa (tona gordinak/tona gordin konpentsatuak).

Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Industria, Energia eta Turismo Ministerioa. Geuk egina.

Espainiako ontziolen eskaera-zorroari dagokionez, 2018. urtearen amaieran 448 mila tonetan finkatzen da zenbatekoa, -% 11,5eko beherakada pairatuz. Horrez gain, zorro nazionala -% 45,9 murriztu da eta esportazioek, ostera, % 17,9ko igoera jasan dute. Hori horrela, merkatu nazionalak guztizko zorroan duen pisu erlatiboa nabarmen gutxitu da 2017an % 46 izatetik, 2018an % 28 izatera pasaz.

**68. koadroa**      **Eskaera-zorria urte-amaieran**

Urtea	Barne-merkatua		Esportazioak		Guztira mCGT
	mCGT	%	mCGT	%	
2009	200	25	615	75	815
2010	109	20	441	80	550
2011	13	6	222	94	235
2012	15	5	298	95	313
2013	21	8	238	92	259
2014	19	7	271	93	290
2015	171	37	288	63	459
2016	209	45	259	55	468
2017	233	46	273	54	506
2018	126	28	322	72	448

Iturria: Geuk egina, Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusiaren datuak oinarri hartuta. Industria, Energia eta Turismo Ministerioa.

Gauzak horrela, 2018ko amaieran Espainiako eskaera-zorria osatzen duten 55 itsasontzietatik, 13 besterik ez dagozkio barne-merkatuari, gainerako 42 itsasontziak kanpo-merkatu bideratuta egonik.

## 69. koadroa Eskaera-zorroa itsasontzi motaren arabera, urte-amaieran (2018)

Itsasontzi mota	Barne-merkatua		Esportazioak		Guztira	
	Itsasontzi kop.	CGT	Itsasontzi kop.	CGT	Itsasontzi kop.	CGT
Petrolio gordina garraiatzekoak	2	60.694	0	0	2	60.694
Petrolio- eta kimika-produktuak	0	0	0	0	0	0
Kargaontziak	0	0	2	7.342	2	7.342
Hozkailuak	0	0	0	0	0	0
Ferryak	2	35.771	1	36.868	3	72.639
Bidaiariak	1	2.122	4	119.227	5	121.349
Arrantza-ontziak	5	21.503	18	97.058	23	118.561
Beste itsasontzi batzuk	3	6.197	17	61.096	20	67.293
<b>Guztira</b>	<b>13</b>	<b>126.287</b>	<b>42</b>	<b>321.591</b>	<b>55</b>	<b>447.878</b>

Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Industria, Energia eta Turismo Ministerioa.

Itsasontzi motari dagokionez, Estatuko eskaera-zorroa, barne-merkatuari dagokiona, honako hauek osatzen dute: arrantza-ontziak (5), beste batzuk (3), gordina garraiatzeko petrolio-ontziak (2), ferryak (2) eta bidaiarien itsasontziak (1). Kanpoko eskaera-zorroa, berriz, honako hauek osatzen dute: arrantza-ontziak (18), beste batzuk (17), bidaiarien itsasontziak (4), kargaontziak orokorrean (2) eta ferryak (1).

Azkenik, nabarmendu behar da 2018aren amaieran, Navantia, 2018-2022 Estrategia Planaren garapenean lanean ari zela, honako hiru oinarri hauek euskarri izanik: Merkataritza- eta Operazio-plana (hurrengo urteetako diru-sarrerak bermatu nahi ditu), Eraginkortasun Operatiboko Plana eta 4.0 Ontziola (bere helburua bikaintasun operatiboa lortzea da programen marjina ahal den beste handituz) eta Langileen Gaztetze Plana eta Lan Harremanetarako Esparru Berria (langile berrien kontratazioa jasotzen du, baita anbizio handiko prestakuntza-plana eta kolektibo guztientzako hitzarmen kolektibo bakarra ere).

### 4.3 ONTZIGINTZA EAEn

Nazio-mailan erregistratutako ekoizpenaren gorakadarekin konparatuz, ontzigintzaren euskal sektorearen ekoizpen-bolumena 23 milioi tona gordinekoa izan da, alegia, aurreko ekitaldian baino -% 8 txikiagoa.

Ekoizpen-fase desberdinei arreta eskainiz gero, uretaratutako tonajea izan da behera egin duen bakarra 2018an (-% 33,3); aldiz, joera gorakorra erakutsi dute, entregatutako tonajeak eta hasitako tonajeak (% 34,6 eta % 13,3, hurrenez hurren).

70. koadroa      Ontzigtza EAEn

*(mGT)*

Urtea	Tonaje haztatua	Hasitako tonajea	Uretaratutako tonajea	Entregatutako tonajea
2009	81	73	95	60
2010	59	5	64	103
2011	37	51	21	57
2012	35	16	49	23
2013	28	17	19	55
2014	27	36	24	23
2015	42	77	35	19
2016	23	13	26	28
2017	25	15	30	26
2018	23	17	20	35

*Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Industria, Energia eta Turismo Ministerioa. Geuk egina.*

Hala ere, tonaje konpentsatuari dagokionean, euskal ontzigtzak gora egin du 2018an (% 17,1); alabaina, berau Estatuaren osotasunean lortutakoa baino baxuagoa izan da, hortaz, euskal sektoreak Estatuko guztizkoan duen partaidetza murriztu egin da (2018an % 21 eta aurreko ekitaldian % 27).

71. koadroa      Ontzigtza EAEn. Estatuko partaidetza.  
Tonaje konpentsatua

Kontzeptua	2017		2018	
	mCGT	Espainiako %	mCGT	Espainiako %
Tonaje haztatua	35	27	41	21
Hasitako tonajea	29	20	39	29
Uretaratutako tonajea	39	32	39	16
Entregatutako tonajea	35	26	49	27

*Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Industria, Energia eta Turismo Ministerioa.*

Tonaje konpentsatuari dagokion analisiarekin jarraituz, entregatutako tonajeak eta hasitako tonajeak gora egin dute (% 40 eta % 34,5, hurrenez hurren), eta urperatutako tonajea berdin mantendu da aurreko ekitaldiarekin konparatuz.

Bilakaera horrek, Estatuan guztira erregistratu denarekin batera, EAEn urperatutako tonajeen partaidetza baxuagoa egotea ekarri du (2018an % 16 eta 2017an % 32). Hasitako eta entregatutako tonajeen kasuan, ordea, partaidetzak bilakaera positiboa izan du (2018an % 27 eta 2017an % 26).

10. grafikoa Ontzigtzako eskaera-zorroaren eta ekoizpen haztatuaren bilakaera (mCGT)



Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Industria, Energia eta Turismo Ministerioa. Geuk egina.

Euskal ontziolen eskaera-zorroari erreparatuz gero, 2018ko amaieran 73 mila tona konpentsatura jaitsi da; horrek, -% 57,3ko murrizketa suposatzen du aurreko ekitaldiarekin alderatuz.

**72. koadroa      Eskaera-zorroatik EAEn**

Urtea	mCGT
2009	201
2010	173
2011	89
2012	114
2013	100
2014	119
2015	148
2016	161
2017	171
2018	73

*Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Industria, Energia eta Turismo Ministerioa. Geuk egina.*

Euskal ontzigtzaren enpresa-egoera kontuan hartuta, eta Sestaoko La Naval ontziolan arreta jarritz, 2018ko irailean haren likidazio-prozesua abiarazi zen; hala ere, txosten honen lanketa datan, porrota kudeatzen duen konkurtsoko administratzaileak epaitegiei likidazio horren amaiera fasea hiru hilabete gehiagoz atzeratzeko eskaera egin dio (aurreikuspenen arabera 2019ko irailaren amaierara arte), izan ere, zenbait inbertitzaileek erakutsi duten interesa eskaintza zehatzetan islatzeko aukera egon liteke. Gauzak hórrela, La Navalen agonia motel eta luzea bi urtera helduko da.

**73. koadroa      Eskaera-zorroatik, amaitutako ontziak eta hasitako ontziak enpresen arabera**

*(CGT unitateak)*

Enpresa	Eskaera-zorroatik		Amaitutako ontziak		Hasitako ontziak	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
Astilleros Murueta	22.275	35.017	5.084	0	22.275	12.742
Astilleros Balenciaga	10.008	5.987	4.511	10.008	0	5.987
Astilleros Zamakona	45.362	32.022	4.316	16.366	6.721	20.364
CNN Sestao	93.500	0	20.600	22.500	0	0

*Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Industria, Energia eta Turismo Ministerioa.*

Dimentsio txikiagoko euskal ontziolak kontuan hartzen baditugu, Astilleros Muruetaren kasuan, azpimarratu behar da 2018an egin duen lana Espainian eraiki den propulsioko dualeko portuko atoiontzian (2019aren hasieran urperatu dena). Hain zuzen, *Ibaizabal Quince* atoiontzia da hizpide, erregai gisa LNGa (gas natural likidotua) erabil dezaketena bi motore dituen, Astilleros Muruetak oso-osorik diseinatu ingeniariatza ahalegin handia eginda, diseinuak suposatzen duen berritasuna dela medio.

Astilleros Balenciagari dagokionez, 2018an *Norwegian Gannet* izokina garraiatzeko ontzia urteratu izana nabarmendu daiteke; izan ere, akuikultura sektoreko garraio-ontzi sofistiketuenetako bat da (gainera, propulsioko-sistema hibridoa dauka). Bere helburua Norvegiako itsas-arraintegietako izokina kargatzea izango da, ondoren, Danimarkara



garraiatzeko. Halaber, nazioarteko mailan ageri den lehiakortasun handiko testuinguru batean, ontziolak erronka konplexuei aurre egiteko duen ahalmena ikusarazteko balioko du.

Astilleros Zamakonari dagokionez, 2018ko amaieran, bere jabe eta Grupo Zamakona Yard-en presidente den Pedro Garaygordobilek 2017ko Euskal Enpresari Onenaren saria jaso du Fundacion Empresa Vasca y Sociedades eskutik. Sariak bere ibilbide profesionala aintzatesten du eta 70eko hamarkadaren amaieran ontziola hondotik atera eta Europar Batasunak "Tax lease" baliogabetzeagatik sortutako sektore-krisiaren ostean hainbat hamarkadari aurre egitearen balioa aitortzen du.

Kapitulu hau amaitzeko, Euskal Herriko Itsas Foroaren batzarrak duela gutxi honako hau adierazi du: 2018an aldeko bilakaera egon den arren (La Naval alde batera utzita), "kezkak ageri dira sektorean", Turkia bezalako herrialdeekin lehiakortasuna handitu delako. Halaber, foruko presidentek ontzigintzako industria laguntzailea sustatzeko eta harekin lankidetzan aritzeko beharra azpimarratu zuen; izan ere, "zenbait enpresa laguntzaile, pixkanaka, ontzigintza sektoretik urruntzen ari dira dauden arriskuak ikusita". Ildo beretik, aitortu zuen euskal ontziolak bizirauteko "balio erantsia duten itsasontziak eraiki behar dituztela, eta, horregatik, industria laguntzaile indartsua behar dugula".

## 5. AUTOMOBILGINTZA

2018an, mundu-mailako automobil-ekoizpena zertxobait jaitsi da (-% 1); hain zuzen ere, 96 milioi unitate ekoitzi dira. Egia da balioak asko hurbiltzen direla 2017ko balio maximo historikoetara; hala ere, industrian azken 8 urteetan izan den hazkunderako joera hautsi egin da. Hainbat faktore eta protagonistak eragin dute joera-aldaketa hori. Lehenik eta behin, sektorea bera, aldaketa handiak bizitzen ari da ekipamendu teknologiko altua duten, oso konektatuta dauden, eta, bereziki, ingurumena errespetatzen duten ibilgailu berrien diseinuarekin; hain zuzen ere, azken alderdi horretan aurrerapauso handiak eman dira 2018an. Hortik abiatuta, aukera ugari agertu dira fabrikatzaileentzat: errekontza-modelo tradizionalak modelo elektrikoekin batera biziko dira, eta modelo elektrikoek gero eta toki handiagoa izango dute, alde batetik, igorpenei buruzko araudiak gero eta zorrotzagoak direlako eta, bestetik, herritarrek gero eta kontzientzia handiagoa dutelako ingurumena zaintzeko beharraren aurrean. Horrez gain, ibilgailu partekatuaren erronka eta ibilgailu autonomoaren kontzeptua agertu dira, eta horrek aldaketa nabarmenak ekarriko ditu mugikortasunaren arloko erabilera eta ohituretan.

Araudiari buruz esandakoaren harira, 2018an ingurumen-arau berriak aplikatu zitzaizkien ibilgailuei. Irailean, WLTP (Worldwide Harmonized Light Vehicles Test Procedure edo Ibilgailu Arinen Saiakeretarako Mundu Mailako Prozedura Harmonizatua) kontsumoaren eta igorpenen homologazio-ziklo berria sartu zen indarrean European, baita RDE (Real Driving Emissions) ere. Neurketa-protokolo berri hori aurrekoa (NEDC) baino askoz ere zorrotzagoa da, eta 2018ko irailaren 1etik aurrera matrikulatutako ibilgailu berri guztiek bete beharko dute; horren helburua kontsumoa eta CO<sub>2</sub> igorpenak zehaztasun handiagoz neurtzea da.

Halaber, ekoizle handi batzuei buruzko azken albisteek areagotu egiten dute sektorearen etorkizun hurbilari buruzko kezka; izan ere, Ford edo Nissan bezalako erraldoiek murrizketak egiteko asmoa adierazi dute, gainera Volkswagen taldearen aurkako hainbat milioitako auzi eskea gertatu da "Dieselgate" izenekoagatik, eta ez da ahaztu behar Asiako hainbat herrialdeetatik datorren lehia geldiezina, gainerako herrialde ekoizleen adierazleak kolokan jartzen dituen. Horrez gain, fusioak ere iragarri dira, Renault eta Fiat-Chrysler enpresen artekoa, kasurako.

Testuinguru nahasi horretan, 2018an automobilgintzaren industriari onik egin ez dion beste faktore bat AEB eta Txinaren, munduko bi potentzia handiren, arteko merkataritza-tentsioa izan da. Beharrezkoa da Txinak automobilgintzaren industriaren "bezero" gisa duen rola azpimarratzea; izan ere, salmenten % 30 hartzen du eta,

ondorioz, herrialde horren merkataritza-dinamismoa zertxobait geldotuz gero, munduko merkatuak eragin nabarmena jasaten du. 2018an, AEBk NAFTA (duela 25 urte indarrean dagoen AEB, Mexiko eta Kanadaren arteko merkataritza-akordioa) berriz negoziatzeko prozesuan parte hartu du. Horren harira, 2018. urtearen amaieran, automobilgintzaren industriari zuzenean eragiten dion akordio bat sinatu zen; horren bidez, besteak beste, ezartzen zen AEB eta Mexikon egindako automobilen osagaien % 75 hiru NAFTA herrialdeetatik etorri behar direla, eta % 40-45 gutxienez 16 US\$/ordu irabazten duten langileek egin behar dituztela; hori ez dute maila berean bete alderdi guztiek. Horri Brexit efektua gehitu behar diogu Europan, baita Turkia bezalako herrialdeen ezegonkortasuna, Frantzia airean eduki duen gizarte-gatazka eta Italia bezalako ekonomia garrantzitsuen dezelerazioa ere.

Dena den, asko dira 2018an azken urteetan dinamismo handia erakutsi duen sektore bati indarra kendu dioten faktoreak, eta ekoizle askok beherantz berrikusi behar izan dituzte beren adierazleak; askoren kasuan, krisi urteetatik gertatzen ez zen egoera.

## 5.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Ekoizpenaren arlotik hasita, 2018 ekitaldian 95.634.593 ibilgailu egin ziren mundu osoan; horrek ekoizpen globala zertxobait jaitsi dela esan nahi du (-% 1,1). Dena den, egoera oso desberdina da gune geografikoaren arabera.

Europatik hasita, ekoizpen-mailako aldaketa oso txikia izan bada ere 2017aren aldean (-% 1,4), herrialdekako azterketak argi erakusten du ekitaldia desberdina izan dela batzuentzat eta besteentzat. Europak 21,3 milioi ibilgailuko ekoizpen bateratua dauka, hau da, mundu osoko ekoizpenaren % 22,3. Ekitaldi honetan, automobilgintzaren industrian ibilbide luzea duten zenbait herrialdetan beherakada hauteman da; aldi berean, baina, ibilbide laburragoa duten beste herrialde batzuetan, ekoizpenak gora egin du. Horren adibide da Alemaniako ekoizpenean egondako atzerapena; Europako liderra izaten jarraitzen badu ere (5,1 milioi ibilgailu ekoitzi ditu), 2018an nabarmen egin du behera ekoizpenak (-% 9,3). Erresuma Batuen (1,6 milioi ibilgailu) bilakaera antzekoa izan da (-% 8,3), baita Turkia eta Italiarena (1,5 eta 1,1 milioi unitate, hurrenez hurren) ere, haien jarduera -% 8,6 eta -% 7,2 murriztu baita. Espainiak 2.819.565 ibilgailu ekoitzi ditu eta beheranzko joera horrekin bat egin du (-% 1). Bitartean, Frantzia gai izan da joera horretatik aldentu eta aurreko ekitaldiko erregistroak hobetzeko (% 2), 2.270.000 ibilgailuko ekoizpenarekin. Frantziarekin batera, honako herrialde hauek ere ekoizpena

areagotu dute: Eslovakia (% 5,6), Txekiar Errepublika (% 3) eta Errusia (% 13,9; 1,7 milioi ibilgailu baino gehiago ekoitzi ditu).

**74. koadroa Ibilgailuen ekoizpena**

Herrialde nagusiak	2017	2018	(unitateak) % Δ 18/17
Alemania	5.645.584	5.120.409	-9,3
Frantzia	2.226.000	2.270.000	2,0
Espainia	2.848.317	2.819.565	-1,0
Erresuma Batua	1.749.385	1.604.328	-8,3
Italia	1.142.210	1.060.068	-7,2
Belgika	377.002	308.493	-18,2
<b>EB-15</b>	<b>14.358.438</b>	<b>13.743.886</b>	<b>-4,3</b>
Txekiar Errepublika	1.305.865	1.345.041	3,0
Eslovakia	1.032.445	1.090.000	5,6
Polonia	689.783	659.646	-4,4
<b>EB-27</b>	<b>18.358.506</b>	<b>17.955.708</b>	<b>-2,2</b>
<b>Europa osoa</b>	<b>21.634.237</b>	<b>21.334.051</b>	<b>-1,4</b>
Txina	29.015.434	27.809.196	-4,2
AEB	11.189.985	11.314.705	1,1
Japonia	9.690.674	9.728.528	0,4
India	4.792.231	5.174.645	8,0
Mexiko	4.094.832	4.100.525	0,1
Hego Korea	4.114.913	4.028.834	-2,1
Brasil	2.736.802	2.879.809	5,2
Kanada	2.194.003	2.020.840	-7,9
Turkia	1.695.731	1.550.150	-8,6
Errusia	1.551.903	1.767.674	13,9
<b>Mundu osoa</b>	<b>96.671.427</b>	<b>95.634.593</b>	<b>-1,1</b>

*Iturria: ANFAC.*

Amerikar kontinentearekin jarraituz, 2018an 20,7 milioi ibilgailu ekoitzi ziren eta ekoizpen-jarduera zertxobait areagotu zen (% 0,4); hala ere, egoera asko aldatzen da herrialde batetik bestera. Ekitaldia zenbaki positiboekin itxi dute AEBk, jardueraren gorakada txiki batekin (% 1,1) eta 11,3 milioiko auto-ekoizpenarekin, eta Mexikok; herrialde horrek 4 milioi ibilgailuren muga gainditu du eta bere ekoizpena % 0,1 hazi da. Kanadaren ekoizpena nabarmen txikiagoa da (2 milioi inguru) eta balioen beherakada nabarmena pairatu du (-% 7,9). Hego Amerikan, Brasil berriro ere nabarmendu da, ekoizpen handieneko herrialdea izan baita, 2,9 milioi ibilgailurekin; halaber, herrialderik dinamikoena izan da, % 5,2ko hazkundea lortuz.

Asia eta Ozeaniari dagokienez, ezohiko gertakari gisa Txinaren jarduna azpimarratu behar da, munduko fabrikarik handiena izanik balazta zapaldu baitu: ekoiztako bolumenak murriztu egin dira (-% 4,2), orotara, 1.206.238 ibilgailu gutxiago erregistratuz. Hori gorabehera, Asiako erraldoiaren posizioak oso ona izaten jarraitzen du mundu-mailako ekoizpenean, 27,8 milioi ibilgailu ekoitzi baititu 2018an. Ondoko herrialdeak, Japoniak, aurreko ekitaldiko balioei eutsi die (% 0,4) eta 9,7 milioi ibilgailura iritsi da bere

ekoizpena. Bestalde, Hego Koreak, 4 milioi ibilgailu inguruko ekoizpenarekin, zertxobait murriztu du jarduera (-% 2,1). Ekoizpen-mapan nolabaiteko garrantzia duten Asiako beste herrialde batzuek, hala nola, India eta Thailandiak, ekoizpen-eritmoa bizkortu dute (% 8 eta % 9, hurrenez hurren), eta 2018an lehen aldiz gainditu dituzte, bata, 5 milioiko ekoizpena eta besteak 2 milioiko ekoizpena.

Amaitzeko, mundu-mailako argazkia osatzeko, Afrika dugu; 1.125.636 ibilgailu ekoitzi ditu eta bi digituko hazkundea duen eremu geografiko bakarra da (% 12,1). Ekoizpen-jarduera bi herrialdetan kontzentratzen da nagusiki: Maroko (402.085 unitate eta % 17,6ko hazkundea) eta Hegoafrika (610.854 unitate eta % 3,5eko gorakada txikia). Hala ere, Egiptoren hazkunde esponontziala azpimarratu behar dugu, bikoiztu egin baitu ekoizpena, 71.400 ibilgailura iritsi arte.

Azterketa matrikulazioen eremura ekarrita, 2018an mundu-mailan 86 milioi ibilgailu saldu zirela kalkulatzen da<sup>1</sup>; aurreko ekitaldian baino % 0,5 gutxiago, alegia. Txina da automobilgintzaren merkaturik garrantzitsuen eta 28 milioi matrikulazioen muga gainditu du (mundu osoan saltzen diren hiru ibilgailutatik bat), nahiz eta hamarkadan lehen aldiz eskaria murriztu egin den (-% 2,8). Japonian, salmenta-bolumenik altuena duen Asiako bigarren herrialdean, ekitaldia hazkunde oso txiki batekin itxi da (% 0,6) eta 5,2 milioi ibilgailu saldu dira. Hala ere, matrikulazioak Indian (% 9) eta Thailandian (% 20) hazi dira gehien (3,9 milioi eta 1,1 milioi matrikulazio, hurrenez hurren). Ipar Amerikan, urte arteko aldaketak beheranzko joera txikia izan badu ere (-% 0,5), 21 milioi ibilgailu inguru saldu dira. AEBk 17 milioi matrikulazio izan ditu, aurreko ekitaldiko mailetatik oso gertu; bitartean, Kanadako matrikulazioak % 2 murriztu badira ere, bigarren urtez jarraian mantendu ditu 2 milioi ibilgailutik gorako salmentak. Latinoamerikan, berriz, Mexikok dinamismoa galdu du, 2015-2016ko gehieneko balioen ondoren, eta % 7 jaitsi dira salmentak (1,5 milioi ibilgailu). Bestalde, Brasil, Txile eta Kolonbiako merkatuak hazi egin dira. Brasilekoa da merkaturik handiena, 2,5 milioi matrikulazioarekin, joan den ekitaldian baino % 14 gehiago, hain zuzen ere. Ekialdeko herrialdeetan, azpimarratzekoa da Errusian ibilgailuen salmentak izan duen gorakada, 1,8 milioira iritsi baita. Herrialde horretako salmenten hazkundea bi digitukoa izan da (% 13) bigarren urtez jarraian, neurri handi batean Gobernuak emandako laguntzei esker.

<sup>1</sup> Jatok hemen argitaratutako informazioaren arabera: *2018 Full Year Global Sales Release*.

75. koadroa Europako turismoen matrikulazioa

Herrialde nagusiak	2017	2018	(unitateak) % Δ 18/17
Alemania	3.441.262	3.435.778	-0,2
Erresuma Batua	2.540.617	2.367.147	-6,8
Frantzia	2.110.748	2.173.481	3,0
Italia	1.971.345	1.910.025	-3,1
Espainia	1.234.932	1.321.438	7,0
Belgika	546.558	549.632	0,6
Polonia	486.352	531.889	9,4
Herbehereak	414.306	443.812	7,1
Suedia	379.393	353.729	-6,8
Austria	353.320	341.068	-3,5
Suitza	314.028	299.716	-4,6
Txekiar Errepublika	271.595	261.437	-3,7
Portugal	222.129	228.290	2,8
Danimarka	221.838	218.565	-1,5
<b>EB-15</b>	<b>13.827.225</b>	<b>13.745.263</b>	<b>-0,6</b>
<b>EB osoa</b>	<b>15.136.590</b>	<b>15.158.874</b>	<b>0,1</b>

Iturria: ANFAC.

Hori esan ondoren, Europara itzulita eta taulan<sup>1</sup> ageri diren datuak kontuan hartuta, ikus daiteke jarduera komertziala zertxobait geldotu dela, eta urtean saldutako turismoen kopurua % 0,1 baino ez dela hazi. 2018an, Europan 15.158.874 turismo matrikulatu dira; hala ere, urtea oso desberdina izan da herrialde batetik bestera. Matrikulazio gehien izan dituzten herrialdeen artean, lehenengo biek urtea zifra negatiboekin itxi dute: Alemania (-% 0,2) eta, batez ere, Erresuma Batua (-% 6,8); Alemaniak 3,4 milioi matrikulazio izan ditu, eta Erresuma Batuak, berriz, 2,3 milioi. Zifra negatiboak erregistratu ditu, halaber, Italiak, -% 3,1eko beherakadarekin; 2 milioi matrikulaziotik behera gelditu da. Aldiz, Espainian eta, erritmo motelagoan, Frantzian, gora egin dute matrikulazioek (% 7 eta % 3, hurrenez hurren); hala, merkatu nazionalak 1.321.438 matrikulazio erdietsi ditu, eta ondoko herrialdeak, berriz, 2.173.481. Goranzko joera hori bera ikusi da Polonian (% 9,4), Herbehereetan (% 7,1) eta Portugalen (% 2,8). Bestalde, termino erlatiboetan, hazkunderik deigarrienak merkatu txikiagoetan eman dira: Lituania (% 25,4), Errumania (% 23,1), Kroazia (% 18,7), Hungaria (% 17,5) eta Grezia (% 17,4). Dena dela, hazkunde puztu horiek gorabehera, EBko matrikulazioen dinamismoa aurreko ekitaldietakoa baino txikiagoa izan da.

<sup>1</sup> Anfac-ek argitaratutako informazioa.

## 5.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Azterketa Estatura ekarrita, 2018 ekitaldian %1 jaitsi da ekoizpena, aurreko urtean bezalaxe. 2018 urte zaila izan da sektorerako, hainbat aldaketa eta erronka egon baitira eta fabrikatzaile batzuek hainbat egunetako geldialdiak egin behar izan baitituzte fabrikazio-lerroetan. Etengabe aldatzen den testuinguru horren ondorioetako bat izan da industria nazionalak automobilen zortzigarren ekoizlerik handienaren postua galdu duela, eta Brasilek hartu du haren tokia. Halaber, Europa mailan, 20 urtean lehen aldiz, Frantziak gaintitu egin du merkataritza-ibilgailu arinen ekoizpenean. Hala ere, 17 ekoizpen-zentro nazional ditu, 40 modelo inguru ekoizten dituztenak eta horietatik 19 mundu-mailan modu eskusiboan ekoizten dira. Gauzak horrela, herrialdeko lehen industria esportatzailea izaten jarraitzen du (esportatutakoaren %17) eta sektorea BPGaren %10 inguruan mantentzen da.

Azken ekitaldian, lehen erdia onuragarria izan zen industria nazionalarentzat, baina bigarren erdian joera-aldaketa bat hauteman daiteke, matrikulazioek lau hilabetez jarraian egin baitzuten behera. Urtearen amaieran Espainian egon den eskariaren ahultasun hori Europako herrialde gehienetan hauteman da, salbuespen gutxi batzuekin, eta horrek esportazioei eragin die. Igorpenak neurtzeko WLTP araudi berria indarrean sartzeak ekoizpen-katea hautsi ahal izan du, eta fabrikatzaileek motor-hornitzaile homologatuengana jo behar izan dute, horrek dakarren egokitzapen-aldiarekin; hala ere, badirudi urteko azken zatian salmentak geldotu dituen arrazoi nagusia kontsumitzaileen arteko nahasmena izan dela. Dieselaren aurkako gerrak (erregai "oso kutsagarria") eta administrazioek gutxiago kutsatzen duten ibilgailuen aldeko hautua egiteko jarri dituzten "presioek" nahasmena eragin dute kontsumitzaileen artean; horrek erosteko unea atzeratzea eragin du eta sektoreko adierazleak kolokan jarri ditu.

Barne-merkatuaren gorabeheraz gain, Erresuma Batuak Brexit gogorra egiteko aukerak, Italiaren zor altuak, Turkiako krisiak, eta produktu nazionalaren hartzaille nagusiak diren Alemania, Portugal eta Holandako merkatuen dinamismo-faltak ere egoera zaildu dute. Europako hodei ilun horiei politika protekzionisten gorakada gehitu behar zaie eta, bereziki, Txina eta AEBren arteko merkataritza-pultsua; horrek, zalantzarik gabe, ez dio inolako onurarik egin autoen industriari. Elementu horiek guztiek berebiziko garrantzia dute, industria nazionalaren izaera nagusiki esportatzailea kontuan hartuta.

**76. koadroa** Espainiako automobil-industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpoko merkataritza

*(unitateak)*

Azpisektorea	Ekoizpena			Esportazioak			Matrikulazioak*		
	2017	2018	% Δ	2017	2018	% Δ	2017	2018	% Δ
Turismoak	2.243.202	2.215.599	-1,2	1.866.931	1.873.085	0,3	1.234.932	1.321.437	7,0
Lur orotakoak	48.272	51.797	7,3	46.209	49.763	7,7	--	--	--
Merkataritzako ibilgailu arinak	495.217	496.671	0,3	369.149	359.564	-2,6	198.821	214.208	7,9
Industria-ibilgailuak	61.626	55.499	-9,9	35.928	22.006	-38,7	24.663	24.177	-2,0
Autobusak	-	-	-	-	-	-	3.819	3.673	-3,8
<b>Guztira</b>	<b>2.848.317</b>	<b>2.819.565</b>	<b>-1,0</b>	<b>2.318.217</b>	<b>2.304.418</b>	<b>-0,6</b>	<b>1.462.235</b>	<b>1.563.496</b>	<b>6,9</b>

(\*): Turismoen matrikulazioak barne hartzen ditu lur orotako matrikulazioak.  
Iturria: ANFAC.

Hori esanda, ibilgailuen nahiz turismoen ekoizpen nazionala (turismoak ekoizpen osoaren % 80 inguru dira) zertxobait jaitsi da 2018an (-% 1 eta -% 1,2, hurrenez hurren). Esportazioei dagokienez, turismoen kategoria aurreko ekitaldiko mailatik gertu mantendu da (% 0,3), baina guztizkoarekiko beherakada txikia izan du (-% 0,6). Bereziki aipagarria da industria-ibilgailuetan egondako atzerapena (-% 38,7). Hala ere, matrikulazioen eremuan, egoera askoz ere hobea da (% 6,9), eta gorakada nabarmena hauteman da turismoetan (% 7) eta merkataritzako ibilgailu arinetan (% 7,9), nahiz eta industria-ibilgailuen eta autobusen emaitza txarrek egoera zertxobait ahuldu duten, % 2ko eta % 3,8ko beherakadekin, hurrenez hurren.

**77. koadroa** Turismoen matrikulazioa, markaka

*(unitateak)*

Marka nagusiak	2017	2018	% Δ
Seat	94.461	107.328	13,6
Volkswagen	89.602	102.954	14,9
Audi	54.939	55.216	0,5
Skoda	24.860	29.460	18,5
<b>Volkswagen taldea</b>	<b>263.862</b>	<b>294.958</b>	<b>11,8</b>
Peugeot	87.732	98.914	12,7
Opel	86.921	79.755	-8,2
Citroën	64.743	68.917	6,4
<b>PSA taldea</b>	<b>239.396</b>	<b>247.586</b>	<b>3,4</b>
Renault	101.503	96.198	-5,2
Toyota	66.300	71.267	7,5
KIA	58.949	67.786	15,0
Hyundai	55.219	64.573	16,9
Ford	62.398	63.301	1,4
Nissan	62.403	62.327	-0,1
Fiat	54.343	58.607	7,8
Mercedes	52.058	52.334	0,5
Dacia	46.398	51.928	11,9
BMW	48.754	49.418	1,4
Gainerako markak	148.209	141.155	-4,8
<b>Guztira</b>	<b>1.234.932</b>	<b>1.321.438</b>	<b>7,0</b>

Iturria: ANFAC.



Azterketarekin aurrera eginez, marken arteko merkatuaren banaketari erreparatuta, ikus daiteke lehen postuan Seat dagoela (107.328 turismo), eta honek Renaulti postua kendu diola (96.198); izan ere, hori izan zen 2017an 100.000 unitateko muga gainditu zuen marka bakarra. Bigarrenik, eta kasu honetan ere zifra sinboliko horren gainetik, Volkswagen dugu (102.954), Seaten oso antzeko bilakaerarekin (% 14,9 eta % 13,6); besteak beste horri esker, Volkswagen taldeko marka nagusiek ekitaldia balio oso positiboekin itxi dute, oro har (% 11,8). Audik salmentei eutsi die (% 0,5) eta Skodak nabarmen areagotu ditu (% 18,5); hala, 30.000 unitatera gerturatu da. Horiek horrela, taldeak 294.958 matrikulazio lortu ditu; hau da, kuota osoaren % 22,3. Merkatuan tokirik handiena duen hurrengo taldea PSA da (Peugeot, Citroën eta, duela gutxi, Opel markek osatzen dute), eta horren bilakaera zertxobait goranzkoa izan da (% 3,4); guztira 247.586 matrikulazio izan ditu, hau da, merkatuaren % 18,7. Peugeot markak 98.914 unitate saldu ditu, eta liderra da bai bolumenari dagokionez bai bilakaerari dagokionez (% 12,7); bitartean, Citroënen salmentek gora egin dute (% 6,4) eta Opelen salmentek, berriz, behera (-% 8,2). Gainerako marka komertzial nagusietan, Kia (% 15) eta Hyundai (% 16,9) marken gorakada azpimarratu behar dugu; izan ere, matrikulazioei dagokienez nagusitu izan diren beste marka komertzial batzuk erraztasun handiz gainditu dituzte.

**78. koadroa Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak**

Herrialdea	(unitateak)		
	2017	2018	%Δ
Frantzia	433.614	437.095	0,8
Alemania	404.499	421.496	4,2
Erresuma Batua	304.931	287.422	-5,7
Italia	254.603	241.333	-5,2
Belgika	86.086	92.016	6,9
Turkia	117.657	71.226	-39,5
Herbehereak	60.946	65.578	7,6
Austria	57.572	56.071	-2,6
Polonia	52.585	55.645	5,8
Portugal	42.266	48.794	15,4
10 herrialde nagusiak, guztira	1.814.759	1.776.676	-2,1
Gainerakoak	503.458	527.742	4,8
<b>Esportazioak, guztira</b>	<b>2.318.217</b>	<b>2.304.418</b>	<b>-0,6</b>

*Iturria: ANFAC.*

Esportazioaren kapitulua landuz, Europa da ekoizpen nazionalaren jomuga nagusia; izan ere, 2.100.422 ibilgailu esportatu dira bertara; hau da, esportazio guztien % 91. Frantzia da mundu-mailako liderra, % 19ko parte-hartzearekin eta 437.095 ibilgailurekin. Hurbil du Alemania, herrialde dinamikoagoa (% 4,2) eta esportazioen % 18,3 hartzen duena, eta jarraian Erresuma Batua eta Italia, hirugarren eta laugarren tokian; herrialde horiek murriztu egin dute industria nazionalarekin zuten merkataritza-trafikoak 2018an (-% 5,7 eta -% 5,2), eta esportazioen % 12,5 eta % 10,5 hartu dituzte. Ondorioz, industria

nazionalak merkatu gehiagotara heltzeko egindako ahaleginak gorabehera, salmenta nazionalen % 60 lau herrialdetan kontzentratu dira. Gainerako herrialde nagusiek % 2 eta % 5 arteko kuotak dituzte, urte arteko aldaketa oso desberdinekin: Portugal % 15,4 hazi da, eta Turkia, berriz, -% 39,5 txikitu. Dena den, partaidetzari dagokionean Turkia (% 3,1), Suitza (% 1,5), AEB (% 1,4), Aljeria (% 1,3) eta Mexiko (% 1,3) dira Europar Batasunetik kanpoko merkatu aktiboak.

Balantza komertzialari erreparatuta, 2018an murriztu egin da (-% 2,5) esportazioen balioa, 48.234 milioi eurora iritsi arte; dena den, automobilgintza da herrialdeko esportazio-industria nagusia. Turismoak dira partida garrantzitsuenak, eta -% 5,1 jaitsi da ekarpena, 2017aren aldean; hala, 30.706 milioi euroko ekarpena egitetik 29.141 milioiokoa egitera igaro da. Inportazioak igo egin dira (% 2,3), 40.483 milioi eurora iritsi arte; aldi berean, kanpoko saldo komertziala murriztu egin da 2017aren aldean, eta 7.750 milioi euroan gelditu da.

**79. koadroa      Automobilgintza-sektoreko esportazioak eta inportazioak (ibilgailuak gehi osagaiak)**

(M euro)

Ibilgailuak	Esportazioak			Inportazioak			Inportazio-esportazioen saldoa		
	2017	2018	%Δ	2017	2018	%Δ	2017	2018	%Δ
Turismoak	30.706	29.141	-5,1	17.661	18.601	5,3	13.044	10.540	-19,2
Merkataritza, industria eta autobusak	6.664	6.600	-1,0	3.214	3.411	6,1	3.451	3.188	-7,6
Zatiak, pieza eta osagarriak	9.174	9.798	6,8	13.678	13.357	-2,3	-4.504	-3.559	-21,0
Motorrak eta abiadura-kaxak	2.928	2.695	-8,0	5.021	5.114	1,9	-2.093	-2.419	15,6
<b>Guztira</b>	<b>49.472</b>	<b>48.234</b>	<b>-2,5</b>	<b>39.574</b>	<b>40.483</b>	<b>2,3</b>	<b>9.898</b>	<b>7.750</b>	<b>-21,7</b>

Iturria: ANFAC.

Azterketarekin jarraituz, eta osagaien industria nazionalari dagokionez, azpimarratu beharra dago rol garrantzitsua duela ekonomia nazionalan; izan ere, 1.000 enpresa baino gehiagok egiten dute lan sektore horretan eta 372.800 lanpostu sortzen dituzte, horietatik 230.100 zuzenak. Horrez gain, beharrezkoa da nabarmentzea gero eta garrantzi handiagoa hartu duela ibilgailuen eraikuntzan; hala, gaur egun, ibilgailuaren balio erantsiaren % 75 horri dagokio. Hori gutxi balitz, ekarpen hori are gehiago haztea espero da, ibilgailuen sofistikazio teknologikoa handitzen den heinean.

Gauzak horrela, automobilgintzako horniduraren sektoreko fakturazioak markak hautsi ditu 2018an, berriz ere, 37.000 milioi euroko muga gainditu baitu. Ekitaldi honetan, barneko salmenten errendimendua aurreko ekitaldikoa baino txikiagoa izan da (-% 2,9), ekipo originalaren merkatuaren errendimendua negatiboa izan delako (-% 5,9 murriztu du erosketaren bolumena). Egoera horrek nabarmen eragiten dio barneko merkatuaren

errendimenduari; izan ere, ekipo originalaren segmentua salmenten % 65 da, ordezko piezen merkatuaren % 35eko merkatuaren aldean (hori % 3,2 hazi da).

**80. koadroa      Automobilgintzako ekipoen eta osagaien Espainiako industriaren zifra nagusiak**

*(M euro)*

Kontzeptua	2017	2018	% Δ 18/17
Fakturazioa	36.239	37.170	2,6
Merkatu nazionalako salmentak	16.225	15.755	-2,9
- Ekipo originala	10.910	10.270	-5,9
- Ordezkoak	5.315	5.485	3,2
Esportazioak	20.015	21.415	7,0
I+G+b inbertsioa	1.530	1.545	1,0
Enplegua (langile kop.)	224.720	230.100	2,4

*Iturria: Sernauto.*

Barneko merkatua ahul dagoen testuinguru honetan, sektoreak esportatzeko gaitasuna mantendu du, eta esportazioen balioa 21.415 milioi eurora iritsi da (beste maximo historiko bat). Kanpoko merkatuetako salmentek hazkunde-erritmo onari eutsi diote, % 7koa ekitaldi honetan, hain zuzen ere, eta jarduera komertzialaren % 58 inguru kontzentratzen dute. EB da produktu nazionalen jomuga nagusia, guztizkoaren % 72ko sarrerarekin. Industria nazionalaren bezero nagusiak Alemania (4.000 milioi euro eta parte-hartzearen % 26,2) eta Frantzia (3.560 milioi euro eta parte-hartzearen % 23,3) dira. Portugal dago hirugarren tokian, % 11ko kuota eta 1.678 milioi eurekin; haren atzetik Erresuma Batua (% 9,9ko kuota eta 1.517 milioi euro) eta Italia (% 6,5eko kuota eta 989 milioi euro) ditugu. Europatik kanpo, nabarmentzekoak dira Maroko (% 4,3 eta 913 milioi euro) eta Estatu Batuak (% 4,1 eta 868 milioi euro).

Inbertsioei dagokienez, automobilgintzako ekipo eta osagaien sektorea buru da arlo horretan; 2018an, I+G+b-ren zuzkidura 1.545 milioi eurokoa izan da. Berrikuntzan inbertitzeko ahalegin hori mundu-mailan nabarmentzen den sektore bateko aktibo nagusia da; sektore horrek funtsezko rola du ibilgailu elektrikoei loturiko teknologien garapenean. Horri dagokionez, Anfac-ek ohartarazi du Espainiaren erronketako bat mugikortasun elektrikoa dela; hala ere, argi dago fabrikatzaileek konpromiso sendoa dutela joera horri erantzuteko, kontuan hartuta 2019 eta 2020 artean merkatura iritsiko diren modeloek bertsio elektrifikatua izango dutela.

### 5.3 AUTOMOBILGINTZAKO HORNIDURA-INDUSTRIA EAE-N

Automobilgintzaren euskal sektorea 300 enpresa inguruk osatzen dute, eta 2018 ekitaldia oso onuragarria izan dute, fakturazioa % 5 hazi baita, 19.311 milioi eurora iritsi arte (Gasteizko Mercedes fabrikaren pisu espezifikoak kontuan hartu gabe); hori osagaien industria nazionalaren fakturazio osoaren % 50 inguru da. Enpleguari dagokionez, ekitaldia balio positiboekin amaitu da, hamarren gutxi batzuentatik bada ere (% 0,2); hala, sektore horretan 40.924 pertsona ari dira lanean Euskadin, 100 mila pertsona inguru, gure mugetatik kanpoko enplegua ere kontuan hartuz gero.

**81. koadroa      Automobilgintzako euskal hornidura-sektorearen bilakaera**

Kontzeptua	2014	2015	2016	2017	2018 <sup>(*)</sup>
Fakturazioa (M euro)	13.747	15.004	16.454	18.390	19.311
Enplegua (pertsona kop.)	36.093	36.583	38.019	40.859	40.924


(\*): Behin-behineko datuak.

Iturria: ACICAE.

2018an, salmenten jomugari erreparatuta, bezero nagusia ibilgailuak ekoizten dituzten enpresak izan dira (salmenten % 65), eta atzetik daude lehen mailako hornitzaileak (% 33) eta ordezkoen sektorea (% 2). Banaketa geografikoari dagokionez, 10 produktutatik 9 muga nazionaletatik ateratzen dira, eta 10etik 5 Europatik kanpo merkaturatzen dira. Ekitaldi honetan, gainera, sektorearen nazioartekotze-bultzada sendotu egin da: hainbat fabrika ireki dira atzerrian, 32 herrialdetan 302 fabrika izatera iritsi arte, bai garatze bidean dauden merkatuetan bai merkatu tradizionaletan.

**11. grafikoa      Sektoreko fakturazioaren bilakaera**

(M euro)



Iturria: ACICAE.

Gasteizko Mercedesen fabrikari dagokionez, bertan egiten dira munduko VITO eta CLASE-V modeloak; urteko azken hiruhilekoan, fabrikaren ekoizpen-maila murriztu egin da, 148.000 ibilgailurekin, hau da, aurreikusitakoak baino 12.000 unitate gutxiago. Dieselaren aurkako "gerra" izan da joera-aldaketaren eragile nagusia, eta horrek hautsi egin du modelo berriak fabrikatzen hasi zenetik Gasteizko fabrikaren ezaugarri izan den goranzko joera. Urtean zehar, hainbat egunetan geldituta egon da ekoizpena, dieselaren krisiak eragindako salmenten erorketaren eraginez, bereziki. Hori dela eta, modelo elektriko berria ateratzeko ahaleginetan ari da Arabako fabrika (2020 erdialderako espero da), eta bertan jarri du konfiantza osoa lortu nahi diren ekoizpen-mailak berreskuratzeko (152.000ko aurreikuspena 2019rako). Edonola ere, kontuan hartuta Gasteizko Mercedes fabrika dela EAeko fabrikarik handiena, 5.000 langile inguru eta 3.500 milioi euro inguruko fakturazioarekin, fabrika horren ekoizpen-erritmoa zertxobait geldotzeak eragin nabarmena du eskualde osoan.

Hori gorabehera, Acicæ-k uste du 2019an sektorearen hazkundera % 3 eta % 5 artekoa izango dela, eta automobilgintzaren munduko merkatua hazi egingo dela espero dute 99 milioira arte; horrek bermatu egingo luke sektorearen martxa ona.

## 6. MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK

### 6.1 MUNDUKO EGOERA

CECIMOk argitaratutako datuen arabera, urtea oso ondo bukatu da makina-erremintaren industria europarrarentzat, baina urtearen azken partean hazkundearen erritmoa moteldu da. Azpimarratu behar da CECIMO makina-erremintako fabrikatzaileen 15 elkarte biltzen dituen elkarte europarra dela. Guztira, 150.000 langile dituzten 1.300 enpresa ordezkatzen ditu. CECIMOk Europako (EB + EFTA + Turkia) ia industria guztia ordezkatzen du, mundu-mailako jardueraren herena baino gehiago (% 36), hain zuzen ere.

Hori esanda, eta CECIMOk argitaratutako informazioari jarraiki, 2018an 27,5 bilioi eurokoa izan da makina-erremintako ekoizpen europarra; bolumen horrek 2017ko kopurua (25 bilioi) aise gainditzen du, jarduerak % 10eko igoera izanda. Esportazioei dagokienez, CECIMOk bazkideek 21,7 bilioi euro fakturatu dituzte, urte arteko % 8,5eko hazkundera suposatzen duena, ekoizpenaren gorakadaren zertxobait azpitik. Gutxi gorabehera esportazioen % 42 merkatu europarrera doa; trafiko hori % 13 igo da azken ekitaldian. Nahiz eta aurrekoaren moduan goranzko joeran erakutsi, Asia eta Amerikarekin fluxu komertziala modu orekatuagoan hazi da (% 4 eta % 5, hurrenez hurren). Inportazioei dagokienez, inportatuko bolumena 12 bilioi eurotara heldu da (4,7 bilioi euro CECIMOn ez dauden herrialdeetatik heldu dira); 2017. urtearekin alderatuta % 12ko gorakada hauteman da. Esparru horretan, ordea, kontinente amerikarra da eboluzio onena duena, bere balioetan hazkunde nabarmena erregistratuz (2017an baino % 30 gehiago). Asia eta Europako hazkundeak, berriz, txikiagoak dira, % 13 eta % 11, hurrenez hurren.

Epe laburrerako aurreikuspenei dagokienez, CECIMOk mundu mailan makina-erremintaren eskaria motelduko dela aurreikusten du. 2019. urterako aurreikuspenen arabera, hazkundera % 2,5 ingurukoa izango da. Hala ere, hazkundearen aurreikuspenak baikorragoak dira hurrengo biurtekoari begira; 2020-2021 urteetarako % 3,5eko balioespenak egin dira.

## 6.2 MAKINA-ERREMINTA ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK

Analisiarekin jarraituz, eta Espainiako jarduerari dagokionez, ondoren jasotako datuak AFMk (Makina-erreminta, Osagarri, Osagai eta Erreminten Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte) argitaratutako informaziotik lortu dira. Elkarte horrek 12.500 langile inguru dituzten 450 enpresa baino gehiago biltzen ditu. Sektorea ekoizpenaren % 80 baino gehiago esportatzeagatik bereizten da, munduko bederatzigarren ekoizlea eta esportatzailea da, eta Europar Batasuneko hirugarrena.

2017an gertatu bezala, 2018ko ekitaldiak errekorrak hautsi ditu ekoizpenaren eta esportazioaren esparruan. Egia da urtea ez dela azpisektore guztientzat berdin bukatu eta 2017. urtearekin alderatuz hazkundea moteldu dela, baina sektoreak orokorrean hazten jarraitzen du eta hamarkadako emaitza onenak lortu ditu, pixkanaka krisiaren aurreko mailetara helduz.

**82. koadroa Makina-erreminta eta fabrikazio -teknologiak sektorearen ekoizpena**

*(Meuro)*

Ekoizpena	2017	2018	%Δ 18/17
Makina-erremintak	1.127,6	1.192,3	5,7
· Abioa	640,8	741,4	15,7
· Deformazioa	486,8	450,9	-7,4
Osagaiak	196,4	210,0	6,9
Erremintak	129,1	135,1	4,6
Osagarriak	70,6	71,1	0,7
Beste makina batzuk	130,4	123,5	-5,3
Mekanizazioa eta beste zerbitzu batzuk	65,2	81,0	24,2
<b>Ekoizpenaren guztizkoa<sup>(*)</sup></b>	<b>1.703,5</b>	<b>1.796,1</b>	<b>5,4</b>

*(\*) Makina-erreminta nazionaletan txertatutako osagaiak eta osagarriak salbu.*

*Iturria: AFM.*

Gauzak horrela, produkzio-eremua landuz, 2018 ekitaldian makina-erreminten eta fabrikazio-teknologiaren ekoizpenak % 5,4ko hazkundea izan du. Makina-erremintek, % 66,4ko garrantzi erlatiboa dutenek, % 5,7ko igoera jasan dute abio azpisektorearen portaerari esker; guztizkoaren % 41,3 hartu eta bi digituko hazkundea (% 15,7) dauka azken honek. Aldiz, % 25,1eko kuota duen deformazio makinaren ekoizpena jaitsi egin da (-% 7,4), 2017an gertatutakoaren kontrara; izan ere, iaz ekoizpen-bolumenak nabarmen igo ziren, batez ere, automobilgintzaren erritmo onari esker. Gainerako produktuei dagokienez, % 11,7 hartzen duten osagaiek % 6,9ko hazkundea izan dute, % 7,5eko pisua duten erremintek % 4,6 egin dute gora, eta nabarmentzekoa da mekanizazioak eta beste zerbitzu batzuek jasandako bilakaera, % 4,5eko partaidetza izanik, hazkunde benetan esanguratsua (% 24,2) izan baitute. Bestalde, % 4ko garrantzi espezifikoak duten

osagarrietan geldialdia hauteman da (% 0,7), eta, aldi berean, gutxi gorabehera % 7ko pisua duten beste makina batzuen ekoizpenak jaitsiera pairatu du (-% 5,3).

### 83. koadroa Makina-erreminta eta fabrikazio- teknologien esportazioa

<i>(M euro)</i>			
Esportazioa	2017	2018	%Δ 18/17
Makina-erremintak	902,2	1.004,4	11,3
· Abioa	593,6	672,6	13,3
· Deformazioa	308,5	331,8	7,5
Osagaiak	121,4	121,9	0,4
Erremintak	69,9	72,8	4,1
Osagarriak	42,9	48,7	13,5
Beste makina batzuk	64,0	65,0	1,6
Mekanizazioa eta beste zerbitzu batzuk	39,4	50,4	27,9
<b>Esportazioen guztizkoa</b>	<b>1.239,8</b>	<b>1.363,2</b>	<b>10,0</b>

*Iturria: AFM.*

Esportazioei dagokienez, oro har jarduera komertziala % 10 igo da 2017ko datuekin alderatuta, 1.363,2 milioi eurotara helduz. Sektorearen errekorra da, 2017ko 1.239,8 milioi euroak gainditu baitira. Ekitaldi honetan, eta mapa produktiboarekin alderatuta, sail guztiak igo dira, hori bai, maila ezberdinean. Esportatutako bolumenaren ia erdia bereganatzen duen abiotik hasiko gara. Taldearen hazkunde onenetakoa izan du (% 13,3), deformazio makinei dagokien hazkunde erritmoaren (% 7,5) gainetik, zeinak % 24,3ko garrantzi erlatiboa duen. Mekanizazioak eta beste zerbitzuek (% 3,7) eta osagarriek (% 3,6) antzeko ekarpena egiten dute, bi kasuetan bilakaera oso positiboak izanik; lehenek hazkunde garrantzitsua izan dute (% 27,9), bigarrenen kasuan, ordea, apur bat orekatuagoa izan da (% 13,5). Testuinguru nahiko egonkorrean daude, alde batetik, osagaiak (% 0,4ko hazkundea eta % 8,9ko garrantzi espezifikoa) eta, bestetik, beste makinak (% 1,6 igoz eta % 3,7ko ekarpena izanik) eta erremintak, azken hauen hazkundea % 4,1ean finkatuz (% 5,3ko partaidetza).

## 6.3 MAKINA-ERREMINTA EAEn

Sektorea bere osotasunean aztertu eta gero, ondoren, makina-erremintaren sektorearen magnitude nagusienak aztertuko dira. Aurretik adierazi den moduan, 2018an ekoizpenak igoera berri bat erregistratu du (% 5,7), beste maximo batera helduz, bi urtean jarraian 1.100 milioi euroren gainetik kokatuz. Esportazioen dinamismoak, 1.004 milioi euroko fakturazioa eta % 11,3ko hazkundearekin, jarduera sektorial osoari eusten dio, non barruko eskaria, nahiz eta azken ekitaldian nabarmen hazi eta hamarkadako kopuru altuenera heldu, dimentsio askoz baxuagoan finkatzen den (328,2 milioi euro). Azpimarratu behar da etxeko merkatua krisiaren aurreko balioetatik urrun aurkitzen dela,



bai eta bere dimentsioa ikusirik, antzeko ekoizpenak eta esportazioak dituzten herrialdeetako merkatuekin alderatuz gero legokiokeen potentzialetik urrun ere. Inportazioei dagokienez, hauek beren gorako joerari eutsi diote (% 8,2), 500 milioi euroko muga berriz ere aise gaindituz. Adierazle horien guztien konbinazioak ageriko kontsumoa aurreko ekitaldiaren ia maila berdinean dagoela erakusten du, hots, 745,2 milioi eurotan, 2017an baino % 0,7 gehiago. Hori guztiaren ildotik, AFMk azpimarratzen du Espainian makina-erreminten eta beste ekipo produktiboen kontsumoa sustatu behar dela inbertsioak erakargarriagoak egingo dituzten politika fiskalen bidez, herrialdeak lehiakorra izaten jarrai dezan.

**84. koadroa**      **Espainiar estatuko makina-erreminta sektorearen aldagai nagusien eboluzioa**


Kontzeptua	<i>(M euro)</i>			
	2016	2017	2018	%Δ 18/17
1. Ekoizpena	941,4	1.127,6	1.192,3	5,7
2. Barne-salmentak	106,3	225,5	328,2	45,6
3. Esportazioak	835,1	902,2	1.004,4	11,3
4. Inportazioak	477,4	500,9	542,2	8,2
5. Ageriko kontsumoa (*)	583,7	739,9	745,2	0,7
6. Esportazio-proporzioa = 3/1	% 88,7	% 80,0	% 84,2	5,3
7. Inportazio-proporzioa = 4/5	% 81,8	% 67,7	% 72,8	7,5

(\*): Ekoizpena - esportazioak + inportazioak.

Iturria: AFM.

Horrela, sektorearen aldagai nagusien eboluzioak arinki aldatzen ditu % 84,2koa den (aurreko ekitaldian % 80) esportazio-proporzioari (esportazioak/ekoizpena) dagozkion balioak, eta % 72,8koa den (2017an % 67,7) inportazio-proporzioarenak (inportazioak/barne-kontsumoa).

12. grafikoa Makina-erremintaren sektoreko merkataritza-balantza



Iturria: AFM.

Analisiarekin jarraituz eta industria nazionalaren bazkide nagusienei dagokienez, Alemaniak liderra izaten jarraitzen du mundu mailan, esportatutako guztiaren % 13,7arekin. Bigarren lekuan Mexiko dago % 9,7arekin. Txina oso hurbil aurkitzen da % 9,2ko partaidetza bereganatuz, eta, ondoren, AEB dator fluxu komertzialaren % 8,6 bere gain hartuz. Horien atzetik, % 7 inguruko garrantzi espezifikoak duten Europako hiru herrialde kokatzen dira, Portugal (% 7,1), Frantzia (%6,9) eta Italia (% 6,7), hain zuzen ere. Rankinga Poloniak eta Erresuma Batuak osatzen dute, % 4ra heltzen ez diren partaidetzekin.

## 85. koadroa Makina-erreminten esportazio espainiarrak, herrialdeen arabera\*

*(M euro)*

Herrialdea	2016	2017	2018	%Δ 18/17
Alemania	108,1	130,1	137,6	5,8
Mexiko	77,8	88,4	97,4	10,2
Txina	96,6	89,2	92,4	3,6
Estatu Batuak	65,5	75,5	86,4	14,5
Portugal	72,3	56,9	71,3	25,4
Frantzia	51,3	57,0	69,3	21,7
Italia	68,6	57,4	67,3	17,2
Erresuma Batua	24,3	36,5	38,2	4,7
Polonia	34,3	30,9	33,1	7,4
Gainerako herrialdeak	236,4	280,5	310,3	10,7
<b>Esportazioen guztizkoa</b>	<b>835,1</b>	<b>902,2</b>	<b>1.004,4</b>	<b>11,3</b>

*(\*)*: Behin-behineko datuak.  
Iturria: AFM.

Jardueraren bilakaerari erreparatuz gero, azken ekitaldian Europako zenbait herrialde beren dinamismoagatik nabarmendu behar dira, Portugal (2017an baino % 25,4 gehiago), Frantzia (% 21,7ko hazkundea) eta Italia (% 17,2), Txekiar Errepublika ahaztu gabe (ekitaldi horretan kopurua 2,2 aldiz biderkatu da). Amerikan ere hazkunde garrantzitsuak hauteman dira, besteak beste, AEB (%14,5) eta Mexiko (%10,2) herrialdeen bultzadari esker. Asiari dagokionez, Txina rankingaren lehen postuetan mantentzen da % 3,6ko hazkunde txikiarekin, eta India rankingetik kanpo geratzen da aurreko ekitaldiko balioak % 30 murriztu eta gero.

## 86. koadroa Makina-erreminten inportazio espainiarrak, herrialdeen arabera\*

*(M euro)*

Herrialdea	2016	2017	2018	%Δ 18/17
Alemania	99,3	122,1	137,7	12,8
Italia	73,2	90,2	100,3	11,2
Japonia	61,5	53,3	47,7	-10,5
Txina	23,3	29,6	31,4	6,3
Taiwan	35,1	29,4	23,9	-18,8
Suitza	24,6	29,1	35,8	23,2
Hego Korea	19,9	17,5	31,4	79,8
Turkia	12,8	16,8	19,5	16,2
Erresuma Batua	17,0	16,4	14,1	-13,8
Gainerako herrialdeak	110,6	96,7	99,8	3,2
<b>Inportazioen guztizkoa</b>	<b>477,4</b>	<b>500,9</b>	<b>542,2</b>	<b>8,2</b>

*(\*)*: Behin-behineko datuak.  
Iturria: AFM.

Inportazioei dagokienez, oro har, bolumena % 8,2 igo bada ere, datuen lehen azterketa batek agerian jartzen du herrialdeen araberako portaeren desberdintasuna. Inportazioen maparen lehen lekuan, esportazioekin gertatu bezala, Alemania aurkitzen da, % 25,4 hartuz. Ondoren, Italia, % 18,5eko garrantzi erlatiboarekin, eta Japonia, jardueraren

% 8,8arekin, datoz. Horrela, hiru herrialde horiek inportazio-jardueraren erdia baino gehiago bereganatzen dute (% 52,7). Jarraian, Asiako bi herrialde datoz, Txina eta Taiwan, % 5,8 eta % 4,4arekin, hurrenez hurren. Herrialde inportatzaile nagusien mapa Suitzak (% 6,6), Hego Koreak (% 5,8), Turkiak (% 3,6) eta Erresuma Batuak (% 2,6) osatzen dute. Azpimarratu behar da, esportazioekin gertatu ez bezala, inportazio-jarduera herrialde gutxira mugatzen dela. Izan ere, soilik 10 herrialdek inportatutako guztizkoaren % 80a baino gehiago hartzen dute.

Bilakaera aztertuz gero, Hego Koreak (% 79,8), Suitzak (% 23,2) edo Turkiak (%16,2) ekitaldia hazkunde garrantzitsuekin itxi dute. Era berean, Alemaniak (% 12,8), Italiak (% 11,2) eta Txinak (% 6,3) igoera positiboak izan dituzte, baina neurritsuagoak izan dira. Japoniak (-% 10,5), Taiwanek (-% 18,8) eta Erresuma Batuak (-% 13,8), berriz, murrizketak pairatu dituzte.

## 6.4 ESKUZKO ERREMINTA

Makina-erremintaren sektorearen eboluzioarekin bat etorritik, 2018an eskuzko erreminta eta hornikuntza industrialaren sektoreen adierazle nagusiek joera baikorra adierazten dute, baina aurreko ekitaldian baino erritmo motelagoan. Horrela, enpleguari buruzko adierazlea da egonkor mantentzen den bakarra, gutxi gorabehera 1.900 pertsonekin.

Zehazki, ekoizpena 369 milioi eurotara igo da, 2017an baino % 3,1 gehiago; urte hartan jarduerak beheranzko joera izan zuen. Esportazioek 177,7 milioi euroko balioa bereganatu dute, nahiz eta beren hazkundera moteldu egin den (% 1,3ko hazkundera; 2017an % 3,4koa izan zen), orotara, produkzio-jardueraren guztizkoaren % 48,1a hartuz. Salmenten banaketa geografikoari dagokionez, ez da aparteko aldetarik nabari 2017ko ekitaldiarekin alderatuta. Esportazioen maparen buruan EB aurkitzen da, guztizkoaren % 71,2a xurgatuz, ondoren, kontinente amerikarra dator % 11,8arekin, eta horren atzetik Ekialde Ertaina, guztizkoaren % 7,4a hartuz. Asiak eta Ozeaniak elkarrekin jardueraren % 2,8a bereganatzen dute, Errusiak eta Europa ekialdeak % 3a, eta, azkenik, Afrikak % 3,7a.

Hala eta guztiz ere, aurreko ekitaldian gertatu bezala, barne-merkatuan dago urte arteko aldakuntza onena (% 4,8), nahiz eta berau 2017ko eboluzioaren azpitik kokatzen den (% 8,5). Gauzak horrela, barruko eskaera igotzen lagundu duten segmentuak eraikuntza (% 7,2) eta industria (% 3,3) izan dira, nekazaritzaren segmentuan salmenten igoera neurritsuagoa izanik (% 1). Oraindik ere industria da garrantzi espezifiko handiena duen

atala, ia-ia merkatuaren erdia xurgatuz (% 49,6); ondoren, eraikuntza dator (% 43,6), eta azkenik, distantzia jakin batera, nekazaritza (% 6,8).

**87. koadroa      Sectorearen magnitude nagusien eboluzioa**

*(M euro)*

Kontzeptua	2017	2018 <sup>(*)</sup>	% 18/17
Ekoizpena	358,0	369,0	3,1
Barne-salmentak	183,0	191,8	4,8
- Industria	92,1	95,1	3,3
- Eraikuntza	78,0	83,6	7,2
- Nekazaritza	12,9	13,1	1,0
Esportazioak	175,4	177,7	1,3

*(\*)*: Behin-behineko datuak.

*Iturria*: Eskuin-Burdindegi eta industria-hornikuntzaren klusterra.

Kapitulua bukatzeko, eta etorkizunari dagokionez, nahiz eta sektoreko bezero nagusien inbertsioari buruz ziurgabetasuna egon, badirudi 2019an fakturazio maila ona mantendu daitekeela, baina 2018an baino baxuagoa izan daiteke.

## 7. PAPERERA

### 7.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionalaren (ASPAPEL) informazioa kontuan hartuta –aldi berean, Confederation of European Paper Industries-en (CEPI) datuetatik abiatuta prestatu zen–, esan daiteke 2018an eremu horretan paperaren eta kartoiaren ekoizpena 92.200 mila tonakoa izan dela; horrek esan nahi du ez dela aldakuntzarik egon aurreko ekitaldian erregistratutako bolumenaren aldean.

**88. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak)**

Urtea	m Tm	% Δ
2013	91.128	-1,0
2014	90.949	-0,2
2015	90.872	-0,1
2016	90.982	0,1
2017	92.173	1,3
2018*	92.200	0,0

(\*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.

Paperaren ekoizpenaren eskualde-banaketa aintzat hartuta, eta, kasu honetan, informazioa 2017 ekitaldiari buruzkoa dela kontuan hartuta, CEPI osatzen duten herrialdeen multzoari paperaren munduko ekoizpenaren % 22 dagokio; kuota hori Asiari dagokiona baino askoz ere baxuagoa da (% 47), kontuan hartuta Asia munduko lehen ekoizlea dela. Ipar Amerikak, bere aldetik, CEPIko kideek erregistratutakoa baino kuota pixka bat txikiagoa lortu du (% 19,6).

Analisia 2018an zentratuz gero, CEPIri dagokionez, paperaren esportazioek nahiz inportazioek gora egin dute (% 3,3 eta % 1,1, hurrenez hurren), eta kontsumoa ez da ia aldatu (-% 0,1). Zentzu horretan, paperaren inportazioak 5.756 mila tona izan dira, eta gora egin dute Latinoamerika eta Ipar Amerikatik etorritakoek (% 16,3 eta % 9,4, hurrenez hurren) eta, neurri txikiagoan, gainerako Europatik etorritakoek (% 5,2). Aitzitik, murriztu egin dira Asiatik (-% 4,1) eta munduko gainerako lekuetatik (-% 37,3) etorritakoak. Esportazioak, bestalde, 20.583 mila tona izan dira; gora egin dute Ipar Amerikara (% 14,2), Latinoamerikara (% 10,6) eta munduko gainerako lekuetara (% 4,6) bideratutakoek; eta behera, aldiz, Europako gainerako herrialdeetara (-% 0,4) eta Asiarako bideratutakoek (-% 7,3).

Horrela, bada, 2018an CEPI osatzen duten herrialdeetako paperaren merkataritza-balantzak saldo positiboa izan du, 14.827 mila tonakoa, %0,2ko urte arteko aurrerapenarekin (2017an, 14.795 mila tonako superabita).

**89. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka**

Herrialdea	2017*	(m tona)
		Gutzizkoaren %
Alemania	22.930	5,5
Austria	4.860	1,2
Belgika	2.022	0,5
Bulgaria	246	0,1
Danimarka	63	0,0
Espainia	6.218	1,5
Finlandia	10.277	2,5
Frantzia	8.021	1,9
Grezia	252	0,1
Hungaria	777	0,2
Italia	9.132	2,2
Holanda	2.983	0,7
Polonia	4.741	1,1
Portugal	2.329	0,6
Erresuma Batua	3.855	0,9
Txekiar Errepublikak	890	0,2
Eslovakia	749	0,2
Suedia	10.261	2,4
Norvegia	1.097	0,3
Suitza	1.243	0,3
Brasil	10.591	2,5
Kanada	10.026	2,4
Txina	115.766	27,6
Estatu Batuak	72.279	17,2
India	11.233	2,7
Japonia	26.516	6,3
Errusia	8.641	2,1
<b>Mundua osorik**</b>	<b>419.127</b>	<b>100,0</b>

(\*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2017. urterako informazioa baino ez dago.

(\*\*): Geuk egina, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.

Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionalea.

CEPI osatzen duten herrialdeetan ore-ekoizpena 38.304 mila tona izan da 2018an; bolumen horrek % 0,8an gainditzen du aurreko ekitaldian erregistratutakoa. Ore-ekoizpenaren eskualdekako banaketa dela-eta, kontuan hartuta kasu honetan informazioa 2017 ekitaldikoa dela, adierazi behar da CEPIko herrialdeek orearen munduko ekoizpenaren % 20,6 bereganatzen dutela; partaidetza hori Ipar Amerikakoa (% 34,9) eta Asiari dagokiona (% 22) baino txikiagoa da.

90. koadroa Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera

*(m tona)*

Herrialdea	2017*	Gutzizkoaren %
Alemania	2.433	1,3
Austria	1.598	0,9
Belgika	500	0,3
Bulgaria	207	0,1
Danimarka	0	0,0
Espainia	1.699	0,9
Finlandia	10.771	5,8
Frantzia	1.712	0,9
Grezia	0	0,0
Hungaria	0	0,0
Italia	397	0,2
Holanda	48	0,0
Polonia	1.131	0,6
Portugal	2.626	1,4
Erresuma Batua	215	0,1
Txekiar Errepublika	452	0,2
Eslovakia	680	0,4
Suedia	11.733	6,4
Norvegia	905	0,5
Suitza	100	0,1
Brasil	19.527	10,6
Kanada	16.380	8,9
Txina	11.252	6,1
Estatu Batuak	47.923	26,0
India	1.562	0,8
Japonia	8.732	4,7
Errusia	8.547	4,6
<b>Mundua osorik**</b>	<b>184.505</b>	<b>100,0</b>

(\*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2017. urterako informazioa baino ez dago.

(\*\*): Geuk egina, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.

Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala.

## 7.2 SEKTOREA ESPAINIAN

ASPAPELen arabera, 2018an, Espainiako paperaren eta kartoiaren ekoizpena 6.156,6 mila tonakoa izan da; bolumen hori aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino -% 1 txikiagoa izan da, eta dinamika hori bat dator CEPI osatzen duten herrialdeetan ikusi den apalankamenduarekin.

Bestalde, paperaren Estatuko esportazioek (2.584,9 mila tona) % 3,6 egin dute atzera 2018an; inportazioak (3.360,4 mila tona), berriz, % 2,9 hazi dira, eta ageriko kontsumoa (6.932,1 mila tona) % 1,9. Horiek horrela, paperaren Estatuko merkataritza-balantzak saldo negatiboa izan du, -775,5 mila tonakoa, 2018an (-585,2 mila tonako defizita aurreko ekitaldian).



91. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainia, guztira


(m Tm)

Urtea	Ekoizpena	Inportazioa	Esportazioa	Ageriko kontsumoa
2009	5.679,2	3.323,2	2.809,8	6.192,4
2010	6.193,4	3.316,9	3.062,4	6.447,9
2011	6.202,6	3.180,4	2.955,3	6.427,7
2012	6.176,7	2.938,2	2.957,0	6.157,9
2013	6.181,5	2.950,8	3.047,4	6.084,9
2014	6.035,7	3.136,7	2.915,1	6.257,4
2015	6.195,2	3.208,3	2.796,2	6.607,3
2016	6.218,6	3.256,0	2.830,1	6.644,5
2017	6.217,8	3.266,6	2.681,4	6.802,9
2018	6.156,6	3.360,4	2.584,9	6.932,1

Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala.

13. grafikoa Paperaren sektorearen aldagai nagusien bilakaera Espainian

(Indizea: 1985=100)



Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala.

Geografiari dagokionez, aurreko urteetan bezala, EBk jarraitzen du izaten Estatuko bazkide komertzial nagusia; kanpo-erosketen % 87,4 eta kanporako salmenten % 59,8 hartzen ditu. Zehazki, Frantziak eta Finlandiak inportazioen % 17,5 eta % 16,7 hartzen dute, hurrenez hurren, eta Portugalek eta Frantziak, esportazioen % 21,2 eta % 18,8, hurrenez hurren.

Paper mota desberdinen ekoizpena aztertuz gero, soilik prentsa eta inprimatzea eta idazketa sektorerako bideratutakoa murriztu da 2018an (-% 16,2); aldiz, gainerako paper

mota guztien ekoizpenak gora egin du: kartoi iztukatuak % 7,1, beste ontzi eta enbalaje batzuek % 6, uhin-kartoirako paperak % 2,1, paper higieniko eta sanitarioek % 2 eta beste paper batzuek ere % 2.

**92. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera**
*(m Tm)*

Mota	Ekoizpena		Inportazioa		Esportazioa		Ageriko kontsumoa	
	2018	% Δ 18/17	2018	% Δ 18/17	2018	% Δ 18/17	2018	% Δ 18/17
Prentsa eta inprimatzea eta idazketa	1.030,1	-16,2	1.152,0	-2,6	978,8	-11,5	1.203,3	-7,9
Higienikoak eta sanitarioak	718,5	2,0	162,1	5,2	167,0	-0,8	713,6	3,4
Uhin-kartoirako	3.026,2	2,1	986,1	3,3	758,1	-5,2	3.254,3	4,3
– Uhinatarako	1.343,0	-1,5	347,4	3,6	278,1	-9,4	1.412,3	1,5
– Test Liner eta Kraft Liner	1.234,7	4,1	616,3	4,9	414,9	-4,2	1.436,0	7,2
– Bikoak eta larruak	448,6	8,1	22,4	-29,7	65,0	10,0	405,9	4,7
Kartoi iztukatua	320,7	7,1	629,2	10,7	176,9	19,5	772,9	7,4
Beste ontzi eta enbalaje batzuk	526,2	6,0	375,8	18,1	402,9	9,6	499,0	11,6
Beste paper batzuk	535,0	2,0	55,2	-37,4	101,1	9,8	489,0	-6,1
<b>Papera eta kartoia, guztira</b>	<b>6.156,6</b>	<b>-1,0</b>	<b>3.360,4</b>	<b>2,9</b>	<b>2.584,9</b>	<b>-3,6</b>	<b>6.932,1</b>	<b>1,9</b>

*Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala.*

Paper-orearen azpisektoreari dagokionez, 2018an ekoizpena pixka bat areagotu da (% 0,8), 1.713,1 mila tonara arte. Horrez gain, inportazio guztiek gora egin dute (1.145,6 mila tona, hots, % 0,5eko gorakada), baita ageriko kontsumoak ere (1.902,8 mila tona, hots, % 1,4ko gorakada); eta behera, berriz, esportazioek (955,9 mila tona, hots, -% 0,6ko murrizketa).

Dinamika horrekin bat etorritik, 2018an, orearen merkataritza-balantzaren saldo negatiboa areagotu egin da, -189,7 mila tonara arte (aurreko ekitaldian -177,4 mila tonako saldo negatiboa izan zuen); hala, estaldura-tasa % 83,4koa izan da (2017an, % 84,4koa).

Ore motaren arabera, ore mekanikoak eta kimikoak hartzen dute zatirik handiena, bai esportazioari bai inportazioari dagokienez (2018ko guztizkoaren % 98,1 eta % 96,1, hurrenez hurren). Mota horretako orearen kanpoko erosketek % 0,4 egin dute gora, 1.101,3 mila tonara iritsiz, eta kanpoko salmentek, berriz, behera egin dute (-% 0,4), 937,3 mila tonara arte.

Berreskuratutako paperari dagokionez, 2018an ageriko kontsumoa -% 2,5 murriztu da, 4.893,6 mila tonara iritsiz.

## 93. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, ore motaren arabera

(m Tm)

Mota	Ekoizpena		Inportazioa		Esportazioa		Ageriko kontsumoa	
	2018	% Δ 18/17	2018	% Δ 18/17	2018	% Δ 18/17	2018	% Δ 18/17
Ore mekanikoa eta kimikoa	--	--	1.101,3	0,4	937,3	-0,4	--	--
Erdikimikoa eta beste batzuk	--	--	44,3	5,4	18,5	-11,5	--	--
Ore birjinak, guztira	1.713,1	0,8	1.145,6	0,5	955,9	-0,6	1.902,8	1,4
Paper zaharra (ageriko bilketa)	4.451,8	-2,4	1.339,3	-12,0	897,5	-15,5	4.893,6	-2,5

Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala.

Txosten honen aurreko edizioetan eginiko analisiarekin jarraitzeko, orain berreskuratutako paperaren erabilera aztertuko dugu, honako adierazle hauek kontuan hartuta: ageriko bilketa-tasa (paper zaharraren ekoizpena/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): 2018an % 64,2 eta 2017an % 67; erabilera tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren ekoizpena): 2018an % 79,5 eta 2017an % 80,7; birziklapen-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): 2018an % 70,6 eta 2017an % 73,8.

Estatuko datuak eta CEPIrenak alderatuz gero, 2018an Espainiako paperaren sektoreak dinamika okerragoa erakutsi du, hala ekoizpenari dagokionez (-% 1eko atzerapena Estatuan eta aldakuntzarik ez CEPIren esparruan) nola esportazioei dagokienez (-% 3,6ko murrizketa Estatuan eta % 1,1eko aurrerapena CEPI-n). Inportazioetan ere, Espainiako hazkundera txikiagoa izan da (% 2,9 Estatuan eta % 3,3 CEPIren esparruan).

### 7.3 SEKTOREA EAEN ETA NAFARROAN

CEPIren esparruan ikusitako geldialdiarekin (aldakuntza nulua) eta Estatuan erregistratutako beherakada txikiarekin (-% 1) bat etorriz, 2018an atzera egin du EAEko eta Nafarroako paperaren sektoreko paperaren eta kartoiaren ekoizpenak; zehazki, -% 0,2 egin du behera, 1.431 mila tonara iritsi arte. Horrela, datu erlatiboak aztertuz gero, EAEk eta Nafarroak Estatuak baino atzerapen txikiagoa izan dute, eta paperaren euskal sektoreak areagotu egin du -pixka bat bada ere- Espainiako guztizkoan duen partaidetza-kuota (2018an guztizkoaren % 23,2, eta 2017an % 23,1).

**94. koadroa Paperaren eta orearen ekoizpena EAEn eta Nafarroan**

Kontzeptua	2016	2017	2018	% Δ 18/17
Papera eta kartoia, guztira	1.458,1	1.434,1	1.431,0	-0,2
Orea, guztira	487,0	489,3	485,0	-0,9

*(m Tm)*
*Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala.*

Oreari dagokionez, % 0,8 egin du gora bai Estatuan bai CEPIren esparruan; alabaina, 2018an, orearen EAeko eta Nafarroako ekoizpenak behera egin du (-% 0,9), 485 mila tonara iritsiz. Ondorioz, murriztu egin da eskualdeak guztizko nazionalaren gain duen garrantzi erlatiboa: 2018an % 28,3 eta aurreko ekitaldian % 28,8.

Kanpoko merkataritza aztertuz gero, eta kontuan hartuta kasu honetan aztertutako zifrak monetarioak direla, 2018ko EAeko eta Nafarroako paper- eta ore-esportazioek % 2,2 egin dute gora, 928.058 mila eurora iritsiz. Aldi berean, inportazioek % 10,2 egin dute gora, 577.616 mila eurora arte, horrela, merkataritza-superabita 350.442 mila eurora igoz (2017an, 383.933 mila euro).

Kapitulu honi amaiera emateko, jarraian, EAeko eta Nafarroako paperaren sektoreko enpresa-panorama osatzen duten enpresa nagusiak aurkezten dira, instalazio bakoitzaren kokapena eta ekoizten duten paper mota finkatuz.

**95. koadroa EAeko eta Nafarroako paperaren sektoreko enpresa nagusiak**

Enpresak	Kokapena	Ekoizpena
Sarriopapel y Celulosa SA	Leitza, Uranga	Inprimatzeko eta idazteko papera eta ore
Indarkia SL- Ezten FCR	Aranguren, Artziniega	Tisu papera
Papresa	Errenteria	Prentsarako papera
Smurfit Kappa Nervión	Iurreta	Orea, kraft papera
Smurfit Kappa Navarra	Zangoza, Cordovilla	Orea, kraft papera, uhin-kartoia eta zakuak
Sca Hygiene Spain	Allo	Tisu papera
Papelera Guipuzcoana de Zikuñaga (Iberpapel)	Hernani	Inprimatzeko eta idazteko ore eta papera
Munksjö Paper DECOR SA	Tolosa	Laminatuetarako oinarri-papera
Papelera del Oria	Zizurkil	Inprimatzeko eta idazteko papera
Papelera del Ebro	Viana	Uhin-papera eta -kartoia
Bertako	Uharte	Uhin-papera eta -kartoia
Newark San Andrés SL	Atarrabia	Uhin-kartoia
Papelera de Amaro	Legorreta	Inprimatzeko eta idazteko papera

*Iturria: Fomento de la Producción. "Las 2.500 mayores empresas españolas", eta enpresen memoriak.*

## 8. KAUTXUA

### 8.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Nazioarte-mailan jarduera ekonomikoa gutxi gorabehera mantendu dela kontuan hartuta, 2018an kautxuaren munduko kontsumoa % 2,8 igo da, 29.180 milaka tonara helduz, International Rubber Study Group-ek emandako informazioaren arabera. Bestalde, ekoizpena ez da hain dinamikoa izan (% 1,9ko hedapena); hori dela eta, kautxuaren munduko stockak 63 milaka tonako saldo negatiboa erregistratu du (aurreko ekitaldian 202 milaka tonako superabita izan zuen).

Kautxu-mota kontuan hartuta, eta kautxu naturalari dagokionean, ekoizpenak 107 milaka tonako stock positiboa bereganatu du. Kautxu sintetikoari dagokionez, ordea, ekoizpena kontsumoa baino txikiagoa izan da, eta, horrela, 170 milaka tonako stock negatiboa eskuratu da.

96. koadroa Kautxu naturalaren eta sintetikoaren munduko kontsumoa

(m Tm)

Eremua	Kautxu naturala			Kautxu sintetikoa			Guztira		
	2017	2018	%Δ 18/17	2017	2018	%Δ 18/17	2017	2018	%Δ 18/17
Asia/Pazifikoa	9.776	10.239	4,7	8.399	8.588	2,3	18.175	18.827	3,6
EMEA*	1.730	1.771	2,4	3.831	3.866	0,9	5.561	5.637	1,4
Amerika	1.713	1.766	3,1	2.935	2.951	0,5	4.648	4.717	1,5
<b>Guztira</b>	<b>13.219</b>	<b>13.776</b>	<b>4,2</b>	<b>15.165</b>	<b>15.404</b>	<b>1,6</b>	<b>28.384</b>	<b>29.180</b>	<b>2,8</b>

(\*): EMEA: Europa, Ekialde Ertaina eta Afrika.

Iturria: International Rubber Study Group.

Zonalde geografiko handietan, 2018an kautxuaren kontsumoa orokorrean nabarmen hazi da: % 3,6 Asia/Pazifikoan, % 1,5 Amerikan eta % 1,4 Europa, Ekialde Ertaina eta Afrikan, alegia, hurrenez hurren, kautxuaren munduko guztizko kontsumoaren % 64,5, % 16,2 eta % 19,3 hartzen dute.

### 8.2 KAUTXUA ERALDATZEKO SEKTOREA ESPAINIAN ETA EAEn

Nazioartean antzemandako dinamika hedakorrarekin bat etorritz, Espainiako kautxuaren eraldatuen ekoizpenak ere gora egin du 2018an, nahiz eta, kasu zehatz honetan, ageriko kontsumoak joera beherakorra adierazi duen.

Horrela, Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionalak eskuragarri jarritako informazioaren arabera, Espainiako ekoizpena 896.341 tonakoa izan da 2018an, 2017an

baino % 4,4 handiagoa. Bestalde, ageriko kontsumoa 693.251 tonatan ezarri da; bolumen hori aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino % 6,7 txikiagoa da.

Testuinguru horretan, sektoreko fakturazioak % 1,3ko jaitsiera pairatu du, 5.005,7 milioi eurora helduz; pneumatikoen eta birkautxutuaren azpisektoreko salmentek ere behera egin dute (-% 3,6), eta pieza teknikoari dagozkionek, aldiz, joera gorakorra erakutsi dute (% 3,8).

Sektorearen ekoizpenak % 4,4ko hazkundea eta sektoreko enpleguak % 1,4ko igoera jasan duela ikusirik, 2018an Estatuko kautxuaren sektorearen produktibitateak % 3 egin du gora, eta enplegatuko 40,3 tonara iritsi da.

Hori horrela, aurreko urteetan bezala azpimarratu behar da, automobilgintzako sektoreak kautxuaren industria eraldatzailean izan duen garrantzi handia kontuan hartuta, kapitulu honen amaieran (pneumatikoen eta birkautxutuaren azpisektoreari eskainitako epigrafearen esparruan), haren analisi berezia eta laburra egin dela.

#### 97. koadroa      Kautxua eraldatzeko sektorearen oinarritzko datuak<sup>(1)</sup> Espainian

Kontzeptua	2017	2018	%Δ 18/17
1. Ekoizpena	858.269	896.341	4,4
2. Ageriko kontsumoa	743.431	693.251	-6,7
3. Esportazioa	762.154	850.278	11,6
4. Inportazioa	647.316	647.188	0,0
5. Saldo komertziala	114.838	203.090	76,8
6. Esportazioaren batez besteko prezioa <sup>(2)</sup>	3,90	3,88	-0,5
7. Inportazioaren batez besteko prezioa <sup>(2)</sup>	4,13	4,18	1,3
8. Esportazioa/Ekoizpena (%)	88,8	94,9	6,8
9. Inportazioa/Ageriko kontsumoa (%)	87,1	93,4	7,2
10. Enplegua	21.935	22.235	1,4
11. Produktibitatea (1/10) <sup>(3)</sup>	39,1	40,3	3,0

(1): Honako hauek barne: EJSN 22.11 (pneumatikoak eta birkautxutua) eta EJSN 22.19 (kautxuaren beste produktu batzuk: kautxuzko eta latexeko pieza teknikoak).

(2): Euro/kg.

(3): Tm/Enplegatu/urte.

Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.

Kanpo-merkataritzari dagokionez eta jardueraren bolumenari erreparatuz gero, esportazioek % 11,6 egin dute gora 2018an, 850.278 tonara heldu arte. Aitzitik, inportazioak 647.188 tonatan gelditu dira (urte arteko aldakuntza nulua), superabit komertziala % 76,8 hedatuz, 203.090 tonara iritsi arte.

98. koadroa Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza azpisektore handien arabera

(Tm)

Produktua	Esportazioa			Inportazioa			Saldoa		
	2017	2018	%Δ 18/17	2017	2018	%Δ 18/17	2017	2018	%Δ 18/17
Pneumatikoak eta birkautxutua	605.043	689.932	14,0	465.934	464.042	-0,4	139.109	225.890	62,4
Pieza teknikoa	157.111	160.346	2,1	181.382	183.146	1,0	-24.271	-22.800	-6,1
<b>Guztira</b>	<b>762.154</b>	<b>850.278</b>	<b>11,6</b>	<b>647.316</b>	<b>647.188</b>	<b>0,0</b>	<b>114.838</b>	<b>203.090</b>	<b>76,8</b>

Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.

Datu monetarioetan, kanpora eginiko salmentek antzeko hazkundera izan dute (% 11); kanpo-merkataritzari dagozkion erosketak, ordea, oso arinki igo dira (% 1,2), superabit komertziala % 97,5 hedatuz.

Berriz ere bolumenari dagozkion datuetara itzuliz, azpisektoreka, esportazioetan dinamismo handiena ageri duena pneumatiko eta birkautxutuen azpisektorea izan da (% 14ko igoera); aldiz, inportazioei loturik, pieza teknikoek dagokie aldakuntza nabarmenena (% 1eko hazkundera).

Hori guztia kontuan hartuta, datu monetarioetan, pneumatiko eta birkautxutuen azpisektorea da igoera handienak jasan dituen 2018an, bai esportazioetan zein inportazioetan (% 14,5 eta % 1,9, hurrenez hurren).

99. koadroa Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza azpisektore handien arabera

(M euro)

Produktua	Esportazioa			Inportazioa			Saldoa		
	2017	2018	%Δ 18/17	2017	2018	%Δ 18/17	2017	2018	%Δ 18/17
Pneumatikoak eta birkautxutua	1.962,2	2.247,3	14,5	1.604,5	1.634,4	1,9	357,7	612,9	71,3
Pieza teknikoa	1.009,5	1.049,8	4,0	1.067,3	1.070,3	0,3	-57,8	-20,5	-64,5
<b>Guztira</b>	<b>2.971,7</b>	<b>3.297,1</b>	<b>11,0</b>	<b>2.671,7</b>	<b>2.704,7</b>	<b>1,2</b>	<b>299,9</b>	<b>592,3</b>	<b>97,5</b>

Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.

Azterketa kautxuaren EAEko sektore eraldatzailean zentratuz, eta lehenengo eta behin Eustaten Industria Produkzioaren Indizea (IPI), kautxuari eta plastikoari buruzkoa, kontuan hartuta, esan beharra dago 2018an bere hazkunde erritmoa moteldu duela, % 0,4koa izan baita (% 8,6 aurreko ekitaldian).

Kanpo-merkataritzari dagokionean, 2018an EAEko kautxuaren eta manufakturen esportazioak % 7,8 areagotu dira, 1.257.278 mila eurora arte, eta inportazioek % 3,3ko

jaitsiera sumatu dute, 469.674 mila eurora iritsiz. Horrela, balantza komertzialaren saldo positiboa % 15,7koa izan da, 787.604 mila eurora hedatuz.

EAEko eta Estatu osoko informazioa erkatuta, egiaztatzen da euskal kanpo-merkataritzak Estatuko guztizkoan duen partaidetzak, datu monetarioetan, behera egin duela esportazioen (2018an guztizkoaren % 38,1, eta % 39,3 aurreko ekitaldian) eta kanpoko erosketen kasuan (2018an guztizkoaren % 17,4, eta 2017an % 18,2).

### 8.3 PNEUMATIKOEN ETA BIRKAUTXUTUAREN AZPISEKTOREA

Berriro ere Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionalak argitaratutako informazioa kontuan hartuta eta analisia pneumatiko eta birkautxutuaren azpisektorera bakarrik eramanda, 2018an ekoizpena 681.431 tonakoa izan da, eta ageriko kontsumoa 455.541 tonakoa; bolumen horiek % 4,7ko gorakada eta % 11ko beherakada suposatzen dute, hurrenez hurren.

Kanpo-merkataritzari dagokionez, 2018an pneumatiko eta birkautxutuaren esportazioak % 14 igo dira, 689.932 tonara iritsiz, eta inportazioak % 0,4 uzkurdu dira, 464.042 tonara helduz; horrela, joera esportatzailea % 101,2koa eta inportatzailea % 101,9koa izan dira, hurrenez hurren.

**100. koadroa    Pneumatiko eta birkautxutuaren ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza**

Kontzeptua	2017	2018	% $\Delta$ 18/17
1. Ekoizpena	650.758	681.431	4,7
2. Esportazioa	605.043	689.932	14,0
3. Inportazioa	465.934	464.042	-0,4
4. Ageriko kontsumoa	511.649	455.541	-11,0
5. 2/1 x 100	93,0	101,2	8,9
6. 3/4 x 100	91,1	101,9	11,9

*Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.*

Kautxuaren sektorearen eta automobilgintzaren artean dagoen lotura kontuan hartuta, egokitzat jotzen da aipamen labor bat egitea azken sektore horrek izan duen bilakaerari buruz. Horren harira, esan behar da, Automobilan eta Kamioien Fabrikatzaileen Espainiako Elkartearekin (ANFAC) bat etorri, 2018an ibilgailuen matrikulazioak % 6,9 areagotu direla, 1.563.495 alera helduz. Aldi berean, ibilgailuen ekoizpena eta esportazioak murriztu egin dira: % 1 eta % 0,6, 2.819.565 eta 2.304.418 alera iritsiz, hurrenez hurren.



## 101. koadroa Ibilgailuen ekoizpena eta salmenta Espainian

(aleak)

Kontzeptua	Ekoizpena			Esportazioa			Matrikulazioak <sup>(1)</sup>		
	2017	2018	%Δ 18/17	2017	2018	%Δ 18/17	2017	2018	%Δ 18/17
Turismoak	2.243.202	2.215.599	-1,2	1.866.931	1.873.085	0,3	1.234.932	1.321.437	7,0
Industria-ibilgailuak <sup>(2)</sup>	605.115	603.966	-0,2	451.286	431.333	-4,4	223.484	238.385	6,7
Autobusak eta autokarrak	0	0	---	0	0	---	3.819	3.673	-3,8
<b>Guztira</b>	<b>2.848.317</b>	<b>2.819.565</b>	<b>-1,0</b>	<b>2.318.217</b>	<b>2.304.418</b>	<b>-0,6</b>	<b>1.462.235</b>	<b>1.563.495</b>	<b>6,9</b>

(1): Matrikulazioen kontzeptua barne-salmentena baino zabalagoa da; saldu gabe edo stockean dauden ibilgailuak ere barne daude. Turismoen matrikulazioen zifrak lur orotako ibilgailuen matrikulazioak ere barneratzen ditu.

(2): Honako hauek barne hartzen ditu: pick-upa, traktokamioiak, industria-ibilgailu arinak eta astunak, furgonetak eta merkataritza-ibilgailu arinak.

Iturria: ANFAC.

Azkenik, txosten honen aurreko edizioetan egindakoaren ildotik, jarraian, EAE eta Nafarroan dauden pneumatikoen fabrikatzaile nagusien gaineko aipamen labur bat ekarri dugu. Honakoak dira: Michelin eta Bridgestone.

Lehenik eta behin, Michelin aintzakotzat hartuta -EAE eta Nafarroan dihardu Gasteiz, Araia (Araba zentro logistikoa da) eta Lasarte (Gipuzkoa) udalerrietako lantegietan-, enpresa-taldeak, guztira, 1.660 milioi euroko etekin garbia izan du 2018an, aurreko ekitaldian baino % 1,9 gutxiago. Merkatu txinatarraren eskariaren eta turismoen pneumatikoen segmentuaren uzkurduraren ondorioak jasan ditu, kanbio-tasa kaltegarria ahaztu gabe. EAE eta Nafarroari dagokionez, azpimarratu behar da urtearen hasieran Gasteizko lantegiko zuzendaritza nagusia Mariano Arconadaren esku geratu dela; hura Valladolideko Michelinek lantegiko zuzendari nagusia izan zen.

2018an 150. urteurrena ospatutako Bridgestone enpresari dagokionean -EAE eta Nafarroan Basauriko lantegian dihardu-, azpimarratzekoa da 2018an bere ekoizpena hobetu dela, taldeak Espainian dituen beste bi lantegietan (Burgos eta Puente San Miguel) bezala, bere urteko negozio-zifra 600 milioi euro ingurukoa izanik. Gaur egun, Basauriko lantegian 1.017 langile daude eta egunero kamioientzako 4.900 gurpil-azal ekoizten dituzte.

## 9. SEKTORE ELEKTRONIKO-INFORMATIKOA<sup>1</sup>

### 9.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Informazioaren Teknologien Europako Behatokiaren arabera (EITO), 2018an, IKTen merkatuaren fakturazioa % 1,6 hazi da Europan, 699 mila milioi eurora iritsi arte; horren harira, 2016an hasitako goranzko joerari eutsi zaio.

Segmentuka, informazioaren teknologiak telekomunikazioak baino dinamikoagoak izan dira (% 2,5 eta % 0,3ko hazkundea, hurrenez hurren); hala, 2018an, 403 eta 296 mila milioi euroko fakturazioa lortu dute bi segmentu horiek.

Europako herrialdeak banan-banan aztertzen baditugu, informazioaren teknologiei dagokienez, Bulgaria, Kroazia, Estonia, Eslovenia, Errumania, Holanda, Suitza, Grezia, Alemania, Letonia, Lituania eta Frantziak, Batasun osoaren hazkunde-mailatik (% 2,5) gorako hazkundea izan dute. Telekomunikazioei erreparatu, ordea, Txekiar Errepublika, Erresuma Batua, Italia, Finlandia, Norvegia, Errumania eta Suedia izan dira Batasuneko batezbestekoaren (% 0,3) gainetik egon direnak; hala ere, geldotasuna izan da segmentu horren joera nagusia.

Amaitzeko, esan beharra dago EITOk duela gutxi argitaratu duela "*La Inteligencia Artificial en Europa: lista para despegar*" izeneko txostena. Bertan esaten denez, arlo horretako europar merkatua 2022an hamar mila milioi eurokoa izatera iritsi arte haziko da; hortaz, urteroko hazkundea % 38 ingurukoa izango da ordura arte. Halaber, txosten horretan esaten denari jarraiki, adimen artifizialaren arloko inbertsio-eragile nagusiak osasuna eta merkataritza izango dira.

---

<sup>1</sup> Sektorea modu orokorrean aipatzen dugunean, horrek barne hartzen ditu sektorean sartzen diren jardura elektronikoinformatiko guztiak eta telekomunikazioetakoak, baina ez telekomunikazio-zerbitzuen operadore/hornitzaile handiak.

## 9.2 SEKTOREA ESPAINIAN<sup>1</sup>

Elektronikaren, Informazio eta Komunikazioaren Teknologien, Telekomunikazioen eta Eduki Digitalen Enpresen Sektore Anitzeko Elkartearen (AMETIC) arabera, informazioaren teknologien Estatuko hipersektoreak gora egin du 2018an, eta 26.765 milioi euro fakturatzera iritsi da. Horrek urtetik urterako aurrerapena % 7,3koa izan dela esan nahi du. Gainera, 2018an sektore guztiek hazkunde orokortua izan dute: *zerbitzuak* % 8,8; *softwarea* % 7,2, eta *hardwarea* % 1,7.

Xeheki begiratuta, informazioaren teknologiei loturiko *zerbitzuen* salmenta 18.611 milioi eurokoa izan da (guztizko hipersektorialaren zatirik handiena hartzen du); horri dagokio aipatu dugun % 8,8ko hazkundearen zifra. Testuinguru horretan, aipatu beharra dago enpresa eta administrazioen eraldaketa digitalak eta teknologia gizarteko esparru guztietara hedatzeak eman dietela bultzada zifra horiei.

*Softwarearen* sektoreak, bere aldetik, 3.501 milioi euro fakturatu ditu 2018an; aurrez adierazitako % 7,2ko hedapena bereganatuz, hain zuzen ere. Aplikazio motaren arabera, kudeaketa-*softwarea* (ERP, CRM...) da sektore horretako hazkundearen oinarria. Bereziki aipagarria da *Cloud* izenekoaren dinamismoa; izan ere, arlo horretako soluzioek zerbitzuen gorakada sustatu dute, beste software edo hardware produktu tradizionalen kaltetan.

Hardwareari dagokionez, 2018an negozio-bolumena 4.653 milioi eurokoa izan da; hau da, % 1,7ko hazkundera erregistratu da. Igoera txiki horren arrazoiak txipen-hornidura arazoak eta mundu-mailako merkataritza-politikak izan dira.

Etorkizuneko joera aipagarri gisa, AMETICek honakoa adierazi du: "gure ekonomiaren eraldaketa digitala gauzatzen ari den erritmoa ikusirik, erreferentziazko proiektu handirik gabe, ezarpen teknologiko ugariren metaketa izan da; horren harira, teknologia gaitzaileek jarraitzen dute garrantzia izaten: Adimen Artifiziala, Big Data, Blockchain, IoT, Konputazio Kuantikoa...". Halaber, AMETICen hitzetan, Zibersegurtasuna eta Cloudcomputing-a izango dira soluzio teknologikoen oinarri eta erreferentzia.

<sup>1</sup> Atal hau Elektronikaren, Informazio eta Komunikazioaren Teknologien, Telekomunikazioen eta Eduki Digitalen Enpresen Sektore Anitzeko Elkarteari (AMETIC) buruzko informazioan dago oinarrituta. AMETICek 2.000 bazkide inguru zituen 2011n; horietatik 300 banakako enpresak ziren eta gainerakoak askotariko enpresa-erakunde eta -multzoak. Horien guztien jarduerak lotura zuen elektronikaren, informazioaren teknologien eta telekomunikazioen sektoreekin.

### 9.3 SEKTOREA EAE-N<sup>1</sup>

Epigrafe hau garatu baino lehen, aipatu beharra dago 2017an Euskal Erkidegoko Elektronika, Informatika eta Telekomunikazio Klusterrak (GAIA) eta Ingeniaritza eta Kontsultoretza Enpresen Euskal Elkarteak (AVIC) bat egin zutela, eta horrek emaitzetan eragina duela. Horri dagokionez, azpimarratzekoa da 2016tik aurrera emandako informazioak integrazio horren emaitza den megasektoreari egiten diola erreferentzia.

2018an, Euskal Erkidegoko Elektronika, Informatika eta Telekomunikazio Klusterrak (GAIA) 254 enpresa kide izan ditu; hau da, aurreko ekitaldian baino lau gutxiago.

**102. koadroa     Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko enpresen bilakaera EAEn**

Urtea	Enpresak
2009	240
2010	265
2011	267
2012	260
2013	265
2014	245
2015	243
2016	254
2016*	279
2017*	258
2018*	254

(\*): GAIA+AVIC.

Iturria: GAIA. Geuk egina.

Arreta sektoreko ekoizpenean jartzen badugu, 2018an 5.171 milioi eurokoa izan da; hau da, aurreko ekitaldian erdietsitako bolumena baino % 4,3 handiagoa. Gainera, GAIAren arabera, EAEko PBGaren % 7 hartzen du.

<sup>1</sup> Atal hau Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkarteak (GAIA) emandako informazioa erabiliz egin da. Informazio hori elkarteko kide diren enpresei buruzkoa da, horiek EAEko sektorearen egoera orokorraren adierazle baitira.

**103. koadroa**      **Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko ekoizpenaren bilakaera EAEn**

Urtea	Ekoizpena M eurotan	% Δ
2009	3.060,0	-7,7
2010	2.994,9	-2,1
2011	2.911,0	-2,8
2012	2.742,0	-5,8
2013	2.702,1	-1,5
2014	2.768,0	2,4
2015	2.909,0	5,1
2016	3.530,0	21,3
2016*	4.742,0	--
2017*	4.958,0	4,6
2018*	5.171,0	4,3

(\*): GAIA+AVIC.

Iturria: GAIA. Geuk egina.

Sektoreko esportazioei dagokienez, 2018an 2.164 milioi eurokoak izan dira; hau da, 2017an baino % 5,8 gehiago; izan ere, kanpoko salmenten parte-hartzea zertxobait handitu da ekoizpen osoaren gainean: % 41,8 2018an eta % 41,3 aurreko ekitaldian.

**104. koadroa**      **Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko esportazioen bilakaera EAEn**

Urtea	Esportazioak (M euro)	% Δ	Esportazioak/ Ekoizpena
2009	765,0	2,1	25,0
2010	850,0	11,1	28,4
2011	943,0	10,9	32,4
2012	1.053,0	11,7	38,4
2013	1.076,8	2,3	39,8
2014	1.084,2	0,7	39,2
2015	1.117,0	3,0	38,4
2016	1.179,6	5,6	33,4
2016*	1.966,0	--	41,5
2017*	2.045,4	4,0	41,3
2018*	2.164,0	5,8	41,8

(\*): GAIA+AVIC.

Iturria: GAIA. Geuk egina.

Testuinguru horretan, sektoreko enplegua % 3,9 hazi da 2018an, 20.030 langile izatera iritsi arte; horrek sektorea une honetan hedatzen ari dela islatzen du, erreferentziazko eragilea baita eraldaketa digitala gauzatzeko.

**105. koadroa    Sektore elektronikoinformatikoaren eta telekomunikazioen arloko enpleguaren bilakaera EAEn**

Urtea	Enplegatuak	% Δ
2009	12.000	-0,4
2010	11.400	-5,0
2011	11.410	0,1
2012	10.807	-5,3
2013	10.797	-0,1
2014	10.564	-2,2
2015	11.007	4,2
2016	11.447	4,0
2016*	18.517	--
2017*	19.276	4,1
2018*	20.030	3,9

(\*): GAI+AVIC.

Iturria: GAI. Geuk egina.

I+G arloko inbertsioari dagokionez, 2018an, GAIako bazkideek 131 milioi euro inbertitu dituzte; hau da, fakturazioaren % 2,5. Zenbateko hori aurreko ekitaldikoa baino % 2,7 handiagoa da.

Epigrafea amaitzeko, esan beharra dago GAIak duela gutxi ospatu zuela Biltzar Nagusia. Bertan, erakundeko presidentek aitortu zuen, sektorea bide onetik badoa ere, profil profesionalen faltak kezka eragiten jarraitzen duela; berau bereziki larria izanik softwarearen arloan.

## 10. ERAIKUNTZA

2018 urtean, eraikuntza-sektorerako aztertutako datuek aurrerapenak erakusten badituzte ere, oraindik krisiaren aurreko balioetatik urrun aurkitzen dira. Azken urteetan sektoreak izandako portaera onaren arrazoietakoa bat hazten jarraitzen duen etxebizitzaren-eraikuntza da, nahiz eta epe laburrerako azken aurreikuspenek hazkundea gero eta txikiagoa izango dela adierazten duten. Horrela, estatu-mailan, bukatutako etxebizitzaren kopuruak, berriz ere, gora egin du (% 18,9), baina aurrerapen hau batez ere hasitako etxebizitzetan (babestuak bakarrik) hauteman da (% 63,1). Sektorearen egoera neurtzen duen beste adierazleetakoa bat zementu-kontsumoa da. 2018an, Oficemen<sup>1</sup>-ek argitaratutako informazioaren arabera, Estatuan zementuaren eskariak % 8ko igoera izan du, 13,4 milioi tonara helduz; kopuru hau 70eko hamarkadan lortutako bolumenaren antzekoa da. Egoera horrek, neurri batean, harremana dauka obra zibilak galdutako dinamismoarekin; historikoki hori izan da zementuaren helmuga nagusia, baina minimo historikoetan jarraitzen du, epe laburrera suspertzeko itxura handirik gabe. Egoera horren ondorioz, eraikuntza-jarduerak defizita dauka; Seopan<sup>2</sup>-en arabera Espainiak lehentasunezko 814 azpiegitura-proiektu gauzatu gabe utzi ditu, horietan 994.120 pertsonak lan egiteko aukera izango luketelarik. Sektorearen susperraldi irrikatuaren zain, 2018an, bigarren urtez jarraian, enpleguak gora egin du, gainera, 2017an baino biziago (% 8,3, 2017an % 5,1), horrela, eraikuntzan 2018an guztira 1.221.800 langile izanik; 2011 urteaz gerostik erregistratutako kopuru altuena da.

### 106. koadroa Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera

Kontzeptua	EAE eta Naf.		Espainia	
	2017	2018	2017	2018
Enplegua	2,2	8,4	5,1	8,3
Zementuaren ageriko kontsumoa <sup>(*)</sup>	dg	9,5	11,0	8,0
Bukatutako etxebizitzak	12,2	17,4	21,6	18,9
Hasitako etxebizitzak	-34,8	2,1 <sup>(**)</sup>	21,5	63,1 <sup>(**)</sup>
Lizitazio ofiziala	84,9	-12,0	39,3	29,4

(\*): Oficemen-eko Ipar Eremuko (Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) bazkideen zementuaren ageriko kontsumoari dagokio.

(\*\*): Txosten honen lanketa datan ez dago hasitako etxebizitza libreei buruzko daturik. Beraz, babestutako etxebizitzaren bilakaera baino ez da adierazten.

Iturria: Geuk egina, EIN, Seopan eta Oficemenen datuetatik abiatuta.

EAE eta Nafarroako egoerari dagokionez, eta enpleguaren eta zementu-kontsumoaren bilakaera landuz, Estatuaren antzeko joera ageri da; izan ere, bi adierazleek antzeko

<sup>1</sup> Espainiako zementu-fabrikatzaileen elkarteak.

<sup>2</sup> Enpresa eraikitzaileen eta azpiegituren lizitatzaileen elkarteak.

aldakuntza izan dute. Bukatutako etxebizitzaren kopurua ere areagotu egin da, Estatuko dinamismo bera erakutsiz (% 18 inguru), eta hasitakoek goranzko joera dute, nahiz eta berau askoz moderatuagoa izan (% 2,1). Lizitazio ofizialaren kasuan, ordea, joera aldatzen da, EAE eta Nafarroan ekitaldia balio negatiboetan (-% 12) itxi baita, aurreko ekitaldiko hazkunde esanguratsutik (% 84,9) urrun.

**107. koadroa Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EAE)**

Kontzeptua	(% Δ)		
	2016	2017	2018 <sup>(*)</sup>
Okupatutako langileen indizea	-0,7	1,3	4,5
Ekoizpen-indizea	2,1	5,9	12,6
Etxegintza	4,4	8,1	13,4
Obra zibila	-11,3	-9,2	5,2

(\*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EIK) (2010eko oinarria).

EAEko Eraikuntzaren Indize Koiunturalari buruzko informazioari arreta eskaintzen badiogu, 2018an adierazle guztiek balio negatiboak atzean utzi dituzte. Horrela, ekoizpen-indizea % 12,6 igo da, etxegintzako azpisektoreak izandako portaerarekin (% 13,4) bat etorriz; biek hazkundera areagotu dute azken hirurtekoan. Okupatutako langileen indizeari dagokionez, 2018. urtea balio positiboekin itxi da bigarren urtez jarraian (% 1,3 eta % 4,5), ekitaldi horretan obra zibila hazkundera erregistratzen hasten delarik (hein batean hauteskunde-egutegiaren ondorioz).

**108. koadroa Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa**

Eremua	2017				2018 <sup>(*)</sup>			
	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira
Araba	20,3	42,9	78,4	141,7	14,7	70,2	117,7	202,6
Bizkaia	81,1	122,0	316,8	519,9	10,8	91,8	463,4	566,0
Gipuzkoa	473,6	197,6	295,7	966,9	101,0	68,2	260,0	429,2
EAE	575,1	362,6	690,8	1.628,5	126,5	230,1	841,1	1.197,7
Nafarroa	93,3	102,7	52,6	248,6	130,5	135,6	188,1	454,1
EAE eta Naf.	668,4	465,2	743,4	1.877,0	256,9	365,7	1.029,2	1.651,8
Espainia	3.827,4	3.936,6	5.111,0	12.875,0	5.413,71	4.199,0	7.053,6	16.666,3

(\*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Seopan.

Analisis lizitazio-jarduerara mugatzen badugu, ekitaldia positiboki itxi da aztertutako eremu geografiko ia guztietan, Gipuzkoan izan ezik. Estatuaren egoeratik hasiz gero, 2018an lizitatutako bolumena 16.666 milioi eurora igo da, % 29,4ko aurrerapena izanik. Hala ere, nahiz eta inbertsioen erritmoan jauzi kuantitatibo nabarmena egon, lizitatutako bolumena oraindik ere minimo historikoetatik hurbil dago, gutxi gorabehera 2006ko



balioen herena izanik. EAE eta Nafarroari dagokionez, egoera okerragoa da, 2017. urtearekin alderatuta jarduera %12 jaitsi baita. Ekitaldi honetan, euskal inbertsioa guztira 1.651,8 milioi eurokoa izan da, eta kopuru hau Gipuzkoan hautemandako aldaketaren ondorioz jaitsi da. 2017an, Gipuzkoan inbertsioak hazkunde esponentziala izan zuen (% 229,2) 966,9 milioi eurora helduz; 2018an kopuru hori ez da erdira ere iritsi (429,2 milioi). Gainerako lurraldeetan, 2018an lizitatutako balioek gora egin dute, jardueraren hazkundera argien ikusten den kasua Nafarroa izanik (% 82,7); Foru Komunitatean guztira 454,1 milioi euro lizitatu dira. Araba da dinamismo handiena erakutsi duen bigarren lurraldea, 2017ko balioak nabarmen hobetuz (% 43), eta orotara, 202,6 milioi euroko inbertsioa sortuz. Bizkaian, hazkundera neurritsuagoa (% 8,9) izan bada ere, bertan, lizitatutako bolumen handiena metatzen da (566 milioi euro). Hala ere, lurralde gehienetan erregistratutako portaera ona ez da nahikoa izan Gipuzkoako jaitsiera konpentsatzeko.

Erakunde lizitatuaren arabera informazioa xehatuz, eta Estatuko egoerari dagokionez, hazkunderak hauteman dira hiru maila administratiboetan. Administrazio zentralak eta tokiko administrazioak antzeko eboluzioa (% 41,4 eta % 38, hurrenez hurren) izan duten bitartean, administrazio autonomikoaren hazkundera moderatuagoa (% 6,7) izan da. Horrela, egoera nahiko orekatu batean, tokiko administrazioaren garrantzia (% 42,3) administrazio zentralarena (% 32,5) eta autonomikoarena (% 25,2) baino pixka bat handiagoa da.

**109. koadroa Lizitazio ofizialaren urtetik urterako aldakuntza eta administrazioen arteko banaketa (2018\*)**

Eremua	%				% Δ 18/17			
	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira
Araba	7,2	34,7	58,1	100,0	-27,9	63,5	50,1	43,0
Bizkaia	1,9	16,2	81,9	100,0	-86,7	-24,8	46,3	8,9
Gipuzkoa	23,5	15,9	60,6	100,0	-78,7	-65,5	-12,1	-55,6
EAE	10,6	19,2	70,2	100,0	-78,0	-36,5	21,7	-26,5
Nafarroa	28,7	29,9	41,4	100,0	39,8	32,1	257,7	82,7
EAE eta NAF.	15,6	22,1	62,3	100,0	-61,6	-21,4	38,4	-12,0
Espainia	32,5	25,2	42,3	100,0	41,4	6,7	38,0	29,4

(\*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Seopan.

EAE eta Nafarroako egoerari dagokionez, lekuko administrazioak protagonismo handiagoa izan du, lizitatutako bolumenean (% 62,3) eta eboluzioan (% 38,4) balio onenak lortuz. Administrazio autonomikoak (-% 21,4) eta zentralak (-% 61,6) beren ekarpena murriztu dute, EAE eta Nafarroako lizitazioen mapan pisu txikiagoa lortuz (% 22,1 eta % 15,6, hurrenez hurren). Lurraldeen araberako analisiak agerian jartzen du, neurri handiagoan edo txikiagoan, lekuko administrazioek gainerakoek baino jarduera

oparagoa izan dutela, Nafarroan (% 41,4), Araban (% 58,1), Gipuzkoan (% 60,6) eta, batik bat, Bizkaian (% 81,9). Horrez gain, azpimarratzekoa da Nafarroan hautemandako hazkunde esponenziala (% 257,7). Hori horrela, Nafarroa izan da erakunde lizitatzailer guztien inbertsioan igoera izan duen lurralde bakarra; halaber, administrazio autonomikoak eta zentralak, antzeko eboluzioa izateaz gain, pisu erlatibo bera dute (% 29,9 eta % 28,7). Kontrako muturrean Gipuzkoa aurkitzen da, inbertsioen erritmoan jaitsierak erregistratu baitira; beherakada handiak izan dira administrazio zentralaren (-% 78,7) eta autonomikoaren (-% 65,5) inbertsioetan, lizitazioen mapan dituzten posizioak nabarmen ahulduz (% 23,5 eta % 15,9). Araban, atzerapen bakarra administrazio zentralaren kasuan (-% 27,9) gertatu da, bere partaidetza % 7,2ra jaitsiz, administrazio autonomikoak inbertsioa oparo handitu (% 63,5) duen bitartean, % 34,7ko kuota lortuz. Bizkaiari dagokionez, ekitaldia balio negatiboetan itxi dute bai administrazio zentralak bai autonomikoak (-% 86,7 eta -% 24,8), partaidetzaren % 1,9 eta % 16,2 eskuratuz, hurrenez hurren.

Obra motaren arabera inbertsioa nola banatu den aztertuz gero, datuen lehen hurbilketa batek agerian uzten du errealitate oso ezberdinak daudela Euskal Herriko eta Estatu-ko adierazleen bilakaeraren artean. Estatu-mailan bi digituko hazkundeak nabarmentzen dira, izaera negatiboko balio bakar bat ezartzen delarik. Zehazki, pisu handieneko azpisektoretik hasita, obra zibila (% 66,7), 2018an lizitatutako bolumena % 34,2 igo da, aurreko ekitaldiaren antzera. Inbertsioan dinamismo handiena erakutsi dutenak Urbanizazioa eta Ingurumena izan dira (% 61,3 eta % 48,2, hurrenez hurren), baina partaidetza oso ezberdinak bereganatu dituzte (% 15,8 eta % 2,9, hurrenez hurren). Garraioei dagokien partidak pisu erlatibo handiagoa (% 39,4) dauka, eta gainera nabarmen igo da (% 32,4). Era berean, Hidraulikoak hazkundera jasan du, baina askoz orekatuagoa (% 5,4), bere partaidetza ere nabarmen txikiagoa (% 8,7) izanik. Etxegintzaren azpisektoreari dagokionez, lizitazioa % 20,9 areagotu da, azpimarratzekoa izanik Gizarte-ekipamenduan (% 33) eta Gainerako etxegintzan (% 18,1) hautemandako aurrerapenak, ez ordea Etxebizitzena (-% 29,1). Beraz, lehendabiziko bi azpiegiturek guztizkoan duten partaidetza hobetzen duten bitartean (% 19,5 eta % 11,7), etxebizitzek lizitatutako guztizkoaren bolumen txikiena bereganatzen dute (% 2,1).

## 110. koadroa Lizitazio ofiziala obra motaren arabera (2018)

Obra mota	EAE eta Naf.			Espainia		
	M eurotan	% Δ 18/17	%	M eurotan	Δ% 18/17	%
Etxebizitzak	61,4	-34,4	3,7	355,3	-29,1	2,1
Gizarte-ekipamendua	215,8	-17,5	13,1	3.252,7	33,0	19,5
Gainerako etxegintza	120,4	-13,8	7,3	1.945,1	18,1	11,7
<b>Guztizko etxegintza</b>	<b>397,6</b>	<b>-19,6</b>	<b>24,1</b>	<b>5.553,1</b>	<b>20,9</b>	<b>33,3</b>
Garraioak	774,3	-19,5	46,9	6.559,6	32,4	39,4
Urbanizazioak	245,7	19,3	14,9	2.627,8	61,3	15,8
Hidraulikoak	193,6	-2,1	11,7	1.446,2	5,4	8,7
Ingurumena	40,6	151,3	2,5	479,6	48,2	2,9
<b>Obra zibila guztira</b>	<b>1.254,3</b>	<b>-9,3</b>	<b>75,9</b>	<b>11.113,2</b>	<b>34,2</b>	<b>66,7</b>
<b>GUZTIZKOA</b>	<b>1.651,9</b>	<b>-12,0</b>	<b>100,0</b>	<b>16.666,3</b>	<b>29,4</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Seopan.*

EAE eta Nafarroari dagokionez, eta Estatuan gertatutakoaren aldean, beherakadak dira nagusi, nahiz eta Ingurumenarekin eta Urbanizazioekin lotutako azpiegiturek aurreko ekitaldiko balioak hobetzen dituzten. Bietatik lehenak, partida txikiena (% 2,5), hazkunde handia (% 151,3) erregistratu du, bigarrenak, berriz, % 14,9ko partaidetzarekin, zenbatekoa % 19,3 areagotu du. Obra hidraulikoei jarraiki, lizitazioen mapan duten eragina pixka bat murriztu da (-% 2,1), nabarmenagoa izanik Garraioen azpiegiturak pairatutako jaitziera (-% 19,5). Hala eta guztiz ere, azken hau da EAE eta Nafarroako lizitazioaren parte handiena biltzen duen partida (% 46,9). Hori guztia aintzat hartuta, Obra zibilaren azpisektorea da inbertsio gehien jaso duena, lizitatutako guztizkoaren % 75,9 xurgatuz, orotara 1.254,3 milioi eurora heldu baita, 2017an baino % 9,3 gutxiago. Etxegintzari dagokionez, urtea % 19,6ko jaitzierarekin itxi da, segmentu hori osatzen duten hiru obra moten ondorioz. Gizarte-ekipamenduak inbertsioaren % 13,1 hartzen du, eta bere esleipena % 17,5 murriztu da. Aldi berean, Gainerako etxegintzak eta batez ere Etxebizitzak beherakada nabarmenak izan dituzte (-% 13,8 eta -% 34,4), beren partaidetzak % 7,3 eta % 3,7ra jaitziz, hurrenez hurren.

14. grafikoa Lizitazio ofiziala



Iturria: Seopan.

111. koadroa Hasitako eta bukatutako etxebizitzak\*

(etxebizitza kopurua)

Eremua	Kontzeptua	Hasitako etxebizitzak				Bukatutako etxebizitzak			
		2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018
Araba	Babestuak	15	41	290	307	0	35	1	40
	Libreak	201	278	277	---	184	144	204	396
Bizkaia	Babestuak	760	576	829	1.058	1.537	1.127	236	665
	Libreak	750	1.715	331	---	1.965	914	1.089	1.621
Gipuzkoa	Babestuak	306	584	225	513	420	567	120	154
	Libreak	1.143	2.414	390	---	1.462	811	2.087	1.545
EAE	Babestuak	1.081	1.201	1.344	1.878	1.957	1.729	357	859
	Libreak	2.094	4.407	998	---	3.611	1.869	3.380	3.562
Nafarroa	Babestuak	329	214	854	366	425	348	227	490
	Libreak	1.068	1.664	1.766	2.170	560	562	1.065	994
EAE eta Naf.	Babestuak	1.410	1.415	2.198	2.244	2.382	2.077	584	1.349
	Libreak	3.162	6.071	2.764	2.170	4.171	2.431	4.445	4.556
Espainia	Babestuak	5.306	6.787	7.271	11.860	7.931	7.118	4.938	5.167
	Libreak	45.259	60.119	74.004	---	39.891	37.512	49.336	59.377

(\*): Txosten hau egin denean, 2019/07/18, ez dago hasitako etxebizitza libreei buruzko datu gaurkoturik.

Iturria: Sustapen Ministerioa. Espainiako Gobernua. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza. Sustapen eta Etxebizitza Saila. Nafarroako Gobernua. EIN.

Kapituluaekin jarraituz, nahiz eta urtez urte gorabehera nabarmenak dituzten datuak izan, hasitako eta bukatutako etxebizitzaren eboluzioak aukera ematen du sektorearen errealitatea ezagutzeko. Horrela, baieztatu daiteke (nahiz eta datu osoak ez izan) etxegintza oraindik ere 'maila normaletik' oso behera aurkitzen dela, kontuan hartuz gero hasitako etxebizitza kopuruak, nahiz eta hazten jarraitu, kasurik onenean 100.000 etxebizitzaren muga arinki gaindituko duela 2018an, krisiaren aurreko batezbestekoa zenbateko horren bikoitza baino gehiago izanik.

Hori horrela, datuen lehen azterketak erakusten du EAEn eta Estatuan etxegintza pixka bat suspertu dela, Nafarroan ñabardurak adieraziz. Zehazki, babestutako hasitako etxebizitzaren datuak kontuan hartuta, estatu-mailan balantzea positiboa da; 2017an 7.271 etxebizitza eta 2018an 11.860 erregistratu dira. EAEn, berriz, 1.344 etxebizitzatik 1.878 etxebizitzara igo da. Araban (% 5,9), Bizkaian (% 27,6) eta, batez ere, Gipuzkoan (% 128) hasitako babes ofizialeko etxebizitzaren bolumena handitu egin da; guztira 307, 1.058 eta 513, hurrenez hurren. Nafarroan, ordea, adierazle horrek beheranzko joera ageri du (-% 57,1), aurreko urteko hazkunde esponentziala medio (% 299), 2018an 366 alera helduz. Hala ere, Foru Komunitatean jaitsiera hori hasitako etxebizitza libreen eboluzioak partzialki konpentsatu du (informazio osoa ezagutzen den lurralde bakarra da); % 22,9 hazi da, eta babestuekin batera 2.536 (2.620, 2017an) etxebizitza dira.

Bukatutako etxebizitzetzi dagokienez, 2018an hazkundeak mantentzen dira; estatu-mailan 5.167 etxebizitza babestu eta 59.377 libre bukatu ziren, % 4,6ko eta % 20,4ko

igoeren ondorioz, hurrenez hurren. Zehazki, EAERI erreparatuz gero, 859 etxebizitza babestu eta 3.562 libre amaitu ziren. Azpimarratu behar da adierazle negatibo bakarra Gipuzkoan dagoela, etxebizitza libreen kasuan, hain zuzen ere.

Iparra etxegintza pribatuan jarrita, Araban azken urtean 396 etxebizitza bukatu ziren (% 94,1eko igoera) eta Bizkaian kopurua 1.621 etxebizitzakoa izan da (% 48,9ko hazkundera). Gipuzkoan, 1.545 etxebizitza libre amaitu dira, 2017ko ekitaldiarekin alderatuta % 26ko murrizketa egonik. Nafarroan, berriz, guztira mila ale inguru (994) egon dira, honek ere eboluzioa negatiboa (- % 6,7) erregistratuz. Azpimarratu behar da etxebizitzaren kategoria horrek Araban eta Gipuzkoan duen garrantzi espezifikoak, etxegintza-jardueraren ia kopuru osoa (% 91) ordezkatzeko baitu; Bizkaian (% 71) eta Nafarroan (% 67) partaidetza pixka bat murrizten da.

Bukatutako babes ofizialeko etxebizitzaren portaerari dagokionez, aurreko ekitaldian EAE eta Nafarroan beren errendimendua nabarmen jaitsi bazen ere (-% 71,9), 2018an joera gorakorra adierazi da (% 131). Araban, 2017an etxebizitza bakarra bukatu zen, aldiz, 2018an kopurua 40ra igo da. Eboluzio hori gainerako lurraldeetan mantentzen da, Gipuzkoan 120 aletik 154 alera, Nafarroan 227tik 490era eta Bizkaian 236tik 665era igaroz, zeinak % 28,3, % 115,9 eta %181,8ko igoerak suposatzen dituen, hurrenez hurren.

15. grafikoa Bukatutako etxebizitza kopurua



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzaren Nafarroako Gobernuaren Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua. Nafarroako Gobernuaren E.I.N.

**112. koadroa Birgaitze babestuaren arloko lanak EAEn\***

Urtea	Birgaitutako etxebizitza kop.	Emandako dirulaguntzak (eurotan)
2017	16.278	20.967.625
2018	8.484	17.907.332
% Δ 18/17	-47,9	-14,6

(\*): Dirulaguntza jaso duten eraikin eta etxebizitza birgaituen kopurua.  
Behin-behineko datuak.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzak.

EAEko birgaitze-jardueraren bilakaera landuz, guztira 8.484 etxebizitza birgaitu dira, 2017an baino % 47,9 gutxiago. Inbertsioari dagokionez, emandako dirulaguntzak 17.907.332 eurokoak izan dira, 2017an esleitutakoak baino gutxiago (-% 14,6).

**113. koadroa Eraikuntzan lanean ari diren herritarrak**


Eremua	<i>(m pertsona)</i>			
	2016	2017	2018	Δ% 18/17
Araba	3,2	5,2	6,9	32,7
Bizkaia	30,3	27,1	25,0	-7,7
Gipuzkoa	15,7	15,7	18,4	17,2
EAE	49,3	48,0	50,3	4,8
Nafarroa	12,3	14,9	17,8	19,5
EAE eta Naf.	61,5	62,9	68,1	8,3
Espainia	1.073,8	1.128,3	1.221,8	8,3

Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (Oinarria 2011).

Kapitulua bukatzeko, eta biztanleria aktiboan arreta jarrita, aztertutako eremu geografiko guztietan jarduerak eboluzio baikorra izan du, Bizkaian izan ezik. Izan ere, lurralde horretan 25.000 pertsona dabilta lanean eraikuntzan, azken urteetako joera positiboa hautsiz (-% 7,7). Kontrako muturrean, eta 2016an hasitako hazkundearekin jarraituz, Araban nabarmen igo da sektorean lanean dabilten pertsonen kopurua (% 32,7), 6,9 mila pertsonara helduz. Gipuzkoan eta Nafarroan ere igoera izan da, baina erritmo baxuagoan. Lehendabizikoan 18,4 mila pertsona zeuden sektorean lanean (% 17,2ko igoera), bigarreanean, berriz, 17,8 mila pertsona zebiltzan jardunean (% 19,5eko hazkundera). EAE eta Nafarroa osoan eboluzioa % 8,3koa izan da, Estatuan hautemandako garapen berbera. Datu hau ezberrik gabe positiboa da, krisiaren astinduak oraindik pairatzen dituen sektore batentzat.



16. grafikoa Eraikuntzan lanean ari diren herritarrak



Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2011ko oinarria).

## 11. SEKTOREEN ANALISI EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

### 11.1 SARRERA

Kapitulu honetan, finantza-analisiaren tresna klasikoetako bi (ratio bidezko analisia, eta funtsen iturrien eta erabileren egoera) aplikatuko zaizkie EAeko eta Nafarroako industria-sektoreei. Horretarako, sektore bakoitzeko kontabilitate-egoerari buruzko informazioa behar da: balantzeak eta emaitzen kontuak.

Kapitulua, sarrerako lehen atalaz gain, hiru zati handitan egituratuta dago. Lehen metodologikoa da, eta erabilitako oinarritzko informazioa dago zehaztuta bertan. Bigarren atalean, berriz, ratioen piramidearen aplikazioan jarraitutako irizpideak zehazten dira. Azkenik, hirugarren atalean funtsen iturrien eta erabileren egoera azaltzen da. Horrela, beraz, EAeko eta Nafarroako industria-sektoreen ekonomia- eta finantza-analisi bat egin da (sektore arteko konparazioan eta Estatu osoarekiko konparazio sektorialean sakonduz), eta piramideko ratio nagusiak eta batez besteko inbertsio-diruzaintzak (cash-flow libreak) hartu dira erreferentzia gisa. Halaber, sektoretako ratioen piramideak eta funtsen iturri eta erabileren egoerak erantsi dira (EAE eta Nafarroakoak zein Estatu osokoak).

### 11.2 METODOLOGIA

#### Datu-bankua

Piramidea egiteko, oinarritzko kontabilitate-egoerak behar dira: aztertu beharreko sektore guztien balantzeak eta emaitza-kontuak. Horretarako, Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak -enpresa laguntzaileek betetako galde-sortetan oinarritutako informazioa erabili da datu-base gisa, EAeri eta Nafarroari (eskaera espezifikoak egin da egoitza EAEn edo Nafarroan duten enpresen kasuan) zein Estatu osoari dagokionez (Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak berak landutako urteko txostenetako informazioa erabili da). Horri esker, ondorengo tratamendu baterako informazio homogeneoa lortu da.

Testuinguru horretan, kontuan hartu behar da, lehenik eta behin, Balantzeen Zentralean eskuragarri dagoen azken informazioa t-2 urtekoa dela (halaber, datu-base bakoitzak dagokion urteko eta aurreko urteko informazioa eskaintzen du). Hortaz, abiapuntuko informazioak urtebeteko atzerapena dauka txosten honi dagokion ekitaldiarekin.

Zehazki, txosten hau egiteko azken base eskuragarria 2017koa da, eta 2016. eta 2017. urteei buruzko informazioa ematen du.

Industria-jardueraren sektorizazioari dagokionez, Balantzeen Zentralaren CB-52 sailkapen berria erabili da industria-sektoreen informazio-eskaera egiteko. Sailkapen hori, bestalde, 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) kontuan hartuta eguneratu da. Zehazki, honakoa da desagregazio sektoriala (19 sektore):

- Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak
- Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
- Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik
- Papergintza
- Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa
- Koke-fabrikak eta petrolio-finketa
- Industria kimikoa
- Farmazia-produktuen fabrikazioa
- Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa
- Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa
- Metalurgia; burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa
- Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoen izan ezik
- Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa
- Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa
- Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa
- Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa
- Bestelako garraio-materialen fabrikazioa
- Altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk
- Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa

2017ko datu-basean, adierazitako 19 sektore horietako 14ri buruzko informazioa dago eskuragarri EAE eta Nafarroaren kasuan (honako sektore hauei buruzko informazioa falta da, estatistika-sekretua dela-eta —sektore batean 5 enpresa laguntzaile baino gutxiago daudenean—: ehungintza, jantzigintza eta larrugintza; zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik; arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa; koke-fabrikak eta petrolio-finketa; farmazia-produktuen

fabrikazioa). 2016. urtean, berriz, 15 sektoreri buruzko informazioa zegoen eskuragarri (ehungintza, jantzigintza eta larrugintzari buruzkoa ere bai). Horrela, beraz, industria osorako agregatua dagokion urtean EAE eta Nafarroan zein Estatu osoan eskuragarri dauden sektoreen baturarekin lortzen da.

Azkenik, adierazi beharra dago sektore bakoitzerako agregatutako egoerak lortzeko oinarri izan den informazioa eskaini duten enpresek beren borondatez eman dutela informazio hori. Beraz, ezerk ez du bermatzen baseak iraungo duenik eta egindako analisiak balio estatistikoa izango duenik sektore osorako inferentziaren bat egiteko.

### Ratioen piramidea<sup>1</sup>

*Abiapuntuko datuak: balantzea eta emaitzen kontua*

Kontabilitateko oinarritzko egoera-orriek osatzen dute piramidea egiteko abiapuntuko informazioa: emaitzen kontuak eta balantzeak. Informazio hori oso era sinplifikatuan eman behar da egingo den aplikazioa kontuan hartuta. Izan ere, aztertutako sektore guztien ikuspegi orokorra eskaintzea da helburua. Analisi sakonago bat egiteko eta ondorio sakonagoak lortzeko, informazio bereziagoa eta eduki-aberastasun handiagokoa behar da.

Emaitza-kontuari dagokionez, honako taula honetan agertzen den eskema erabiliko da:

+	Ustiapeneko ohiko diru-sarrerak	V
-	Kostu aldakor operatiboak, ordainketarekin	CV
-	Kostu finko operatiboak, ordainketarekin	CF
-	Amortizazioak (eta, oro har, ordainketarik gabeko kostu operatiboak)	AM
-	Interesak	I
±	Ezohiko emaitzak	RE
-	Sozietateen gaineko zerga	IS
=	Mozkin garbia	BN

Balantzeari dagokionez, pasiboaren barruan kostu esplizitua eta ondare garbia duten kanpoko funtsak bereiziko ditugu (2007 KPO plan berriaren arabera). Aktiboaren barruan, honako hauek aztertuko ditugu: aktibo finkoa (aktibo ez-korrontea) eta aktibo zirkulatzailer garbia (aktibo korronte garbia), hau da, berezko pasiboak (negozioaren jardunak berak sortutako pasiboak, hala nola administrazioarekin amortizatzen diren saldoak) kendu zaizkion aktibo zirkulatzailer eta kostu implizitua duten pasiboak (hala nola hornitzaileekin amortizatzen diren saldoak; saldo horien

<sup>1</sup> Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (1999): "Algunas reflexiones y novedades acerca de la pirámide de ratios", *Boletín de Estudios Económicos*, 167. zenbakia, abuztua, 1999; 329-359 or.

kostua ordainketa bizkorragatiko deskontu gisa kalkula liteke finantzaketari uko eginez gero). Honako taula honetan ikus daiteke hori guztia:

AKTIBO ZIRKULATZAILE GARBIA	EPE LABURREKO KANPOKO FUNTSAK KOSTU ESPLIZITUAREKIN
	EPE LUZEKO KANPOKO FUNTSAK
AKTIBO FINKOA	ONDARE GARBIA

Proposatutako ratioen piramidea aurkeztu aurretik, kontzeptu interesgarri batzuk azalduko ditugu.

#### *Leverage operatiboa*

Mozkin operatiboaren (finantza-kostuak eta zergak kontuan hartu gabe) eta "saldutako euro bakoitzeko marjin gordinaren" arteko erlazioa jasotzen du. Erabiliko den formulaziora iristeko, nomenklatura gehigarri batzuk behar dira:

MB = Marjin gordina. Ohiko diru-sarreraren eta kostu aldakorren arteko diferentzia (amortizazioa kostu finkotzat hartuko dugu):

$$MB = V - CV$$

MBP = Saldutako euro bakoitzeko marjin gordina. Marjina gordinaren eta salmenten zifraren arteko zatidura. Saldutako euro bakoitzak kostu aldakorrak soilik estaliz uzten duen marjina adierazten du:

$$MBP = \frac{MB}{V}$$

BAll = Interesen eta zergen aurreko mozkin. Ohiko diru-sarreraren eta kostu operatiboaren (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) diferentzia konparatzearen emaitza da:

$$BAll = V - CV - CF - AM = MB - (CF + AM)$$

VPM = Itopuntuko salmentak. Kostu operatiboak (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) estaltzeko beharrezkoa den salmenta-zifra da, eta bat dator BAll = 0 egiten duen salmenta kantitatearekin. Kostu aldakorrak salmentekiko linealak direla suposatzen badugu (MBP salmenta-mailarekiko independentea izanik), honako hau dugu:

$$BAII = 0 = MB - (CF + AM)$$

$$MB = (CF + AM)$$

$$\frac{MB}{V} \cdot V = MBP \cdot V = (CF + AM)$$

$$V = VPM = \frac{CF + AM}{MBP}$$

Eta, era horretan, leverage operatiboaren formulaziora iritsiko ginateke:

$$BAII = MB - (CF + AM) = \frac{MB}{V} \cdot V - MBP \cdot VPM = MBP \cdot V - MBP \cdot VPM$$

$$BAII = MBP \cdot (V - VPM)$$

Hortaz, saldutako euro bakoitzeko marjin gordina handitzea lortzen bada (kostu finkoak konstante mantenduz), interesen eta zergen aurreko mozkina handitzea lortzen da (apalankamendu-efektua).

#### *Leverage finantzarioa*

Funts propioetan inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasunaren, aktiboaren errendimenduaren, kanpoko funtsen kostuaren eta zorpetzearen arteko erlazioa neurtzen du. Formulazio matematikoa lortzeko, kontzeptu batzuk definitu behar dira:

t = Zerga-tasa

BAIdI = Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina.

$$BAIdI = BAII \cdot (1 - t) = (V - CV - CF - AM) \cdot (1 - t)$$

Bestalde, ekitaldian ezohiko emaitzarik ez dagoela aintzat hartuta<sup>1</sup>, mozkin garbia BAIdI-i zergen interes garbiak kenduz lortzen da:

$$BN = BAIdI - I \cdot (1 - t)$$

Jarraian, leverage finantzarioaren formulazioan agertuko diren hiru ratio definituko ditugu:

---

<sup>1</sup> Aurrerago jorratuko dugu ezohiko emaitzek sorrarazten duten arazoa.

$r =$  Errendimendu operatiboa. Aktiboan inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errentagarritasun garbia da, berau nola finantzatzen den kontuan hartu gabe. Kontuan hartu behar da aktiboaren zenbatekoa bat datorrela aktibo zirkulatzaileraren eta aktibo finkoaren baturarekin:

$$r = \frac{BA/dI}{ACN + AF}$$

$i =$  Kanpoko finantzaketaren kostu garbia, kostu esplizituarekin. Kanpoko funtsen hornitzaileek eskatutako errendimendua da, dagokion interesen ordainketak sozietateen gaineko zergan eragiten duen zerga-aurrezkoa kenduta:

$$i = \frac{I(1-t)}{FACP + FALP} = \frac{I(1-t)}{FA} \text{ } ^1$$

$e =$  Ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errendimendu ekonomikoa:

$$e = \frac{BN}{PN}$$

Aurrekoa abiapuntutzat hartuta, leverage finantzarioaren formulazioa osa daiteke. Hona hemen adierazpena:


$$e = r + (r - i) \frac{FACP + FALP}{PN} = r + (r - i) \frac{FA}{PN}$$

$e =$  Errendimendu operatiboa + Leverage finantzarioa

Ondorengo laukian, sektore bakoitzerako aplikazio praktikoan erabiliko dugun ratioen oinarritzko piramidea ikus daiteke.

---

<sup>1</sup> FA izena erabiliko dugu FACP eta FALPen batura laburtzeko. Nolanahi ere, gogorarazi behar da FACPk kostu esplizitudun epe laburreko kanpoko funtsei egiten diela erreferentzia eta ez epe laburreko kanpoko funts guztiei.



Goi-erpinen, ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasuna agertzen da, eta aktiboaren errendimenduaren eta leverage finantzarioaren batura gisa deskonposatuta dago. Ondoren, batugai horiek nola osatzen diren azaltzen du adar bakoitzak. Ikus daitekeenez, aktiboa eta pasiboa, hots, inbertsioa eta finantzaketa bereiztean datza piramidearen azpian dagoen filosofia. Azken batean, "r" ratioak aktiboaren errendimendua neurtzen du, finantzatzeko modua, hau da, finantza-egitura kontuan hartu gabe, eta eskuineko adarrak, berriz, finantzaketak ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errendimenduari leverage finantzarioaren bidez egiten dion ekarpena kalkulatzeko du.




Beste kontu bat ere aipatu beharra dago: piramidearen analisisian ezohiko emaitzei emango zaien tratamendua. Normalean, emaitza horien errekkurrentzia dagoen edo ez aztertzen da enpresetan aplikatutako analisisian. Emaitzak errekkurrenteak eta, beraz, neurri batean aurreikusgarriak badira, "r" mailan txerta daitezke piramidean, aktiboaren errendimendu bakarra kalkulatu edo bi kalkulatu: ohiko errendimendua eta ezohiko errendimendua.

Dena dela, analisi sektorialari begira eta emaitzen izaera errekkurrentea finkatzeko ezintasuna dela eta, atal honen amaieran jasotako irudian agertzen den soluzioa erabiliko da sektore bakoitzerako. Lauki horretan, "e" mailan txertatzen dira, eta ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko hiru errentagarritasun mota bereizten dira: ohikoa -e1-, berezko ezohikoa -e2- eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa -e3-. Arrazoi sendo bat dugu azken adar hori aintzat hartzeko: maila agregatutan, zerga sektorialen (T) zifrek e1 ratioa distortsiona dezakete (hau da, sektorearen berezko negozioari lotutako errentagarritasuna jasotzen duena). Horregatik, % 28,5eko batezbesteko zerga-tasa komun bat suposatu dugu sektore guztietarako, eta zerga horrekiko diferentziak e3 adarrera eramane ditugu.

Kapituluaeren amaieran, aztertutako industria-sektore guztietarako ratioen piramideak erantsi ditugu, EAE eta Nafarroarako zein Estatu osorako, eta 2016. eta 2017. urteetarako. Dena dela, operatibitate-arrazoiak direla-eta, hurrengo atalean landuko den ekonomia- eta finantza-analisi sektoriala burutzeko piramideko ratioerik garrantzitsuenak hautatu dira.

Zehazki, ondare garbiaren errentagarritasun-ratioak (e) hautatu dira EAEko eta Nafarroako industria-sektoreen analisirako, ohikoak (e1) zein ezohikoak (e2 eta e3). Ondoren, ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren osagaien analisi xehea egin da, hau da, aktibo garbiaren errentagarritasunarena (r, eta bere osagaiak:  $BAID/V$  eta  $V/(AF+ACN)$ ) eta leverage finantzarioarena  $((r-i) \times (FA/PN))$  eta bere osagaiak: (r-i) eta  $FA/PN$ ). Azkenik, EAEko/Nafarroako eta Estatuko industria-sektoreen arteko konparaziorako, ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1) eta horren osagaiak hartu dira: aktibo garbiaren errentagarritasuna (r) eta leverage finantzarioa  $((r-i) \times (FA/PN))$ .



## Funtsen iturri eta erabileren egoera<sup>1</sup>

Analisirako bigarren tresnak, finantza-alderdia du ardatz, hau da, funtsen kutxaren edo fluxuen ikuspegia, eta ez ratioen piramidearen kasuan mozkingean oinarrituta egiten den analisi ekonomikoa. Ondorengo taulan, funtsen iturri eta erabileren egoeraren aurkezpen orokorra egiten da. Ikus daitekeenez, funtsen iturri eta erabileren egoera hiru kontzepturen kalkuluan oinarrituta dago:

- TINV: t urteko Inbertsio Diruzaintza, sektoreko aktiboak –haren premiei erantzun ondoren eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe– liberatzen dituen euroekin bat datorrena. “Free cash-flow” izen anglosaxoiaz ezagunagoa da. Erraz kalkulatu da; ohiko eragiketetan (GFO) sortutako euroei ezohiko eragiketetan (GFE) sortutakoak gehitu behar zaizkie, eta, ondoren, aktibo zirkulatzailerik gabian eta ibilgetuan egindako inbertsioak kendu.
- TFA: t urteko Kanpoko Funtsen Diruzaintza, sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondorioz sortzen diren funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duena.
- TPN: t urteko Ondare Garbiaren Diruzaintza; aurrekoaren kontzeptu berdina da, baina ondare garbiari aplikatua.

Hiru kontzeptuen baturak –urte jakin baterako– zero izan behar du. Azken batean, aktiboak euroak liberatzen dituenean (TINV>0) kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek eraman dutelako liberatzen dira. Aktiboak berez bere premiei erantzuterik izan ez badu, kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek dagokion dirua jarri beharko dute. Zero balioa finantza-orekaren sinonimoa da, eta inoiz ez da interpretatu behar sektorearen osasun-adierazgarri gisa.

Jarduera-sektoreetarako proposatutako eskema orokorra aplikatzeko, ratioen piramidean zerga agregatuen zifrei emandako tratamendua hartu behar da kontuan. Horrela, beraz, % 28,5eko tasa orokorra suposatuko dugu, eta jasandakoarekiko diferentziak aldi horretan izandako funtsen ezohiko sorkuntzara eramango ditugu. Adierazi beharra dago, halaber, TPNa diferentziaren bidez kalkulatu dela, abiapuntuko informazioak ez baitu aukerarik ematen beste era batera egiteko.

<sup>1</sup> Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (2002): “El estado de fuentes y empleos de fondos: una herramienta imprescindible en el análisis financiero”, *Harvard – Deusto Finanzas & Contabilidad*, 49. zk., iraila-urria, 2002; 18-28 or.

	+ $V_t$	Ohiko salmentak
	- $C_t$	Kostu operatiboak, ordainketarekin
	- $AM_t$	Amortizazioa
	= $BAI_t$	Interesen eta zergen aurreko mozkina
	* $(1-t)$	Zerga-eragina ( $t = \text{zerga-tasa} = 0,285$ )
	= $BAId_t$	Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina
	+ $AM_t$	Amortizazioa
	- $IF_t$	Alegiazko diru-sarrerak (ustiapenen + ibilget. lanen dirulaguntzak)
	+ $GFO_t$	Funts operatiboak sortzea
	+ $RE_t$	Ezohiko emaitzak
	* $(1-t)$	Zerga-eragina ( $t = 0,285$ )
	= $REd_t$	Ezohiko emaitzak, zergen ondoren
	+ $EF_t$	Zerga-ondorioa: $(0,285 - t \text{ efektiboa}) * \text{Zergen aurreko mozkina}$
	+ $GFE_t$	Ezohiko funtsak sortzea
	+ $ACN_{t-1}$	Hasierako aktibo zirkulatzailer garbia
	- $ACN_t$	Amaierako aktibo zirkulatzailer garbia
	- $\Delta ACN_t$	Aktibo zirkulatzailer garbia areagotzea
	- $INV_t$	Aktibo finkoan inbertitzea ( $\Delta AF$ garbia + $AM$ - Ibilget. lanak)
	+ $TINV_t$	Diruzaintzaren fluxua, inbertsio-erabakiak
	+ $EFA_t - AFA_t$	Jaulkipena ken kanpoko funtsen amortizazioa, kostuarekin
	+ $I_t$	Kanpoko funtsen interesak
	* $(1-t)$	Zerga-eragina ( $t = 0,285$ )
	- $(1-t) * I_t$	Funtsak kentzea, interesengatik
	+ $TFA_t$	Diruzaintzaren fluxua, finantzaketa-erabakiak kanpoko funtsekin
	+ $TPN_t$	Diruzaintzaren fluxua, finantzaketa-erabakiak ondare garbiarekin ( $\Delta PN - BN + \text{ustiap. dirulaguntzak}$ )
	= 0	= 0

Bestalde, arestian adierazi dugunez, sektore bati buruzko informazioa osatzen duten enpresen laginak ez du zertan denboran berdin iraun behar. Horregatik, eta urte guztietarako serie homogeneo bat sortzeko helburuarekin, sektore bakoitzeko batez besteko funtsen iturri eta erabileren egoerak aurkeztuko ditugu ondoren. Batezbestekoak kalkulatzeko, kontzeptu guztiak lagina osatzen duten enpresen kopuruarekin zatitu dira.

Kasu honetan, aztertutako industria-sektore guztietarako funtsen iturri eta erabileren egoerak ere erantsi ditugu kapituluaren amaieran, EAE eta Nafarroarako zein Estatu osorako, eta 2016. eta 2017. urteetarako. Dena dela, operatibitate-arrazoiak direla-eta, baliorik garrantzitsuenak (TINV, TFA eta TPN) hautatu dira funts sektorialen iturri eta erabileren egoeren analisiari buruzko azken atalean.

**114. koadroa**      **Espainiako Bankuko Balantzeen Zentraleko enpresa laguntzaileen kopurua**

SEKTOREA	EAE eta Nafarroa	Estatua
	2017	2017
Nekazaritzako elikagaiak	25	458
Papera	7	77
Kimika	10	145
Kautxua eta plastikoa	17	124
Mineral ez-metalikoak	7	104
Metalurgia	23	76
Produktu metalikoak	41	241
Produktu informatikoak	6	41
Material eta ekipo elektrikoa	9	63
Makineria eta ekipoa	35	175
Ibilgailu motordunak	15	101
Beste garraio-material batzuk	8	38
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	9	86
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	8	63
<b>Industria, guztira</b>	<b>220</b>	<b>1.792</b>

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralea. Egileak osatua.*

### 11.3 RATIOEN PIRAMIDEA

Eskuragarri dauden 2017 ekitaldiko azken datuen arabera, eta ondare garbiaren errentagarritasunari (e) dagokionez, alde handiak daude EAEn eta Nafarroan aztertutako industria-sektore desberdinen artean. Zehazki, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:

- 2017an ondare garbiaren errentagarritasunik handiena izan duten sektoreak honako hauek izan dira: Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 16,1), Kautxua eta plastikoa (% 13,9), Kimika (% 13,3) eta Ibilgailu motordunak (% 13,3).
- Industria osoaren batezbestekoa (% 7,3) baino ondare garbiaren errentagarritasun handiagoa –baina moderatuagoa– izan duten sektoreak honako hauek izan dira: Produktu metalikoak (% 11,1), Makineria eta ekipoa (% 9,4), Altzariak eta beste manufaktura batzuk (% 9,0) eta Metalurgia (% 8,8).
- Azkenik, batezbestekoaren azpiko ondare garbiaren errentagarritasuna izan duten gainerako sektoreak: Beste garraio-material batzuk (% 5,6), Nekazaritzako elikagaiak (% 2,8), Material eta ekipo elektrikoa (% 2,4) eta, bereziki, Mineral ez-metalikoak (-% 5,1) eta Produktu informatikoak (-% 22,9).

Ondare garbiaren errentagarritasun horren analisia eginez gero, ohikoa (e1), berezko ezohikoa (e2) eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa (e3) bereizita, 2017 ekitaldiko honako alderdi hauek azpimarra daitezke:

- Oro har, eta espero zenez, ondare garbiaren errentagarritasuna ohiko errentagarritasunean oinarrituta dago nagusiki. Ezohikoa (e2 eta e3), berriz, osagarria da batez ere.
- Hala ere, aipatzekoa da honako sektore hauetan eskuratutako ondare garbiaren ezohiko errentagarritasunaren (e2) maila negatiboa: Produktu informatikoak (-% 8,1), Mineral ez-metalikoa (-% 7,5), Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (-% 3,0), Material eta ekipo elektrikoa (-% 2,5), Makineria eta ekipoa (-% 1,5), Nekazaritzako elikagaiak (-% 1,2), Ibilgailu motordunak (-% 0,7), Kautxua eta plastikoa (-% 0,4) eta Produktu metalikoak (-% 0,4). Hain zuzen, lehenengo 6 sektoreak batezbestekoaren azpitik daude (-% 1,0). Alderantzizkoa gertatzen da honako sektore hauetan, zeinak maila positiboa izan baitute: Altzariak eta beste manufaktura batzuk (% 1,0), Metalurgia (% 0,7), Beste garraio-material batzuk (% 0,4) eta Papera (% 0,1).
- Era berean, aipatzekoa da zerga-eraginari lotutako ondare garbiaren ezohiko errentagarritasun (e3) handia, batezbestekoa baino handiagoa (% 1,1) baita honako sektore hauetan: Kautxua eta plastikoa (% 4,0), Kimika (% 3,5), Material eta ekipo elektrikoa (% 2,5), Makineria eta ekipoa (% 2,3), Altzariak eta beste manufaktura batzuk (% 2,2), Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 1,9), Beste garraio-material batzuk (% 1,6), Ibilgailu motordunak (% 1,5) eta Papera (% 1,2).

**115. koadroa Ondare garbiaren errentagarritasuna EAEko eta Nafarroako industria-sektoreetan**

SEKTOREA	e (%)		e1 (%)		e2 (%)		e3 (%)	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Nekazaritzako elikagaiak	13,8	2,8	11,9	6,8	-0,8	-1,2	2,7	-2,7
Papera	7,3	11,0	6,3	9,7	0,0	0,1	1,1	1,2
Kimika	15,0	13,3	8,6	9,8	3,8	0,0	2,6	3,5
Kautxua eta plastikoa	13,3	13,9	10,7	10,3	-0,5	-0,4	3,1	4,0
Mineral ez-metalikoak	-0,3	-5,1	4,9	3,8	-3,5	-7,5	-1,7	-1,5
Metalurgia	-1,3	8,8	0,4	7,2	-0,4	0,7	-1,3	1,0
Produktu metalikoak	10,3	11,1	7,6	10,6	1,3	-0,4	1,4	0,9
Produktu informatikoak	-21,2	-22,9	4,9	-4,1	-16,5	-8,1	-9,6	-10,7
Material eta ekipo elektrikoa	9,7	2,4	10,7	2,4	-2,3	-2,5	1,3	2,5
Makineria eta ekipoa	10,7	9,4	10,1	8,6	-1,8	-1,5	2,4	2,3
Ibilgailu motordunak	12,4	13,3	13,1	12,4	-1,4	-0,7	0,7	1,5
Beste garraio-material batzuk	4,8	5,6	3,5	3,5	-0,9	0,4	2,2	1,6
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	5,1	9,0	5,0	5,9	-0,8	1,0	0,8	2,2
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	29,8	16,1	34,2	17,3	-5,7	-3,0	1,3	1,9
<b>Industria, guztira</b>	<b>8,4</b>	<b>7,3</b>	<b>8,2</b>	<b>7,2</b>	<b>-1,1</b>	<b>-1,0</b>	<b>1,3</b>	<b>1,1</b>

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.*

Ondare garbiaren errentagarritasuna (e) aztertu ondoren (ohikoa -e1- zein ezohikoa -e2 eta e3-), ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1) finkatzen duten osagaien (hots, aktibo garbiaren errentagarritasunaren (r) eta leverage finantzarioaren ((r-i) x (FA/PN)) analisi zehatzagoa egingo dugu.

**116. koadroa Aktibo garbiaren errentagarritasuna EAEko eta Nafarroako industria-sektoreetan**

SEKTOREA	r (%)		BAId / V (%)		V / (AF + ACN)	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Nekazaritzako elikagaiak	6,4	5,7	6,6	4,0	0,962	1,421
Papera	4,5	6,6	4,8	7,0	0,947	0,941
Kimika	8,0	9,0	7,1	7,0	1,126	1,285
Kautxua eta plastikoa	8,8	8,2	6,6	6,1	1,344	1,344
Mineral ez-metalikoak	3,7	2,8	4,3	7,4	0,865	0,378
Metalurgia	1,3	5,2	0,8	2,5	1,640	2,087
Produktu metalikoak	5,4	7,3	4,5	4,4	1,199	1,650
Produktu informatikoak	3,4	0,9	2,4	0,8	1,379	1,118
Material eta ekipo elektrikoa	5,6	2,3	7,5	2,9	0,745	0,787
Makineria eta ekipoa	8,5	7,1	6,6	5,4	1,289	1,317
Ibilgailu motordunak	9,9	10,6	3,3	3,6	2,962	2,935
Beste garraio-material batzuk	3,3	3,3	4,3	4,5	0,780	0,730
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	4,2	5,1	3,6	3,7	1,164	1,380
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	17,1	9,2	4,6	3,1	3,703	2,957
<b>Industria, guztira</b>	<b>5,6</b>	<b>5,6</b>	<b>4,4</b>	<b>4,2</b>	<b>1,274</b>	<b>1,336</b>

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.*

Aktibo garbiaren errentagarritasunari (r) dagokionez, honako alderdi hauek aipa daitezke 2017. urtean aztertutako EAEko eta Nafarroako industria-sektoreetan:

- 2017. urtean, oro har, aktibo garbiaren errentagarritasuna funts propioen errentagarritasunaren osagai nagusia izan da berriro, leverage finantzarioaren indar txikiaren ondorioz (alderdi hori geroago aztertuko dugu xehetasunez, osagai hori aztertzerakoan).
- Hori horrela, hauek izan dira 2017an aktibo garbiaren errentagarritasun handiena izan duten sektoreak: Ibilgailu motordunak (% 10,6), Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 9,2), Kimika (% 9,0), Kautxua eta plastikoa (% 8,2), Produktu metalikoak (% 7,3), Makineria eta ekipoa (% 7,1), Papera (% 6,6) eta Nekazaritzako elikagaiak (% 5,7). Bestetik, batezbestekoaren (% 5,6) azpiko aktibo garbiaren errentagarritasuna dute sektore hauek: Metalurgia (% 5,2), Altzariak eta beste manufaktura batzuk (% 5,1), Beste garraio-material batzuk (% 3,3), Mineral ez-metalikoak (% 2,8), Material eta ekipo elektrikoa (% 2,3) eta Produktu informatikoak (% 0,9).
- Aktibo garbiaren errentagarritasuna zehazten duten osagaiak kontuan hartuta, eta lehenik eta behin BAId/V ratioa (ustiapenaren ohiko diru-sarreraren interesen aurreko

eta zergen ondorengo mozkina) aztertuta, adierazi beharra dago maila handia lortu dutela honako sektore hauek, industriaren batezbestekoaren (% 4,2) gainetik: Papera (% 7,0), Kimika (% 7,0), Mineral ez-metalikoak (% 7,4), Kautxua eta plastikoa (% 6,1), Makineria eta ekipoa (% 5,4), Beste garraio-material batzuk (% 4,5) eta Produktu metalikoak (% 4,4). Bestetik, industriaren batezbestekoaren azpitik geratu dira: Nekazaritzako elikagaiak (% 4,0), Altzariak eta beste manufaktura batzuk (% 3,7), Ibilgailu motordunak (% 3,6), Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 3,1), Material eta ekipo elektrikoa (% 2,9), Metalurgia (% 2,5) eta Produktu informatikoak (% 0,8).

- Ustiapenaren ohiko diru-sarreraren eta aktibo garbiaren arteko harremana neurtzen duen  $V/(AF+ACN)$  ratioari dagokionez, maila handia lortu du sektore hauetan: Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (2,957), Ibilgailu motordunak (2,935), Metalurgia (2,087) eta Produktu metalikoak (1,650). Lau sektoreek nabarmen gaitzen dute batezbestekoa (1,336). Aldiz, sektore gehienak kontrako egoeran daude. Aipatzekoak dira, bereziki, Mineral ez-metalikoak (0,378), Beste garraio-material batzuk (0,730) eta Material eta ekipo elektrikoa (0,787), batezbestekoaren oso azpitik daudelako.

**117. koadroa      Leverage finantzarioa EAEko eta Nafarroako industria-sektoreetan**

SEKTOREA	$(r - i) \times (FA / PN)$ (%)		$(r - i)$		FA / PN (%)	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Nekazaritzako elikagaiak	5,6	1,1	0,055	0,042	101,0	25,8
Papera	1,7	3,1	0,034	0,057	51,4	53,7
Kimika	0,6	0,8	0,065	0,074	9,3	10,2
Kautxua eta plastikoa	1,8	2,1	0,078	0,072	23,9	29,6
Mineral ez-metalikoak	1,1	1,0	0,024	0,009	47,1	109,2
Metalurgia	-0,8	2,0	-0,009	0,029	87,5	68,0
Produktu metalikoak	2,2	3,2	0,035	0,056	62,5	57,8
Produktu informatikoak	1,6	-5,0	0,013	-0,016	119,1	311,8
Material eta ekipo elektrikoa	5,1	0,1	0,040	0,004	125,8	27,6
Makineria eta ekipoa	1,6	1,4	0,062	0,054	26,1	26,8
Ibilgailu motordunak	3,2	1,9	0,083	0,089	39,0	21,0
Beste garraio-material batzuk	0,2	0,2	0,002	0,002	109,3	84,4
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	0,9	0,7	0,024	0,028	36,1	25,7
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	17,0	8,1	0,155	0,070	109,7	114,4
<b>Industria, guztira</b>	<b>2,6</b>	<b>1,6</b>	<b>0,036</b>	<b>0,034</b>	<b>71,6</b>	<b>49,2</b>

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.*

Leverage finantzarioaren analisiari dagokionez ( $(r - i) \times (FA / PN)$ ), 2017. urtean honako alderdi hauek azpimarra daitezke EAEko eta Nafarroako industria-sektoreetan:

- Arestian aipatu dugunez, leverage finantzarioak, oro har, aktibo garbiaren errentagarritasunak baino eragin txikiagoa du ondare garbiaren errentagarritasunean. Testuinguru horretan, azpimarratu beharra dago honako



sektore hauetan lortutako maila handia: Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 8,1), Produktu metalikoak (% 3,2), Papera (% 3,1), Kautxua eta plastikoa (% 2,1), Metalurgia (% 2,0) eta Motordun ibilgailuak (% 1,9); guztiek gaintitu dute industria osoaren batezbestekoa (% 1,6). Sektoare bakarra dago batezbestekoaren azpitik eta balio negatiboekin: Produktu informatikoak (-% 5,0).

- Leverage finantzarioa zehazten duten osagaiei dagokienez, eta aktibo garbiaren errentagarritasunaren eta kostu esplizitua duen kanpoko finantzaketaren kostu garbiaren (r-i) arteko diferentziarekin hasita, azpimarratu beharra dago honako sektore hauetan lortutako maila handia: Ibilgailu motordunak (0,089), Kimika (0,074), Kautxua eta plastikoa (0,072) eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (0,070); guztiak industria osoaren 0,034ko batezbestekoaren oso gaintetik daude. Balio negatiboekin eta batezbestekoaren azpitik geratu da, berriz, Produktu informatikoen sektorea (-0,016).
- Azkenik, zorpetze-maila neurtzen duen FA/PN ratioari dagokionez (kanpoko funtsek ondare garbian duten eragina), aipatzekoa da maila handia lortu dutela sektore hauek, batezbestekoa (% 49,2) gaintituz: Produktu informatikoak (% 311,8), Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 114,4) eta Mineral ez-metalikoak (% 109,2). Zorpetze-mailarik txikieneko sektoreak, berriz, honako hauek izan dira: Kimika (% 10,2), Ibilgailu motordunak (% 21,0), Altzariak eta beste manufaktura batzuk (% 25,7) eta Nekazaritzako elikagaiak (% 25,8). Zorpetzeari dagokionez, sektoreen erdia (zehazki, 7) batezbestekoaren azpitik kokatzen da.

**118. koadroa EAEko eta Nafarroako industria-sektoreen eta Estatu osokoen arteko alderaketa, 2017**

SEKTOREA	e1 (%)		r (%)		(r - i) x (FA / PN) (%)	
	EAE eta Nafarroa	Estatua	EAE eta Nafarroa	Estatua	EAE eta Nafarroa	Estatua
Nekazaritzako elikagaiak	6,8	11,6	5,7	7,5	1,1	4,1
Papera	9,7	10,3	6,6	7,4	3,1	3,0
Kimika	9,8	11,2	9,0	9,3	0,8	1,9
Kautxua eta plastikoa	10,3	18,2	8,2	11,2	2,1	7,0
Mineral ez-metalikoak	3,8	5,6	2,8	4,2	1,0	1,4
Metalurgia	7,2	6,5	5,2	5,2	2,0	1,3
Produktu metalikoak	10,6	10,0	7,3	6,7	3,2	3,3
Produktu informatikoak	-4,1	7,9	0,9	5,3	-5,0	2,6
Material eta ekipo elektrikoa	2,4	7,2	2,3	5,4	0,1	1,8
Makineria eta ekipoa	8,6	16,2	7,1	12,3	1,4	3,9
Ibilgailu motordunak	12,4	14,5	10,6	9,9	1,9	4,6
Beste garraio-material batzuk	3,5	-0,5	3,3	1,8	0,2	-2,4
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	5,9	9,2	5,1	7,2	0,7	2,0
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	17,3	16,3	9,2	12,3	8,1	3,9
<b>Industria, guztira</b>	<b>7,2</b>	<b>10,7</b>	<b>5,6</b>	<b>7,1</b>	<b>1,6</b>	<b>3,6</b>


Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.



Azkenik, EAE eta Nafarroako eta Estatu osoko industria-sektoreen ekonomia- eta finantza-egoeraren arteko alderaketari dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:


- 2017. urtean, Metalurgia, Produktu metalikoak, Beste garraio-material batzuk eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa sektoreen kasuan, funts propioen ohiko errentagarritasuna (e1) handiagoa izan da EAEn eta Nafarroan, Estatuan baino. Gainerako sektoreetan, berriz, alderantziz gertatu da.
- Aktibo garbiaren errentagarritasunari dagokionez, hori ere handiagoa da EAEn eta Nafarroan, Estatuarekin alderatuta, honako sektore hauetan: Produktu metalikoak, Ibilgailu motordunak eta Beste garraio-material batzuk. Leverage finantzarioa ere zenbait sektoretan handiagoa da EAEn eta Nafarroan, Estatuan baino; zehazki, sektore hauetan: Papera, Metalurgia, Beste garraio-material batzuk eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa.

17. grafikoa Ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna eta bere osagaiak (aktibo garbiaren errentagarritasuna eta leverage finantzarioa) EAEko eta Nafarroako industria-sektoreetan, 2017



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.

18. grafikoa EAEko eta Nafarroako industria-sektoreetako ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1), Estatukoarekin alderatuta, 2017



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.

### 11.4 FUNTSEN ITURRI ETA ERABILEREN EGOERA

Eskuragarri dauden 2017 ekitaldiko azken datuen arabera, eta lehenik eta behin inbertsio-diruzaintza (TINV) (aktiboak -haren premiei erantzun ondoren eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe- liberatzen dituen euroekin bat datorrena eta "free cash-flow" izenarekin ezagutzen dena) kontuan hartuta, desberdintasun esanguratsuak daude EAEn eta Nafarroan aztertutako industria-sektoreen artean. Zehazki, alderdi hauek aipatu behar dira:

- 2017an inbertsio-diruzaintza handiena izan duen sektorea Beste garraio-material batzuen izan da (45,90 milioi euro enpresako, 2016koaren bikoitza) eta horren atzetik honako hauek: Material eta ekipo elektrikoa (25,72), Ibilgailu motordunak (11,84) eta Mineral ez-metalikoak (10,50). Horiek guztiak industria osoaren

batezbestekoaren oso gaintetik daude; izan ere, batezbesteko hori enpresako 5,25 milioi eurokoa da, hots, aurreko urtekoa baino askoz ere handiagoa (enpresako 1,53 milioi).

- Sektore hauek industria osoaren batezbestekoaren azpitik daude, baina balio positiboekin: Makineria eta ekipoa (4,28), Metalurgia (2,5), Kautxua eta plastikoa (2,07), Altzariak eta beste manufaktura batzuk (2,02), Nekazaritzako elikagaiak (1,62), Kimika (1,22), Produktu informatikoak (0,77) eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (0,51). Ez da gauza bera gertatzen, ordea, honako sektore hauetan, zeinak balio negatiboak izan dituzten: Papera (-2,03) eta Produktu metalikoak (-0,05).

**119. koadroa      Funtsen iturrien eta erabileren egoera EAEko eta Nafarroako industria-sektoreetan**

*(M euro)\**

SEKTOREA	TINV		TFA		TPN	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Nekazaritzako elikagaiak	4,94	1,62	-0,57	-0,90	-4,37	-0,72
Papera	-0,92	-2,03	3,96	4,57	-3,04	-2,54
Kimika	0,82	1,22	-0,66	-0,09	-0,16	-1,14
Kautxua eta plastikoa	3,95	2,07	0,10	2,10	-4,05	-4,17
Mineral ez-metalikoak	-0,07	10,50	0,62	-68,01	-0,56	57,51
Metalurgia	-6,33	2,50	-1,07	-1,92	7,40	-0,58
Produktu metalikoak	-0,11	-0,05	0,52	0,26	-0,41	-0,21
Produktu informatikoak	-1,25	0,77	1,03	-5,64	0,22	4,87
Material eta ekipo elektrikoa	-7,61	25,72	3,87	-20,65	3,74	-5,07
Makineria eta ekipoa	2,59	4,28	-0,85	-2,25	-1,73	-2,02
Ibilgailu motordunak	8,51	11,84	-2,18	-7,51	-6,32	-4,33
Beste garraio-material batzuk	21,22	45,90	-22,45	-26,08	1,23	-19,82
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	0,96	2,02	-0,13	-0,81	-0,84	-1,21
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	0,61	0,51	-0,10	-0,50	-0,50	0,00
<b>Industria, guztira</b>	<b>1,53</b>	<b>5,25</b>	<b>-0,71</b>	<b>-4,98</b>	<b>-0,82</b>	<b>-0,27</b>

*(\*) Sektoreko batezbestekoak.*

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.*

Sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondorioz sortutako funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duen kanpoko funtsen diruzaintzari (TFA) dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira 2017. urtean:

- Hauek dira saldo handiena duten sektoreak: Papera (enpresako 4,57 milioi euro), Kautxua eta plastikoa (2,10). Datu horiek industria osoaren batezbestekoa baino askoz ere altuagoak dira; izan ere, batezbesteko hori enpresako -4,98 milioi eurokoa da. Aipatzekoa da, halaber, Produktu metalikoen sektorea, saldo positiboa baitu.
- Saldo negatiboa dute, batezbestekoaren gaintetik bada ere, honako sektore hauek: Kimika (-0,09), Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (-0,50), Altzariak

eta beste manufaktura batzuk (-0,81), Nekazaritzako elikagaiak (-0,90), Metalurgia (-1,92), eta Makineria eta ekipoa (-2,25). Batezbestekoaren oso azpitik daude, balio negatiboekin, Material eta ekipo elektrikoa (-20,65), Beste garraio-material batzuk (-26,08) eta Mineral ez-metalikoak (-68,01).

Azkenik, sektorearen eta ondare garbiaren hornitzaileen arteko erlazioaren ondoriozko funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duen ondare garbiaren diruzaintzari (TPN) dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira 2017. urtean:

- Mineral ez-metalikoen sektoreak enpresako 57,51 milioiko saldoa du; zenbateko horrek nabarmen gainditzen du industria osoaren batezbestekoa (enpresako -0,27 milioi euro).
- Azpimarratu beharra dago beste sektore bakar batek izan duela saldo positiboa: Produktu informatikoak (enpresako 4,87 milioi euro). Gainerakoek saldo negatiboak izan dituzte, eta bereziki hauek azpimarratu behar dira: Papera (enpresako -2,54 milioi euro), Kautxua eta plastikoa (-4,17), Ibilgailu motordunak (-4,33), Material eta ekipo elektrikoa (-5,07) eta Beste garraio-material batzuk (enpresako -19,82 milioi euro, sektore osoaren batezbestekoaren oso azpitik).

**120. koadroa EAEko eta Nafarroako industria-sektoreen eta Estatu osokoen arteko alderaketa, 2017**

(M euro)\*

SEKTOREA	TINV		TFA		TPN	
	EAE eta Nafarroa	Estatua	EAE eta Nafarroa	Estatua	EAE eta Nafarroa	Estatua
Nekazaritzako elikagaiak	1,62	2,60	-0,90	0,13	-0,72	-2,73
Papera	-2,03	3,53	4,57	-0,27	-2,54	-3,26
Kimika	1,22	12,05	-0,09	-4,57	-1,14	-7,48
Kautxua eta plastikoa	2,07	2,36	2,10	0,50	-4,17	-2,86
Mineral ez-metalikoak	10,50	7,08	-68,01	-4,80	57,51	-2,28
Metalurgia	2,50	9,27	-1,92	-6,96	-0,58	-2,31
Produktu metalikoak	-0,05	-0,16	0,26	0,28	-0,21	-0,12
Produktu informatikoak	0,77	-0,23	-5,64	-0,59	4,87	0,83
Material eta ekipo elektrikoa	25,72	4,31	-20,65	-3,47	-5,07	-0,84
Makineria eta ekipoa	4,28	2,99	-2,25	-1,12	-2,02	-1,87
Ibilgailu motordunak	11,84	4,99	-7,51	1,17	-4,33	-6,16
Beste garraio-material batzuk	45,90	6,26	-26,08	-2,77	-19,82	-3,50
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	2,02	-0,81	-0,81	0,84	-1,21	-0,04
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	0,51	0,04	-0,50	-0,36	0,00	0,32
<b>Industria, guztira</b>	<b>5,25</b>	<b>3,55</b>	<b>-4,98</b>	<b>-1,06</b>	<b>-0,27</b>	<b>-2,49</b>

(\*): Sektoreko batezbestekoak.


Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.

Azkenik, EAEko eta Nafarroako industria-sektoreetako funtsen iturri eta erabileren egoeraren eta Estatukoaren arteko alderaketari dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira 2017. urtean:

- 2017an, 8 sektorek inbertsio-diruzaintza (TINV) handiagoa dute EAEn eta Nafarroan, Estatu osoarekin alderatuta. Hauek dira sektore horiek: Beste garraio-material batzuk (45,90), Material eta ekipo elektrikoa (25,72), Ibilgailu motordunak (11,84), Mineral ez-metalikoak (10,50), Makineria eta ekipoa (4,28), Altzariak eta beste manufaktura batzuk (2,02), Produktu informatikoak (0,77), eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (0,51). Gauza bera gertatzen da Produktu metalikoen sektorearekin, baina kasu horretan diruzaintzak balio negatiboak ditu. Lehenengo laurak dira aipagarrienak.
- Kanpoko funtsen diruzaintzari (TFA) dagokionez, sektore hauek diruzaintza handiagoa dute EAEn eta Nafarroan Estatuan baino: Papera, eta Kautxua eta plastikoa. Gauza bera gertatzen da Metalurgia eta Kimika sektoreekin, baina kasu horretan diruzaintzak balio negatiboak ditu.
- Azkenik, ondare garbiaren diruzaintzari (TPN) dagokionez, antzekoa gertatzen da, eta sektoreen erdiak ondare garbiaren diruzaintza handiagoa dute EAEn eta Nafarroan, Estatuaren aldean. Bereziki aipatzekoa da Mineral ez-metalikoen sektorea; izan ere, 57,51 milioi euroko ondare-diruzaintza du, Estatu osoan sektore horrek duen diruzaintzaren oso gaineratik geratuz (-2,28 milioi). Nabarmendu behar da, halaber, sektore gehienetan ondare-diruzaintzak saldo negatiboa duela.

19. grafikoa Funtzen iturrien eta erabileren egoera EAeko eta Nafarroako industria-sektoreetan, 2017

(M euro)\*




(\*): Sektoreko batezbestekoak.

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.



20. grafikoa Inbertsio-diruzaintzaren (TINV) fluxuaren alderaketa EAeko eta Nafarroako industria-sektoreen eta Estatu osokoan artean, 2017

(M euro)\*




(\*): Sektoreko batezbestekoak.

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.




121. koadroa Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.


122. koadroa Paperaren industriaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.




123. koadroa Industria kimikoaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.


124. koadroa Kautxu eta plastikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.




125. koadroa Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.


126. koadroa Metalurgia sektoreko ratioen piramidea (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa)



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.




127. koadroa Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea (makineria eta ekipoa izan ezik)



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.




128. koadroa Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.




129. koadroa Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.


130. koadroa Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.




131. koadroa Ibilgailu motordunen, atoi en eta erdi-atoi en fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.


132. koadroa Beste garraio-material batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.




133. koadroa Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.


134. koadroa Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.



135. koadroa Industria osoaren ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.



**136. koadroa Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera**

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	EAE eta Nafarroa		Estatua	
	2016	2017	2016	2017
+ V <sub>t</sub>	72,66	101,10	85,24	94,40
- C <sub>t</sub>	63,14	92,28	76,34	85,07
- AM <sub>t</sub>	2,80	3,19	2,48	2,48
= BAII <sub>t</sub>	6,72	5,64	6,43	6,85
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BAIdI <sub>t</sub>	4,81	4,03	4,60	4,90
+ AM <sub>t</sub>	2,80	3,19	2,48	2,48
- IF <sub>t</sub>	0,15	0,17	0,14	0,16
+ GFot	7,46	7,05	6,93	7,21
+ REt	-0,43	-0,95	-0,78	-0,56
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= REdIt	-0,31	-0,68	-0,56	-0,40
+ EFt	1,02	-1,54	0,23	0,16
+ GFet	0,71	-2,22	-0,33	-0,24
+ ACNt-1	34,24	22,35	17,40	16,69
- ACNt	37,06	26,08	17,99	19,71
- ΔACNt	2,82	3,73	0,59	3,02
- INVt	0,41	-0,51	0,99	1,35
+ TINVt	4,94	1,62	5,02	2,60
+ EFAt - AFAt	-0,25	-0,69	-2,12	0,62
+ It	0,45	0,30	0,72	0,68
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * It	0,32	0,21	0,51	0,49
+ TFAt	-0,57	-0,90	-2,63	0,13
+ TPNT	-4,37	-0,72	-2,39	-2,73
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.

137. koadroa Paperaren industriaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	EAE eta Nafarroa		Estatua	
	2016	2017	2016	2017
+ $V_t$	87,02	88,05	84,77	87,32
- $C_t$	77,57	75,99	72,46	73,50
- $AM_t$	3,61	3,44	3,57	3,51
= $BAll_t$	5,84	8,63	8,74	10,31
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAl_d_t$	4,17	6,17	6,25	7,37
+ $AM_t$	3,61	3,44	3,57	3,51
- $IF_t$	0,17	0,08	0,13	0,13
+ $GFO_t$	7,61	9,52	9,69	10,75
+ $RE_t$	0,00	0,09	0,48	0,14
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $RE_d_t$	0,00	0,07	0,34	0,10
+ $EF_t$	0,65	0,76	0,71	0,63
+ $GFEt$	0,65	0,82	1,05	0,73
+ $ACN_{t-1}$	29,12	27,77	26,45	26,10
- $ACN_t$	30,72	38,87	27,11	29,28
- $\Delta ACN_t$	1,60	11,11	0,65	3,18
- $INV_t$	7,58	1,27	7,46	4,77
+ $TINV_t$	-0,92	-2,03	2,63	3,53
+ $EFA_t - AFA_t$	4,32	4,85	2,85	0,63
+ $It$	0,51	0,40	1,81	1,27
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,36	0,28	1,29	0,91
+ $TFA_t$	3,96	4,57	1,55	-0,27
+ $TPN_t$	-3,04	-2,54	-4,18	-3,26
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.

## 138. koadroa Industria kimikoaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	EAE eta Nafarroa		Estatua	
	2016	2017	2016	2017
+ $V_t$	33,82	33,23	118,66	129,72
- $C_t$	29,34	28,87	103,22	113,97
- $AM_t$	1,13	1,09	3,09	3,19
= $BAI_t$	3,35	3,27	12,35	12,56
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAId_t$	2,40	2,34	8,83	8,98
+ $AM_t$	1,13	1,09	3,09	3,19
- $IF_t$	0,09	0,12	0,18	0,20
+ $GFO_t$	3,43	3,31	11,74	11,97
+ $RE_t$	1,47	-0,01	-0,06	6,04
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $REd_t$	1,05	0,00	-0,04	4,32
+ $EFT$	0,71	0,83	1,02	2,39
+ $GFET$	1,76	0,83	0,97	6,71
+ $ACN_{t-1}$	14,47	12,01	27,49	27,52
- $ACN_t$	15,96	13,40	28,89	32,75
- $\Delta ACN_t$	1,49	1,40	1,40	5,23
- $INV_t$	2,89	1,51	3,34	1,40
+ $TINV_t$	0,82	1,22	7,97	12,05
+ $EFA_t - AFA_t$	-0,62	-0,05	-2,86	-4,17
+ $It$	0,05	0,05	0,68	0,56
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,04	0,04	0,48	0,40
+ $TFAT$	-0,66	-0,09	-3,34	-4,57
+ $TPN_t$	-0,16	-1,14	-4,63	-7,48
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.

139. koadroa Kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	EAE eta Nafarroa		Estatua	
	2016	2017	2016	2017
+ $V_t$	80,85	83,07	71,72	72,98
- $C_t$	69,56	72,17	62,52	64,75
- $AM_t$	3,86	3,83	2,74	2,74
= $BAll_t$	7,44	7,07	6,46	5,49
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAl_d_t$	5,32	5,06	4,62	3,92
+ $AM_t$	3,86	3,83	2,74	2,74
- $IF_t$	0,18	0,19	0,33	0,45
+ GFOT	9,00	8,69	7,03	6,22
+ $RE_t$	-0,33	-0,26	-0,13	-0,29
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $RE_d_t$	-0,23	-0,19	-0,09	-0,21
+ $EF_t$	1,49	1,90	0,33	0,49
+ GFET	1,26	1,71	0,24	0,29
+ $ACN_{t-1}$	11,26	9,30	11,38	12,50
- $ACN_t$	11,25	10,61	12,64	12,71
- $\Delta ACN_t$	-0,01	1,31	1,26	0,21
- $INV_t$	6,32	7,02	3,96	3,93
+ $TINV_t$	3,95	2,07	2,06	2,36
+ $EFA_t - AFA_t$	0,23	2,24	1,26	0,68
+ $It$	0,18	0,20	0,30	0,25
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,13	0,14	0,22	0,18
+ $TFAt$	0,10	2,10	1,04	0,50
+ $TPNt$	-4,05	-4,17	-3,10	-2,86
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.

**140. koadroa Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera**

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	EAE eta Nafarroa		Estatua	
	2016	2017	2016	2017
+ V <sub>t</sub>	30,75	73,37	44,63	47,69
- C <sub>t</sub>	26,37	59,78	37,48	39,94
- AM <sub>t</sub>	2,52	5,98	2,60	2,64
= BAII <sub>t</sub>	1,86	7,61	4,56	5,11
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BAIdI <sub>t</sub>	1,33	5,44	3,26	3,65
+ AM <sub>t</sub>	2,52	5,98	2,60	2,64
- IF <sub>t</sub>	0,12	0,05	0,22	0,30
+ GFOT	3,74	11,37	5,64	6,00
+ RE <sub>t</sub>	-1,17	-9,68	-0,44	0,07
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= REdI <sub>t</sub>	-0,84	-6,92	-0,31	0,05
+ EF <sub>t</sub>	-0,41	-1,35	0,19	0,52
+ GFET	-1,25	-8,26	-0,12	0,57
+ ACNt-1	9,30	15,87	17,27	19,06
- ACNt	11,03	15,49	18,50	18,42
- ΔACNt	1,73	-0,38	1,23	-0,64
- INVt	0,83	-7,01	2,57	0,13
+ TINVt	-0,07	10,50	1,72	7,08
+ EFAt - AFAt	0,77	-66,09	0,27	-4,34
+ It	0,21	2,69	0,56	0,65
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * It	0,15	1,92	0,40	0,47
+ TFAt	0,62	-68,01	-0,13	-4,80
+ TPNt	-0,56	57,51	-1,59	-2,28
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.

141. koadroa Metalurgia sektoreko (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa) iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	EAE eta Nafarroa		Estatua	
	2016	2017	2016	2017
+ $V_t$	141,15	172,34	165,80	198,50
- $C_t$	134,43	161,43	152,23	186,33
- $AM_t$	5,21	4,90	4,51	4,39
= $BAll_t$	1,51	6,02	9,06	7,78
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAld_t$	1,08	4,30	6,48	5,56
+ $AM_t$	5,21	4,90	4,51	4,39
- $IF_t$	0,51	0,32	0,27	1,23
+ GFOT	5,78	8,88	10,72	8,72
+ $REt$	-0,26	0,48	-1,58	0,81
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $REdIt$	-0,19	0,35	-1,13	0,58
+ $Eft$	-0,60	0,47	0,71	0,40
+ GFET	-0,79	0,82	-0,42	0,98
+ $ACNt-1$	30,16	32,73	40,58	41,44
- $ACNt$	36,55	32,12	43,06	42,69
- $\Delta ACNt$	6,39	-0,61	2,48	1,25
- $INVt$	4,94	7,81	4,35	-0,82
+ $TINVt$	-6,33	2,50	3,47	9,27
+ $EFAt - AFAt$	-0,19	-1,15	-3,48	-5,55
+ $It$	1,24	1,08	1,80	1,97
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,88	0,78	1,29	1,41
+ $TFAt$	-1,07	-1,92	-4,76	-6,96
+ $TPNt$	7,40	-0,58	1,30	-2,31
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.

**142. koadroa** Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko (makineria eta ekipoa izan ezik) iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	EAE eta Nafarroa		Estatua	
	2016	2017	2016	2017
+ V <sub>t</sub>	24,34	19,99	24,04	22,06
- C <sub>t</sub>	22,00	18,08	21,33	19,85
- AM <sub>t</sub>	0,80	0,67	0,69	0,72
= BAII <sub>t</sub>	1,53	1,24	2,02	1,49
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BAIdI <sub>t</sub>	1,10	0,89	1,45	1,06
+ AM <sub>t</sub>	0,80	0,67	0,69	0,72
- IF <sub>t</sub>	0,15	0,06	0,11	0,08
+ GFOT	1,75	1,50	2,03	1,70
+ RE <sub>t</sub>	0,23	-0,04	-0,11	-0,27
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= REdI <sub>t</sub>	0,16	-0,03	-0,08	-0,20
+ EF <sub>t</sub>	0,18	0,07	0,07	0,00
+ GFET	0,34	0,04	-0,01	-0,20
+ ACNt-1	7,97	4,54	7,23	5,41
- ACNt	8,14	4,82	7,59	6,11
- ΔACNt	0,17	0,27	0,36	0,69
- INVt	2,03	1,31	0,98	0,97
+ TINVt	-0,11	-0,05	0,69	-0,16
+ EFAt - AFAt	0,67	0,33	0,05	0,47
+ It	0,21	0,11	0,28	0,25
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * It	0,15	0,08	0,20	0,18
+ TFAt	0,52	0,26	-0,14	0,28
+ TPNt	-0,41	-0,21	-0,54	-0,12
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.

143. koadroa Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	EAE eta Nafarroa		Estatua	
	2016	2017	2016	2017
+ $V_t$	30,47	19,23	21,52	20,83
- $C_t$	28,06	17,31	20,12	19,21
- $AM_t$	1,37	1,71	0,73	0,72
= $BAll_t$	1,04	0,21	0,68	0,90
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAIdl_t$	0,74	0,15	0,48	0,64
+ $AM_t$	1,37	1,71	0,73	0,72
- $IF_t$	0,31	0,17	0,19	0,17
+ GFOT	1,80	1,69	1,02	1,20
+ $REt$	-2,33	-0,47	-0,61	-0,34
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $REdl_t$	-1,67	-0,34	-0,43	-0,24
+ $Eft$	-0,97	-0,45	-0,25	-0,01
+ GFET	-2,64	-0,79	-0,68	-0,25
+ $ACNt-1$	9,32	7,79	6,98	6,61
- $ACNt$	10,56	7,17	6,85	7,46
- $\Delta ACNt$	1,24	-0,62	-0,13	0,86
- $INVt$	-0,83	0,76	0,18	0,32
+ $TINVt$	-1,25	0,77	0,30	-0,23
+ $EFAt - AFAt$	1,28	-5,32	0,04	-0,49
+ $It$	0,34	0,45	0,16	0,14
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,25	0,32	0,11	0,10
+ $TFAt$	1,03	-5,64	-0,07	-0,59
+ $TPNt$	0,22	4,87	-0,22	0,83
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.



**144. koadroa Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera**

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	EAE eta Nafarroa		Estatua	
	2016	2017	2016	2017
+ V <sub>t</sub>	197,66	77,87	141,13	123,34
- C <sub>t</sub>	166,05	65,28	127,92	115,07
- AM <sub>t</sub>	10,93	9,46	4,07	3,68
= BAII <sub>t</sub>	20,67	3,14	9,14	4,59
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BAIdI <sub>t</sub>	14,78	2,25	6,54	3,28
+ AM <sub>t</sub>	10,93	9,46	4,07	3,68
- IF <sub>t</sub>	7,97	6,01	1,40	1,05
+ GFOT	17,74	5,69	9,20	5,90
+ RE <sub>t</sub>	-3,73	-2,69	-0,78	-1,33
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= REdI <sub>t</sub>	-2,66	-1,93	-0,56	-0,95
+ EF <sub>t</sub>	1,55	1,95	-0,46	-0,01
+ GFET	-1,11	0,02	-1,01	-0,95
+ ACNt-1	104,51	55,00	41,92	27,02
- ACNt	107,99	31,93	37,67	26,26
- ΔACNt	3,48	-23,07	-4,24	-0,76
- INVt	20,76	3,06	-3,25	1,40
+ TINVt	-7,61	25,72	15,68	4,31
+ EFAt - AFAt	6,12	-20,25	-8,11	-2,99
+ It	3,15	0,57	1,33	0,68
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * It	2,25	0,41	0,95	0,49
+ TFAt	3,87	-20,65	-9,06	-3,47
+ TPNt	3,74	-5,07	-6,62	-0,84
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.

145. koadroa Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	EAE eta Nafarroa		Estatua	
	2016	2017	2016	2017
+ $V_t$	51,34	57,35	32,76	42,74
- $C_t$	45,40	51,53	28,33	37,36
- $AM_t$	1,21	1,48	0,64	0,88
= $BAll_t$	4,73	4,34	3,79	4,50
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAld_t$	3,38	3,10	2,71	3,22
+ $AM_t$	1,21	1,48	0,64	0,88
- $IF_t$	0,14	0,16	0,10	0,13
+ GFOT	4,45	4,42	3,25	3,97
+ $REt$	-0,80	-0,71	-0,24	-0,33
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $REdIt$	-0,57	-0,51	-0,17	-0,24
+ $Eft$	0,75	0,80	0,23	0,51
+ GFET	0,18	0,29	0,05	0,27
+ $ACNt-1$	19,66	25,29	8,43	10,95
- $ACNt$	21,94	23,54	9,42	11,34
- $\Delta ACNt$	2,27	-1,74	0,99	0,39
- $INVt$	-0,24	2,17	0,65	0,86
+ $TINVt$	2,59	4,28	1,67	2,99
+ $EFAt - AFAt$	-0,67	-2,09	0,17	-1,00
+ $It$	0,26	0,22	0,17	0,17
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,19	0,16	0,12	0,12
+ $TFAt$	-0,85	-2,25	0,06	-1,12
+ $TPNt$	-1,73	-2,02	-1,72	-1,87
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.

**146. koadroa Ibilgailu motordunen, atoi en eta erdi-atoi en fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabilere n egoera**

(M euro - Batez beste ko balioak)

Kontzeptua	EAE eta Nafarroa		Estatua	
	2016	2017	2016	2017
+ V <sub>t</sub>	264,35	305,57	568,56	607,76
- C <sub>t</sub>	246,54	283,17	534,73	568,10
- AM <sub>t</sub>	5,47	7,02	18,33	20,01
= BAII <sub>t</sub>	12,34	15,39	15,50	19,64
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BAIdI <sub>t</sub>	8,82	11,00	11,08	14,04
+ AM <sub>t</sub>	5,47	7,02	18,33	20,01
- IF <sub>t</sub>	0,54	0,67	4,05	5,25
+ GFOT	13,76	17,34	25,36	28,80
+ RE <sub>t</sub>	-1,21	-0,78	6,16	-2,22
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= REdI <sub>t</sub>	-0,87	-0,56	4,40	-1,59
+ EF <sub>t</sub>	0,44	1,31	3,10	2,59
+ GFET	-0,43	0,75	7,50	1,00
+ ACN <sub>t-1</sub>	30,05	22,38	14,05	6,76
- ACN <sub>t</sub>	20,92	9,76	13,37	1,20
- ΔACN <sub>t</sub>	-9,13	-12,63	-0,68	-5,56
- INV <sub>t</sub>	13,95	18,88	17,26	30,37
+ TINV <sub>t</sub>	8,51	11,84	16,28	4,99
+ EFAt - AFAt	-1,78	-7,21	-7,87	1,82
+ It	0,57	0,42	1,65	0,90
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * It	0,41	0,30	1,18	0,65
+ TFAt	-2,18	-7,51	-9,04	1,17
+ TPN <sub>t</sub>	-6,32	-4,33	-7,24	-6,16
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.

147. koadroa Beste garraio-material batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	EAE eta Nafarroa		Estatua	
	2016	2017	2016	2017
+ V <sub>t</sub>	330,55	320,88	313,38	289,40
- C <sub>t</sub>	293,68	289,85	292,93	266,57
- AM <sub>t</sub>	17,17	10,67	20,48	13,14
= BAII <sub>t</sub>	19,71	20,36	-0,02	9,70
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BAIdI <sub>t</sub>	14,09	14,56	-0,02	6,93
+ AM <sub>t</sub>	17,17	10,67	20,48	13,14
- IF <sub>t</sub>	3,63	6,13	6,53	4,75
+ GFOT	27,63	19,11	13,93	15,32
+ RE <sub>t</sub>	-2,52	1,48	-1,07	8,83
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= REdI <sub>t</sub>	-1,80	1,06	-0,77	6,31
+ EF <sub>t</sub>	4,52	3,91	-0,29	0,64
+ GFET	2,72	4,97	-1,06	6,96
+ ACN <sub>t-1</sub>	194,21	134,19	190,37	148,67
- ACN <sub>t</sub>	163,71	87,42	176,31	156,14
- ΔACN <sub>t</sub>	-30,51	-46,77	-14,06	7,47
- INV <sub>t</sub>	39,64	24,95	40,32	8,54
+ TINV <sub>t</sub>	21,22	45,90	-13,39	6,26
+ EFAt - AFAt	-15,45	-19,89	23,86	4,58
+ It	9,79	8,65	8,83	10,28
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * It	7,00	6,19	6,32	7,35
+ TFAt	-22,45	-26,08	17,54	-2,77
+ TPN <sub>t</sub>	1,23	-19,82	-4,15	-3,50
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.

**148. koadroa      Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko iturrien eta erabileren egoera**

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	EAE eta Nafarroa		Estatua	
	2016	2017	2016	2017
+ $V_t$	24,47	24,04	17,95	19,24
- $C_t$	22,68	22,26	15,98	16,94
- $AM_t$	0,56	0,53	0,58	0,69
= $BAll_t$	1,23	1,25	1,39	1,61
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAId_t$	0,88	0,89	0,99	1,15
+ $AM_t$	0,56	0,53	0,58	0,69
- $IF_t$	0,11	0,11	0,08	0,07
+ GFOT	1,34	1,31	1,49	1,78
+ $REt$	-0,18	0,18	-0,14	-0,05
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $REdIt$	-0,13	0,13	-0,10	-0,04
+ $Eft$	0,13	0,31	0,07	0,04
+ GFET	0,00	0,44	-0,03	0,00
+ $ACNt-1$	9,49	8,81	6,26	6,30
- $ACNt$	10,02	7,13	6,60	7,10
- $\Delta ACNt$	0,53	-1,69	0,33	0,80
- $INVt$	-0,15	1,42	0,74	1,79
+ $TINVt$	0,96	2,02	0,40	-0,81
+ $EFAt - AFAt$	-0,02	-0,73	0,24	0,94
+ $It$	0,14	0,12	0,16	0,13
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,10	0,08	0,11	0,10
+ $TFAt$	-0,13	-0,81	0,12	0,84
+ $TPNt$	-0,84	-1,21	-0,52	-0,04
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.

149. koadroa Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	EAE eta Nafarroa		Estatua	
	2016	2017	2016	2017
+ $V_t$	17,72	8,42	15,94	17,54
- $C_t$	16,41	7,76	14,38	15,78
- $AM_t$	0,17	0,29	0,66	0,44
= $BAll_t$	1,15	0,37	0,90	1,33
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $BAl_d_t$	0,82	0,26	0,64	0,95
+ $AM_t$	0,17	0,29	0,66	0,44
- $IF_t$	0,01	0,01	0,10	0,01
+ GFOT	0,98	0,54	1,20	1,37
+ $RE_t$	-0,18	-0,06	-0,13	-0,05
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
= $RE_d_t$	-0,13	-0,04	-0,09	-0,03
+ $EF_t$	0,03	0,03	-0,03	0,08
+ GFET	-0,10	-0,02	-0,12	0,05
+ $ACN_{t-1}$	3,41	2,51	2,94	2,75
- $ACN_t$	3,57	2,08	3,07	3,13
- $\Delta ACN_t$	0,16	-0,43	0,13	0,38
- $INV_t$	0,11	0,45	1,32	1,01
+ $TINV_t$	0,61	0,51	-0,37	0,04
+ $EFA_t - AFA_t$	-0,06	-0,47	0,22	-0,30
+ $It$	0,06	0,05	0,15	0,08
* $(1-t)$	0,715	0,715	0,715	0,715
- $(1-t) * It$	0,04	0,03	0,11	0,05
+ $TFAT$	-0,10	-0,50	0,12	-0,36
+ $TPN_t$	-0,50	0,00	0,25	0,32
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.

## 150. koadroa Industria-sektore osoko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	EAE eta Nafarroa		Estatua	
	2016	2017	2016	2017
+ V <sub>t</sub>	86,52	92,75	92,72	108,44
- C <sub>t</sub>	78,13	84,15	84,13	98,61
- AM <sub>t</sub>	3,12	3,21	3,04	3,35
= BA <sub>It</sub>	5,27	5,39	5,55	6,48
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA <sub>Id</sub> <sub>t</sub>	3,77	3,85	3,97	4,63
+ AM <sub>t</sub>	3,12	3,21	3,04	3,35
- IF <sub>t</sub>	0,62	0,64	0,49	0,63
+ GFO <sub>t</sub>	6,27	6,43	6,53	7,35
+ RE <sub>t</sub>	-0,58	-0,62	-0,04	0,30
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE <sub>d</sub> <sub>It</sub>	-0,42	-0,44	-0,03	0,22
+ E <sub>F</sub> <sub>t</sub>	0,52	0,49	0,38	0,56
+ GF <sub>E</sub> <sub>t</sub>	0,11	0,05	0,35	0,77
+ ACN <sub>t-1</sub>	26,87	22,80	17,94	18,17
- ACN <sub>t</sub>	27,01	19,84	18,24	19,56
- ΔACN <sub>t</sub>	0,14	-2,97	0,30	1,38
- INV <sub>t</sub>	4,70	4,19	3,01	3,19
+ TINV <sub>t</sub>	1,53	5,25	3,57	3,55
+ EF <sub>A</sub> <sub>t</sub> - AF <sub>A</sub> <sub>t</sub>	-0,16	-4,48	-0,89	-0,51
+ I <sub>t</sub>	0,76	0,70	0,73	0,77
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I <sub>t</sub>	0,54	0,50	0,53	0,55
+ TF <sub>A</sub> <sub>t</sub>	-0,71	-4,98	-1,41	-1,06
+ TPN <sub>t</sub>	-0,82	-0,27	-2,15	-2,49
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Egileak osatua.

## 12. EUSKAL ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA

### 12.1 SARRERA

Aurreko txostenetan egindako lanarekin bat, kapitulu honek EAEko, Nafarroako eta Estatuko enpresa-egituraren bilakaeraren analisia lantzen du, denbora-ikuspegi zabal batetik (2012-2018 aldia), eta sektore ekonomikoak eta soldatapeko estratuak aintzat hartuta. Horren harira, komeni da kontuan izatea, azterketaren homogeneotasun handiagoa izateko, EIneko Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE) hartu dela informazio-iturri bakartzat.

### 12.2 BILAKAERA OROKORRA

Krisialdi ekonomikoaren ondorioz, enpresa aktiboen bolumena, orokorrean, murriztu egin zen aztertutako hiru geografia-eremuetan (EAE, Nafarroa eta Estatu). Bolumen hori, ordea, berreskuratzen hasi zen 2014an Nafarroan, 2015ean estatu-mailan eta 2016an EAEn. Nafarroako Foru Erkidegoan zein Estatuan, errekupeazio hau iraunkor mantendu da 2018. urtera arte (baina askotariko erritmoekin urteetan zehar), aitzitik, EAEn, enpresa aktiboen hazkuntza eten egin zen 2017an, eta hau 2018an berreskuratzen da.

GauGGauzak horrela, EAEko enpresa aktiboen kopurua 2012an 159.005 izatetik 2018an 144.357 izatera igaro da; dinamika horrek agerian uzten du, orotara, -% 9,2ko jaitsiera metatu dela. Bestalde, estatu-mailan, enpresa aktiboen bolumenak % 4,3ko gorakada pilatu du, 2012an 3.199.617 izatetik 2018an 3.337.646 izatera pasaz. Aurrerapen hori Nafarroan izandakoa (% 7,2) baino nabarmen txikiagoa da, zeinetan enpresa aktiboak 2012an 41.305 izatetik 2018an 44.289 izatera igaro diren. Horrela, aztertutako eremu geografikoen artean eta 2012-2018 epealdiari dagokionez, soilik EAEn hauteman daiteke enpresa aktiboen atzerakada bat.


Hala eta guztiz ere, komeni da aintzat hartzea urte arteko aldakuntzak intentsitate ezberdinekoak izan direla aztertutako hiru geografia-eremuetan, eta, halaber, alde nabarmenak hauteman direla eremu bakoitzari dagozkion urte arteko aldakuntzen artean.

EAEn kasu zehatzean, enpresa aktiboen bolumenak 2017an pairatu zuen urte arteko beherakadarik handiena (-% 7,2, urtebete lehenago erregistratutako % 1,8ko gorakadaren aurrean). Hazkuntzarik handiena, berriz, 2018an hauteman zen (% 2,9). Nafarroari eta Estatuari dagokionean, bi kasuetan, 2013an izan ziren jaitsiera handienak



(-% 1,1 eta -% 1,7, hurrenez hurren), aldiz, hazkuntza handienak 2015ean gertatu ziren (% 3,7 eta % 2,2, hurrenez hurren).


21. grafikoa Enpresa-kopuruaren bilakaera



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).


2018 ekitaldiko urte arteko datuei erreparatuz gero, enpresa aktiboak % 2,9 hazi ziren EAEn, % 1,7 estatu-mailan eta % 0,4 Nafarroako Foru Erkidegoan.

22. grafikoa Enpresa kopuruaren urte arteko aldakuntza



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

23. grafikoa Estatuko guztizkoarekiko pisuaren bilakaera (Estatua=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Horiek horrela, 2012 eta 2018 aldiak erreferentziazat hartuta, EAEko enpresa aktiboek Estatuko guztizkoarekiko duten pisu erlatiboak behera egin du (2012ko % 5etik 2018ko % 4,3ra), ostera, Nafarroako enpresen ordezkariak joera gorakorra erakutsi du, sei urteko epealdian % 1,29tik % 1,33ra igoz.

### 12.3 SEKTORE EKONOMIKOAK

Azterketaren fokua sektore ekonomikoetan jarriz, honakoak dira jarraian jorratuko diren sektoreak: industria, eraikuntza, merkataritza eta gainerako zerbitzuak. 2012 eta 2018 artean enpresa kopurua EAEko sektore guztietan murriztu zen; Nafarroan, berriz, eraikuntzen sektoreak soilik pairatu zuen jaitsiera; eta, Estatuan, industriak, eraikuntzak eta merkataritzak.

Aztertutako hiru geografia-eremuetan, 2012 eta 2018 artean enpresa kopuruan murrizketa handiena jaso zuen sektorea eraikuntza izan zen (-% 25,4 EAEn, -% 10,8 Estatuan eta -% 3,9 Nafarroan). Dinamismo handiena, aldiz, gainerako zerbitzuetan

erregistratu zen (% 14,3 eta % 12,7ko hazkuntzak Nafarroan eta Estatuan, hurrenez hurren; eta -% 3ko beherakada arina EAEn, erkidego horretan, oro har, hautemandakoen artean txikiena).

24. grafikoa Enpresen bilakaera, sektore ekonomikoaren arabera (indizea 2012=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Arreta 2012 eta 2018 ekitaldian jarrita eta Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionaleko (EJSN-2009) banaketak aintzat hartuta, handizkako eta txikizkako merkataritzak eta ibilgailu motordunen eta motoen konponketak parte-hartzerik handiena duten jarduerak dira enpresa kopuruari dagokionez, bi ekitaldian eta hiru geografia-eremuetan. Hala, EAEn 2018an jarduera hori burutzen duten 32.459 enpresek autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 22,5a bereganatzen dute (% 22,6 2012an), jarduera horrengatik Estatuan erregistratutako kuotaren antzekoa (guztizko nazionalaren % 22,4 2018an; % 24,2 2012an), eta Nafarrokoa baino pixka bat handiagoa (foru-erkidegoko guztizkoaren % 21,7 2018an; % 23 2012an).

**151. koadroa Enpresak atal ekonomikoaren arabera. 2012-2018 konparazioa**

	EAE		Nafarroa		Estatua	
	2012	2018	2012	2018	2012	2018
<b>Guztira</b>	<b>159.005</b>	<b>144.357</b>	<b>41.305</b>	<b>44.289</b>	<b>3.199.617</b>	<b>3.337.646</b>
Erauzketa-industriak	49	48	35	34	2.677	2.334
Manufaktura-industria	12.893	10.479	3.272	3.070	190.603	180.267
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornikuntza	386	600	510	740	15.036	16.903
Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen eta deskontaminazioaren kudeaketa	296	289	137	141	6.676	7.207
Eraikuntza	25.685	19.173	6.334	6.090	462.402	412.523
Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motoen konponketa	35.898	32.459	9.491	9.619	773.657	747.874
Garraioa eta biltegiatzea	11.509	10.037	3.443	3.242	212.343	197.444
Ostalaritza	13.409	13.060	3.392	3.665	285.813	283.332
Informazioa eta komunikazioak	2.807	2.890	486	689	54.462	67.248
Finantza- eta aseguru-jarduerak	2.836	2.692	767	793	70.489	78.593
Higiezin-jarduerak	4.407	2.713	1.178	1.484	128.386	176.950
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	19.359	19.908	4.749	5.403	379.056	410.362
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	6.110	4.965	2.103	2.390	161.008	193.890
Hezkuntza	3.545	4.422	941	1.367	80.486	107.222
Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak	7.464	8.407	1.333	1.648	141.073	163.013
Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak	2.978	3.239	915	1.206	74.848	92.321
Bestelako zerbitzuak	9.374	8.976	2.219	2.708	160.602	200.163

*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Aintzat hartutako hiru geografia-eremuetan, handizkako eta txikizkako merkataritzaren eta ibilgailu motordunen eta motoen konponketaren ondoren (2018an EAEn izan ezik), honako hauek nabarmendu behar dira hurrenez hurren: eraikuntza eta jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak. Zehazki, 2018an, eraikuntzen atalak 19.173 enpresa hartzen ditu bere gain EAEn, autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 13,3 (2012an % 16,2); Nafarroan 6.090 enpresa, foru-erkidegoko guztizkoaren % 13,8 (2012an % 15,3); eta Estatuan, ostera, 412.523 enpresa hartzen ditu, guztizko nazionalaren % 12,4a eskuratuz (2012an % 14,5).

Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoei dagokienez, 2018an, 19.908 enpresa barneratzen dira EAEn, hots, autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 13,8 (2012an

% 12,2); Nafarroan 5.403 enpresa, foru-erkidegoko guztizkoaren % 12,2 (2012an % 11,5); eta Estatuan, aldiz, 410.362 enpresa, guztizko nazionalaren % 12,3 (2012an % 11,8).


## 12.4 SOLDATAPEKOEN ESTRATUAK

Soldatapekoen estratuak aintzat hartuz gero, eta lehenik eta behin bakoitza xehetasunez landuz, 2012 eta 2018 artean soilik bat eta bi soldatapeko artean zituzten enpresak hazi ziren, oro har, aztertutako hiru geografia-eremuetan.

Sei eta bederatzi soldatapeko artean zituzten enpresek jasan zuten atzerapenik handiena 2018an, 2012arekin alderatua, bai EAEn (6.030 eta 7.158, hurrenez hurren; alegia, -% 15,8ko beherakada) bai Nafarroan (1.655 eta 1.950, hurrenez hurren, zeinak -% 15,1eko jaitsiera islatzen duen), eta baita estatu-mailan ere (125.173 eta 131.944, hurrenez hurren; hots, -% 5,1eko murrizketa).

EAeri dagokionean, soldatapeko bat edo bi dituzten enpresak kenduta (% 0,5 hazi dira), gainerako enpresa aktiboek, oro har, behera egin dute 2012tik 2018ra bitartean: sei eta bederatzi soldatapeko artean dituztenak -% 15,8 uzkurtu dira, soldatapekorik gabekoak -% 15,1, hamar eta hemeretzi soldatapeko artean dituztenak -% 11, hiru eta bost soldatapeko artean dituztenak -% 4,1 eta hogeit hamar soldatapeko edo gehiago dituztenak -% 3,1.

25. grafikoa Enpresen bilakaera, soldatapekoen tarteen arabera (indizea 2012=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Azterketa 2012 eta 2018 ekitaldietara mugatuz eta soldatapekoen estratua mailakatze handiagoarekin landuz, soldatapekorik gabeko enpresak dira gehiengoa bereganatzen dutenak kontuan hartutako bi ekitaldietan eta hiru geografia-eremuetan. Hala, 2018an EAEn dauden mota horretako 70.150 enpresek autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 48,6 hartzen dute (2012an % 52); zifra hori baxuagoa da Estatukoekin (guztizko

nazionalaren % 55,3; 2012an % 55,2) eta Nafarroakoekin (foru-erkidegoko guztizkoaren % 55,4; 2012an % 54,4) alderatuta.

**152. koadroa Enpresak soldatapekoen estratuen arabera. 2012-2018 konparazioa**


	EAE		Nafarroa		Estatua	
	2012	2018	2012	2018	2012	2018
<b>Guztira</b>	<b>159.005</b>	<b>144.357</b>	<b>41.305</b>	<b>44.289</b>	<b>3.199.617</b>	<b>3.337.646</b>
Soldatapekorik gabe	82.625	70.150	22.482	24.526	1.764.987	1.845.881
1-2 soldatapeko	45.388	45.611	10.463	11.559	867.550	910.686
3-5 soldatapeko	14.520	13.923	3.800	4.090	288.896	303.574
6-9 soldatapeko	7.158	6.030	1.950	1.655	131.944	125.173
10-19 soldatapeko	4.868	4.334	1.331	1.222	79.113	80.860
20-49 soldatapeko	2.866	2.742	788	755	43.070	45.485
50-99 soldatapeko	849	809	238	228	12.700	13.116
100-199 soldatapeko	434	417	149	150	6.434	7.033
200-499 soldatapeko	198	242	78	77	3.214	3.925
500-999 soldatapeko	58	59	15	18	935	1.044
1.000-4.999 soldatapeko	38	37	11	7	669	750
5.000 soldatapeko edo gehiago	3	3	0	2	105	119

*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Jarraian, kontuan hartutako hiru geografia-eremuetan eta hurrenez hurren, honako estratu hauek aurkitzen dira: soldatapeko bat edo bi dituzten enpresak eta hiru eta bost soldatapeko artean dituztenak. Zehazki, EAEn esparruan, 2018an bat edo bi soldatapeko dituzten 45.611 enpresek autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 31,6 hartzen dute (2012an % 28,5); parte-hartze hori estratu honek Estatuan (2018an % 27,3; 2012an % 27,1) eta Nafarroan (2018an % 26,1; 2012an % 25,3) lortutakoa baino handiagoa da. Era berean, 2018an EAEn hiru eta bost soldatapeko artean dituzten 13.923 enpresek autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 9,6a biltzen dute (2012an % 9,1); kuota hori Nafarroan (2012an eta 2018an % 9,2) eta Estatuan (% 9,1; 2012an % 9) erregistratutakoa baino apur bat handiagoa da.



### 3. LEHEN SEKTOREA



## 1. IKUSPEGI OROKORRA

### 1.1 BILAKAERA ESTATU-MAILAN

Estatuko nekazaritza-sektorearen ekoizpena hazkunde iraunkor batean murgilduta dago; izan ere, krisi ekonomiko orokorraren hasieran baino ez ditu gorabehera txikiak izan. Orduz geroztik, goranzko joera irmoa da, batez ere, kostuen eta prezioen gorakadaren eskutik.

Ministerio eskudunak sektoreko ekoizpen diru-sarrerak zenbatesten ditu landare- edo nekazaritza-adarra eta animalia- edo abere-adarra deitutakoaren agregatuak balira bezala; bestalde, zerbitzuen eta nekazaritza lanetik "ez-bereizgarriak" diren bigarren mailako jardueren (industrialak) atal txikiago bat dauka. Hiru osagai horiek 2018an % 60,7, % 36 eta % 3,3ko pisu erlatiboa dute, hurrenez hurren, eta azken hamarkadan beren bolumen ekonomikoa % 25,8, % 35,7 eta % 5,5 igo da, 10 urteetan % 28,4ko aurrerapena metatuz. Gauzak horrela, 2018an, urtetik urterako honako hazkunde hauek erregistratu dira: % 7,8 (landareak), % 2,2 (animaliak), % 2,7 (zerbitzuak) eta % 1,5 (jarduera ez-bereizgarriak). Honen harira, orotara, nekazaritzaren hazkunde globala % 5,5ean geratu da.

Igoera handienak hauteman dituzten produktu-kategoriak aztertuz gero, ikus dezakegu nekazaritza-adarrak hamarkada horretan zehar izandako gorakadaren erdia frutari dagokiola, eta neurri txikiagoan, barazki eta ardoari. Abere-adarrari dagokionez, aurrerapenaren erdia txerriari dagokio; halaber, behiaren hazkundera txikiagoa izan da, eta beste haragi eta produktu batzuk hirugarren maila batean daude.

Azken ekitaldian, frutak eta barazkiak nekazaritza-adarreko lehen postuan txandakatu dira; biek hazkunde nabarmena erregistratu dute, baina azken ekitaldian frutek aurrea hartu dute % 9,5 igoz, barazkien azken balioa -% 0,1 jaitsi eta gero. Hurrengo bi kategoria garrantzitsuenak askoz irregularragoak dira, baina epe luzera maila egonkor batean daude; zerealei eta olioari buruz ari gara. Beren gorabehera ugarien adibidea da zerealek 2018an izandako % 45eko igoera -batez ere ekoiztutako kopuruaren gorakadatik- eta olioak hautemandako -% 29,4ko beherakada, gehien bat bere prezioaren jaitsieraren ondorioz etorri dena. Ardoak maximo historiko berria lortu du % 27,3ko hazkundearekin; kopuru engainagarria da, guztira % 38,4 gehiago ekoiztu baita, prezioa % 8 merkeagoa izanda.

Nekazaritza-adarrean, guztira % 8,3ko gorakada izan da, eta prezioak arinki jaitsi dira (- % 0,6); animalia-adarrak, berriz, % 4,3ko igoera erregistratu du, eta prezioak -% 2 murriztu dira. Sektoreko kontsumoen kopurua % 2,9 areagotu da, eta prezioek ere % 3,3 hazkundea izan dute. Ondorioz, sektoreko Balio Erantsi Gordina % 4,9 handitu da.

BEG edo marjina horri zuzenean ustiapenekoak ez diren osagaiak (amortizazioak, dirulaguntzak eta zergak) aplikatu eta gero, nekazaritza-errenta deitutakoa lortzen dugu; kasu honetan aurrerapena % 4,3koa izan da. Nekazaritza-errentak goranzko joera ageri du azken 6 urteetan, eta 2012. urtetik % 36,2 irabazi du. Gainera, azken 25 urteetan bikoiztu da gutxi gorabehera.

Estatistika berak errenta horri dagokion lan kopuruaren ikuspuntua eskaintzen digu (NLU edo Nekazaritzako Lan Unitateetan neurtua); kopuruak beherakada jarraitua izan du azken hamarkadatan; epe horretan (25 urte), zehazki, % 22,3 jaitsi da. Horrela, NLUen arabeko nekazaritza-errenta epe horretan % 132 igo da ohiko prezioetan, baina % 36,4 prezio konstanteetan.

### 153. koadroa Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak

(M euro)

Kontzeptua	2017	2018*	% Δ 2018/2017		
	Balorea	Balorea	Balorea	Kopurua	Prezioa
A.- Nekazaritza-adarreko ekoizpena	50.613,5	53.391,7	5,5	6,6	-1,0
• Landare-ekoizpena	30.081,3	32.413,1	7,8	8,3	-0,6
• Animalia-ekoizpena	18.799,8	19.214,9	2,2	4,3	-2,0
• Zerbitzu-ekoizpena	506,0	519,5	2,7	-0,3	2,9
• Bigarren mailako jarduerak, ez-nekazaritzakoak, ez-bereizgarriak	1.226,4	1.244,2	1,5	0,2	1,3
B.- Bitarteko kontsumoak	21.834,7	23.204,7	6,3	2,9	3,3
C.- (A-B) Balio erantsi gordina	28.778,8	30.187,0	4,9	9,3	-4,1
D.- Amortizazioak	5.185,9	5.322,9	2,6	-0,4	3,1
E.- Beste dirulaguntza batzuk	5.748,9	5.769,7	0,4	-	-
F.- Beste zerga batzuk	383,5	416,8	8,7	-	-
G.- (C-D+E-F) Nekazaritza-errenta	28.958,3	30.217,0	4,3	-	-

(\*): 2019ko urtarrileko 2. estimazioa. Ekoizleak jasotako oinarrizko prezioen arabera.  
Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

## 1.2 BILAKAERA EAE-N ETA NAFARROAN

### Sektorearen makromagnitudeak<sup>(1)</sup>

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, lehen sektoreko azpisektoreen makromagnitudeak argitaratzen dira. Horrela, abeltzaintza- eta basogintza-ekoizpenekin alderatuz gero, nekazaritza-ekoizpena bolumen zein hazkunde-erritmo handiena duena da, baita urte arteko aldakortasun handiena duena ere. Lehen atalak, nekazal-adarrak, duen pisu ekonomikoa % 53,3koa da; aldiz, abeltzaintzak % 33,1eko pisua eta basogintzak % 9,9koa dute. Azken horretan, insignis pinuaren edo radiataren zurak pisu nabarmena dauka. Atala osatzen da hiru azpisektore horietako batekin zeharka lotutako beste ekoizpenen % 3,8arekin.

Duela hamarkada bat hasitako krisiak ondorioak izan zituen nekazaritza- eta basogintza-ekoizpenen mailetan, baina abeltzaintza-ekoizpenean ia ez du eraginik izan. Orduz geroztik, sektoreak tonua berreskuratu du, batez ere, nekazaritza-adarraren indarragatik, eta, noski, prezioen mailen efektuagatik, elikagaien euskal sektoreak duen gero eta irudi hobea ahaztu gabe. Hala ere, sektorea eta bere azpisektoreak Nafarroako edo Estatuko balioak baino gutxiago hazi dira.

2018an, nekazaritza-sektorearen azken ekoizpena % 3,1 igo da; nekazaritzak % 7ko hazkundera hauteman du, aitzitik, abeltzaintza -% 1,7 jaitsi da eta basogintza, berriz, -% 0,2; bitarteko kostuen agregatuaren balioa % 1 handitu da; dirulaguntzak -% 0,7 murriztu dira, eta merkatuko prezioen BEG 2017an baino % 4,2 handiagoa izan da; % 3,5 faktoreen kostuan, eta, ondorioz, euskal nekazaritza-errenta % 4,3 hazi da.

2014an, krisi orokorraren aurreko mailetara bueltatu zen, 2007ko maximoa gaindituz; orduz geroztik igarotako lau urteetan, nekazaritza-negozioak % 12,1eko gorakada jarraitua izan du; nekazaritza-adarrak kopuru hori ia biderkatzen du, denbora horretan % 21,4 igo baita; bien bitartean, abeltzaintza -% 2,1 murriztu da, eta basozaintzak % 24,5eko gorakada jasan du.

Hala ere, 2018. urteko balantzea kategorien arabera aztertuz gero, ikusiko dugu bere osotasunean nekazaritza-sektoreak izandako 17,2 milioiko aurrerapena gehienbat mahastiak izandako ezohiko garestitzeagatik izan dela, bere diru-sarrerak 25,1 milioi igo baitira. Honen harira, ez da mahastiaren produktuaren moduko aldakuntza garbirik izan

<sup>(1)</sup> EAEko nekazaritzako makromagnitudeen aurrerapena. Nafarroari buruzko informazio ofiziala ez da aldagaien egitura berarekin kontabilizatzen.

duen bestelako egoerarik hauteman; izan ere, horren atzetik igoera handiena oilo-arrautzak (+% 10,7) izan du, 3 milioi inguruko gorakadakarekin.

#### 154. koadroa EAEko nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak\*

*(M euro)*

Kontzeptua	2016	2017	2018
Amaierako nekazaritza-ekoizpena	545,9	553,9	571,0
Nekazaritza	284,8	284,2	304,1
Abeltzaintza	181,7	191,1	188,9
Basozaintza-sektorea	58,3	56,5	56,4
Norbere konturako beste ekoiz. eta hobek.	21,0	21,0	21,6
- Sektoretik kanpoko gastuak	187,8	191,9	193,8
= Balio erantsi gordina (m.p.)	358,1	361,9	377,2
+ Diru-lag - zerg. saldoa	65,9	63,4	63,0
= Balio erantsi gordina (f.k.)	424,1	425,3	440,2
- Amortizazioak	82,0	81,0	81,2
= Balio erantsi garbia (f.k.)= Nekaz. Errenta	342,1	344,3	359,0

*(\*)*: Aurrerapen-datuak, gerora egokitu daitezkeenak.

*Iturria*: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako estatistikak. Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomikorako Salla.

Adibidez, mahastien balorizazio azkarraren adierazlea da 2018an bere balioa 2012koaren bikoitza izatea. Aurten, nekazaritzaren guztizkoan duen pisuak % 25a gainditzen du, Erkidegoko nekazaritzako eta abeltzaintzako kategoria garrantzitsuena izanda; ondoren, urrun datoz barazkiak (% 12,3), behi-esnea (% 10,5), animalia bereko haragia (%10) eta zerealak eta insigis pinuko zura (biak % 7,1eko pisuarekin).

Aipatutakoak bezain garrantzitsuak ez diren kategoria batzuetan gorabehera nabarmenak daude: patata-ekoizpenaren balioa % 20,6 igo da, azukre-erremolatxak -% 44,6ko beherakada izan du, beste industria-laborantza batzuk % 45,2 hazi dira (erremolatxa ez direnak: koltza, ekilorea...), fruten negozioak joera beherakorra ageri du (-% 16,5), eta aipatutako oilo-arrautzaren aldakuntza da aurten animalia-adarrean izandako bi digituko bakarra.

Ikuspuntu zabalago batetik, azpimarratu behar da mahastiaren aldakortasun ekonomiko handiak talde osoarengan duen eragina; bere atzetik barazkiak, urte arteko aldakuntza txikiekin, edo zerealak, aldakuntza indartsuagoarekin, datoz, epe luzera biek balioa modu neurritsuan handituz. Behi-haragiaren negozioak jauzi handia eman zuen duela hamarkada bat (bitxia da krisi ekonomiko orokorraren hasieran gertatu izana), eta maila horiek mantendu ditu, urte batzuetan behi-esnea gainditu eta Erkidegoko nekazaritza-produktu garrantzitsuena bihurtuz (2018an esnea baino pixka bat gehiago jaitsi eta lehen postua galdu du). Nafarroan eta Estatuan txerri-haragiak antzeko igoera

jasan du, eta, oro har, esnearen guztizko balioak beheranzko joera dauka; hirugarren kategoriakoak dira oilo-arrautzak eta azken urteetan gorakada izandako animalia-adarreko "beste ekoizpen batzuetako" agregatua, antzeko negozio-balioarekin.


Prezioei dagokienez, nekazaritza-sektoreak % 1,3ko hazkundera izan zuen; izan ere, nekazaritza % 3,4 igo zen, aldiz, abeltzaintza -% 1,9 jaitsi zen eta basozaintzak % 2,3ko gorakada erregistratu zuen. Mahastien prezioek -% 3,7 egin zuten behera, eta horrek erakusten digu urte horretan balioak izandako jauzi handiaren atzean bolumen kuantitatiboa dagoela (+% 28,2). Prezioetan bi digituko aldaketak egon ziren baita ere pataten (+% 58,5), barazkien (+% 11,2), erremolatzaren (-% 11,7) eta txerri-haragiaren (-% 15,2) kasuan.

Kopuruei erreparatuz gero, dagoeneko aipatutako mahastiarekin batera, azpimarratzekoa da nekazaritza-ekoizpen osoaren balantze negatiboa (-% 0,5 pisan), nahiz eta nekazal-adarrak gora egin (% 4,2). Izan ere, abeltzaintza -% 4,3 eta basozaintza -% 13,4 (zehazki, espezie nagusiak, radiata pinuak, izandako -% 16,4ko beherapenagatik) jaitsi ziren. Nekazaritzaren esparruan kategoría askok bi digituko aldakuntzak izan zituzten: lekaleek % 29,3, patatak -% 24,8, erremolatzak -% 38,3, beste industrial batzuek % 57,8, barazkiek -% 12,1 eta frutek -% 30,5. Abeltzaintzaren esparruan, aldaketa zabalena behi-haragiari dagokio (-% 9,7); gainerako produktuak ere merkatu egin ziren.

Hori guztia aintzat hartuta, faktoreen kostuen BEG ezberrik gabe goranzko joera jarraitua, baina neurritsua, duen erritmo batean hazten ari da. Grafikoan ikusi daiteke, 2014an EAEn sektoreak izandako hedapenez gain, bi lurraldeetan eboluzioa oso lineala eta antzekoa dela, Nafarroan sektoreak duen magnitude handiagoaren eta EAekoaren artean aldea mantenduz.

26. grafikoa Balio erantsi gordinaren bilakaera nekazaritza-sektoreko faktoreen kostura

(M euro)



Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua. / Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako estatistikak. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen Saila.

### Nafarroako bilakaera

2018an, Nafarroako nekazaritza-sektoreak % 2,9ko pisua dauka foru-komunitateko BPGan; kopurua hamarreko bakarra aldatu da azken 7 ekitaldietan, sektoreak ekonomia orokorraren erritmoari eusten diola erakutsiz. Hala ere, Nafarroako BPG % 4,1 igo da, eta nekazaritza-adarra % 3,2, pixka bat gutxiago. Guztira, 2017arekin alderatuta, ekonomia hamarreko bakarra jaitsi da; nekazaritza, berriz, 5 hamarreko hazi da.

2018an, nekazaritzako BPGak lehen aldiz 600 milioi euroak gainditu ditu, eta 2000tik % 54,6ko hazkundera hauteman du, Nafarroako BPGaren hazkundera % 89,5ekoa izanik. Bere igoera BPG orokorrarena baino linealagoa izan da; apur bat lasaiagoa mendearen lehen hamarkadan, oraingo suspertze-zikloan gertatzen ari den bezala, baina, kontrara, bere eboluzioan hamarkada honen hasierako krisiak ia ez du eraginik izan.

Produktuen merkatuko prezioak funtsezko faktoreak dira, ikusi den moduan, orain arte adierazitako aldagai guztietan, baina ezberdina izan ohi da elikagaien hornikuntza-kateko hasierako ekoizleak jasotzen dituen prezioen egoera. Zentzu horretan, nekazal- eta animalia-adarretako prezioetan jaitsiera handia erregistratu da azken hirurtekoan, Nafarroako Estadistika Institutuko datuen arabera, eta 2018an suspertze oso txikia izan da. Kontabilitate horrek nekazaritza eta abeltzaintzaren (% 5,5 2018an), nekazaritza azpisektorearen (% 9,5), abere-adarraren (% 0,6) eta basozaintzaren (% 2,9) prezioen indize orokorraren aurrerapena xehatzen du.

Lehendabiziko hiru azpisektoreen kasuan, Estatuan aldakuntza indize hauek neurtu ziren, hurrenez hurren: -% 1, -% 0,6 eta -% 2.

Lehen ekoizle horien prezioen edo abonaturako kostuen balantze orokorra % 2koa izan da 2018an. Azken indize horrek portaera onuragarriagoa erakutsi du hirurteko honetan; aurreko ekitaldian adar nagusietako (nekazal eta animalia) prezioena baino gehiago jaitsi zen, eta 2018an hazkunde lasaia izan du (Estatuan erregistratutako % 3,3aren aurrean). Beraz, Nafarroako egoera Estatukoa baino hobea da; lehen ekoizleek jasotako prezioak igo ziren, Estatuan jaitsi ziren bitartean, eta ordaindutakoak gutxiago hazi ziren. Nafarroako Gobernuko beste estatistika batek aldakuntzak erakusten ditu kategorien arabeko prezioen indizeei dagokienez, urte baten eta bestearen amaieraren artean. Kategoria nagusien barruan, hauek nabarmentzen dira: zerealean % 6,6ko hazkundera, barazkien -% 0,2ko jaitsiera eta ardoaren garestitze handia (+% 51,36). Abeltzaintzan, berriz, behi-haragiaren hazkundera (% 0,8), txerri-haragiaren jaitsiera (-% 10,6), hegazti-haragiaren igoera (% 4,5) eta esnearena (% 0,1) aipatu behar dira. Beraz, Nafarroan nekazal- eta animalia-adarren indizeek, batez ere, lehenaren kasuan zerealen eta ardoaren igoera eta bigarrenaren kasuan txerriaren eta hegaztien arteko aldakuntza kontrajarriak nabaritzen dituzte.

### **Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza**

Ekonomiaren internazionalizazioa ez da salbuespena euskal nekazaritzako elikagaien esparruan, eta hazkundera indartsua izan da azken urteetan, bereziki Foru Komunitatean. Bi erkidegoetan eta sektoreari lotutako kategoriei dagokienez, hots, nekazal-produktuei, animalia-lehengaei eta horiei dagozkien industrialki eraldatutako produktuei dagokienez, aurten inportazioak esportazioen gainetik hazi dira nabarmen. Inportazioaren igoera hori gehienbat EAEko nekazal-adarreko inportazioetan eman da.

EAEko balantzak defizita handitzen du, nahiz eta beste adar batzuetan hobekuntza txikiak egon, animalia- eta industria-adarretan, adibidez. Azken esparru horrek antzeko portaera dauka bi erkidegoetan, esportazioek inportazioek baino hazkunde iraunkorragoa izanda. EAEko animalia- eta nekazal-adarrak dira ezberrik gabe portaera edo balantze oso ezberdinak dituztenak, horiengan inportazioen pisu handiena egonik; kategoriaren baitan defizit komertziala eragiten dute, nekazal-adarraren kasuan azken ekitaldian defizit handigoa egonda.

Hauek dira, hurrenez hurren, 2018an EAEn animalia, landare, industria eta nekazaritzako elikagaien adarrean egondako aldakuntzak: % 10,3, % 14,9, % 1,4 eta % 4,9% esportazioetan; eta -% 3,3, % 74,2, -% 5,8 eta % 18,2 inportazioetan. Nekazal-adarreko inportazioak duela bi ekitaldian inportazioen bikoitza dira.



Aldiz, adar guztiek hazkunde handiak izan dituzte Nafarroan azken urteetan. Esportazioetan, nekazaritzako elikagaien azpisektorea taldeko liderra da, baina nekazal-adarra da hazkunde jarraitu eta azkarrena duena; abeltzaintza igo da baita ere, baina modu ez hain jarraituan eta bolumen txikiagoarekin. Inportazioen esparruan hiru azpisektoreek antzeko bolumenak dituzte.

### 155. koadroa Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. EAE eta Nafarroa

(Meuro)

Muga-zerga atala	Eremua	Esportazioak		Inportazioak	
		2017	2018	2017	2018
Animalia biziak eta animalia-erreinuko produktuak	EAE	241,4	266,3	440,1	425,5
	Nafarroa	206,3	185,5	188,2	176,7
	Euskal Herria	447,7	451,8	628,3	602,2
Landare-erreinuko produktuak, gantzak eta olioak	EAE	82,3	94,6	326,5	568,7
	Nafarroa	433,7	466,5	260,8	270,1
	Euskal Herria	526,0	561,1	628,3	838,8
Elikagaigintzako produktuak	EAE	620,9	629,8	337,7	311,4
	Nafarroa	567,4	569,9	238,2	238,1
	Euskal Herria	1.188,3	1.199,7	575,9	549,5
Nekazaritzako elikagaien sektorea	EAE	944,6	990,7	1.104,3	1.305,6
	Nafarroa	1.217,4	1.221,9	687,2	684,9
	Euskal Herria	2.162,0	2.212,6	1.791,5	1.990,5
Nekazaritzako elikagaien sektoreak esportazio/inportazioen guztizkoan duen partaidetzaren %	EAE	4,0	3,9	5,9	5,1
	Nafarroa	15,1	13,4	15,5	14,1
	Euskal Herria	6,8	6,4	7,8	6,6

Iturria: Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta.

2018an, nekazal-adarrak igoera erritmo berari eutsi dio, eta berritasuna nekazaritzako elikagaien sektorearen bilakaeran datza, sarrerak zein irteerak gelditu egin baitira; abere-adarrari dagokionez, bere sarrerak eta irteerak txikitu dira zenbait urtean igo eta gero, baina aurreko urteetan igoera handiak izan zituen. Horrela, esportazioek 2012az geroztik erregistratutako hazkunde txikiena dute, eta geldialdi nabarmena bizi dute; inportazioen kasua antzekoa da, baina geldialdiak ez du 2018an dezelerazioa ekarri, jaitsiera baizik. Ondorioz, balantza komertzialak hazten jarraitzen du, baina oso poliki.

Abeltzaintzako esportazioa % 10,1 jaitsi da, aldiz, nekazaritzakoa (% 5,1) eta elikagaigintzakoa (% 0,5) hazi dira, taldearen igoera % 0,4koa izanda. Inportazioetan aldakuntzak honako hauek dira: -% 6,1, % 3,5, % 0,0 eta -% 0,3. Animalia-adarrean, balantza komertzialak superabita erdira murriztu du (-% 51,1), eta gainerakoen superabitak hazi egin dira (% 7,4, % 0,8, % 1,3).

Azken urteetako goranzko joeran izandako geldialdi txiki horrekin, sektoreak indar pixka bat galdu du Nafarroako kanpo-merkataritzaren baitan, eta esportazio guztien % 13,4 eta inportazio guztien % 14,1 da.

### **Biztanleria okupatua**

Enpleguari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak hiru hilean behin eskaintzen ditu nekazaritza-sektorean lanean dabiltzan pertsonen buruzko datuak; sektorean denboraldiak eragin handia dute, eta, era berean, ziklo biologikoen eta baldintza meteorologikoen baldintzatzen dute. Ez da ahaztu behar eskuragarri dagoen iturri bakarra estatu-mailan egiten den inkesta bat dela; ondorioz, probintzien arabeko laginak daude, galdetutako pertsona kopuruagatik aldatu daitezkeen balioespenak eragin ditzaketenak. Horrela, adibidez, 3 ekitalditan zehar kopurua egonkorra izan eta gero, 2018an Nafarroan sektore horretan 14.200 pertsonak egiten dute lan, aurreko urtean 10.100 ziren bitartean.

**156. koadroa Enplegua lehen sektorean\***

*(m pertsona)*

Urtea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa	EAE eta Nafarroa	Espainia
2009	3,1	5,8	3,2	12,1	13,3	25,4	790,8
2010	3,1	4,7	4,7	12,5	11,3	23,8	772,8
2011	2,4	3,9	3,4	9,7	7,1	16,8	735,9
2012	2,2	7,7	2,2	12,1	8,6	20,7	722,3
2013	4,6	7,6	3,2	15,4	15,5	30,9	753,1
2014	3,0	6,2	4,4	13,6	13,4	27,0	739,3
2015	1,8	6,2	2,5	10,5	9,4	19,9	740,4
2016	3,7	5,4	1,9	11,0	9,8	20,8	760,2
2017	3,8	7,7	3,8	15,3	10,1	25,4	832,6
2018	3,2	2,9	3,2	9,3	14,2	23,5	822,5

*(\*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak aurkeztu dira, uste baita adierazgarriagoak direla sektoreko enpleguaren urtaro-bilakaeraren barruan.*

*Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. EIN.*

Dena dela, gainerako seriearekin alderatuta, Nafarroako balio hori azken bosturtekoko altuena da, eta Estatuan dagoen joerari aurre egiten dio, bertan urte erdian nekazaritza-sektoreko enplegua pixka bat jaitsi baita (-% 1,2).


Espainiako kopurua lau urtean lehen aldiz murriztu da; Nafarroako datuek beheranzko joera orokorra erakusten zuten, baina 2018an bilakaera hau aldatu da, baita Nafarroak estatu-mailan duen ratioa ere (% 1,7).

EAEn, nahiz eta komentatutako faktorengatik eskuragarri dauden datuek gorabehera nabarmenak erakutsi eta lurralde historiko bakoitzaren zenbatekoen bilakaeretan ohiko

aldeak egon, antzekotasunak ere badaude bere eboluzioaren eta Foru Komunitateko datuen artean, eta gainera antzerako magnitude batean daude.

Hala ere, 2018 urte ezberdina izan da zentzu honetan: duela bost urte baino gehiagotik, urtearen erdian Bizkaian okupazioa handiagoa zen EAEko beste bi lurraldeetan baino, baina 2018an zifra askoz txikiagoa, Araba eta Gipuzkoaren antzekoa, izan da, Nafarroan jasotako kontrako bilakaeratik urrunduz.

27. grafikoa Enpleguaren bilakaera lehen sektorean\*



(\*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak aurkeztu dira, uste baita adierazgarriagoak direla sektoreko enpleguaren urtaro-bilakaeraren barruan.

Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

## 2. NEKAZARITZAKO AZPISEKTOREA

EAEko eta Nafarroako nekazaritzako azpisektoreak, nekazaritzaren egoera orokorrean ikus daitekeen moduan, pisu eta leku propioak, mugatuak baino sendoak, dauzka ekonomiaren barruan, eta, batez ere, bi erkidegoen lurralde-orekaren barruan. Garrantzi berezia dute bi lurraldeekin lotzen diren kalitate ospetsuko produktuek, ardoa edo barazkiak, besteak beste, gure lurraldeetako gastronomia edota turismoaren parte ere direnak. Horrek errazten du gaur egungoaren moduko gizarte oso urbanizatu batean nekazal-jarduerek oraindik ere indar eta egonkortasun aipagarriak izatea, administrazio publikoaren maila guztiek eskainitako arreta bereziak duen garrantzia ahaztu gabe.

Azken hamarkadak erakutsi du ekoizpen nagusiek oraindik leku sendoa dutela, nahiz eta eskaintza, eskari, prezio eta bolumenei dagokionez, urtetik urtera gorabehera handiak izan, kategoria batzuetan besteetan baino gehiago. Hala ere, epe luzera ez dute aldaketa oso aipagarririk jasan. Gastronomia eta kalitatearen aldeko apustua, eta biztanleriak tradizionalki gehien baloratutako produktuek eskainitako balioei buruz duen kontzientzia, ezbairik gabe lagungarriak dira produktu horiek errotzeko eta beren prezioei esker nekazal-ustiategiak lehiakorrek eta errentagarriak izaten jarraitzeko. Era berean, ekoizpenaren aniztasunari esker, labore batzuk beste batzuekin ordezkatu daitezke, ekitaldi zehatz batean egokia izanez gero. Horrez gain, teknologiaren hobekuntza lagungarria da ekoizpena hobetzeko edo kalitatea estandarizatzeko, besteak beste.

Maila orokorrean, eta epe luzera begira, adierazi daiteke EAEn eta Nafarroan ekoizpen ugari goranzko joera neurritsua dutela bolumenei eta balorazio ekonomikoari dagokionez, nahiz eta nazioarteko merkatuak lehiakorrek eta aldakorrek izan.

2018. urteak hori baieztatzen du, 2017ko ekoizpen-prozesuetan izandako jaitsiera nagusiak 2018ko estatistiketan jasotzen ez direlako; ekitaldi bateko joera nagusiak, ustekabeek, meteorologiak adibidez, baldintzatu ditzakete, baina nahiko erraz lehengoratzten dira.

2018an, ardogintzaren arrakasta azpimarratu behar da, produktuaren prezioari eta ekoiztutako kantitateari dagokionez. Gainerako produktuei erreparatuz gero, aipagarria da prezioak eta bolumenak, kasu gehienetan, aurrez azaldutako epe ertain eta laburrerako maila eta tarte normalen barruan daudela.

## 2.1 EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK

Bi autonomia-erkidegoetako tona-ekoizpenei dagokienez, eta Ministerioaren estatistiketan erregistratuak diren heinean, azpimarratu behar da, arestian esan bezala, ardogintzak izandako urte bikaina; azkenaldian hektolitroetan aurrekaririk ez duen maila batera heldu da, 2017an baino % 30 gehiago izanik.

### 157. koadroa EAE eta Nafarroako nekazaritza-ekoizpen adierazgarrienak\*

(m Tm)

Produktua	2017	2018**	%Δ 18/17	% EAE eta Naf./ Espainia 2018
<b>Zerealak</b>				
– Garia	507,5	526,6	3,8	6,5
– Garagarra	423,6	394,8	-6,8	4,4
– Oloa	87,5	85,1	-2,7	5,7
– Artoa	150,2	162,7	8,3	4,3
<b>Bazka-laboreak</b>				
– Artoa	232,8	226,1	-2,9	5,2
– Alpapa	317,1	297,2	-6,3	2,9
<b>Barazkiak</b>				
– Zainzuria	6,0	6,7	11,7	10,2
– Letxuga	21,0	18,8	-10,5	2,0
– Espinaka	21,0	13,6	-35,2	18,0
– Tomatea	153,7	153,6	-0,1	3,2
– Piperra	38,3	32,9	-14,1	2,5
– Orburua	16,5	17,0	3,0	8,1
– Azalorea	28,1	40,1	42,7	24,6
– Brokolia	77,6	76,6	-1,3	13,6
– Tipula	17,6	21,0	19,3	1,6
– Leka	20,5	12,8	-37,6	8,7
– Ilar berdea	21,9	17,8	-18,7	20,4
<b>Fruta-arbolak</b>				
– Sagardo-sagarra	4,6	8,0	73,9	10,3
– Mahai-sagarra	13,1	14,4	9,9	2,8
– Udarea	24,1	19,8	-17,8	5,9
– Mertxika	11,8	11,7	-0,8	1,4
– Arbendola	3,1	2,5	-19,4	0,8
<b>Ardoa eta muztioa (m HI)</b>	1.301,5	1708,2	31,2	3,8
<b>Patata</b>	81,5	66,2	-18,8	3,3
<b>Azukre-erremolatxa</b>	208,1	151,1	-27,4	5,3

(\*): Balioespenak.

(\*\*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina.

Zerealak eta bazka-laboreak dira, mahastiarekin batera, tona-kopuru handiena duten beste kategoriak, baina ekoizpenean azkenak baino gorabehera handiagoak izan ohi dituzte. Beste urte askotan gertatutakoaren kontrara, 2018an urte arteko aldakuntza oso neurritsuak izan dira; gariak epe luzerako joerarekin (goranzkoa) jarraitu du, eta beste batzuk maila egonkor baten (garagarraren edo oloaren kasua) edo beheranzko joera (alpapa) baten barruan daude. 2018an, artoak aurreko ekitaldietako bilakaera pixka bat hautsi du, bazka-erabilera moteldu eta erabilera orokorreko, edo beste erabilera batzuetako, artoak gora egin duelako.

Gehien ekoizten den barazkia tomatea da, epe luzera geldialdia erakusten duena. Pisua kontuan hartuta bigarren garrantzitsuena brokolia da, eta aurten ere ez du aldaketa azpimarragarririk izan. Bi barazki horietan ez bezala, 2018an beste batzuetan aldaketa nabariak izan dira, azalorea, zainzuriak eta tipulak jasandako igoerak edo piperraren, lekaren eta espinakaren jaitsierak, esaterako. Azken hori da, azalorea eta ilarrarekin batera, estatu-mailan euskal ortuarentzat pisu erlatibo handiena duen produktua.

Fruta-arbolen kasuan ere ohiko kontrasteak hautematen dira; igoera oso nabarmenak izan dira, sagardo-sagarrarena esaterako (aurreko urteko tona-kopurua baino ia % 74 gehiago, estatistika horren arabera, bi urteko jaitsieren ostean goranzko joerara bueltatuz). Udareak eta arbendolak, berriz, behera egin dute. Mertzikaren jaitsiera txikiagoa da, baina nabariagoa, epe luzerako joera delako.

Tuberkuluek eta plantazio-industrialek, patata eta erremolatxa buru dutela, pisu garrantzitsua dute baita ere, eta 2018an beherakada garrantzitsuak izan dituzte. Lehenaren kasuan, jaitsierak eboluzio oso ezegonkorraren baitan aurreko urtean izandako igoera moteltzen du; bigarrenaren kasuan, berriz, epe luzerako beherazko joera ikusten da.

Gogoratu behar da, denbora tarte zabalago batetik begiratuta, produktu horietako batzuk goranzko joera oso handietatik datozela, brokolia, piperra, azalorea, leka edo ilar berdea, esaterako. Horietatik aipatu behar da 2018an azalorea bakarrik nabarmendu dela goranzko joera horri jarraitutasun indartsua emateagatik; gainerakoek hazkunde estrukturalaren joera moteldu dute.

Epe luzera duen jarraitutasunagatik, gogoratzea merezi du Nafarroak ekoiztutako tona-kopuruaren aldagaian duen pisu handia; EAE eta Nafarroa osoko ekoizpenaren ia gehiengo hartzen du, EAEn garrantzi handiagoa duten salbuespen tipikoen kasuan izan ezik: sagardo-sagarra, patata eta erremolatxa. Bitartean, gutxi dira bi lurraldeen artean parekotasuna duten produktuak. Horien adibideak letxuga edo ardoa dira. Azkenaren

kasuan, jakina denez, Ebro ibaiaren inguruko eskualdeetan, bi lurraldeetan ekoizpen handiak daude.

**158. koadroa EAE eta Nafarroako produktu esanguratsuenekin landatutako azalera\***

(ha)

Produktua	2017	2018**	%Δ 18/17	% EAE eta Naf./ Espainia 2018
<b>Zerealak</b>				
– Garia	98.066	102.571	4,6	5,0
– Garagarra	99.509	96.678	-2,8	3,8
– Oloa	20.418	17.767	-13,0	3,2
– Artoa	13.827	13.681	-1,1	4,2
<b>Bazka-laboreak</b>				
– Bazka-artoa	5.028	5.159	2,6	4,8
– Alpapa	7.102	6.530	-8,1	2,5
<b>Barazkiak</b>				
– Zainzuria	1.789	1.686	-5,8	12,2
– Letxuga	906	862	-4,9	2,7
– Espinaka	1.019	847	-16,9	18,8
– Tomatea	2.348	2.221	-5,4	4,0
– Piperra	1.385	1.282	-7,4	5,9
– Orburua	1.270	1.328	4,6	8,5
– Azalorea	1.256	1.729	37,7	25,2
– Brokolia	5.799	6.007	3,6	17,9
– Tipula	372	413	11,0	1,7
– Leka	1.584	1.288	-18,7	15,6
– Ilar berdea	2.827	2.352	-16,8	17,1
<b>Patata</b>	2.156	1.983	-8,0	3,0
<b>Azukre-erremolatxa</b>	2.050	2.100	2,4	5,9

(\*): Balioespenak.

(\*\*): Behin-behineko datuak.

Oharra: Ez dira sartu mahastizaintzaren eta fruta-arbolen azalerei buruzko datuak, horien argitalpenaren nahitaezko maiztasun mugatuagatik (bost urtekoa).

Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina.

Iturri berdinak emandako datuen arabera, eskainitako hektarea kopuruan aldaketak, aldagaiaren naturagatik, txikiagoak dira, baina, adibidez, azaloreak, dagoeneko aipatutako igoera handiarekin, adierazle honetan ere garrantzia hartzen du. Bere kasuan, gainera, buelta ematen dio aurreko urteko jaitsiera handiari.

Letxugak beheranzko joeran jarraitzen du; azken urteetan asko areagotutako brokoliari eskainitako lurra gorakada handiarekin dirau. Bitartean, lekak eta ilar berdeak goranzko joera une batez eten dute.

Epe luzerako joera moduan -nahiz eta arinak izan-, mantendu egin da alkatxofari eskainitako lur kopuruaren hazkundera; patatari eskainitakoa, berriz, jaitsi egin da. Zerealei dagokienez, aldagai honek egonkortasuna erakusten du epe luzerako analisian,

eta 2018an soilik oloaren neurritasuna da nabari, aurreko bi urteetan igoerak izan baitzituen.

Estatuko guztizkoan duten kuotari erreparatuta, ekoiztutako kopuruen kasuan aipatutako produktu berdinak nabarmentzen dira, adierazgarriena azalorearen parte-hartzea izanik (bereziki 2018ko gorakadaren ostean, Estatuan ekoiztutako laurdena baino gehiago baita). Halaber, % 15 eta % 20 artean dauden beste barazki batzuk, leka, ilarra, espinaka eta brokolia dira, besteak beste.

**159. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenek lortutako errendimenduak\***

(Tm/ha)

Produktua	EAE eta Nafarroa		Espainia	
	2017	2018**	2017	2018**
<b>Zerealak</b>				
– Garia	4,8	5,0	5,2	5,1
– Garagarra	3,8	3,8	4,3	4,1
– Oloa	3,7	3,2	4,3	4,8
– Artoa	4,1	4,2	10,9	11,9
<b>Bazka-laboreak</b>				
– Bazka-artoa	4,7	4,8	46,3	43,8
– Alpapa	2,7	2,5	44,6	45,5
<b>Barazkiak</b>				
– Zainzuria	13,0	12,2	3,4	4,0
– Letxuga	2,6	2,7	23,2	21,8
– Espinaka	23,4	18,8	20,6	16,1
– Tomatea	3,9	4,0	65,5	69,2
– Piperra	6,8	5,9	27,7	25,7
– Orburua	7,7	8,5	13,0	12,8
– Azalorea	19,4	25,2	22,4	23,2
– Brokolia	17,6	17,9	13,4	12,8
– Tipula	1,5	1,7	47,4	50,9
– Leka	18,6	15,6	12,9	9,9
– Ilar berdea	19,8	17,1	7,7	7,5
<b>Patata</b>	3,0	3,0	37,8	33,4
<b>Azukre-erremolatxa</b>	5,6	5,9	101,5	71,9

(\*): Balioespenak.

(\*\*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina.

Tona-kopuruari eta azalerari buruzko datuek hirugarren analisi bat egiteko aukera ematen dute: hektarearen araberako errendimendua. Hemen azpimarratu behar dira datuen aldakortasun estruktural txikiagoa eta EAE eta Nafarroako eta Estatuoko emaitzen arteko alde handiak, lurraldeetako modelo eta planteamendu produktiboen artean desberdintasun nabarmenak daudela erakusten dutenak (adibide asko daude: artoa, alpapa, zainzuria, letxuga, tomatea, piperra, tipula, patata eta orburua, besteak beste). Nabaria da gure esparru hurbilenean labore batzuk, zainzuria, adibidez, oso



teknifikatuta eta industrializatuta daudela, zerrendatutako gehienek kasuan kontrakoa gertatzen den bitartean, tokiko laborantza hain intentsiboak ez diren metodoetara, metodo tradizionaletara, lotuta dagoelako, kasu batzuetan kantitatearen ordez kalitatea bilatuz.

2018an, lurraldeen arteko aldakortasun neurritsuen barruan, azpimarratu behar da leka eta espinakaren kasuan errendimendua nola jaitsi den. EAE eta Nafarroan azalorearena baino ez da igo, gainerako estatistikan oso egonkor eta antzera mantenduz. Ratio hauen aldakortasunek epe luzera egonkortasuna erakusten dute, nahiz eta batzuen kasuan urtetik urterako aldakuntzak oso deigarriak izan; hala ere, azkenean lehengoratu ohi dira.

## 2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK

Prezio-kontuetan, aurreko panelen antzeko produktuen lagin bat hartzen da, Nafarroako datuak ardatz izanik; bertako estatistika ofizialak urte bakoitzaren amaierako balioztapenaren argazkia eskaintzen du.

2018an, kapituluaren hasieran adierazi den moduan, lehendabizi azpimarratu behar da ardoen garestitze bitxia, gaingiroki urtebetean mahastizainek hektolitroko jasotako prezioa bikoiztu baita.

Zerealaren kasuan igoera txikiak ikusten dira, epe luzerako egoera egonkor baten barruan. Bestalde, jaitsiera handiak izan dira barazki batzuetan, aza, azalore, ilar, tipula edo lekaren kasuan, adibidez, eta fruta-arbolen barruan arbendolak izandakoa gehitu beharko litzateke. Horren aurrean igoerak (neurritsuagoak) daude, letxuga, piper edo sagarrarena, besteak beste. Mertzika, lehen epe luzerako ekoizpenean jaitsiera izandako fruten barruan sartu duguna, ardoaz aparte balioa gehien handitu duen produktua da.

Hala ere, epe luzerako analisia eginez gero, goranzko joera txikitik erabat irtendako lekaren kasua ere ez da disrupzio kezkarria. Izan ere, hori gertatzen da kontsultatutako estatistikan hileroko erabilaren arabera bereizitako prezioak erregistratuta geratzen direlako; hau da, fresko kontsumitu beharreko lekaren kasu zehatzean, produktua askoz hobeto ordaintzen da fresko kontsumitzera zuzentzen bada erabilera industrialera zuzentzen bada baino, eta kasu horretan urte bukaeran jasotako hileroko prezioa okerra da, kontsumo errentagarrienaren datua (fresko kontsumitzearena) erregistratuta geratu ez delako; industrialera da erregistratutako bakarra.

Aldiz, produktu horrekin lotutako beste produktu bat, ilar berdea, jaitsi egin da, 2018an iraupen handiagoko beheranzko joera baten baitan kokatzen dena. Beste kasu bitxi bat aipatutako arbendolarena da; azken hiru ekitaldietan prezio normaletara bueltatu da, hiru urteetan bere prezioak ezohiko gorakada izan eta gero.

Zabaltasun handiagoko balioztapen horiek zaildu egiten dira tuberkulu eta laborantza industrialaren kasuan; izan ere, azken bi ekitaldietan prezioen datuak bi tipologia ezberdinentzat berezita eskaini dira patataren kasuan; erremolatxaren kasuan, aldiz, aipatutako iturriak ez du daturik eskaini.

**160. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenen prezioak<sup>(\*)</sup>**

Produktua	Nekazariak jasotako prezioak (euro/100 kg)		
	2017	2018	% Δ 18/17
<b>Zerealak</b>			
– Garia	17,64	18,84	6,8
– Garagarra	16,39	17,89	9,2
– Oloa	14,92	14,99	0,5
– Artoa	17,34	17,84	2,9
<b>Bazka-laboreak</b>			
– Alpapa	13,50	11,02	-18,4
<b>Barazkiak</b>			
– (Buru-)jaza	44,00	24,35	-44,7
– Zainzuria	323,30	324,35	0,3
– Letxuga	51,15	59,81	16,9
– Espinaka	66,85	71,47	6,9
– Tomatea	11,36	11,14	-1,9
– Piperra	65,78	76,06	15,6
– Orburua	92,83	83,22	-10,4
– Azalorea	49,34	35,90	-27,2
– Brokolia	62,75	56,40	-10,1
– Tipula	25,17	25,2	-42,4
– Leka	151,24	46,50	-69,3
– ilar berdea	46,46	25,2	-45,8
<b>Fruta-arbolak</b>			
– Sagarra	46,00	53,88	17,1
– Udarea	60,59	54,97	-9,3
– Mertzika	29,96	47,31	57,9
– Arbendola	146,23	96,19	-34,2
<b>Ardoa (euro/Hl)</b>			
– Ardo zuri berria	56,66	110,22	114,0
– Ardo beltz berria	44,90	96,09	94,5
<b>Patata (sasoi erdikoa)</b>	45,00	39,65	-11,9
<b>Patata (berantiarra)</b>	24,00	24,94	3,9
<b>Azukre-erremolatxa</b>	4,07	-	-

(\*): *Balioespenak.*

*Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko, Toki Administrazioako eta Ingurumeneko Departamentua.*

### 3. ABELTZAINZAREN AZPISEKTOREA

#### 3.1 ABELTZAINZA-ERROLDA

Abeltzaintza sektorea da Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan historikoki errotutako beste jarduera mota bat. Abeltzaintzako 4azienda nagusiak batuz, esne, haragi edo bien ekoizpenera zuzendutako 1,65 milioi animalia daude. Duela hamarkada bat baino % 14,2 gutxiago dira. Jaitsiera ardi-aziendan eman da batez ere, baina oraindik ereazienda handiena da, guztiaren % 42,9arekin; txerri-azienda % 39,1, behi-azienda % 15,6 eta ahuntz-azienda % 2,4 dira errola osatzen dutenak (Estatuan txerri-azienda da nagusi, aipatutakoak % 28,3, % 55,1, % 11,6 eta % 4,9 izanda, hurrenez hurren).

161. koadroa Abeltzaintza-errola (urte guztietako azaroaren 30ean)

Eremua	Urtea	<i>(abelburuak)</i>			
		Behi-azienda	Ardi-azienda	Ahuntz-azienda	Txerri-azienda
EAE	2013	138.245	274.490	28.096	21.761
	2014	141.979	263.796	28.023	24.800
	2015	135.569	259.454	26.410	27.124
	2016	136.510	253.660	28.732	32.348
	2017	137.339	239.265	27.438	34.895
	2018	134.611	229.795	26.695	35.773
Nafarroa	2013	110.425	542.319	12.435	447.849
	2014	114.030	527.890	12.708	546.356
	2015	116.223	516.469	12.968	528.764
	2016	115.737	508.138	12.985	647.096
	2017	122.293	498.116	13.010	650.250
	2018	122.566	480.251	12.947	610.897
EAE eta Nafarroa	2013	248.670	816.809	40.531	469.610
	2014	256.009	791.686	40.731	571.156
	2015	259.454	775.923	39.378	516.469
	2016	252.247	761.798	41.717	679.444
	2017	259.632	737.381	40.448	685.145
	2018	257.177	710.046	39.642	646.670
Espainia	2013	5.696.907	16.118.586	2.609.989	25.494.715
	2014	6.078.733	15.431.804	2.704.229	26.567.578
	2015	6.182.908	16.522.956	3.009.582	28.367.335
	2016	6.257.057	15.962.892	3.088.035	29.231.595
	2017	6.465.747	15.963.106	3.059.731	29.971.357
	2018	6.510.592	15.852.525	2.764.790	30.804.102
% EAE eta Naf./Espainia	2018	% 4,0	% 4,5	% 1,4	% 2,1

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

2008. urtearekin alderatuta, 2018an txerri-azienda % 11,5 handiagoa da, eta behi-azienda antzeko magnitude batean dago (hamarkadan % 3,8 jaitsi eta gero). Estatuan, hamarkadan aldaketa hauek izan dira: +% 8,1 (behi-azienda), -% 20,5 (ardi-azienda), -% 6,6 (ahuntz-azienda) eta +% 18,4 (txerri-azienda). Jakinaenez,

Estatuko txerri-produktuak, nazioartean ere duten balorazio handiarekin, ez dira aurrerapen horietatik at geratu.

Erkidego batetik bestera ezberdintasun handiena txerri- eta ardi-azienden kasuan dago; Nafarroan txerri-azienda 17 aldiz handiagoa da, eta ardi-azienda bikoitza da. EAEn, aldiz, behi-azienda % 9,8 handiagoa da, eta ahuntz-azienda Foru Komunitatearen bikoitza. Nafarroan, espezie guztietan mantentze eta hazkunderako joera nabarmenagoa ikusten da EAEn baino, eta eboluzio horien profil bateratua Estatukoaren antzekoagoa da.

Aurreko ekitaldi batzuetan gertatu bezala, EAE eta Nafarroa osoari dagokionez, 2018an 4 aziendak jaitsi dira (-% 0,9 behi-azienda, -% 3,7 ardi-azienda, -% 2 ahuntz-azienda eta -% 5,6 txerri-azienda).

2018. urtea izan da ardi- eta txerri-azienden erroldan 2011tik ehunekoetan jaitziera handiena hautemandako urtea, Nafarroan ahuntz-aziendarekin gauza bera gertatuz.

## 3.2 ABERE-EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK

### Esne-ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

Erroldarekin gertatu bezala, Nafarroan esne-negozioa pixka bat igo da ekoiztutako esne-litroak aztertuz gero; EAEn, berriz, aldaketak txikiagoak izan dira. Gauzak horrela, 2011. urtetik, Foru Komunitateak EAEk baino esne gehiago ekoizten du, eta bertan epe horretan ekoizpena % 32,7 areagotu da, Araban % 0,3, Bizkaian % 7,5, Gipuzkoan % 3,5 eta EAE osoan % 3,9 baino igo ez den bitartean. Arabak litroen % 11,6 ematen du, Bizkaiak % 13,9, Gipuzkoak % 17,4 eta Nafarroak % 57,1.

Guztira, 2018an bolumena % 1,5 handitu da Nafarroan; EAEn, berriz, % 1,6 egin du atzera. Horrela, hazkunde bateratua % 0,1ekoa izan da. Beraz, Nafarroan ardi- eta behi-esnearen bolumenek gora egin dute, aurreko hamarkada ia guztian gertatu bezala. 2017an, ekoizpena pixka bat gelditu zen, behi- zein ardi-esnearen kasuan.

Oraindik ere, esnea gutxi gorabehera EAE eta Nafarroako abere-produkzioaren herena da, haragiaren ekoizpenetik gertu kokatuz. Estatuan balantzea oso ezberdina da, esnea guztizkoaren seirena baino gutxiago eta haragia ia % 75 baitira.

EAE eta Nafarroan, behi-esnea ekoizpen guztiaren % 94 da, eta ardi-esnearen negozioa askoz txikiagoa da (bolumen osoaren % 5,7); haatik, Nafarroan hazkunde jarraitua eta irmoa dauka, EAEn baino askoz argiagoa, eta, era berean, nagusi den behi-produktuaren

kasuan baino nabariagoa. Ahuntz-esnearen ekoizpena, aldiz, askoz txikiagoa da (% 0,2) eta ekoizpena bereziki Bizkaian igo zen 2014an; orduz geroztik, hazkundeak ez du jarraikortasun nabarmenik izan.

### 162. koadroa Esne-ekoizpena

						(m litro)
Urtea	Eremua	Behia	Ardia	Ahuntza	Guztira	
2016	Araba	46.367	2.726	139	49.231	
	Bizkaia	58.794	1.622	443	60.859	
	Gipuzkoa	74.065	5.085	199	79.349	
	EAE	179.226	9.432	781	189.439	
	Nafarroa	239.499	15.432	255	255.185	
	EAE eta Naf.	418.724	24.864	1.036	444.624	
2017	Araba	49.379	3.023	136	52.538	
	Bizkaia	62.063	1.689	423	64.175	
	Gipuzkoa	74.573	5.188	208	79.969	
	EAE	186.015	9.898	769	196.682	
	Nafarroa	238.643	15.043	297	253.984	
	EAE eta Naf.	424.658	24.942	1.066	450.666	
2018	Araba	49.014	2.994	163	52.170	
	Bizkaia	60.553	1.727	467	62.748	
	Gipuzkoa	73.070	5.393	167	78.630	
	EAE	182.637	10.114	797	193.548	
	Nafarroa	241.712	15.752	274	257.738	
	EAE eta Naf.	424.349	25.866	1.071	451.286	

*Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiararen Garapen eta Azpiegitura Sailaren Sektoreen Estatistika eta Analisia Zerbitzua. Nafarroako Gobernua. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.*

Euskal Autonomia Erkidegoan, datuek zehazten dute behi-esnearen bolumenaren % 2,7 zekor-hazkuntzara, % 0,7 ekoizleen barne-kontsumora (% 0,4 ardi-aziendaren kasuan), % 2 zuzeneko salmentara (% 4,9 ardi-aziendan) eta % 94,6 esne-zentralen salmentara (ardi-esnearen kasuan % 36,7, % 57,9 gazta egiteko erabiltzen baita) zuzentzen dela. Epe luzera, behi-aziendaren kasuan esnearen komertzializazio industrialak eta ardi-aziendaren kasuan gazta ekoizpena dira goranzko joera dutenak, besteen kalterako.

**163. koadroa EAEn ekoiztutako esnearen erabilera**

Erabilera	2016	2017	2018	%Δ 18/17
<i>(m litro)</i>				
<b>Behi-azienda</b>	<b>179.226</b>	<b>186.014</b>	<b>182.637</b>	<b>-1,8</b>
– Zekor-hazkuntza	4.970	5.086	4.850	-4,6
– Pertsonen kontsumoa ustiatégian	1.432	1.393	1.315	-5,6
– Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei	3.547	3.876	3.627	-6,4
– Salmenta esne-zentralei	169.277	175.659	172.845	-1,6
<b>Ardi-azienda</b>	<b>9.432</b>	<b>9.898</b>	<b>10.114</b>	<b>2,2</b>
– Gazta	5.013	5.801	5.857	1,0
– Pertsonen kontsumoa ustiatégian	37	42	42	0,7
– Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei	454	464	499	7,5
– Salmenta esne-zentralei	3.928	3.591	3.716	3,5
<b>Gutzira</b>	<b>188.658</b>	<b>195.912</b>	<b>192.751</b>	<b>-1,6</b>
– Zekor-hazkuntza	4.970	5.086	4.850	-4,6
– Gazta	5.013	5.801	5.857	1,0
– Pertsonen kontsumoa ustiatégian	1.469	1.435	1.357	-5,4
– Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei	4.001	4.340	4.126	-4,9
– Salmenta esne-zentralei	173.205	179.251	176.561	-1,5

*Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia-aren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Sektoreen Estatistika eta Análisis Zerbitzua.*

Bizkaian, Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan behi-azientetako esne-ustiatégietan etengabe laginketak egiten dituzten institutuak daude; emaitzen konparazioak egin eta emaitza ekonomiko adierazgarrienen eboluzioa monitorizatzeko aukera ematen dute.

Horri esker, jakin dezakegu Arabako abeltegiak direla handienak eta batez beste behi gehien dituztenak, animalia bakoitzeko litro gehien ekoizten dituztenak eta animalia bakoitzeko lur gehien dituztenak. Agian horren ondorioz, bertan, behi bakoitzeko balioa (eurotan) handiena da urtez urte; ondoren, Nafarroa dator Gipuzkoaren aurretik, Bizkaia azken lekuan geratuz. 2012. eta 2014. urteen bitartean, lurralde guztiek igoera garrantzitsuak izan zituzten animalia bakoitzeko balioari dagokionez, eta orduz geroztik egonkortasuna mantendu dute, lurraldeen rankingean arestian aipatutako posizioak mantenduz. Kasu guztietan, behi bakoitzeko urteko 3.000 eta 3.400 euro bitartean daude.

2018an, aurreko urteetan bezala, datu hori oso gutxi aldatu da: % 1,1 igo da lagin bizkaitarra eta % 1,2 Nafarroakoa; Gipuzkoakoa % 2,5 eta Arabakoa % 1,4 jaitsi dira. Lau kasuetan 2015-2018 hirurtekoan antzeko balioak mantendu dira.

164. koadroa      Esnea ekoizten duten elitoko behi-ustiategi batzuetan egindako lagin baten emaitza

Kontzeptua	Lurgintza (Gipuzkoa)		Lorra (Bizkaia)		Aberre (Araba)		INTIA-ITG (Nafarroa)	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018
<b>Datu teknikoak</b>								
- Lagin kopurua ustiategiko	35	35	61	61	38	41	49	46
- Behi kopurua	1.954	1.953	4.432	4.295	4.070	4.076	5.763	5.554
- Ha. NAE/ustiategi	24,0	24,1	35,8	34,3	74,8	73,4	46,2	47,1
- Behi/ustiategi	55,8	55,8	72,7	70,4	111,5	111,1	117,6	120,7
- Behi/ha.	2,3	2,3	2,1	2,1	1,5	1,5	2,5	2,6
- Ekoizpen eta bazka gastuak (euro/ha)	354,42	399,68	214,68	241,11	426,44	523,09	723,70	661,0
<b>Prezioak eta etekinak</b>								
- Esnearen prezioa (euro/1.000 l)	355,04	350,55	353,58	348,84	342,38	333,00	336,19	335,28
- Esne-ekoizpena litro/behi	8.844	8.731	8.357	8.560	9.972	10.105	9.636	9.777

*Iturria: EAEko lurralde bakoitzeko nekazaritzako eta abeltzaintzako zentro kooperatiboen eta Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Institutua S.A.-k (INTIA, ITG dibisioa) eskainitako estatistikak.*

Ardi-esnearen kasuan, Aberre arabarrak eta INTIA-ITG nafarrak antzeko datuak eskaintzen dituzte, baina emaitza-kontuko aldagai enpresarialen bidez zehaztuta.

Nafarroako ardi-aziendan, 2015ean ratioak hobetu ziren, eta orduz geroztik egonkor eutsi diote: animalia bakoitzeko marjina antzeko mailan mantentzen da. Gastu finkoak eta aldakorrek egonkor mantendu dira epe horretan zehar; ustiategiko diru-sarrerek zein dirulaguntzek igoera txikia eta orekatua izan zuten azken ekitaldian. Horrela, balantzea positiboa da, eta azpisektoreak sendotasuna erakusten du.

Arabako laginari dagokionez, azken urteetan marjina garbia etengabe igo zen (2012tik 2017ra bitartean % 83,7 haziz), eta 2018an joera hori hautsi da % 8,6ko beherakadarekin. Hori gertatu da gehienbat elikadurarekin loturarik ez duten gastu aldakorretan izandako ezohiko igoeragatik eta dirulaguntzetan izandako jaitsieragatik. Azken horiek ekitaldi honetan batezbesteko arabarraren eta nafarraren artean zegoen aldea murriztu dute. Hala ere, Araban ardi eta lanorduen araberako marjina garbiak are gehiago hobetu dira, pixka bat okerragoa izandako Nafarroako laginarekin aldea handituz.

**165. koadroa ABEREk eta INTIA-ITGk kudeatutako ardi-esne ustiategien batezbesteko emaitza ekonomikoak**

Kontzeptua	ABERE		INTIA-ITG	
	2017	2018	2017	2018
<b>Datu tekniko-ekonomikoak</b>				
– Ustiategien laginak	28	25	29	27
– Eskulana (GLU) ustiategiko	1,82	1,75	1,9	1,9
– Ardi kopurua ustiategiko	359	353	358	360
– Azalera Ha.	73,4	76,0	25,0	26,1
– Esne-ekoizpena (litro/ardi)	---	---	146	146
– Esnearen prezioa (euro/1.000 litro)	---	---	1.579,87	1.545,93
<b>Ekoizpena eta emaitzak (euro)</b>				
Produktu gordina	115.340	110.187	97.323	94.032
- Elikadura-gastuak	25.534	23.006	25.433	25.318
- Gastu aldakorrak	11.731	19.039	8.773	9.674
= Marjina gordina	78.077	68.142	69.085	68.904
+ Dirulaguntzak	30.624	23.807	5.969	9.864
- Gastu finkoak eta langileenak	63.810	62.973	35.908	37.770
= Marjina garbia	44.891	47.469	33.177	31.133
<b>Emaitzak unitarioak (euro)</b>				
– Marjina garbia / ardi	125,05	134,47	92,61	86,38
– Marjina garbia / GLU	24,666	27,069	20,961	18,890

*Iturria: Abere eta Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Institutua (INTIA, ITG dibisioa).*

**Haragi-ekoizpena eta emaitza ekonomikoak**

Haragi-ekoizpenari buruzko datu ofizialak lotuta daude abereen hiltegien kokalekuarekin. Esparru horretan, azkenaldiko aldaketa azpimarragarriena Foru Komunitateko ekoizpen nagusienetakoa izandako baten beherakada handia izan da; txerri-haragiari buruz ari gara. 2017an funtzionatzeari utzi zion animalia horri buruzko lerro nagusiak, eta produktu horren datua, garai batean hegazti-ekoizpenarekin alderatu zitekeena, behi-, ardi-, untxi-edota zaldi-ekoizpenaren azpitik dago, eta ia-ia desagertu da. Aurrerago ikusten den grafikoak eboluzio hori erakusten du epe luzerako konparazioak eginez, eta aurreko urtean hartutako erabaki industrial horren eragina argi eta garbi islatzen du.

Aldaketa horrek EAE eta Nafarroan hegazti-haragiaren ekoizpena sektorearen ardatzean indartzen du, EAEn edo Nafarroan hildako guztiaren % 79,2 (7 espezie adierazgarrienen batuketan) bereganatuz. Gainera, hegazti-ekoizpenak urteak daramatza hazkunde-erritmo handiarekin: gutxi barru, duela hamarkada bat (hildako animalien erdia baino gutxiago zenean) ekoiztutako tona-kopurua bikoiztu daiteke. Behi-haragiak % 11,4ko kuota dauka, eta gainerakoek parte-hartze askoz txikiagoa dute: untxiak % 2,7, ardiak % 2,2, txerriak –aipatutako aldaketaren ostean– % 2,2 eta zaldiak % 2,1, nahiz eta Nafarroan Estatuko ekoizpen handienetakoa egon.



## 166. koadroa EAE eta Nafarroan hildako azientaren kanaleko pisua

(Tm)

Urtea	Behi- azienda	Ardi- azienda	Ahuntz- azienda	Txerri- azienda	Zaldi- azienda	Hegaztiak	Untxiak	Guztira
2009	28.856	4.659	35	50.123	1.352	89.003	3718,80	177.747
2010	26.219	4.372	41	41.577	1.787	77.571	3978,44	155.545
2011	25.741	4.339	30	41.043	2.264	88.144	4207,08	165.769
2012	21.548	3.806	29	40.856	2.725	97.062	4418,27	170.443
2013	21.067	4.217	30	37.607	2.596	102.444	4322,79	172.284
2014	19.715	4.093	44	37.706	2.655	103.667	4423,00	172.303
2015	12.461	3.868	44	34.827	3.359	103.518	4612,00	162.689
2016	18.029	4.071	42	23.379	3.532	116.739	4.440	170.233
2017	17.808	3.741	63	3.318	3.765	112.612	4.423	145.730
2018	18.117	3.825	60	3.551	3.328	125.866	4.224	158.970
% EAE eta Naf./Esp. 2018.	2,7	3,2	0,5	0,1	32,6	7,7	7,6	2,3

Iturria: Abeltzaintzako inkestak. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.


Mende honetan zehar, hildako behien tona-kopurua etengabe murrizten joan da (2000. urtean zegoenaren erdia baino gutxiago dago), eta ardiekin antzeko zerbait gertatu da. Batez ere Nafarroan dagoen txerri-azientak aldaketa gehiago izan zituen epe horretan zehar, aipatutako 2017ko deslokalizazio produktiboa heldu arte maila garrantzitsuak mantenduz. Zaldi-azientaren tona-kopurua, ordea, hirukoiztu da hamarkada batean zehar; untxiarena antzeko mailan mantendu da epe berean. Ahuntz-azientak askoz garrantzi gutxiago dauka; 2017an jauzi handia eman zuen, baina 2018an egoera moteldu da.

2018an, EAE eta Nafarroan aldaketa hauek izan dira: behi-azienda % 1,7, ardi-azienda % 2,2, ahuntz-azienda -% 5, txerri-azienda % 7, zaldi-azienda -% 11,6, hegaztiak % 11,8 eta untxia -% 4,5. Horrela, produktu batzuen kasuan ez da kontraesanik izan adierazitako epe luzerako joerei dagokienez, baina ekoizpen nagusiaren (hegaztiak) progresioak eritmo oso jarraitua izan du.

EAE eta Nafarroaren artean alde batzuk daude. Nagusiena behien hilketan dago; lehen lurraldean haragi guztiaren % 30,8 den bitartean, bigarreanean % 4,9 baino ez da.

28. grafikoa EAE eta Nafarroako abere-ekoizpena, espezieen araberako eboluzioa

(Indizea 1990=100)



Iturria: Eusko Jaurjaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa. Nafarroako Gobernua. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.

Haragi-ekoizpenari dagokionean, aurrez aztertutako esnearen kasuan bezala, INTIA-ITG institutuak haragitarako hazitako behi- eta ardi-aziendaren laginketa bat egiten du. Nahiz eta aldatzen doazen lagin independenteak izan, 2018an berritasun bat hauteman da: ardi-aziendaren laginak behi-aziendaren negozioak baino diru-sarrera handiagoak zenbatetsi ditu. Epe luzerako balantzeak positiboagoa eta hazkunde jarraituak irmoagoa dirudi ardi-aziendaren kasuan behi-aziendarenean baino, aurreko hamarkadako antzeko laginketen datuak aztertzen badira. Ikusi daiteke behi-aziendaren azpisektoreak mantentzeko arazoak dituela, ardi-aziendak babes publiko handiagoa izan eta hori jarduera indartzeko erabiltzen ari den bitartean.

Egiazki, 2018an dirulaguntzak beste urte batzuetan baino nabarmen handiagoak izan dira, eta horiei esker ardi-aziendaren azpisektoreak marjina garbi positiboa lortu du. Kontrara, aztertutako behi-aziendako ekoizleak ez dira dirulaguntzekin ere kontuak koadratzeko gai izan; azken hamarkadan askotan egon dira galerak izatetik hurbil, eta 2018an azkenaldiko emaitza txarrena eskuratu dute. Arazoaren parte handiena salmentengatik diru-sarreretan izandako beherapenaren ondorioz etorri da, baina, hala ere, 2017ko murrizketa baino txikiagoa izan da. Behi-aziendaren marjina gordina/produktu gordina ratioa % 40an kokatu da, epe luzean izandako geldiene handiena emanda. Ardi-aziendarena, ordea, azken urteetan igotzen joan da, eta % 57,2an

finkatu da. Hori guztia bi negoziotan haragiaren prezioa gutxi gorabehera 4 euro/kilokoa izanda.

**167. koadroa Abere eta INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden haragitarako behi- eta ardi-ustiategien emaitzak**

Kontzeptua	ABERE		INTIA-ITG			
	Behi-haragia		Behi-haragia		Ardi-haragia	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
<b>Datu tekniko-ekonomikoak</b>						
- Ustiategien laginak	74	72	28	25	28	30
- Eskulana (GLU)	0,9	0,9	1,1	1,1	1,2	1,2
- Behia/Ardi kopurua ustiategiko	52	59	71	69	670	718
- Azalera Ha.	74,2	93,0	36,5	34,1	39,0	36,0
- Txahal/arkume ekoizpena, kg. behi/ardiko <sup>(*)</sup>	---	---	220,5	208,9	19,7	20,1
- Txahal/arkume salneurria kiloko	---	---	3,99	4,04	3,82	3,80
<b>Ekoizpena eta emaitzak (euro)</b>						
- Produktu gordina	44.338	41.647	72.327	66.707	55.142	59.393
- Elikadura-gastuak	17.906	21.584	36.367	36.818	28.597	35.919
- Gastu aldakorak	7.145	6.077	13.898	15.687	8.368	10.364
= Marjina gordina	19.287	13.987	31.852	26.713	29.008	33.981
+ Dirulaguntzak	22.572	26.351	9.789	12.511	10.831	20.871
- Gastu finkoak eta langileenak	24.517	28.883	31.053	35.068	19.392	22.882
= Marjina garbia	17.341	19.086	799	-8.355	9.616	11.099
<b>Emaitza unitarioak (euro)</b>						
- Marjina garbia behia/ardia	230,60	320,87	11,23	-121,36	14,35	15,45
- Marjina garbia GLU	13.367	21.937	738	-7.609	8.548	10.341

(\*): Haragi kiloak: Behi-haragi kiloak kanalean. Ardi-haragi kiloak bizirik.

Iturria: Abere eta Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Institutua SA (INTIA, ITG dibisioa).

Arabako laginak egoera hobea erakusten du, eskura daukagun segidan marjina garbia bere balio maximoetan egonik, nahiz eta azken bi urteetako ia emaitza bera izan. Gastuetan zein diru-sarreretan goranzko joerak ikusten dira –nahiz eta urteen artean gorabehera ugari egon–, 2018an maximo berrietara helduz. Hala ere, diru-sarrerek, Nafarroakoak baino ugariagoak direnak, emaitzan eragin handia dute. Horiei esker marjina egokiak lortu dira animalia bakoitzeko, eta maila positiboari eusten diote, Nafarroako laginean gertatzen ez den bezala.

**168. koadroa INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-aziendako ustiategien emaitzak**

Kontzeptua	Txerrikumeen ekoizpena <sup>(1)</sup>		Ziklo itxia <sup>(2)</sup>	
	2017	2018	2017	2018
<b>Ezaugarri tekniko-ekonomikoak</b>				
– Aztertutako ustiategi kopurua	10	10	14	14
– Urdanga kopurua ustiategiko	172,3	174,8	392,1	397,8
– Urdanga bakoitz. saldutako txerrikumeak	21,6	22,7	0,9	0,8
– Urdanga bakoitz. saldutako txerri gizenduak	0,3	0,3	21,7	22,5
– Urdanga bakoitz. saldutako txerriak guztira	21,9	23,0	22,6	23,3
– Saldutako txerrikumeen batezbesteko pisua (kg)	20,8	20,8	14,6	12,9
– Saldutako txerri gizenduen batezbesteko pisua (kg)	110,0	111,8	110,2	111,5
– Saldutako txerrikume + txerri gizendu kop.	3.772	4.016	8.846	9.276
– Txerrikumearen batezbesteko salneurria (euro)	46,59	44,23	41,01	36,77
– Txerri kiloaren batezbesteko salneurria (euro/kg)	1,19	1,1	1,19	1,08
– GLU guztira	1,1	1,0	3,2	3,2
<b>Emaitza ekonomikoak (euro)</b>				
– Produktu gordina	196.265,30	191.713,85	1.163.484,78	1.135.847,01
• Gastu aldakorrak	114.902,31	120.729,40	767.305,91	822.184,04
– Marjina gordina	81.362,99	70.984,45	396.178,88	313.662,97
• Gastu finkoak	45.771,47	47.546,53	222.369,26	240.976,57
– Marjina garbia	35.591,52	23.437,92	173.809,61	72.686,39

(1): 3 ustiategik 26,60 kg-ko batezbesteko pisua duten txerrikumeak ekoizten dituzte, eta 7 ustiategik titia kendutako 7,41 kg-ko txerrikumeak saltzen dituzte.

(2): Ustiategi horietan saldutakoaren % 80 baino gehiago txerri gizendua da.

Iturria: Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Institutua SA (INTIA, ITG dibisioa).

Horrez gain, INTIA-ITGk urtero laginketen datuak eskaintzen ditu, ziklo osoko txerritegien eta txerrikumeen ekoizpenean adituak direnen egoerari buruzkoak. Aparteko negozio bat da, 2017an Nafarroak hildako txerri-aziendaren zati gehienaren desagerpenarekin lotuta ez dagoena. Urte hori azkenaldiko onena izan zen azpisektore horrentzat –azken hamarkadako joera positiboaren barruan–, baina 2018an emaitzak moteldu dira aztertutako bi merkatu-hobietan. Hala ere, eskuragarri dagoen serie guztia ikusita, ekitaldi ona izan dela esan daiteke. Aurreko urtean, marjina gordinaren eta produktu gordinaren arteko ratioa % 34,1eko maximora heldu zen, orain % 27,6an geratuz; marjina garbiaren ratioa % 14,9tik % 6,4ra jaitsi da. Saldutako haragia pixka bat, 10 zentimo, merkatu da, kiloko 1,09 euroan kokatuz. Hori nahikoa izan da emaitzak aurreko urtean bezain onak ez izateko.

## 4. BASOGINTZAREN AZPISEKTOREA

Euskadiko basogintzaren azpisektorea albiste izan da 2018an, bere lehengai nagusiak (insignis edo radiata pinua) pairatu duen gaixotasuna dela-eta. Landare-espezie indibidualizatuei dagokienez, pinu-espezie horrek ematen duen egurra Euskadiko nekazaritza-sektoreko produkturik garrantzitsuenak da; izan ere, sektoreko ekoizpenaren balio osoaren % 9,9a bereganatzen du, eta basogintza azpisektorearen % 72a.

Aldaketa klimatikoaren ondorioz udak hezeagoak eta beroagoak izateak areagotu egin du hiru onddo espezieen bidez sortutako infekzioa, eta hori izan da sektore honentzat 2018ko erronkarik handiena, zeina agente askorentzat gero eta estrategikoagoa den, eta zeinetan interes ekonomikoa, soziala, lurraldeen antolamendukoa, teknologikoa eta ingurumenekoa geroz eta handiagoak diren.

Arazoak ez dio mozketaren bolumenari eragin; are gehiago, bolumen hori handitzea ekarri du. 2018an moztutako bolumena hirukoitza izan da duela hamar urte moztu zenarekin konparatzen badugu. Ekoizpen-saltoa 2009 eta 2014 urteen artean gertatu zen, 2009an izandako ekitaldi txarraren ostean; izan ere, hurbileko eremuetan egon zen denboraleak zuhaitz ugari zuztarretik atera zituen eta ondoko herrialdeko egur-merkatua oso prezio baxuetan saturatu zen.

**169. koadroa EAEen egurra mozteko lizentziak**

(m3 a.g. = metro kubiko, azal eta guzti)

Urtea	Eremua	Koniferoak	Hosto-zabalak	Guztira
2016	Araba	107.583	8.625	116.208
	Bizkaia	749.160	200.089	949.249
	Gipuzkoa	579.877	5.132	585.009
	EAE	1.436.620	213.847	1.650.466
2017	Araba	177.960	10.043	188.003
	Bizkaia	756.657	181.044	937.701
	Gipuzkoa	702.709	11.882	714.591
	EAE	1.637.327	202.968	1.840.295
2018	Araba	133.725	4.361	138.086
	Bizkaia	1.308.300	159.934	1.468.234
	Gipuzkoa	1.098.824	13.885	1.112.709
	EAE	2.540.849	178.179	2.719.028

Iturria: *Estatistika eta Analisi Sektorialeko Zerbitzua, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza*

Bazirudien hurrengo urteetan mozketa kopurua geldituz zihoala, 2018an “banda marroiak” sortutako krisiak zuhaitz askoren mozketa ekarri duen arte, egurra aprobetxatu ahal izateko. Izan ere, kasu askotan gertatzen den moduan, gaixotasuna hostoetara hedatu eta egurrari eta haren kalitateari eragin baino lehen moztu nahi da. Hala ere, egurra ez da osorik kaltetzen, eta, gainera, hau kasu batzuetan besterik ez da gertatzen.

Nolanahi ere, sektorearentzako arriskua epe luzekoa da, nahiz eta uste den krisia fumigatze-lanen eta soluzio teknologikoen bidez konpondu ahalko dela.

Aprobetxagarria den moztutako egur kopuruari buruzko datuak hemen aurkeztutako taulan ikus daitezke. Proportzioan egur gutxiago aprobetxatu daiteke, eta horrek, gaixotasunaren garapenak sortzen duen premiarekin batera, Bizkaian eta Gipuzkoan egiten den mozketa modu esanguratsuan handitzea ekarri du. Bestalde, Araban, baso gutxiagoko lurraldea izanik, mozketen kopuruak behera egin du, Euskadiko hegoaldean eta hego-mendebaldean basoak ez baitira hainbeste kaltetu, udak lehorragoak direlako.

#### 170. koadroa EAEn egurra mozteko lizentziak

(m<sup>3</sup> a.g. = metro kubiko, azal eta guzti)

Espezia	2017	2018	% Δ 18/17
– Pinu gorria	1274	528	-58,5
– Larizio pinua	39.339	49.019	24,6
– Pinaster pinua	23.617	30.013	27,1
– Halepensis pinua	0	0	-
– Radiata pinua (insignis)	1.494.273	2.384.265	59,6
– Beste konifero batzuk	78.825	77.023	-2,3
<b>Koniferoak guztira</b>	<b>1.637.327</b>	<b>2.540.849</b>	<b>55,2</b>
– Makala	3.937	1.002	-74,6
– Eukaliptoia	180.227	161.643	-10,3
– <i>Quercus</i>	7.435	5.275	-29,0
– Beste hostotsu batzuk	11.369	10.260	-9,8
<b>Hosto-zabalak guztira</b>	<b>202.968</b>	<b>178.179</b>	<b>-12,2</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.840.295</b>	<b>2.719.028</b>	<b>47,7</b>

Iturria: Estatistika eta Análisi Sektorialen Zerbitzua, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza

Adierazitako arazoak direla eta, sektoreak 2017an baino % 47,7 gehiago moztu behar izan du (% 59,6 insignis gehiago), aurreko urteko zifrara hurbildu ahal izateko (% 2,4ko beherakada), aprobetxatutako pisuari dagokionez. Horrela, baso-ekoizpenaren balio osoa 2017an lortu zenaren oso antzekoa izan da (-% 0,2). Insignisen egurretik lortu den ekoizpena, eurotan, apur bat gehiago jaitsi da: % 2,6. Hori konpentsatzeko, % 6,7 igo dira gainontzeko ekoizpen txikiak. Pisu garbian, insignis pinua % 2,6 jaitsi da, gainontzeko espezieak % 1,6 eta guztira % 2,4.

Konparaketan, kontuan hartu behar da mozteko lizentziatik eratorritako bolumenak (tauletan jasotako datuak) eta benetan moztutako tonak eta saldutako egurra kontrajartzen direla; azken horiek dira aipatutako makromagnitudeetan kontabilizatzen direnak.

Insignisen egurraren batez besteko prezioa, Euskadin eskaria igo den arren, ez da aldatu (% 0,0); izan ere, merkatuak nazioartekotu egin dira. Hala ere, beste espeziak, guztira, bai garestitu dira (% 8,4), eta horrek, azpisektorean prezioak % 2,2ko igoera izatea ekarri du.

2018an moztutako bolumenak ia berdin egin du gora Bizkaian (% 56,6) eta Gipuzkoan (% 55,7), 2017ko datuekin alderatuz; hala ere, Araban % 26,6 egin du behera. Horrekin, Araban moztutako egurraren pisua oraindik gehiago jaitsi da (-% 5,1). Bitartean, Bizkaia buru da % 54arekin, eta Gipuzkoak, % 40,9arekin jarraitzen dio. Koniferez gain, zuhaitz hosto-zabalen mozketa ere badago, nahiz eta honek duen garrantzia horren esanguratsua ez izan; hain zuzen ere, Gipuzkoan baino ez da egiten eta ez du pinuen mozketa bilakaera partekatzen (2011an zegoen antzeko egoeran mantentzen da). Koniferei dagokienez, 2011tik 2018ra bolumena hirukoiztu egin da.

Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, mozketa edo basogintzaren sektoreak, egurraren lanketarekin batera, Euskadiko BPGaren % 1,5 hartzen du, eta 18.000 pertsona ingururi lana ematen dio. Horrez gain, Euskadiko ingurunearen % 54a zuhaitzez osatua dago, eta zenbateko hori Europako ehuneko altuenetakoa da.

## 5. ARRANTZA-SEKTOREA

### 5.1 IKUSPEGI OROKORRA

Gaur egun, euskal arrantza-sektoreak ematen duen lana duela hamarkada batzuk enplegatzen zituen pertsonen guztizkoaren zati txiki bat baino ez da. Hala ere, kalitatezko produktuaren eskari egonkorra artatzen jarraitzen du, eta indarra izaten dirau, halaber, modu espezializatuan lehiatzeko aukerak sortzen direnean, eskari horren barruan nitxoren bati erantzuteko.

Horren adibide dira autonontzi izoztaile aurreratuak, nagusiki Bermeoko portutik jarduten eta urruneko latitudeetan (esaterako, Indiako Ozeanoko uretan) arrantzatzen dutenak. 2018an, sektoreko jardueraren datu orokorren artean berritasun nabarmenena, hain zuzen ere, euskal ontzidiaren zati honek eginiko ahalegina da.

Mota horretako 6 itsasontzi berri, altura handiko esparruaren barruan, aipaturiko portu bizkaitarrean kontabilizatzen pasa dira. Sektorean, enpresa ezberdinak aritzen dira, eta gaur egun, euskal portuetan bereziki zentratzen direnek ere itsasontziak izaten dituzte jabetzan herrialdetik kanpoko beste portu batzuetan. Hautemandako aldaketa hein batean jarduera-lekualdatze edo afiliazio horri lotzen zaio gutxienez.

Sektorearen jarduera eta baliabideak oso mugatuak dira, baina dinamismoa eta irmotasuna islatzen jarraitzen du, jada ohikoak dituen etengabeko ziurgabetasunen aurrean: kuoten negoziazioak nazioarte-mailan, edo arrain jakin batzuk harrapatzeko debekualdiak; aldaketa sotilak erabilitako teknologietan, eskaintza, eskari eta prezioen fluktuazio arinak, edo beste lurralde batzuetako arrantzategien bat-bateko lehiakortasun-agertzeak (eta batzuetan ez bakarrik geografikoki hurbil daudenenak); aurreikusteko zailak diren faktore biologikoen ondoriozkoak, askotan aurreikusitako biomasa eskuragarria murriztu edo areagotzen dutenak.

2018an, azken urteetan joera gisa hautematen ziren alderdi batzuk indartu dira: sektoreko baliabide eta ahalegin estrategikoen kontzentrazioa (antxoa eta hegaluzea), ezarritako kuota harrapatzeko epeak laburtzea, eta kuotak murriztea (batez ere berdelaren kasuan, baina alderdi horrek eragin handiagoa izango du hurrengo ekitaldian).



## 171. koadroa EAEko ontzidiaren egitura

Sektorea	Urtea	Unitate kop.	CV potentzia	EGT*	Tripulatazaile kop.
Altura	2015	42	108.061	39.373	768
	2016	42	108.060	39.274	763
	2017	39	107.308	36.365	713
	2018	44	148.008	52.928	1.093
Baxura	2015	151	47.351	9.882	1.122
	2016	153	47.837	10.910	1.142
	2017	157	48.772	11.070	1.153
	2018	156	48.494	10.017	1.131
EAE, guztira	2015	193	155.412	49.255	1.890
	2016	195	155.897	50.184	1.905
	2017	196	156.079	47.435	1.866
	2018	200	196.502	62.945	2.224

(\*): Erregistro Gordineko Tonak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

2018an, EAEn, sektoreak 200 itsasontziko zifra sinbolikoa lortu du, eta 2013tik lehen aldiz 2.000 tripulatazaileen listoa berreskuratu du, alturako azpisektorean egon diren berritasun horiek eraginda.

Atunontzi izoztaileen kontingentea areagotzearen ondorioz, aurten baxura eta alturako garrantzia orekatu egin da tripulatazaileen kopuruan: baxurak beheranzko joera txikia izan du azken hamarkadetan, oro har itsasontzien beste adierazle batzuekin gertatzen den bezala (kantitatea, potentzia edo tonelajea), baina oraindik ere alturak baino tripulatazaile kopuru handiagoa mantentzen du.

Hori ez dator bat fabrikatik irteten den ekoizpenaren guztizko balioaren datuekin, iturriek oraindik ere 2018rako eman ez dituztenekin; izan ere, egiturari dagokionez, alturaren kasuan askoz handiagoa da, eta bereziki "altura handia" deiturikoan -atunontzi izoztaileek eta, neurri txikiagoan, bakailao-ontziek osatzen dute-.

Baxurako ekoizpenaren balioaren gutxi gorabeherako balioa ez da arrantzaren guztizkoaren laurden batera iristen, baina enpleguaren erdia baino gehiago hartzen du. Aitzitik, altura handiak balioaren ia % 70 hartzen du; baina, aldi berean, ez da enpleguaren % 40ra iristen.

2018an, atunaren azpisektorearen ahalegin atipikoak apenas % 13ko ekarpena egin du itsasontzien kopuruaren areagotzean, baina % 50 inguru potentzia, tonelaje eta enpleguari dagokienez; eta hori horrela da itsasontzi handi horiek tamaina askoz handiagoak dituztelako, adibidez, freskoko alturakoenek dutenekin alderatuta.

## 5.2 BAXURAKO ARRANTZA

### Baxurako ontzidia

Azken urteetako joerak gero eta gehiago definitzen joan dira euskal portu bakoitza. Hondarribia eta Getaria izan dira hazkuntza dinamikoena izan duten portuak; Ondarroak indarrez defendatu du bere jarduera bizia; Bermeok eutsi ahal izan dio altura handian duen espezializazioari esker; eta Pasaia gauza bera egin du legatzaren komertzioan. Bien bitartean, gainerako portuen gehiengoa bere jarduerak itzaltzen edo beste batzuen lagungarri izaten joan da; izan ere, lana, nagusiki, adierazitako portuetan kontzentratu da.

Lurraldeen arabera, eta baxurako sektorean, Gipuzkoako portuek Bizkaikoen taldea bikoizten dute potentzian, tonelajea edo tripulatzaile kopuruan, gutxi gorabehera; itsasontzien kopuru osoan, aldiz, balantzea honako hau da: 85en aurrean 71; baina ezberdintasun nabaria dago itsasontzien batez besteko tamainari dagokionez bi lurraldeetan. Azken hamarkadan zehar, Bizkaiko murrizketak Gipuzkoan baino nabarmen handiagoak izan dira.

**172. koadroa EAEko baxurako ontzidia, portuen arabera(2018)**

Portua	Unitate kop.	Potentzia (ZP)	EGT	Tripulatzaile kop.
- Hondarribia	31	14.798	3.379	365
- Getaria	23	10.226	2.328	240
- Mutriku	4	337	36	9
- Orio	6	4.660	860	93
- Pasaia	16	1.584	254	53
- Donostia	5	513	66	14
GIPUZKOA, GUZTIRA	85	32.119	6.923	774
- Bermeo	30	8.543	1.735	167
- Zierbena	6	901	179	28
- Armintza (Lemoiz)	4	256	36	10
- Lekeitio	9	2.027	357	46
- Ondarroa	9	3.217	531	61
- Santurtzi <sup>(*)</sup>	13	1.432	256	45
BIZKAIA, GUZTIRA	71	16.375	3.094	357
<b>EAE, guztira</b>	<b>156</b>	<b>48.494</b>	<b>10.017</b>	<b>1.131</b>

(\*): *Estatistika-sekretua gordetzeko, Bilbo, Plentzia eta Mundakako ontzien (ontzi 1 bakoitzean) datuak Santurtzikoaren multzoan sartu dira.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.*

Hondarribia, Bermeo eta Getaria lider argiak dira baxurako adierazle nagusiei dagokienez. Azken hamarkadan zehar, Hondarribia buruan jarri da adierazle horietan guztietan, goranzko joera izanik, eta horietan guztietan EAEko guztizkoaren herena izatetik gertu dago, itsasontzi kopuruan izan ezik, non % 20aren inguruan dagoen. Bere

berehalako jarraitzaileek beheranzko balantze bat islatzen dute, Getariaren kasuan, eta atzerapenezkoa Bermeoren kasuan, denbora-serie hori aintzat hartuta. Aldagai horiek, nolahi ere eta ondoren ikusten den moduan, ez datoz guztiz bat arrantzatutako tonelajeen edo salmenta-balioaren rankingarekin.

### 173. koadroa EAEko baxurako ontzidia, modalitatearen arabera (2018)

Modalitatea	Unitate kop.	Potentzia (ZP)	EGT	Tripulatzaile kop.
– Inguraketa	40	25.154	5.596	587
– Arte xeheak, artefaktuak eta zapo-sarea (*)	43	6.057	1.139	152
– Tretza	9	1.081	180	25
– Beita bizia eta xaxiangoa/kazakoa (*)	6	3.135	779	80
GIPUZKOA, GUZTIRA	85	32.119	6.923	774
– Inguraketa	10	3.946	823	89
– Arte xeheak, artefaktuak eta zapo-sarea (*)	43	6.057	1.139	152
– Tretza	14	4.083	765	76
– Beita bizia eta xaxiangoa/kazakoa (*)	4	2.289	367	40
BIZKAIIA, GUZTIRA	71	16.375	3.094	357
<b>EAE, guztira</b>	<b>156</b>	<b>48.494</b>	<b>10.017</b>	<b>1.131</b>

(\*): Estatistika-sekretua gordetzeko, artefaktuekin eta zapo-sarearekin aritzen diren ontziak arte xeheen modalitatean sartu dira. Halaber, beita bizia eta xaxiangoa/kazakoa erabiltzen dutenak multzokatu dira.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Gipuzkoak eta Bizkaiak ere beste alde nabarmen bat dute datuak baxurako itsasontzietan erabilitako arrantza-tekniken arabera agregatzen badira, eta alde hori da Gipuzkoan Bizkaiain baino inguraketa-ontzi askoz gehiago daudela; horiek dira, gainera, zenbateko handienak pilotzen dituztenak aurkeztutako neurketa ezberdinetan. Gipuzkoako inguraketa baxurako azpisektore osoaren erdia baino gehiago da potentzian, tonelajeen eta tripulazioan, eta laurdena baino pixka bat gutxiago unitateetan. Arte txikiak deiturikoen, artefaktu eta zapo-sarearen agregatua da estatistika honetan EAEko itsasontzien erdia baino gehiago jasotzen dituen.

Portu edo espezieekin gertatzen den moduan, teknikei dagokienez, joera kontzentrazio motelekoa da lehendik gehien erabiltzen ziren tekniketan, baina minoritarioak ez dira erabat bazter uzten espezializazioak eskatzen duenean. Horrek eragiten du batzuk ia ordezkapenik gabe geratzea, estatistika-sekretuaren beharregatik agregatzea, eta denbora-balantze bat ezartzeko zailtasunak izatea; edonola ere, balantze horrek ez luke aldaketa bereziki nabarmenik aurkeztuko, azken urteetako balantzeari begiratzen badiogu.

### Baxuran lehorreratutako arrantza

Baxurako euskal azpisektoreak arrantzatutako tonelajea 2012tik izandako handiena da; hala ere, salmenten balioa jaitsi da, igoera iraunkorreko bi urteko joera hautsi eta 2017an hamarkada osoko balio handiena lortu ondoren. Tonelajea % 5,8 areagotu da, baina balioa % 6,2 jaitsi da. Halaber, lurraldeen arteko arrakala iraunkor bat hautematen da, non Gipuzkoak, modu apal baina jarraituan, Bizkaia gainditu baitu arrantzatutako tonelajea, eta are nabarmenago, lortutako prezioetan eta salmenta-balioan. Arrakala hori azken hirurtekoan handitu da.

Aurten ere portaera hobea izan da Gipuzkoan, -% 2,3ko beherakadarekin salmentetan (Bizkaian -% 12,7 egin dute behera). Dena den, emaitza horretara iristeko, Gipuzkoak % 8,6 areagotu behar izan du deskargatutako tonen kopurua eta Bizkaiko portuek % 2,4 baino ez.

Arrain kilo bakoitzeko euroen ratioa 20 zentimo inguru jaitsi da (% 10, gutxi gorabera), eta 1,56 euroan geratu da. Hain zuzen, Gipuzkoako balantzea (1,84 €/kg) Bizkaikoaren gainetik dago, % 50 inguru (Bizkaikoa 1,22 €/kg da).

#### 174. koadroa Baxurako ontzidiaren bidez lehorreratutako arrantza, guztira

Lurraldea	2017		2018		%Δ 18/17	
	Tm	m euro	Tm	m euro	Tm	m euro
Gipuzkoa	27.270	55.736	29.625	54.438	8,6	-2,3
Bizkaia	23.418	33.590	23.986	29.340	2,4	-12,7
EAE	50.688	89.326	53.611	83.778	5,8	-6,2

*Oharra: Kofradietako salmentak.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.*

Gipuzkoako eta Bizkaiko agregatuaren arteko aldearen gakoa, tonei dagokienez, hegaluzearen arrantza da; izan ere, garrantzi handia dauka Getarian eta Hondarribian. Aldiz, Bizkaiko portuetan antxoa (batez ere Ondarroan) eta berdela harrapatzen dituzte gehiago; produktu horren tona asko biltzen dira, batez ere Bermeon eta Lekeition, baina errentagarritsun txikiagoa du.

2018ko tonelajearen balantzeak aurreko bi urteko joerari eutsi dio; hala, arrantza-aldi garrantzitsuenak nahiko positiboak izan dira harrapatutako kopuruari dagokionez. Bereziki positiboa izan da hegaluzearen kopurua, baina harrapatutako antxoaren kopuruak behera egin du pixka bat (2017an kopuru handiak harrapatu ziren). Horrez gain, berdela gehieneko tonelajeetara iritsi da; aldiz, sardina gutxieneko kopuruetan mantendu da 2012-2015 aldiarekin konparatuta (urte horietan berdela ordezkatzera iritsi zen, arrantza-aldi nagusietako mugak zirela eta).

Salmenten balioaren beherakadaren arrazoi nagusia antxoa da (gehiago egin du behera balioak tonelajeak baino), baita espezie minoritarioen agregatua ere, zeinaren salmentek behera egin baitute. Hegaluzearen ondoriozko diru-sarrerek gora egin dute eta maximoen fasean daude, eta sektorearen heren bat baino gehiago hartzen dute.

#### 175. koadroa Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldien bilakaera

Kontzeptua	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Antxoa</b>					
– Lehorreratzeak (Tm)	12.679	11.858	14.613	16.754	15.164
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	1,76	1,69	1,58	1,62	1,29
– Balioa (mila euro)	22.276	20.046	23.090	27.059	19.516
<b>Hegaluzea</b>					
– Lehorreratzeak (Tm)	2.966	5.110	6.118	6.322	8.442
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	3,38	3,42	3,78	3,97	3,58
– Balioa (mila euro)	10.033	17.471	23.131	25.082	30.255


*Oharra: Kofradietako salmentak.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.*

Antxoaren kasuan, arazo nagusia da, kopuru handia badago ere, urteko fase askotan neurri oso txikiko aleak izaten direla nagusi. Eta kontserba-industriak prezio baxuagoak ordaintzen ditu ale horiengatik, ez kalitateagatik (antxoa txikia ere ona izaten baita), baizik eta industria-arrazoiengatik.

Hegaluzeak kontrako bilakaera izan du azken bosturtekoan, balio handiagoa hartu baitu; dena den, 2018an joera hori moderatu egin da. Gauza bera gertatzen da legatzarekin (prezioa ia bikoiztu egin da azken bosturtekoan), baina produktu hori askoz gutxiago harrapatzen da. Gainerako espezieen erretagarritasun-ratioa ez da hain interesgarria, eta, hortaz, espezie osagarriak dira sektorearentzat.

29. grafikoa Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldiak



Oharra: Kofradietako salmentak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

## 176. koadroa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantza osoa, portuen arabera (2018)

(Tm)

Kontzeptua	Guztira	%	Espezie nagusiak						
			Antxoa	Hegaluzea	Txitxarroa	Legatza <sup>(1)</sup>	Sardina	Berdela <sup>(2)</sup>	Beste batzuk
- Hondarribia	9.348	17,4	2.097	2.937	66	6	1.106	2.594	543
- Pasaia	7.618	2,4	573	138	234	692	1.983	2.714	1.284
- Getaria	12.659	23,6	3.591	3.921	30	-	1.670	3.183	264
- Ondarroa	20.374	38,0	8.329	787	1.232	105	3.461	5.558	902
- Lekeitio	282	0,5	9	-	0	4	-	251	18
- Bermeo	3.322	6,2	565	657	5	35	1	1.918	140
GIPUZKOA, GUZTIRA	29.625	55,3	6.260	6.997	329	698	4.759	8.491	2.091
BIZKAIA, GUZTIRA	23.986	44,7	8.904	1.445	1.238	147	3.462	7.727	1.063
<b>EAE, GUZTIRA</b>	<b>53.611</b>	<b>100,0</b>	<b>15.164</b>	<b>8.442</b>	<b>1.568</b>	<b>845</b>	<b>8.221</b>	<b>16.218</b>	<b>3.154</b>
<i>Gipuzkoako %</i>			<i>21,1</i>	<i>23,6</i>	<i>1,1</i>	<i>2,4</i>	<i>16,1</i>	<i>28,7</i>	<i>7,1</i>
<i>Bizkaiko %</i>			<i>37,1</i>	<i>6,0</i>	<i>5,2</i>	<i>0,6</i>	<i>14,4</i>	<i>32,2</i>	<i>4,4</i>
<i>EAEko %</i>			<i>28,3</i>	<i>15,7</i>	<i>2,9</i>	<i>1,6</i>	<i>15,3</i>	<i>30,3</i>	<i>5,9</i>

(1): Legatza, merlenka eta tarteko legatza sartzen dira hemen.

(2): Berdela eta betaundia sartzen dira hemen.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Horrenbestez, antxoak eta hegaluzeak jarraitzen dute izaten urte bakoitzeko balantzea baldintzatzen duten muina, nagusiki baxurako arrantzan; aldiz, berdelak ordeko espezie orekatzaile gisa funtzionatzen du, baina ez da hain errentagarria. Beste espezie errentagarriago batzuek ere rol osagarria dute, hala nola sardinak, txitxarroak edo legatzak. Dena den, azken horrek ezaugarri eta kudeaketa espezializatuagoak ditu.

Aurrekoetatik bereizita, eta alturako arrantzan garrantzi handiagoarekin, atunaren arrantza daukagu, eta, neurri txikiagoan, bakailaoarena.

Portuka, EAEko portu nagusietan behera egin dute salmentek, Pasaian izan ezik, zeina legatzean eta hemen aipatu ez ditugun beste espezie minoritario batzuetan espezializatuta baitago. Bi nitxo horiek aukera eman diote, hain zuen, 2011ko salmenten gehieneko kopurua ia berdintzeko.

2017ko datuekin alderatuta murriztu diren euroen erdia baino gehiago Ondarroari dagozkie; izan ere, portu hori da garrantzitsuena lehorreratutako tonelajeari eta diru-sarrerei dagokienez, eta bertan apaldu egin dira aurreko urteko emaitza altuak. Antzeko zerbait gertatzen da tonelajearekin: EAEko gorakadaren erdia Ondarroari egotz dakioke, eta gorakadaren gainerako zatia Gipuzkoako portu nagusiei. Aldiz, kontrakoa gertatzen da Bermeon eta Lekeitioan, behera egin baitute; nolahi ere, beherakada hori nagusiki berdelarengatik gertatu da, eta berdelaren tonelajeak gora egin du gainerako portuetan.

Denboraldi luzeagoak aztertuz gero, eta balioaren eta tonelajearen irizpideak bateratuz gero, ikus dezakegu goranzko joera nagusi dela Ondarroan, Hondarribian eta Pasaian. Getarian, berriz, aurrerapena ez da hain nabarmena izan, eta balantzeara, oro har, okerragoa izan da Bermeon eta Lekeition.

**177. koadroa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa, portuen arabera (2018)**
*(m euro)*

Kontzeptua	Guztira	%	Espezie nagusiak						
			Antxoa	Hegaluzea	Txitxarroa	Legatza <sup>(1)</sup>	Sardina	Berdela <sup>(2)</sup>	Beste batzuk
- Hondarribia	16.404	19,6	2.426	10.440	27	29	763	1.924	795
- Pasaia	14.779	17,6	900	487	262	3.097	1.574	2.309	6.149
- Getaria	23.255	27,8	4.964	14.127	11	-	1.236	2.281	636
- Ondarroa	23.401	27,9	10.547	2.807	1.401	461	2.529	4.058	1.598
- Lekeitio	366	0,4	7	-	0	15	-	215	129
- Bermeo	5.545	6,6	670	2.392	2	132	1	1.743	605
GIPUZKOA, GUZTIRA	54.438	65,0	8.290	25.054	300	3.126	3.573	6.513	7.581
BIZKAIA, GUZTIRA	29.340	35,0	11.225	5.201	1.406	615	2.529	6.017	2.347
<b>EAE, GUZTIRA</b>	<b>83.778</b>	<b>100,0</b>	<b>19.516</b>	<b>30.255</b>	<b>1.706</b>	<b>3.741</b>	<b>6.103</b>	<b>12.530</b>	<b>9.927</b>
<i>Gipuzkoako %</i>			<i>15,2</i>	<i>46,0</i>	<i>0,6</i>	<i>5,7</i>	<i>6,6</i>	<i>12,0</i>	<i>13,9</i>
<i>Bizkaiko %</i>			<i>38,3</i>	<i>17,7</i>	<i>4,8</i>	<i>2,1</i>	<i>8,6</i>	<i>20,5</i>	<i>8,0</i>
<i>EAEko %</i>			<i>23,3</i>	<i>36,1</i>	<i>2,0</i>	<i>4,5</i>	<i>7,3</i>	<i>15,0</i>	<i>11,8</i>

(1): Legatza, merlenka eta tarteko legatza sartzen dira hemen.

(2): Berdela eta betaundia sartzen dira hemen.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

### 5.3 ALTURAKO ARRANTZA

Lehen esan bezala, guztizko diru-sarrerei dagokienez, alturako arrantzak garrantzi handiagoa dauka baxurakoak baino, baina tripulatzailer gutxiagori ematen die lana. Oso arrantza mugatua da (esaterako, atuna eta bakailaoa), eta bere azpisektoreek egoitza oso zehatzak dituzte EAEn: helbidea Bermeon duten 25 atunontzi izoztaileak (1 ofizialki Bilbon inskribatuta dago) eta Pasaiaetik lan egiten duten 2 euskal bakailao-ontziak. Horiek osatzen dute "altura handiko ontzidial". Bestetik, freskoko alturan aritzen diren 17 ontzi txikiagoak (izozterik gabeak) Ondarroan daude (bat izan ezik; hori ere Bermeon dago).

Zenbait urtez 42 ontzi izan dira guztira, baina 2017an 39 izatera pasatu ziren, atunontzi izoztaileak murriztu zirelako. Alabaina, esan bezala, azpisektore horretan bertan beste 6 ontzi handi gehitu dira 2018an, aurreko aldakuntza askogatik gaudituz.

Bestetik, freskoko alturak ontzi bat galdu du urte honetan, eta 17 izatera igaro dira.



Aurreko urteetan bezala, enpleguak ere behera egiten jarraitzen du azpisektore honetan; dena den, 2012ko murrizketa bortitzaren ondoren, enpleguaren beherakada pixka bat moderatuagoa izan da. Azpisektore honetan 210 enplegu daude, eta altura handian, berriz, 883. Azken horretan, estatistika-sekretua dela eta, iturri ofizialek ez dute bereizketarik egiten bakailao-ontzien eta atunontzi izoztaileen artean; dena den, ontzien kopuruarengatik eta gainerako adierazleengatik, argi dago azken horietan biltzen direla langile gehien.

Altura handiko enpleguaren gorakada hori % 80,6ra iritsi da, euskal ontzidian inskribatutako ia 400 tripulatzailerekin. Horietako batzuek, sektorean lan egiten duten enpresek hala erabakita, EAetik kanpoko portuetan ere gauzatzen dute beren jarduera.

**178. koadroa EAEko alturako ontzidiaren egitura, 2018**

	Unitate kopurua	Potentzia (ZP)	EGT	Tripulatzaile kopurua
- Freskoko altura	17	9.388	3.876	210 (*)
- Altura handia - atunontzi izoztaileak	25	134.815	47.402	(*)
- Altura handia - bakailao-ontziak	2	3.805	1.650	(*)
- <b>Altura handia, guztira</b>	<b>27</b>	<b>138.620</b>	<b>49.052</b>	<b>883</b>
<b>Altura, guztira</b>	<b>44</b>	<b>148.008</b>	<b>52.928</b>	<b>1.093</b>

(\*): Estatistika-sekretua gordetzeko, bi bakailao-ontzien datua eta atunontzi izoztaileen datua freskoko alturaren guztizkoan sartu da.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

## 4. ZERBITZUAK



## 1. IKUSPEGI OROKORRA

Espainiako ekonomiak bere aurrerapen-erritmoa moteldu du % 3tik (2017) % 2,6ra arte 2018an, eta EAEko BPGaren hedapena ehuneko dezima batean murriztu da: 2018an % 2,8 eta aurreko ekitaldian % 2,9.

Azterketa hirugarren sektorean zentratzen badugu, haren osotasunean, 2018an % 2,9 hedatu da sektorea EAEn, % 4,1 Nafarroan eta % 2,7 estatu-mailan; hori horrela, EAEn nahiz Estatuan, aurreko ekitaldiko erregistroa hobetu da (% 2,7 eta % 2,5, hurrenez hurren), eta Nafarroan erritmo berari eutsi zaio (% 4,1 bi ekitaldietan).

Puntu honetara iritsita, txosten honen aurreko edizioetan bezala, gogorarazi behar da sektorearen heterogeneotasunak haren analisi agregatua zailtzen duela. Nolanahi ere, enplegua adierazle egonkorrenetako bat da. Horren harira, adierazi behar da hirugarren sektoreko okupazioa % 4,2 hazi dela EAEn 2018an, eta -% 0,2 egin duela atzera Nafarroan (EAE eta Nafarroa osotasunean hartuta % 3,3ko gorakada erregistratu da); estatu-mailan, aldiz, % 2,5 hedatu da.

## 2. HEZKUNTZA

### 2.1 UNIBERTSITATETIK KANPOKO IKASLEEN BILAKAERA

EAE eta Nafarroan, 2018/19 ikasturtean unibertsitatetik kanpoko 486.872 ikasle egon dira guztira. Zifra hori aurreko ikasturtean erregistratutako balioetatik hurbil dago, matrikulazioen guztizkoak arinki gora egin ondoren (% 0,4); horrek esan nahi du bilakaera positiboa izan dela, baina moteltze-sintoma argiekin. Horrenbestez, ikasturte honetan aurrekoan baino 1.960 ikasle gehiago matrikulatu dira unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzan, eta emaitza honetan bost hezkuntza-mailetako hiruk izan dute eragina. Zehazki, matrikulazioak handitu dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), Lanbide Heziketan eta Lehen Hezkuntzan (% 2,3, % 1,6 eta % 0,7ko hazkundeak erregistratu dira, hurrenez hurren). Aitzitik, Haur Hezkuntzan eta Batxilergoan, beherakada izan da, batez ere lehenengoan (-% 2,2 eta -% 0,1).

#### Haur Hezkuntza

Haur Hezkuntzari buruzko matrikulazio-datuen azterketarekin hasteko, 2018/19 ikasturtean, guztira, 110.200 ikasle matrikulatu dira EAE eta Nafarroan; hau da, aurreko ikasturtean baino 2.484 ikasle gutxiago (termino erlatiboetan, % 2,2ko beherakada). Zentro motan arreta jarritz gero, zentro publikoen matrikulek proportzio handiagoa eskuratu dute (% 55,2); testuinguru horretan, ez da alde handirik hauteman sare bakoitzaren urte arteko bilakaeran, sare publikoan ikasleen bolumenak % 2,3 egin baitu behera, eta zentro pribatuetan, aldiz, % 2,1eko jaitziera erregistratu da.

**179. koadroa** Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza

Eremua	2017/2018 ikasturtea			2018/2019 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	8.865	5.710	14.575	8.686	5.685	14.371
Bizkaia	21.509	22.311	43.820	20.910	21.876	42.786
Gipuzkoa	15.547	14.249	29.796	14.957	13.844	28.801
EAE	45.921	42.270	88.191	44.553	41.405	85.958
Nafarroa	16.371	8.122	24.493	16.302	7.940	24.242
EAE eta Naf.	62.292	50.392	112.684	60.855	49.345	110.200

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Lurraldearen arabera ikasleen banaketari dagokionez, EAEn barruan, Bizkaiak asko lagundu du Haur Hezkuntzako ikasleen errola handitzen, ia ikasleen erdia bertakoak izan baitira (% 49,8); ondoren, Gipuzkoak, % 33,5eko garrantzi erlatiboa eskuratu du, eta Arabak, bere aldetik, % 16,7ko partaidetza. Ikasleen bilakaerari dagokionez, jaitziera

orokorra hauteman da aztertutako lurralde guztietan; hala ere, beherakada nabarmenena Gipuzkoan hauteman da (-% 3,3). Zehazki, Gipuzkoan Haur Hezkuntzako bi sareek jasan dituzte murrizketak, baina publikoan puntu bat handiagoa izan da (-% 3,8); bilakaera horrek sareen arteko ikasleen banaketa pixka bat orekatzen lagundu du (% 51,9 publikoa eta % 48,1 pribatua). Bizkaiak ere antzeko garapena izan du: % 2,4ko beherakada pairatu du matrikulazioetan, eta sare publikoan (-% 2,8) pribatuan (-% 1,9) baino emaitza okerragoa erregistratu da; hala ere, garrantzi aldetik oso antzekoak dira (% 48,9 eta % 51,1, hurrenez hurren). Araban, ikasleen kopuruak modu moderatuagoan behera egin duen arren (-% 1,4), portaera-patroi berbera errepikatzen da: sare publikoak (10 ikasletik 6 hartzen dituen) islatu du bilakaera txarrena (-% 2,0 eta -% 0,4, hurrenez hurren). Azkenik, Nafarroa ere, aurreko ikasturtean ikasle kopuruan pixka bat gora egitea lortu ondoren, joera nagusi horretan erori da, % 1eko beherakada erregistratuta. Aitzitik, hiru lurralde historikoetan ez bezala, Nafarroan zentro pribatuek izan dute bilakaera okerrera (-% 2,2 eta -% 0,4), eta sare publikoak gailentasun nabarmena du gainera (% 67,2).

Hori horrela, EAE eta Nafarroan, 110.200 ikasle matrikulatu dira guztira Haur Hezkuntzan; hau da, aurreko ikasturtean baino 2.484 ikasle gutxiago (EAERI 2.233 ikasleren murrizketa dagokio eta Nafarroari 251 ikaslerena).

#### 180. koadroa Euskalduntze-maila Haur Hezkuntza

(%)

Eremua	2017/2018 ikasturtea					2018/2019 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	3,1	32,2	64,7	0,0	100	3,1	30,7	66,2	0,0	100
Bizkaia	3,4	21,8	73,9	1,0	100	3,3	20,9	74,8	1,0	100
Gipuzkoa	2,3	2,9	94,8	0,0	100	2,1	2,9	95,0	0,0	100
EAE	2,9	17,1	79,4	0,5	100	2,9	16,5	80,1	0,5	100
Nafarroa*	16,5	1,6	27,9	54,0	100	16,0	1,0	28,8	54,1	100
EAE eta Naf.	5,9	13,8	68,2	12,1	100	5,8	13,1	68,8	12,3	100
Pribatua	6,2	27,0	54,4	12,4	100	6,0	26,5	55,2	12,3	100
Publikoa	5,7	3,0	79,4	11,9	100	5,6	2,3	79,9	12,3	100

*Oharra:* Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera, EAE eta Nafarroari dagokio.

*A:* Hezkuntza gaztelaniaz, euskara beste irakasgai bat gehiago dela.

*B:* Irakaskuntza elebiduna.

*D:* Hezkuntza euskaraz, gaztelania beste irakasgai bat gehiago dela.

*X:* Euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza.

*(\*):* Nafarroan, euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntzari ofizialki G eredia esaten zaio.

*Iturria:* Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Haur Hezkuntzako hizkuntza-ereduen bilakaerari eta horien ezarpenari erreparatuz gero, aurreko ikasturteetako joera errepikatzen da; hau da, gero eta ikasle gehiago hartzen ditu D ereduak (hezkuntza euskaraz, gaztelania irakasgai dela). Nolanahi ere, datuen

lehen azterketa batek, argitara ematen du errealitate ezberdinak daudela EAEn eta Nafarroan euskalduntze-mailari dagokionean.

Zehazki, eta lurraldeen arabera ikuspegitik, Gipuzkoa da D eredurako sarrera-indize altuena duena, ia gehieneko balioetara iritsiz (% 95); gainerako ereduak parte-hartze txikia dute. Izan ere, A ereduak (hezkuntza gaztelaniaz, euskara beste irakasgai bat gehiago dela) % 2,1eko parte-hartzea du, eta B ereduarena (irakaskuntza elebiduna) ere antzekoa da, hain zuzen % 2,9koa. X ereduak (euskarekin inolako harremanik ez duen hezkuntza), bere aldetik, ez du inolako parte-hartzerik. Bizkaian, antzerako egoera sumatzen da, zeinetan D ereduak nagusitzen baita (% 74,8). Ondoren, distantzia handiarekin, B ereduak dago, ikasleen % 20,9ekin, eta, azkenik, A ereduak eta X ereduak garrantzi oso txikiak dituzte (% 3,3 eta % 1,0, hurrenez hurren). Araban, parte-hartzearen % 66,2 D ereduari dagokio eta % 30,7 B ereduari (balio altuena irakaskuntza-maila honetan lortzen du); eta A ereduak, bere aldetik, garrantzi txikia eskuratzen du (% 3,1). Nafarroari dagokionez, alde handiak daude hizkuntza-maparen osaeran EAEn alderatuta. Izan ere, X ereduak da parte-hartze handiena duena (% 54,1), eta ondoren, D ereduak (% 28,8) eta A ereduak (% 16); azkenik, B ereduak oso parte-hartze urria du (% 1).

Hori guztia aintzat hartuta, euskalduntze-maila (D ereduak gehi B ereduak) % 81,9an finkatu da EAE eta Nafarroan; tasa hori EAEn % 96,6ra igotzen eta Nafarroan, berriz, % 29,8ra murriztu.

### **Lehen Hezkuntza**

Unibertsitatetik kanpoko ikasleen azterketarekin jarraitzeko eta Lehen Hezkuntzan fokua jarritz, 2018/19 ikasturtean 173.848 ikasle kontabilizatu dira guztira EAE eta Nafarroan. Hau da, aurreko ikasturtean baino 1.124 ikasle gehiago; areagotze horrek, halere, % 1era iristen ez den igoera dakar termino erlatiboetan. Zentro-motaren arabera ikasleen banaketari dagokionez, sare publikoan (% 55,1) itunduan baino (% 44,9) sarrera-indize handiagoa dago; eta bi kasuetan, dinamismo urriko bilakaera-profila partekatzen da (% 1,1 eta % 0,1, hurrenez hurren).

**181. koadroa    Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Lehen Hezkuntza**

Eremua	2017/2018 ikasturtea			2018/2019 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	12.639	8.066	20.705	12.900	8.189	21.089
Bizkaia	32.181	33.000	65.181	32.250	33.149	65.399
Gipuzkoa	22.893	21.710	44.603	22.819	21.625	44.444
EAE	67.713	62.776	130.489	67.969	62.963	130.932
Nafarroa	27.045	15.190	42.235	27.816	15.100	42.916
EAE eta Naf.	94.758	77.966	172.724	95.785	78.063	173.848

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Analisian eta lurralde bakoitzaren egoeran sakonduz, Lehen Hezkuntzako matrikulazioa Araban (% 1,9) eta Nafarroan (% 1,6) areagotu den bitartean, nolabaiteko geldialdia dago Bizkaiko ikasleen bolumenean (% 0,3) eta, bereziki, Gipuzkoakoan (-% 0,4). Zentro motaren arabera ikasleen banaketari dagokionez, Araba eta Nafarroan zentro publikoek ikasleen gehiengoa hartzen duten bitartean (ikasleen % 61,2 eta % 64,8, hurrenez hurren), beste lurraldeetan, ikasleen banaketa askoz orekatuagoa da.

Matrikulen bilakaerari erreparatuz gero, urte arteko aldakuntza-tasa onenak, alde batetik, Araban erregistratu dira, sare publikoan (% 2,1) nahiz pribatuan (% 1,5), eta bestetik, Nafarroako sare publikoan (% 2,9). Azken horretan, eremu pribatuko matrikulazioa murriztu egin da (-% 0,6). Bizkaian, sare motaren arabera bilakaera nahiko antzekoa izan da; hau da, gorakada txikiak egon dira zentro publiko eta pribatuetan (% 0,2 eta % 0,5, hurrenez hurren), eta Gipuzkoan ere pareko egoera ageri da, nahiz eta ikasturtea zifra negatiboekin itxi den (-% 0,3 eta -% 0,4, hurrenez hurren).

Gauzak horrela, 130.932 ikasle erregistratu dira guztira EAEn Lehen Hezkuntzan, aurreko ikasturtean baino 443 ikasle gehiago; Nafarroan, aldiz, matrikulazioak 42.916 ikaslerara igo dira, aurreko ikasturteko datuak 681 ikasletan hobetuz.

182. koadroa Euskalduntze-maila. Lehen Hezkuntza

(%)

Eremua	2017/2018 ikasturtea					2018/2019 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	5,5	37,7	56,9	0,0	100	5,2	36,7	58,1	0,0	100
Bizkaia	4,6	24,9	69,0	1,4	100	4,1	24,5	69,8	1,7	100
Gipuzkoa	2,5	8,2	89,3	0,0	100	2,5	7,1	90,4	0,0	100
EAE	4,0	21,2	74,0	0,7	100	3,7	20,5	74,9	0,8	100
Nafarroa	19,8	0,2	26,3	53,7	100	19,5	0,3	26,0	54,2	100
EAE eta Naf.	7,9	16,1	62,4	13,6	100	7,6	15,5	62,8	14,0	100
Pribatua	8,1	30,0	47,6	14,3	100	7,6	29,4	48,6	14,5	100
Publikoa	7,7	4,7	74,5	13,1	100	7,7	4,2	74,5	13,6	100

*Oharra: Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera, EAE eta Nafarroari dagokio.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Irakaskuntza-maila honetako hizkuntza-mapa aztertuko dugu orain; horrela, taulan jasotako datuak landuz, parekotasun handia hauteman daiteke Haur Hezkuntzarekiko. D ereduak gailen mantendu da hiru lurralde historikoetan, goranzko joera argiarekin, eta bereziki Gipuzkoan, non progresiboki garrantzi handiagoa irabazten baitu; izan ere, 10 ikasletik 9k hautatzen dute eredu hau. Bizkaian, matrikulazioen % 69,8 egin dira eredu horretan, eta Araban, berriz, % 58,1, biak goranzko joerari helduz. B ereduari dagokionez, Araban eta Bizkaian parte-hartze nabarmena duen arren (% 36,7 eta % 24,5, hurrenez hurren), Gipuzkoan ordezkagarritasun askoz ere txikiagoa du (% 7,1). A ereduak eta X ereduak azken horren antzeko zifretan finkatu dira; ez dute kasu batean ere matrikulazioen % 6 gainditzen. Nafarroan, aldiz, ikasleen erdiak (% 54,2) X ereduak hautatzen du, % 26k D ereduak, % 19,5ek A ereduak, eta % 0,3 txiki batek B ereduak.

Horrenbestez, Lehen Hezkuntzako euskalduntze-tasa % 78,3an finkatu da EAE eta Nafarroan. EAEn, adierazle hori % 95,4ra iritsi da, eta Nafarroan, aldiz, % 26,3ra murriztu.

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)**

Oraingoan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren analisiarekin jarraituko dugu. 2018/19 ikasturtean, 112.767 ikasle matrikulatu dira guztira EAE eta Nafarroan; hau da, aurreko ikasturtean baino 2.583 ikasle gehiago. Horretarako, aztertutako lurralde guztiek egin dute beren ekarpena, eta modu nahiko homogeen gainera, % 2 eta % 3 arteko urte arteko hazkundeekin. Zehazki, Araban eta Nafarroan % 2,8 eta % 2,6ko hazkundeak erregistratu dira, eta Gipuzkoan eta Bizkaian, % 2,3 eta % 2koak, hurrenez hurren.



**183. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. DBH**

Eremua	2017/2018 ikasturtea			2018/2019 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	6.215	6.496	12.711	6.428	6.643	13.071
Bizkaia	18.669	23.089	41.758	18.872	23.737	42.609
Gipuzkoa	13.701	15.116	28.817	14.011	15.470	29.481
EAE	38.585	44.701	83.286	39.311	45.850	85.161
Nafarroa	15.926	10.972	26.898	16.503	11.103	27.606
EAE eta Naf.	54.511	55.673	110.184	55.814	56.953	112.767

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Sare motaren araberako eskola-mapa honela osatzen da: hiru lurralde historikoetan esparru pribatua nagusitu da publikoaren aurrean (Bizkaian matrikulazioen % 55,7, Gipuzkoan % 52,5 eta Araban % 50,8). Hori horrela, Gipuzkoan bi sareetako ikasleen hazkundera berbera izan da (% 2,3), Araban dinamismo handiagoa erregistratu da sare publikoan (% 3,4 eta % 2,3), eta Bizkaian alderantziz: sare itundua erritmo biziagoan hazi da (% 2,8) publikoaren aldean (% 1,1). Nafarroan, zentro publikoak dira protagonistak, haien garrantzi espezifikogatik (% 59,8) nahiz izandako bilakaeragatik; izan ere, ikasleen kopurua % 3,6 areagotu da (pribatuetan % 1,2).

Hori guztia aintzat hartuta, EAEn 85.161 ikasle matrikulatu dira DBHn azken ikasturte honetan, 2017/18 ikasturtean baino 1.875 gehiago; eta Nafarroan 27.606 ikasle izan dira, aurrekoan baino 708 gehiago.

**184. koadroa Euskalduntze-maila. DBH**

Eremua	2017/2018 ikasturtea					2018/2019 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	15,9	33,6	50,5	0,0	100	14,3	34,4	51,3	0,0	100
Bizkaia	9,1	27,4	62,2	1,3	100	8,2	27,1	63,4	1,3	100
Gipuzkoa	2,6	15,2	82,2	0,0	100	2,7	13,4	83,9	0,0	100
EAE	7,9	24,1	67,3	0,7	100	7,2	23,5	68,6	0,6	100
Nafarroa	8,9	0,1	25,5	65,5	100	8,5	0,1	25,4	66,0	100
EAE eta Naf.	8,1	18,3	57,1	16,5	100	7,5	17,8	58,0	16,7	100
Pribatua	10,5	31,5	42,3	15,7	100	9,8	31,2	43,4	15,6	100
Publikoa	5,7	4,8	72,2	17,3	100	5,2	4,1	73,0	17,7	100

Oharra: Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera, EAE eta Nafarroari dagokio.


Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Hizkuntza-ereduei dagokienez, aurretik adierazitakoarekin bat etorritik, D eredu nabarmentzen da hiru lurralde historikoetan, baina ez hala Nafarroan. Gipuzkoan, D ereduak balio oso altuak eskuratu ditu (% 83,9); Bizkaian (% 63,4) eta Araban (% 51,3), berriz, apalagoak izan dira. Bigarren lekua B ereduak hartu du; Araban izan du sarrera-

indize handiena (% 34,4), ondoren Bizkaian (% 27,1) eta, azkenik, Gipuzkoan (% 13,4). A ereduak, bere aldetik, nolabaiteko ordezkagarritasuna izan du Araban (% 14,3), Bizkaian, ordea, garrantzia galdu du (% 8,2), baita Gipuzkoan ere (% 2,7), nabarmen gainera. X ereduari dagokionez, Araban eta Gipuzkoan ez du inolako garrantzirik izan, eta Bizkaian ordezkagarritasun oso txikia lortu du (% 1,3); alabaina, Nafarroan DBHko ikasleen % 66 matrikulatu dira eredu horretan (D ereduan % 25,4 eta A ereduan % 8,5).

Horiek horrela, EAE eta Nafarroako DBHko ikasleen euskalduntze-mailak % 75,8ra arte egin du gora; izan ere, EAEn % 92,1era igo da, Nafarroan % 25,5era murriztu den bitartean.

30. grafikoa Ikasleen matrikulazioaren bilakaera EAE eta Nafarroan



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

## Erdi-mailako irakaskuntzak

*Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa.*

2018/19 ikasturtean, Lanbide Heziketako irakaskuntzetan (oinarrizkoa, erdi-mailakoa eta goi-mailakoa), ikasle-errola 50.871 ikaslera arte handitu da. EAE eta Nafarroan, 784 ikasle gehiagok egin dituzte LHko ikasketak azken ikasturtean; hala, goranzko joera mantendu da, baina aurreko ikasturteetan baino erritmo motelagoan. Matrikulazioen hazkundea bi sareei esker gertatu da, biek gora egin baitute ia proportzio berean ikasle kopuruari dagokionez (% 1,9 sare publikoan eta % 1,1 pribatuan).

**185. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera.**  
**Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa**

Eremua	2017/2018 ikasturtea			2018/2019 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	4.588	2.766	7.354	3.613	2.815	6.428
Bizkaia	9.883	10.060	19.943	9.834	10.055	19.889
Gipuzkoa	8.376	5.803	14.179	9.688	5.760	15.448
EAE	22.847	18.629	41.476	23.135	18.630	41.765
Nafarroa	6.303	2.308	8.611	6.563	2.543	9.106
EAE eta Naf.	29.150	20.937	50.087	29.698	21.173	50.871

*Iturria: Eusko Jauriaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Jasotako datuak sakonki aztertzen baditugu, matrikulazioen bilakaeran portaera ezberdinak ikus ditzakegu, sare motaren arabera. Hasteko, Gipuzkoa nabarmentzen da zentro publikoetan erregistratutako matrikulazioagatik. Ikasleen % 62,7k zentro publikoetan ikasten du eta ikasleen kopurua nabarmen areagotu da (% 15,7, eta -% 0,7 itunduetan). Ondoren, hori ere termino positiboetan, Nafarroako ikasleak daude (% 5,7), sare pribatuan hazkunde handia lortuz (% 10,2) eta pixka bat moderatuagoa sare publikoan (% 4,1); hala ere, Lanbide Heziketako ikasleen % 72,1ek azken horretan gauzatzen dituzte ikasketak. Bizkaian, bi sareek antzeko garrantzia duten testuinguruan, mugimendu gutxi hauteman dira matrikulazioetan: 54 ikasle gutxiago egon dira, esparru publikoko matrikuletan izandako murrizketa txiki baten (-% 0,5) ondorioz. Nabarmentzekoa da, halaber, Arabako matrikuletan izandako murrizketa esanguratsua (-% 12,6), garrantzi handieneko sarean, publikoan, matrikulak apaldu baitira (% 56,2); era berean, ikasleen % 21,3ko uzkurdua izan da. Hortaz, nahiz eta sare pribatuan nolabaiteko gorakada erregistratu (% 1,8), hori ez da nahikoa izan ikasturtea datu positiboekin ixteko.

Hori guztia aintzat hartuta, guztira, 41.765 ikasle matrikulatu dira Lanbide Heziketan EAEn, aurreko ikasturtean baino 289 gehiago; Nafarroan, bestalde, 9.106 ikaslekoa izan da kopurua, aurreko ikasturtearekiko 495 ikasle gehituz.

**186. koadroa Euskalduntze-maila.**  
**Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa**

(%)

Eremua	2017/2018 ikasturtea					2018/2019 ikasturtea				
	A	B <sup>(*)</sup>	D	X	Guztira	A	B <sup>(*)</sup>	D	X	Guztira
Araba	83,3	9,9	6,8	0,0	100	77,9	14,2	7,9	0,0	100
Bizkaia	76,2	12,5	11,3	0,0	100	73,0	15,6	11,5	0,0	100
Gipuzkoa	43,4	17,9	38,7	0,0	100	45,6	17,6	36,7	0,0	100
EAE	66,3	13,9	19,9	0,0	100	63,6	16,1	20,3	0,0	100
Nafarroa	0,0	0,0	4,8	95,2	100	0,0	0,0	6,0	94,0	100
EAE eta Naf.	54,9	11,5	17,3	16,4	100	52,2	13,2	17,7	16,8	100
Pribatua	66,6	11,8	10,6	11,0	100	63,5	13,9	10,6	12,0	100
Publikoa	46,4	11,3	22,1	20,2	100	44,2	12,8	22,8	20,3	100

*Oharra: Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera, EAE eta Nafarroari dagokio.*

*(\*) Batxilergo eta Lanbide Heziketarako, bakarrik A eta D ereduak daude legez, baina A ereduak talde batzuek irakasgai batzuk euskaraz ematen dituzte, eta modalitate hori, A eredu indartu gisa ezagutzen dena, B eredura hurbil daiteke.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Hizkuntza-ereduaren arabera ikasleen banaketari dagokionez, alde nabarmenak ageri dira aztertutako gainerako irakaskuntza-mailekiko. Lehena eta aipagarriena, EAEn A ereduaren garrantzian datza (% 63,6), zeinak alde handiarekin gainditzen baitu D ereduaren parte-hartzea (% 20,3). Bigarren aldea Nafarroan hauteman daiteke, non X ereduak areagotze handia izan baitu, gehieneko balioetara asko hurbilduz (% 94), eta D ereduari tarte txikia utziz (% 6); izan ere, gainerako ereduak ez dute lekurik.

Hori horrela, lurraldeen arabera analisiak agerian uzten du agertoki oso antzekoak daudela Araban eta Bizkaian hizkuntza-ereduen banaketari dagokionez. Bi lurraldeetan A ereduaren pilatzen da ikasleen gehiengoa (% 77,9 eta % 73, hurrenez hurren); B ereduak % 15etik gertuko tasa lortzen du; eta eskaintza D ereduak osatzen du (Arabian, % 7,9ko sarrera-indizearekin; Bizkaian, % 11,5koa). Gipuzkoan, berriz, bi eredu nagusien arteko ikasleen banaketa uniformeagoa da: ikasleen % 45,6k A ereduaren hautatzen dute eta % 36,7k D ereduaren, ikasleen gainerako % 17,6a B ereduaren finkatzen delarik.

Horrenbestez, EAEn Lanbide Heziketako ikasleen euskalduntze-maila % 36,4koa da, eta % 6,0ra murriztu da Nafarroan, orotara, EAE eta Nafarroako euskalduntze-tasa % 30,9an ezarritik.

## Batxilergoa

Erdi-mailako irakaskuntzen azken blokearen analisiarekin jarraikiz, adierazi behar da EAE eta Nafarroan 39.186 ikasle matrikulatu direla Batxilergoan. Horrek esan nahi du murrizketa arin bat izan dela aurreko ikasturteko balioekin alderatuta (47 ikasle gutxiago), eta guzti honekin, aurreko ikasturteetan erregistratzen ari zen goranzko bilakaera-joera hautsi da. Hautemandako murrizketa honen ondoriozkoa izan da: Bizkaiko bi sareetan eta Gipuzkoako sare publikoan beheranzko aldakuntzak jasan dira, eta horiek dira, hain zuzen, garrantzi handiena duten bi lurraldeak. Hortaz, Nafarroan eta Araban matrikuletan izandako gorakadak (% 1,2 eta % 11, hurrenez hurren) ez dira nahikoa izan balantza orekatzeko. Bestalde, nabarmentzekoa da EAE eta Nafarroako ikasleak ia modu parekatuan banatuta daudela sare pribatuaren (% 49,1) eta publikoaren (% 50,9) artean.

### 187. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Batxilergoa

Eremua	2017/2018 ikasturtea			2018/2019 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	1.958	2.301	4.259	2.383	2.346	4.729
Bizkaia	7.629	8.154	15.783	7.218	8.116	15.334
Gipuzkoa	5.243	5.289	10.532	5.026	5.336	10.362
EAE	14.830	15.744	30.574	14.627	15.798	30.425
Nafarroa	5.284	3.375	8.659	5.307	3.454	8.761
EAE eta Naf.	20.114	19.119	39.233	19.934	19.252	39.186

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Hori horrela, datuen lehen azterketa batek agerian jartzen du, alde batetik, EAEk eginiko ekarpena matrikulen murrizketan (-% 0,5), eta bestetik, Nafarroan erregistratutako bilakaera positiboa (% 1,2). Lurraldeen arabera, Bizkaian nahiz Gipuzkoan matrikulazioak uzkurto egin dira (-% 2,8 eta -% 1,6, hurrenez hurren), bereziki sare publikoan (-% 5,4 eta -% 4,1), sare pribatuan nolabaiteko egonkortasuna lortu den bitartean (-% 0,5 eta -% 0,9). Halaber, bi lurralde horiek ikasleen banaketa publiko-pribatua partekatzen dute, non sare itundua arinki gailentzen baita (% 52,9 Bizkaian eta % 51,5 Gipuzkoan). Araban, sare publikoan ikasle kopurua nabarmen hazi da (% 21,7), pribatuan igoera askoz txikiagoa izan delarik (% 2); horrenbestez, ikasleen banaketa ia parekoa izan da bi sareen artean (% 50,4 eta % 49,6, hurrenez hurren). Nafarroan, 10 ikasletik 6 zentro publikoetan matrikulatu dira; sare horrek goranzko bilakaera izan du, baina sare pribatuak baino erritmo txikiagoan (% 0,4 eta % 2,3, hurrenez hurren).

Hori guztia aintzat hartuta, EAEn Batxilergoan erregistratutako ikasleak 30.425 izan dira (149 gutxiago), eta 8.761 Nafarroan matrikulatutakoak (102 gehiago).

188. koadroa Euskalduntze-maila. Batxilergoa

(%)

Eremua	2017/2018 ikasturtea					2018/2019 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	40,6	5,7	53,8	0,0	100	41,4	8,4	50,2	0,0	100
Bizkaia	37,4	4,1	57,2	1,3	100	34,8	4,2	59,7	1,3	100
Gipuzkoa	20,1	4,5	75,4	0,0	100	18,2	4,9	77,0	0,0	100
EAE	31,9	4,5	63,0	0,7	100	30,2	5,1	64,1	0,7	100
Nafarroa	3,8	0,0	25,2	71,0	100	3,9	0,0	25,7	70,4	100
EAE eta Naf.	25,7	3,5	54,6	16,2	100	24,3	3,9	55,5	16,3	100
Pribatua	36,0	6,0	41,4	16,6	100	34,1	7,0	42,5	16,4	100
Publikoa	15,9	1,1	67,2	15,8	100	14,8	0,9	68,1	16,2	100

*Oharra:* Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera, EAE eta Nafarroari dagokio.

*Iturria:* Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentua.

EAE eta Nafarroako hizkuntza-mapan, ereduaren banaketa pixka bat irregularra ikus daiteke EAEko eta Nafarroako datuak alderatzen badira. Hala, lehenaren kasuan, D ereduak (% 64,1) nagusitzen da, eta bigarrenean, aldiz, X ereduak matrikulatutako 10 ikasletik 7 hartzen ditu. Lurrean historikoen arabera, hizkuntza-eredu bakoitzaren ordezkagarritasun-hurrenkera bat badator: D ereduak ikasleen gehiagoa bereganatzen du, ondoren A ereduak dago, eta garrantzi espezifiko nahiko txikiagoekin, B eta X ereduak kokatzen dira; hala ere, eredu bakoitzaren sarrera-tasa nahiko ezberdina da. Gipuzkoan, D ereduak Batxilergoko 10 ikasletik 8 hartzen ditu, Araban 10etik 5 justu-justu, eta Bizkaian 10 ikasletik 6. A ereduak, bere aldetik, ordezkagarritasun handiena du Araban (% 41,4), Bizkaian (% 34,8) eta bereziki Gipuzkoan (% 18,2) behera doan bitartean. Nafarroaren kasuan, D ereduak % 25,7ko partaidetza-tasa lortu du, eta A ereduaren ordezkagarritasuna oso eskasa da (% 3,9).

Gauzak horrela, EAE eta Nafarroako euskalduntze-tasa % 60 ingurukoa da (% 69,2koa EAEn kasuan).

## 2.2 UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA

EAE eta Nafarroan bost unibertsitate daude; hiru pribatuak dira (Nafarroako Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) eta beste biak, aldiz, publikoak (Euskal Herriko Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa). 2018/19 ikasturtean, unibertsitateko ikasleen errola 64.356 ikaslerara arte areagotu da. Hortaz, aurreko ikasturtean erregistratutako goranzko joera, ikasturte honetan hazkuntza % 2,0koa izanik, 1.287 ikasle gehiagorekin bat dator.

Datuak aztertzen hasi aurretik, beharrezkoa da nabarmentzea, Eusko Jaurlaritzak sustatutako Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Euskal Estrategiaren esparruan, hainbat jarduketa-lerro ezarri direla gaitasun handiko giza kapitala prestatzeko, eta berau enpresa-eremuan ageri diren premiei erantzuna emateko egokitzeko. Zentzu horretan, Unibertsitateko Prestakuntza Duala sustatzen da, hala, lan-munduaren eta goi-mailako hezkuntzaren arteko loturak estutuz; 2018/19 ikasturterako eskaintza akademikoak 22 titulazio, 15 gradu eta 7 master barne hartzen ditu. Halaber, Eusko Jaurlaritzak eginiko aurreikuspenen arabera, datorren 2019/20 ikasturtean, aipamen dualeko 24 titulazio eskainiko dira jada Euskadin.

Testuinguru honetan, 2018/19 ikasturteko datuak aztertuta, ikus daiteke EAE eta Nafarroako bost unibertsitateek ez dutela ekarpen bera egin matrikulazioen areagotze bateraturako. Zehazki, lau dira ikasleen hazkundea erregistratu duten unibertsitateak. Hala, Deustuko Unibertsitatea izan da, ikasleen % 14,4ko ordezkagarritasunarekin, igoera handiena hauteman duena (% 11,6); ondoren, Mondragon Unibertsitatea (% 6,7), % 6,8ko garrantzi espezifikoarekin; jarraian, Nafarroako Unibertsitatea, zeinak ikasleen % 10,9 bereganatuz, matrikulazioak % 0,6 areagotu dituen. Halaber, Euskal Herriko Unibertsitateari (UPV/EHU) dagokionez, ikasturte honetan ikasleen kopurua murriztu egin da, 302 ikasle gutxiagorekin. Nolanahi ere, eta murrizketa hori gorabehera, UPV/EHU ikasle kopuru handiena duen unibertsitatea da oraindik ere, erdia baino gehiago bereganatuz: 2018/19 ikasturtean 35.197 ikaslek ikasi dute bertan.

189. koadroa Ikasle eta irakasleen bilakaera EAE eta Nafarroako unibertsitateetan

Unibertsitatea eta lurraldeak	Ikasleak		Irakasleak	
	17/18 ikasturtea	18/19 ikasturtea <sup>(1)</sup>	17/18 ikasturtea	18/19 ikasturtea <sup>(1)</sup>
<b>Euskal Herriko Unibertsitatea</b>	<b>35.499</b>	<b>35.197</b>	<b>5.697</b>	<b>5.629</b>
Araba	6.886	6.880	999	988
Bizkaia	19.823	19.640	3.303	3.248
Gipuzkoa	8.790	8.677	1.395	1.393
<b>Nafarroako Unibertsitatea</b>	<b>8.238</b>	<b>8.552</b>	<b>795</b>	<b>1.023</b>
Nafarroa	7.244	7.568	695	885 <sup>(2)</sup>
Gipuzkoa	994	984	100	138
<b>Nafarroako Unibertsitate Publikoa</b>	<b>6.961</b>	<b>7.006</b>	<b>901</b>	<b>934</b>
Nafarroa	6.961	7.006	901	934
<b>Deustuko Unibertsitatea</b>	<b>8.284</b>	<b>9.241</b>	<b>2.238</b>	<b>1.835<sup>(3)</sup></b>
Bizkaia	6.543	7.296	1.894	1.554
Gipuzkoa	1.741	1.945	344	281
<b>Mondragon Unibertsitatea</b>	<b>4.087</b>	<b>4.360</b>	<b>422</b>	<b>474</b>
Gipuzkoa	4.087	4.360	422	474
<b>Guztira</b>	<b>63.069</b>	<b>64.356</b>	<b>10.053</b>	<b>9.895</b>
Araba	6.886	6.880	999	988
Bizkaia	26.366	26.936	5.197	4.802
Gipuzkoa	15.612	15.966	2.261	2.286
EAE	48.864	49.782	8.457	8.076
Nafarroa	14.205	14.574	1.596	1.819

(1): Behin-behineko datuak.

(2): 2018/19 ikasturtean, "irakasle kolaboratzailea" figura sartu da, unibertsitateko plantillako langilea, irakaskuntzan eta ikerketan parte-hartze handia duena.

(3): Atzerapen horren arrazoia irakasle bisitari gutxiago jasotzean datza; izan ere, irakasleen kopurua, berez, areagotu egin da.

Iturria: EHU, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta irakaskuntzaren estatistika.

Irakasleen bilakaerari dagokionez, adierazi behar da azken ikasturtean aurrekoetan erregistratutako goranzko joera alderantzikatu egin dela, irakasleen kopuruan % 1,6ko beherakada hauteman baita. Hortaz, irakasleen plantilla 10.000 irakasleen mugaren azpitik kokatu da, honakoa aurreko urtean modu arinean gainditutako zifra izanik. Datuak unibertsitateen arabera bereizita, nabarmendu behar da soilik bi unibertsitatek izan dutela irakasleen kopurua murriztearen eragina: alde batetik, Deustuko Unibertsitateak, 403 irakasle<sup>1</sup> gutxiago erregistratu ditu, eta bestetik, Euskal Herriko Unibertsitateak, ikasturte honetan 68 irakasleko jaitsiera izan du. Plantilla handitu duten unibertsitateei dagokienez, Nafarroako Unibertsitatean izandako bilakaera da aipagarriena, ikasturte honetan 228 irakasle gehiago egon baitira (baina zenbait ñabardurekin, irakasle kolaboratzailearen figura gehitu delako); ondoren, Mondragon

<sup>1</sup> Atzerapen horren arrazoia irakasle bisitari gutxiago jasotzean datza (433 gutxiago ikasturte honetan); izan ere, irakasleen kopurua, berez, areagotu egin da, 30 irakasle gehiagorekin.



Unibertsitatean 52 irakasle gehiago hauteman dira; eta, azkenik, Nafarroako Unibertsitate Publikoan 33 irakasleko hazkuntza izan da.

Aurreko datuak aintzat hartuta, eta ikasleen analisiarekin jarraikiz, jarraian modu xehatuagoan heltzen zaio EAE eta Nafarroako unibertsitate-sarea osatzen duten unibertsitate bakoitzeko matrikulazioen bilakaerari.

### 190. koadroa Ikasleen banaketa UPV/EHU<sup>(1)</sup>

Lurralde historikoa	17/18 ikasturtea	18/19 ikasturtea <sup>(2)</sup>	%	% Δ aurreko urtea
<b>Araba</b>	<b>6.886</b>	<b>6.880</b>	<b>100,0</b>	<b>-0,1</b>
Farmazia F.	1.364	1.374	20,0	0,7
Filologia, Geografia eta Historia F.	2.110	2.100	30,5	-0,5
Irakasleen UE	1.053	1.083	15,7	2,9
Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	845	810	11,8	-4,1
Gizarte Laneko UE	577	578	8,4	0,2
Enpresa Zientzien UE	446	449	6,5	0,7
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F.	491	486	7,1	-1,0
<b>Bizkaia</b>	<b>19.823</b>	<b>19.640</b>	<b>100,0</b>	<b>-0,9</b>
Zientziak eta Teknologia F.	2.529	2.581	13,1	2,1
Arte Ederren F.	1.228	1.196	6,1	-2,6
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	2.569	2.614	13,3	1,8
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	2.467	2.386	12,1	-3,3
Medikuntza eta Odontologia F.	2.235	2.249	11,5	0,6
Industria Ingeniaritzako eta Telekomunikazioetako GET	1.812	1.761	9,0	-2,8
Enpresa Ikasketen UE	895	849	4,3	-5,1
Erizaintzako UE (Leioa)	685	681	3,5	-0,6
Irakasleen UE	1.957	1.986	10,1	1,5
Lan Harremanen E.	558	547	2,8	-2,0
Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	1.728	1.696	8,6	-1,9
Meatzte Ingeniaritza Teknikoko UE	425	370	1,9	-12,9
Nautikako GET	201	197	1,0	-2,0
Zuzenbide Fakultatea. Bizkaiko Atala	534	527	2,7	-1,3
<b>Gipuzkoa</b>	<b>8.790</b>	<b>8.677</b>	<b>100,0</b>	<b>-1,3</b>
Zientzia Kimikoen F.	334	325	3,7	-2,7
Zuzenbide F.	854	851	9,8	-0,4
Informatika F.	551	568	6,5	3,1
Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako F.	977	985	11,4	0,8
Psikologia F.	1.103	1.107	12,8	0,4
Arkitekturako GET	659	634	7,3	-3,8
Enpresa Ikasketen UE	1.196	1.162	13,4	-2,8
Irakasleen UE	1.118	1.130	13,0	1,1
Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	289	276	3,2	-4,5
Donostiako U. Politeknikoa	1.220	1.162	13,4	-4,8
Erizaintzako UE	489	477	5,5	-2,5
<b>Guztira</b>	<b>35.499</b>	<b>35.197</b>	<b>100,0</b>	<b>-0,9</b>

(1): Ez dira kontuan hartzen UPV/EHUri eta campus birtualari atxikitako zentroak.

(2): Behin-behineko datuak.

Iturria: UPV/EHU.

Analisiaren ardatza ikasleen gehiengoa hartzen duen unibertsitatean jartzen badugu, hau da, Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), 2018/19 ikasturtean, 35.197 ikasle matrikulatu dira guztira; hortaz, % 0,9ko jaitsiera izan da aurreko ikasturtearekiko. Ikasleen bilakaera hori UPV/EHUK euskal geografian dituen hiru campusetan errepikatzen da. Bizkaiko Campusean, matrikulazioen % 55,8rekin, 2018an aurreko ikasturtean baino 183 ikasle gutxiago kontabilizatu dira; hau da, % 0,9ko murrizketa hauteman da. Gipuzkoako Campusean, % 24,7ko ordezkgarritasunarekin, 113 unibertsitate-ikasle gutxiago izan dira (-% 1,3); eta Arabakoan, berriz, zeinak garrantzi espezifikoa baitu (% 19,6), aurreko ikasturteko ia zifra berberak mantendu dira, soilik 6 ikasleko jaitsiera erregistratuz.

Bizkaiko Campuseko ikasleen bilakaera sakonago aztertzen badugu, ikus dezakegu atzerapenak nagusi direla; izan ere, Bizkaiko eskaintza akademikoa osatzen duten 14 fakultateetatik 10ek murrizketak izan dituzte matrikulazioetan. Aurreko ikasturtean bezala, Meatze Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolak, % 1,9ko ordezkgarritasunarekin, ikasleen jaitsiera handiena erregistratu du (-% 12,9). Adierazi behar da Meatzaritza eta Energia Teknologikoaren Graduak 2018/19 ikasturtean hasi duela desagertze-prozesua; eta horrek, logikoki, haren bilakaera baldintzatzen du. Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola da, % 4,3ko garrantzi espezifikoarekin, ikasle gehien galdu dituen bigarren fakultatea (-% 5,1), eta antzeko joera egon da Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean ere (-% 3,3), nahiz eta azken honen parte-hartzea askoz esanguratsuagoa izan (% 12,1). Balio txiki baina oraindik negatiboekin, Industria Ingeniaritzako eta Telekomunikazioetako GET (-% 2,8 eta % 9ko parte-hartzea, eta Arte Ederren Fakultatea (-% 2,6 eta % 6,1eko garrantzi espezifikoa) ditugu. Era berean, Lan Harremanen Eskolak, Nautikako GETak, Zuzenbide Fakultateak eta Erizaintza Fakultateak, % 3,5etik beherako parte-hartzeekin, atzerapen txikiak izan dituzte. Kontrako egoeran, ikasleen hazkunde moderatuekin, baina ordezkgarritasun handiarekin, Zientzia eta Teknologia Fakultatea (% 13,1eko parte-hartzea eta % 2,1eko hazkundera), Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (% 13,3 eta % 1,8), Medikuntza eta Odontologiako Fakultatea (% 11,5 eta % 0,6) eta Irakasleen Eskola (% 10,1 eta % 1,5) ditugu.

Analisi bera Gipuzkoako Campusean eginez gero, antzeko egoera ikus daiteke. Ikasleen kopuru handiena duten bost fakultateetako hiru -Irakasleen Unibertsitate Eskola (% 13,0), Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea (% 11,4) eta Psikologia Fakultatea (% 12,8)- ikasle-bolumenean nolabaiteko egonkortasuna mantentzeagatik nabarmentzen dira (% 1,1, % 0,8 eta % 0,4, hurrenez hurren). Ikasleen kopuru handiena duten beste bi fakultateek -Unibertsitate Politeknikoa (% 13,4) eta Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola (% 13,4)-, aldiz, arinki murriztu dute beren ikasle kopurua (-% 4,8 eta -% 2,8, hurrenez hurren). Gipuzkoako Campuseko gainerako fakultateek, bi digituetatik

beherako parte-hartzeekin, ikasturtea atzerapen moderatuekin bukatu dute; Informatika Fakultateak salbu, zeinak, % 6,5eko garrantzi erlatiboarekin, % 3,1 areagotu baitu ikasle kopurua.

Arabako Campusean, termino orokorretan, mugimendu gutxi nabari da ikasleen kopuruari dagokionean. Filologia, Geografia eta Historia Fakultateko ikasleak, ordezkagarritasun handienarekin (% 30,5), eta Farmazia Fakultateko ikasleak (% 20) ez dira ia aldatu (-% 0,5 eta % 0,7). Nabarmenagoak izan dira, aldiz, Irakasleen Unibertsitate Eskolan (% 15,7ko garrantzi erlatiboa eta % 2,9ko hazkundea) eta Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan (% 11,8 eta -% 4,1, hurrenez hurren) jasotako mugimenduak.

### 191. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean

Lurralde historikoa	17/18 ikasturtea	18/19 ikasturtea <sup>(1)</sup>	%	% Δ aurreko urtea
<b>Nafarroa</b>	<b>7.244</b>	<b>7.568</b>	<b>100,0</b>	<b>4,5</b>
Zuzenbidea	615	742	9,8	20,7
Medikuntza	1.239	1.235	16,3	-0,3
Filosofia eta Letrak	341	357	4,7	4,7
Informazio/Komunikazio Zientziak	791	814	10,8	2,9
Hezkuntza eta Psikologia	618	655	8,7	6,0
Zientziak	625	623	8,2	-0,3
Farmazia eta Nutrizioa	656	680	9,0	3,7
Arkitektura	463	470	6,2	1,5
Teologia	150	168	2,2	12,0
Ekonomia eta Enpresa Zientziak	1.077	1.121	14,8	4,1
Idazkaritza eta Administrazioa	171	185	2,4	8,2
Erizaintza	498	518	6,8	4,0
<b>Gipuzkoa</b>	<b>994</b>	<b>984</b>	<b>100,0</b>	<b>-1,0</b>
Industria Ingeniaritza	994	984	100,0	-1,0
<b>Guztira<sup>(2)</sup></b>	<b>8.238</b>	<b>8.552</b>	<b>100,0</b>	<b>3,8</b>

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Horiez gain, doktoregoko 1.027 ikasle eta masterreko 775 ikasle daude Nafarroan eta Gipuzkoan.

Iturria: Nafarroako Unibertsitatea.

Nafarroako Unibertsitateari dagokionez, azken ikasturte honetan % 3,8ko igoera erregistratu da matrikuletan, ikasleen errolda 8.552 ikaslera arte areagotuz. Hasteko, Nafarroako Campusean metatzen da jardueraren zati handiena, eta ikasturtea balio positiboekin bukatu da, eskainitako ia gradu guztietarako; soilik bi izanik aldakuntza txikia hauteman dutenak. Hori horrela, bi digituko bilakaerekin, Zuzenbide Fakultatea (% 20,7) eta Teologia Fakultatea (% 12) gailentzen dira, % 9,8 eta % 2,2ko garrantzi espezifikoarekin, hurrenez hurren. Hazkunde-erritmo txikiagoarekin baina nolabaiteko dinamismoa islatuz, alde batetik, Idazkaritza eta Administrazioa aurkitzen da, % 2,4ko sarrera-indizearekin eta % 8,2ko hazkundearekin; eta bestetik, Hezkuntza eta Psikologia, guztizkoaren gainean % 8,7ko parte-hartzearekin, eta ikasle kopurua % 6 areagotuz.

Bestalde, % 4 inguruko hazkundearekin, lau fakultate daude: Filosofia eta Letrak (% 4,7ko hazkundera eta parte-hartzea); Erizaintza (% 4 eta % 6,8, hurrenez hurren); Farmazia eta Nutrizioa (% 3,7 eta % 9); eta Ekonomia eta Enpresa Zientziak (% 4,1eko hazkundera matrikuletan eta ikasle kopuru handiena duen bigarren fakultate gisa sailkatuta, % 14,8rekin). Ikasle kopuru esanguratsua duen hirugarrena Informazio eta Komunikazio Zientzien Fakultatea da, ikasleen %10,8 hartzen duena, % 2,9ko hazkundearekin matrikuletan; eta, ondoren, Arkitekturak % 1,5eko igoera izan du, ikasleen % 6,2 bereganatuz. Medikuntza da rankingean lehena (ikasleen % 16,3) eta Zientziak zazpigarrena (% 8,2); bi horiek bilakaera berbera izan dute, beheranzko aldakuntza txikiarekin (-% 0,3).

Gipuzkoako Campusean, Industria Ingeniaritzako Fakultatean -hori da eskaintzen den gradu bakarra Idazkaritza desagertu zenetik-, % 1eko murrizketa erregistratu da ikasle kopuruan, 984 ikaslara iritsiz.

**192. koadroa      Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan**

Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak	17/18 ikasturtea	18/19 ikasturtea <sup>(1)</sup>	%	% Δ aurreko urtea
Nekazaritza Ingeniaritzen GET	484	532	7,6	9,9
Industria Ingeniaritza eta Telekom. GET	1.919	1.916	27,3	-0,2
Osasun Zientzien F.	660	678	9,7	2,7
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	1.212	1.188	17,0	-2,0
Giza eta Gizarte Zientzien F.	1.812	1.821	26,0	0,5
Zientzia Juridikoen F.	653	645	9,2	-1,2
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F. / Zientzia Juridikoak <sup>(2)</sup>	221	226	3,2	2,3
<b>Guztira<sup>(3)</sup></b>	<b>6.961</b>	<b>7.006</b>	<b>100,0</b>	<b>0,6</b>

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzean matrikulatutako ikasleak jasotzen ditu.

(3): Horiez gain, masterreko 800 ikasle eta doktoregoko 369 ikasle daude Nafarroan.

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin jarraituz, horrek 7.000 matrikulazioen muga gainditu du 2018/19 ikasturtean, aurreko ikasturteko balioak pixka bat hobetu ondoren (% 0,6), 45 ikasle gehiagorekin. Informazioa fakultateen arabera bereizten badugu, datuak begiratuta, agerian jartzen da ikasle kopuru txikiena duten horiek lortu dutela jarduera onena. Zehazki, Nekazaritza Ingeniaritzen GETak, % 7,6ko parte-hartzearekin, % 10etik gertuko hedapena izan du, taldeko bilakaera baikorra lortuz. Urte arteko aldakuntza positiboarekin, baina moderatuagoa, bukatu dute ikasturtea honako hauek: Osasun Zientzien Fakultatea (% 2,7) eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea/Zientzia Juridikoak (% 2,3); lehenak % 9,7ko garrantzi espezifikoarekin, eta bigarrenak, ordezkaritasun txikiarekin (% 3,2). Gainerako fakultateek fluktuazio

arinak izan dituzte unibertsitate-ikasle kopuruan. Hala, Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioa GETak izan du garrantzi handiena (% 27,3 eta -% 0,2). Oso hurbil, Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea (% 26 eta % 0,5) eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (% 17 eta -% 2) kokatu dira. Nafarroako Unibertsitate Publikoko hezkuntza-eskaintza Zientzia Juridikoen Fakultateak osatzen du, ikasleen % 1,2ko murrizketarekin eta guztizkoaren % 9,2ko ordezkagarritasunarekin.

### 193. koadroa Ikasleen banaketa Deustuko Unibertsitatean

Lurralde historikoa	17/18 ikasturtea	18/19 ikasturtea <sup>(1)</sup>	%	% Δ aurreko urtea
<b>Bizkaia</b>	<b>6.543</b>	<b>7.296</b>	<b>100,0</b>	<b>11,5</b>
Zuzenbide Fakultatea	907	1.031	14,1	13,7
Teologia Fakultatea	182	155	2,1	-14,8
Ingeniaritza Fakultatea	667	898	12,3	34,6
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea	1.444	1.648	22,6	14,1
Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea	1.650	1.780	24,4	7,9
EUMBAM (DUri atxikitako zentroa)	725	722	9,9	-0,4
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	968	1.062	14,6	9,7
<b>Gipuzkoa</b>	<b>1.741</b>	<b>1.945</b>	<b>100,0</b>	<b>11,7</b>
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea	584	647	33,3	10,8
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	815	951	48,9	16,7
Zuzenbide Fakultatea	67	74	3,8	10,4
Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea	275	273	14,0	-0,7
<b>Guztira<sup>(2)</sup></b>	<b>8.284</b>	<b>9.241</b>	<b>100,0</b>	<b>11,6</b>

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Horiez gain, doktoregoko 348 ikasle eta masterreko 1.397 ikasle daude.

Iturria: Deustuko Unibertsitatea.

Deustuko Unibertsitateak, azken ikasturtean, bilakaera onena erregistratu du, aintzat hartuta matrikulek % 11,6 egin dutela gora; hala, ikasleen errolda 9.241 ikaslara arte hazi da. Bizkaiko Campusetik hasita, zeinak matrikulen % 79 hartzen baitu, fakultate guztiek hobera egin dute, Teologia Fakultateak (-% 14,8) eta EUMBAMEk (-% 0,4) izan ezik; gainera, gehienek bi digituko zifrak erregistratu dituzte. Hori horrela, Ingeniaritza Fakultatea nabarmendu da bere dinamismoagatik, ikasleen % 12,3 bereganatuz, % 34,6ko hazkundera erregistratu baitu. Halaber, % 14 inguruko hedapenarekin, Zuzenbide Fakultatea (% 14,1eko parte-hartzea) eta Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea (% 22,6) kokatzen dira. Garrantzi espezifiko handiena izan duen fakultatea Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea izan da, unibertsitate-ikasleak % 7,9 areagotuz; eta portaera bera izan du Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak, % 14,6ko parte-hartzearekin.

Gipuzkoako Campuseko datuetan arreta jarrita, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean erregistratu da hazkunde nabarmenena (% 16,7) eta baita ikasle kopuru handiena ere -Gipuzkoako Campuseko ikasleen ia erdia-. Halaber, joera bera, baina pixka

bat moderatuagoa, izan dute, % 11 inguruko hazkundearekin, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateak eta Zuzenbide Fakultateak, baina parte-hartze oso ezberdinekin (% 33,3 eta % 3,8, hurrenez hurren). Prestakuntza-eskaintza Psikologia eta Hezkuntza Fakultateak osatzen du, ikasleen % 14ko garrantzi erlatiboa eskuratuz eta urte arteko aldakuntza negatibo bakarra izanik (-% 0,7).

**194. koadroa    Ikasleen banaketa Mondragon Unibertsitatean**

Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak	17/18 ikasturtea	18/19 <sup>(1)</sup> ikasturtea	%	% Δ aurreko urtea
<b>Goi Eskola Politeknikoa</b>	<b>1.410</b>	<b>1.585</b>	<b>100,0</b>	<b>12,4</b>
Industria Antolaketako Ing. Gradua	137	170	10,7	24,1
Industria Elektronikako Ing. Gradua	151	164	10,3	8,6
Informatikako Ing. Gradua	134	168	10,6	25,4
Telekomunikazio Sistemen Ing. Gradua	41	34	2,1	-17,1
Ing. Mekanikoko Gradua	358	400	25,2	11,7
Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ing. Gradua	232	258	16,3	11,2
Energiaren Ing.	114	104	6,6	-8,8
Ing. Mekatronikoa	36	77	4,9	113,9
Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ing.	55	54	3,4	-1,8
Ing. Biomedikoa	152	156	9,8	2,6
<b>Giza eta Hezkuntza Zientzietako F.</b>	<b>1.106</b>	<b>1.096</b>	<b>100,0</b>	<b>-0,9</b>
Haur Hezkuntzako Gradua	350	352	32,1	0,6
Lehen Hezkuntzako Gradua	564	553	50,5	-2,0
Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua	192	191	17,4	-0,5
<b>Enpresa Zientzien F.</b>	<b>1.152</b>	<b>1.265</b>	<b>100,0</b>	<b>9,8</b>
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua	402	438	34,6	9,0
Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua	750	827	65,4	10,3
<b>Gastronomia Zientzien F.</b>	<b>419</b>	<b>414</b>	<b>100,0</b>	<b>-1,2</b>
Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak	419	414	100,0	-1,2
<b>Guztira<sup>(2)</sup></b>	<b>4.087</b>	<b>4.360</b>	<b>100,0</b>	<b>6,7</b>

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Horiez gain, masterreko 613 ikasle daude.

Iturria: Mondragon Unibertsitatea.

Azkenik, Mondragon Unibertsitateko ikasleen bilakaera aztertuko dugu. Ikasturte honetan, 4.360 ikasle matrikulatu dira, aurrekoan baino % 6,7 gehiago. Datuak gainera begiratuta, hautematen da portaera ezberdinak izan direla fakultate bakoitzaren arabera. Lehenik eta behin, Goi Eskola Politeknikoak % 12,4ko hazkundera erregistratu du eta guztira 1.585 ikasle ditu. Eskaintzen dituen hamar graduetatik hirutan ikasle kopurua murriztu da, baina zenbait graduk bi digituko urte arteko hazkundera hauteman dute. Bilakaera okerrera izan dutenekin hasiko gara. Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritzako Graduan egon da ikasleen murrizketa handiena (-% 17,1), etengabe ikasleak galduz (34 ikaslerira iritsi da), eta ondoren, Energiaren Ingeniaritzako Graduan (-% 8,8), azken honek garrantzi espezifikoa handiagoa izanik (% 6,6). Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ingeniaritza Gradua joera horrekin bat egin du, baina askoz ere modu moderatuagoan

(-% 1,8) eta garrantzi oso urriarekin (% 3,4). Aitzitik, areagotzeak, eta gainera intentsitate esanguratsukoak, ezarri dira Industria Antolaketarako Ingeniaritza Graduan (% 24,1) eta Informatikako Ingeniaritzakoan (% 25,4), biak ala biak % 11 inguruko parte-hartzearekin. Erritmo txikiagoarekin, baina balio positiboetan, Ingeniaritza Mekanikoko Gradua kokatzen da, % 25,2ko garrantzi espezifikoarekin eta matrikulazioetan % 11,7ko hazkundera lortuz. Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzako Gradua ere antzeko bilakaera izan du, parte-hartze handieneko bigarren gradu gisa sailkatuz (% 16,3). Aldakuntza-tasa pixka bat txikiagoarekin (% 8,6), Industria Elektronikako Ingeniaritzako matrikulek gora egin dute, ikasleen % 10,3 bereganatuz. Ingeniaritza Biomedikoko Graduan ere antzeko parte-hartzea izan da (% 9,8), eta hori ere handitu egin da, baina erritmo motelagoan (% 2,6). Ingeniaritza Meatronikoko Graduan, aurreko ikasturtean inauguratutakoan, hazkunde nabarmena hauteman da (% 113,9), aurreko ikasturteko balioak bikoiztuz (36 ikasletik 77ra).

Giza eta Hezkuntza Zientzietako Fakultateak, bere aldetik, 1.096 ikasle izan ditu, eta egoera nahiko egonkor mantendu da (-% 0,9): bi graduk aldakuntza urria izan dute matrikuletan -Haur Hezkuntzako Gradua (% 0,6 eta % 32,1eko parte-hartzea) eta Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua (-% 0,5 eta % 17,4)-; aldiz, Lehen Hezkuntzako Graduoko ikasleek behera egin dute (-% 2,0), azken gradu honetan Fakultateko ikasleen erdia biltzen delarik.

Enpresa Zientzien Fakultateari dagokionez, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua (% 34,6ko parte-hartzearekin) eta Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua (gainerako % 65,4arekin), ikasle kopurua antzeko zenbatekoetan handitu dute (% 10 inguru).

Amaitzeko, Gastronomia Zientzien Fakultatean eskaintzen den gradu bakarra Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak da; ikasle kopurua pixka bat murriztu da (-% 1,2), 2017/18 ikasturtean 419 ikasle izatetik 2018/19 ikasturtean 414 izatera igaroz.

### 3. GARRAIOA

#### 3.1 TRENBIDE BIDEZKO GARRAIOA

Garraioei buruzko kapituluarekin hasteko eta trenbide bidezko garraioari dagokionez, euskal trenbide sarea osatzen duten bi konpainiek —EuskoTren eta Renfe— 38.798 mila bidaiari garraiatuta bukatu dute 2018 ekitaldia. Hori horrela, EAE eta Nafarroan 2017an hasitako bidaiarien bolumenaren goranzko joera finkatu da, azkenaldi honetan % 9,3ko gorakada erregistratu delarik.

195. koadroa Bidaiarien mugimendua\*

Urtea	Bidaiariak (m)	% Δ
2014	32.186	-6,1
2015	32.118	-0,2
2016	31.959	-0,5
2017	35.483	11,0
2018	38.798	9,3

(\*): Renferen datuak Bilbo eta Donostiako aldirietako bidaiarien zifrari dagozkio.

Iturria: Renfe eta EuskoTren.

Datuak konpainiaren arabera banakatuta, horiek gainera begiratu gero, ikus dezakegu portaera ezberdina izan dela bidaiarien bilakaeran. EuskoTrenen hazkunde-joera mantendu den bitartean, Renfen homogeneotasun gutxi egon da. Renferen Bilboko sareak hazkundera erregistratu du, bi ekitaldi balio negatiboetan amaitu ondoren; bitartean, Donostiako sareak beherakada izan du bidaiarien kopuruan.

196. koadroa Bidaiarien mugimendua konpainien arabera

Kontzeptua	2016	2017	2018	% Δ 18/17
Renfe-Bilboko sarea	10.138	10.044	10.429	3,8
Renfe-Donostiako sarea	6.320	6.051	5.886	-2,7
EuskoTren	15.500	19.388	22.484	16,0
<b>Guztira</b>	<b>31.959</b>	<b>35.483</b>	<b>38.798</b>	<b>9,3</b>

Iturria: Renfe eta EuskoTren.

EuskoTren tren-konpainiak, Gipuzkoan eta Bizkaian operatzen duenak, 22.484 mila bidaiari izan ditu azken urtean; hau da, 2017an baino %16 gehiago. Gipuzkoako sareak konpainiaren bidaiarien erdia baino gehiago hartzen du (% 54,6), eta azken urtean % 8,9ko hazkundera izan du, batez ere topoaren linearen (Lasarte-Hendaia) zerbitzua finkatu delako (% 11,6ko hazkundera). Bizkaiko sareak hamar milioi erabiltzaileen muga gainditu zuen 2018an, Bilboko Metroaren 3. linea protagonista nagusi izanik. Linea horrek, erabateko funtzionamenduan egon den lehen urte



honetan, 2017ko apirilean martxan jarri zenetik, 5 milioi bidaiari baino zertxobait gehiago jaso ditu (% 54ko hazkundera). Nabarmentzekoa da, halaber, Txorierriko linearen bilakaera, zeinak trenen maiztasuna areagotzeari esker, % 19,1eko hazkundera izan baitu bidaiarien kopuruan.

Renferi dagokionez, Bilboko sarearen kasuan, azken urtean bidaiarien kopurua areagotu da, 10.429 milara arte, % 3,8ko gorakada lortuz; azken hirurtekoko zifrarik altuena izan da. Aitzitik, Donostiako sarearen kasuan, % 2,7ko murrizketa egon da 2018an; horrela 6 milioi bidaiaritik beherako zifra erregistratu da. Hori guztia aintzat hartuta, 16.315 mila bidaiari izan dira guztira, eta multzo osoari dagokionez, % 42ko sarrera-tasa lortu da, baita aurreko urtean baino 220 mila bidaiari gehiagoko saldo positiboa ere.

#### 197. koadroa Bidaiarien garraioagatiko diru-bilketa

Kontzeptua	(m euro)			
	2016	2017	2018	% $\Delta$ 18/17
Renfe*	17.253,7	16.636,1	15.322,7	-7,9
EuskoTren**	25.861,0	28.360,6	30.926,5	9,0
<b>Guztira</b>	<b>43.114,7</b>	<b>44.996,7</b>	<b>46.249,2</b>	<b>2,8</b>

(\*): Renfeko datuak soilik aldirietako bidaiariei dagozkie.

(\*\*): Trenaren nahiz tranbia eta autobusen diru-bilketa barne hartzen du.

Iturria: Renfe eta EuskoTren.

Bi tren-enpresek lortutako diru-bilketari erreparatuta, guztizko zenbatekoa 46.249,2 mila eurora arte areagotu da, % 2,8ko gorakadarekin. Hala ere, biek ez dute ekarpen bera egin kopuru horietara iristeko: EuskoTren izan da diru-bilketa handiena lortu duena, baita hazkundera (% 9,0) erregistratu duen bakarra ere. Euskal operadoreak 30.926,5 mila euroko bilketa lortu du; horietatik, 18.880 mila eurok tren-jarduerarekin dute lotura (% 61eko garrantzi espezifikoa eta % 15,0ko igoera), 6.374 mila eurok tranbiarekin eta 5.639 mila eurok errepide bidezko garraioarekin (beste 34 mila euro ere bildu dira, "beste batzuk" kontzeptuari lotuta). Renferi dagokionez, azken urteko diru-bilketan murrizketa nabarmena izan da (-% 7,9); 15.322,7 mila euro lortu dira eta, hala, azken ekitaldian erregistratutako beheranzko joera areagotu da.

#### 198. koadroa EAEn eta Nafarroan jatorria eta/edo helmuga duten merkantzien bolumena<sup>(\*)</sup>

Kontzeptua	(m Tm)			
	2016	2017	2018	% $\Delta$ 18/17
Renfe	2.399,7	2.235,8	2.082,9	-6,8
EuskoTren	51,4	46,7	12,5	-73,2
<b>Guztira</b>	<b>2.451,1</b>	<b>2.282,5</b>	<b>2.095,5</b>	<b>-8,2</b>

(\*): Edukiontziak salbu.

Iturria: Renfe eta EuskoTren.

EAE eta Nafarroan jatorria eta/edo helmuga duten merkantzien garraioaren bilakaera aztertuko dugu orain. 2018an, aurreko ekitaldietako portaera-patroia errepikatu da: jarduera % 8,2 murriztu da; hau da, 187 mila tona merkantzia gutxiago garraiatu dira. Datuak konpainien arabera aztertzen baditugu, ikus dezakegu Renfek % 6,8ko murrizketa izan duela, 2.082,9 mila tona garraiatu ondoren; zenbateko hori ia-ia jardueraren guztizko kopurua da. EuskoTrenek, bere aldetik, ekarpen txikia egin du: 12,5 mila tona. Hala, nabarmen egin du behera aurreko ekitaldiko balioekin alderatuta (-% 73,2). Enpresak argitaratutako informazioaren arabera, jaitsiera horren arrazoia EuskoTrenetik kanpoko operadoreak izandako arazoetan datza, ondorioz, ezinezkoa izan delarik bezeroen eskariari erantzutea.

**199. koadroa Trenbide bidezko garraioan enplegatutako langileak**

Kontzeptua	2016	2017	2018	% Δ 18/17
Renfe	650	658	645	-2,0
EuskoTren	975	1.073	1.086	1,2
<b>Guztira</b>	<b>1.625</b>	<b>1.731</b>	<b>1.731</b>	<b>0,0</b>

*Iturria: Renfe eta EuskoTren.*

Atal honekin bukatzeko, eta enpleguaren bilakaera landuz, aldaketa gutxi izan dira 2017arekin alderatuta, izan ere, bi plantillen batura (1.731 langile) berdin mantendu da. Alde batetik, Renfek % 2ko murrizketa izan du azken ekitaldi honetan bere plantillan; horrek termino absolutuetan 13 enplegu galdu direla esan nahi du, guztira 645 langile izan direlarik. EuskoTrenek, aldiz, 1.086 langileko plantilla lortu du 2018an, azken ekitaldian 13 enplegu gehituz (% 1,2).

**Bilboko Metroa**

Bizkaiko hiri inguruko trenaren 2018ko jarduera-balantzea bidaiarien bolumenean izandako hedapen berri batengatik nabarmentzen da. Konpainiak argitaratutako datuen arabera, Bilboko Metroak 89.919.810 bidaiarirekin bukatu du ekitaldia; horiek horrela, 2017an baino 1.746.673 erabiltzaile gehiago izan dira (% 2). Hala, 2011n lortutako bidaiarien marka altuena gainditu du (89.616.398 bidaiari erregistratu ziren) eta, horrenbestez, Bizkaiko metropolarra 90 milioi erabiltzaile izatetik oso gertu geratu da.

## 200. koadroa Bidaiarien mugimendua Bilboko Metroan

Urtea	Bidaiariak (m)	% Δ
2009	87.043	0,8
2010	88.556	1,7
2011	89.616	1,2
2012	87.615	-2,2
2013	87.133	-0,6
2014	87.397	0,3
2015	87.536	0,2
2016	87.105	-0,5
2017	88.172	1,2
2018	89.919	2,0

Iturria: Bilboko Metroa.

Hainbat faktorek lagundu dute hiri inguruko trenaren erabiltzaileen kopurua areagotzen. Lehenak "egutegi-efektua"-rekin du zerikusia, 2017an baino lanegun bat eta bi zubi gehiago izan baititugu. Bidaiarien mugimendua handitzen lagundu duen beste faktore bat Bilbon eta haren metropoli-inguruan ekitaldi kopuru gehiago antolatu izana da; esaterako, Errugbiko Munduko Txapelketa, MTV sariak edo Osakidetzako EPEa. Hurrengo arrazoa 3. lineak egindako bidaiarien ekarpen nabarmenari dagokio; linea horrek Bilboko iparraldeko auzoetan eskaintzen du zerbitzua. Bestetik, Sopela eta Plentzia artean tren-zerbitzua irekitzeak ere bere garrantzia izan du, 2018an 3 hilabete gehiago egin baititu funtzionamenduan. Nabarmentzekoa da, halaber, ohikoa den moduan, erabiltzaile gehien izan dituen eguna Santo Tomas eguna izan dela (408.017 baliozkotze).

Adierazitakoarekin bat, enbor komunean, 2017an baino 631.560 bidaia gehiago egin dira (% 2,3 gehiago). Zazpikaleak/Casco Viejo izan da bidaiarien mugimendu handiena erregistratu duena (guztira, 7.005.896 baliozkotze; hau da, 2017an baino % 9,7 gehiago). Jarraian, honako hauek daude: Moyua (6.381.607 bidaiari) eta Abando (6.221.985 erabiltzaile); bi geltoki horiek ere trafikoa areagotu dute, baina erritmo motelagoan (% 1 eta % 0,1, hurrenez hurren). 1. linean ere agerikoa izan da bidaiarien hazkundera: 626.829 bidaia gehiago egin dira (% 2,9), eta aurrerapen handiena Plentzian, Urdulizen jatorria edo helmuga izan duten bidaietan (zati hori irekitzearen ondorioz) eta Areetan eta Algortan erregistratu da. 2. lineari dagokionez, % 1,6ko hazkundera ezarri da (559.945 bidaia gehiago), batez ere Zazpikaleak/ Casco Viejo geltokian jatorria edo helmuga izan duten ibilbideetan.

Bilboko Metroak eskaintzen dituen garraio-tituluen sarrera-tasari arreta jarrita, Creditrans izan da, aurreko urteetan bezala, gehien erabili den ordainketa-modalitatea, aintzat hartuta 10 erabiltzailetik ia-ia 5ek erabiltzen dutela titulu hori (% 0,3ko hazkundera). Sarrera-tasa handiena izan duen bigarren modalitatea aldi baterako tituluak izan dira (bidaien % 23,8 eta % 0,1eko hazkundera), eta ondoren, Gizatrans txartel

pertsonalizatua (erabiltzaileen % 13,5 eta % 0,2ko hazkundera). Azkenik, gutxiago erabilitako aukera gisa, baina oraindik ere ordezkagarritasun nabarmenarekin, honako hauek finkatu dira: urteko titulua (% 5,4) eta aldizkako titulua (% 2,4), zeinak sarrera-tasa pixka bat txikiagoa erregistratu baitute EuskoTreneko titulu konbinatuen desagerpenaren ondorioz (-% 0,1 eta -% 0,2, hurrenez hurren).

### 3.2 ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA

Errepide bidezko garraioaren analisisian zentratuz eta ibilgailuen parkeari dagokionez, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren (DGT) datuen arabera, 2018an Espainiako ibilgailuen parkeak 33.730.398 unitate izan ditu; hau da, aurreko ekitaldian baino 800.802 unitate gehiago (% 2,4). EAE eta Nafarroan, ibilgailuen parkeak 1.832.023 unitatera arte egin du gora, % 1,5eko bilakaera positiboarekin, edo beste era batera esanda, 2017an baino 27.772 ibilgailu gehiagorekin. Hori horrela, EAE eta Nafarroako ibilgailuen parkeak parke nazional osoaren % 5,4 hartzen du.

#### 201. koadroa Ibilgailuen parkea\*

Eremua	Kamioiak <sup>(1)</sup>		Autobusak		Turismoak		Motozikletak		Traktore ind.		Beste batzuk <sup>(2)</sup>		Guztira	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018
Araba	28.639	29.216	540	539	156.781	158.009	15.607	16.012	1.233	1.329	7.852	8.171	210.652	213.276
Bizkaia	84.649	85.806	1.888	1.958	513.167	519.107	53.611	55.398	3.494	3.531	19.125	19.518	675.934	685.318
Gipuzkoa	61.579	62.227	940	974	321.025	325.598	58.637	60.555	3.157	3.225	16.860	17.553	462.198	470.132
EAE	174.867	177.249	3.368	3.471	990.973	1.002.714	127.855	131.965	7.884	8.085	43.837	45.242	1.348.784	1.368.726
Nafarroa	74.845	76.789	848	849	322.140	326.303	34.327	35.390	4.432	4.613	18.875	19.353	455.467	463.297
EAE eta Naf.	249.712	254.038	4.216	4.320	1.313.113	1.329.017	162.182	167.355	12.316	12.698	62.712	64.595	1.804.251	1.832.023
Espainia	4.801.966	4.981.204	63.590	64.915	23.623.627	24.074.216	3.327.026	3.459.760	218.119	225.950	895.268	924.353	32.929.596	33.730.398
EAE eta Naf./Espainia %	5,2	5,1	6,6	6,7	5,6	5,5	4,9	4,8	5,6	5,6	7,0	7,0	5,5	5,4

(\*): 2018rako behin-behineko datuak.

(1): Kamioiak eta furgonetak barne hartzen ditu.

(2): Beste ibilgailu batzuk, atoiak eta erdiatoiak barne hartzen ditu.

Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

EAE eta Nafarroako geografia osatzen duten lau lurraldeak aztertzen baditugu, ikus dezakegu parke zirkulatzailerak hazi dela guzti-guztietan. Horiek horrela, Gipuzkoa eta Nafarroa finkatu dira zerrendaren buruan, % 25,7ko eta % 25,3ko ordezkagarritasunarekin, hurrenez hurrez; bilakaera oso antzekoa izan dute, ibilgailuen parkea % 1,7 areagotu baitute biek. Jarraian Bizkaia kokatzen da, % 1,4ko igoerarekin eta parke osoaren 10 ibilgailutik ia-ia 4 hartzen dituelarik. Azkenik, Arabak, % 11,6ko garrantzi espezifikoarekin, hazkundera erregistratzen du (% 1,2) bere ibilgailuen parkean.

Testuinguru positibo horretan, nabarmendu beharreko alderdia ibilgailuen parkearen zahartzean datza, bai estatu-mailan bai EAE eta Nafarroan. Zirkulazioan dauden ibilgailuen batez besteko antzintasunak goranzko joera mantentzen du, eta jada 12,3 urteetan finkatzen da Estatuan; EAE eta Nafarroan, aldiz, adierazlea txikiagoa da (11,4 urte). Ibilgailuen batez besteko antzintasunaren igoera progresibo horrek esan nahi du 10 urtetik gorako 7 milioi ibilgailu baino gehiago ari direla zirkulatzen errepide nazionaletan. Egoera horren aurrean, Eusko Jaurlaritzak Renove plan bat abian jartzeko asmoa du hurrengo ekitaldirako. Horren bidez, parkea gaztetu eta gutxiago kutsatzen duten ibilgailuen aldeko trantsizioa sustatu nahi da.

Analisiarekin jarraituz eta informazioa ibilgailu motaren arabera banakaturik, indarrean mantentzen da 2017ko egoera, ibilgailu mota bakoitzaren ordezkagarritasunari dagokionez. Era berean, mota bakoitzean hazkunde iraunkorra erregistratu da. Zehazki, maila nazionalean, turismoa dago ibilgailuen parkearen buruan, alde handiarekin gainera; izan ere, 10 ibilgailutatik 7 dira turismoak. 2018an, % 1,9ko hazkundera izan du atal honek. Bigarren postuan, kamioia dago, % 14,8ko parte-hartzearekin. Ekitaldi honetan, % 3,7ko igoera erregistratu du. Hirugarren postuan, motozikletak, % 10,3ko sarrera-tasarekin; horiek dira taldean bilakaera onena izan dutenak (% 4,0). Azken posizioetan, traktore industrialak eta autobusak kokatzen dira, % 0,7 eta % 0,2ko sarrera-tasekin, hurrenez hurren. Traktore industrialak izan dira bilakaera positiboagoa adierazi dute (% 3,6, eta autobusek % 2,1).

EAE eta Nafarroan zentratzen bagara, Bizkaia izan da turismo, kamioi eta autobusen kategorietan garrantzi espezifikoa handiena erregistratu duena (% 39,1, % 33,8 eta % 45,3ko ekarpenak, hurrenez hurren). Gipuzkoa, aldiz, motozikleten parkean gailendu da, guztizko kopuruaren % 36,2 hartzen duelarik. Azkenik, Nafarroa traktore industrialen kategorian nagusitu da (% 36,3ko ordezkagarritasuna). Bilakaera aztertuz gero, motozikletak gailendu dira jasandako dinamismoari dagokionez (% 3,2), eta antzeko portaera izan dute lurraldeen arabera. Era berean, EAE eta Nafarroako traktore industrialen parkean erregistratutako bilakaera azpimarratzen da (% 3,1), batez ere Araban erregistratutako portaerak (% 7,8) sustatuta; izan ere, gainerako lurraldeetan aldakuntza txikiagoak jaso dira. Autobusek, bere aldetik, % 2,5 areagotu dituzte beren balioak, eta aldakuntza txikiena kamioien (% 1,7) eta turismoen (% 1,2) kategorietan erregistratu da.

**202. koadroa Kamioi, traktore industrial eta autobusen matrikulazio garbia\***
*(unitate)*

Eremua	Kamioiak eta traktore industrialak		Autobusak		Guztira	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
Araba	-1.050	673	21	-1	-1.029	672
Bizkaia	-1.824	1.194	29	70	-1.795	1.264
Gipuzkoa	-1.515	716	33	34	-1.482	750
EAE	-4.389	2.583	83	103	-4.306	2.686
Nafarroa	-1.998	2.125	23	1	-1.975	2.126
EAE eta Naf.	-6.387	4.708	106	104	-6.281	4.812
Espainia	-68.523	187.069	1.749	1.325	-66.774	188.394

*(\*): Parkearen urte arteko aldakuntza.*
*Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.*

Kamioi, traktore industrial eta autobusen matrikulazio garbiari dagokionez, azpimarratu behar da azken urtean goranzko aldakuntzak erregistratu direla berriro ere, aurreko ekitaldia balio negatiboetan bukatu ondoren, non soilik autobusen matrikulazio garbiak hazi ziren. Hori horrela, bereziki azpimarratu behar da EAE eta Nafarroako kamioi eta traktore industrialen matrikulazio garbietan izan den areagotzea (+4.708), aintzat hartuta aurreko ekitaldietan beheranzko joera erregistratzen ari zela. EAE eta Nafarroako lurralde guztiek egin dute beren ekarpena bilakaera positibo hori lortzeko, baina Nafarroako hazkundea izan da nabarmenena (+2.125). Estatuak, bere aldetik, 187.069 matrikulazioko igoera erregistratu du. Autobusei erreparatuz, 2018 ekitaldian, bi geografia-eremuetan erregistratu da areagotzea. EAE eta Nafarroan 104 hazi da matrikulazio garbia, eta Estatu osoan, aldiz, 1.325, non balio negatibo bakarria egon den (Araba, -1). Hortaz, matrikulazio garbiaren guztizkoak egoera oso positiboa islatzen du lurralde guztietan; EAE eta Nafarroan, honelakoa izan da banaketa: Nafarroak hauteman du igoera handiena (+2.126); ondoren, Bizkaiak, 1.264 matrikulazio garbiko hazkundearekin; eta distantzia handiagoan, Gipuzkoa eta Araba, 750 eta 672 matrikulazio garbiko igoerarekin, hurrenez hurren.

**203. koadroa Motorizazio-indizeak**

Eremua	Ibilgailuak/1.000 biztanle		Biztanleak/Turismoa	
	2017	2018	2017	2018
Araba	645	649	2,1	2,1
Bizkaia	589	596	2,2	2,2
Gipuzkoa	643	652	2,2	2,2
EAE	615	622	2,2	2,2
Nafarroa	708	715	2,0	2,0
EAE eta Naf.	636	644	2,2	2,1
Espainia	707	722	2,0	1,9

*Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta guk geuk egina.*

Motorizazio-indizea aztertzen badugu, 1.000 biztanleko ibilgailu kopuruari dagokionez, 2018 ekitaldian berriro ere gainditu dira —neurri handiago edo txikiagoan— aurreko urtean erregistratutako tasak. Zehazki, Nafarroak EAE eta Nafarroako indize altuena lortu du: 715 ibilgailu 1.000 biztanleko. Tasa nabarmenki txikiagoekin, Gipuzkoa eta Araba finkatu dira, 652 eta 649 ibilgailurekin 1.000 biztanleko, hurrenez hurren; eta, ondoren, Bizkaia, 600 ibilgailuen atalasetik gertu. Hori guztia aintzat hartuta, EAE eta Nafarroak 644 ibilgailuko motorizazio-tasa izan du 2018an, estatu-mailakoa baino tasa txikiagoa, 2018an nabarmen areagotu baita, 1.000 biztanleko 722 ibilgailuetara iritsi arte.

Bigarren adierazlea kontuan hartuta (turismo bakoitzeko biztanle kopurua), aldakuntzarik gabe mantendu dira lurralde bakoitzean lortutako emaitzak, turismoko 1,9 eta 2,2 biztanle arteko tartean finkatuz. Aurreko ekitaldian ikusten zen bezalaxe, Bizkaiak eta Gipuzkoak erregistratu dituzte tasa altuenak, turismoko 2,2 biztanlerekin; eta ondoren Araba eta Nafarroa daude, turismoko 2,1 eta 2 biztanlerekin, hurrenez hurren.

**204. koadroa Garraiatutako merkantziak autonomia-erkidegoaren arabera. Eskualde barruko garraioa eta eskualde arteko garraioa jatorri eta/edo helmugako autonomia-erkidegoaren arabera**

(mila Tm)

Eremua	EAE		Nafarroa		EAE eta Naf.		Estatua	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018
Eskualde barruko garraioa	36.029	36.537	11.880	11.817	47.909	48.354	761.381	810.079
Eskualde arteko garraioa	46.908	45.157	25.605	26.814	72.513	71.971	330.082	336.322
<b>Guztira</b>	<b>82.937</b>	<b>81.694</b>	<b>37.485</b>	<b>38.631</b>	<b>120.422</b>	<b>120.325</b>	<b>1.091.463</b>	<b>1.146.401</b>

Iturria: Sustapen Ministerioako Estatistika Buletina.

Kapituluararekin jarraikiz eta merkantzien garraioari arreta jarrita, Sustapen Ministerioak Errepide bidezko Garraioari buruzko Inkesta Iraunkorraren harira argitaratutako datuen arabera, 2018ko jarduera-balantzeak bilakaera positiboa islatzen du Estatu osorako eta Nafarroarako. Aitzitik, EAEn murrizketak erregistratu dira garraiatutako merkantzien bolumenean, azken urteetako goranzko joera hautsiz. Lurraldeen bilakaera-portaeran sakonduz, EAEn 81.694 mila tona garraiatu dira guztira 2018an; hau da, % 1,5eko murrizketa egon da 2017arekiko. Nafarroan, aldiz, 38.631 mila tona garraiatu dira, % 3,1eko hazkundearekin, aurreko ekitaldiko joera negatiboari buelta emanaz. Horrenbestez, EAE eta Nafarroan, guztira, 120.325 mila tonako bolumena lortu da; hau da, % 0,1eko beherakada txikia, EAEn ordezkarritasunaren ondorioz. Estatuan % 5eko hazkundera erregistratu da, guztira 1.146.401 mila tona garraiatu direlarik.

Informazioa garraio motaren arabera banakatuz, eskualde arteko garraioa izan da, aurreko urteetan bezala, trafiko handiena izan duena EAEn zein Nafarroan (guztizkoaren

% 55,3 eta % 69,4). Bilakaerari dagokionez, alderantzizko portaerak jaso dira, aintzat hartuta azken urtean EAeko eskualde arteko garraioak behera egin duela (-% 3,7), Nafarroan areagotu den bitartean (% 4,7). Hortaz, EAE eta Nafarroa osotasunean hartuta, balantza pixka bat okertu da balio negatiboetara (-% 0,7), EAeko garrantzi espezifikoa arrastatuta. Eskualde barruko garraioa aztertuz, nabarmentzekoa da lurralde guztietan —Nafarroan izan ezik—, hazkundera izan dela garraiatutako merkantzien bolumenean. Zehazki, EAEn, 36.537 mila tona garraiatu dira 2018an, % 1,4ko hazkunderarekin; Nafarroan, berriz, murrizketa txikia egon da (-% 0,5). Hori guztia aintzat hartuta, EAE eta Nafarroan eskualde barruko garraioa % 0,9 hazi da, 48.354 mila tonara iritsiz. Estatuan, hazkundera nabarmenagoa izan da (% 6,4), jardueraren zati handiena bereganatuz (% 70,7), 810.079 mila tonara arte igo baita.

Analisisa hiri-garriara mugatuz, jarraian EAeko hiru hiriburuetan operatzen duten hiru konpainien jardura aztertu da (Bilbobus Bilbon, Dbus Donostian eta TUVISA Gasteizen).

**205. koadroa Hiri-garraioa. Sektoreko oinarritzko datuak**

Kontzeptua	Bilbo		Donostia		Gasteiz	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
Sareko lineak (*)	43	43	41	41	15	15
Luzera (km)	631,5	632,9	534,4	545,6	203,5	203,5
Autobusen parkea	148	148	132	132	87	86
Plantilla	611	628	506	521	331	343

(\*): Eguneko eta gaueko lineak barne hartzen dira.

Iturria: Transportes Colectivos SA; Cia. Del Tranvía de San Sebastián SA; Transportes Urbanos de Vitoria SA.

Bilbobus garraio-konpainiatik hasita eta enpresak berak emandako informazioa oinarri hartuta, 2018an hazkundera izan dira nagusi enpresaren oinarritzko datuetan. Sareko lineak 43 izaten jarraitzen duten bitartean, 35 ohiko zerbitzu eta gaueko 8rekin, linearen luzera 632,9 kilometrorara arte handitu da, 1,4 kilometroko hedapenarekin. Halaber, egonkortasuna izan da parkea osatzen duten autobusen kopuruan; guztira, 148 unitate izan dira, 4 ibilgailu erabat elektrikorekin eta 2 hibridorekin. Bestalde, konpainiaren plantillak 17 langile irabazi ditu, 611tik 628 langilera igaroz.

Dbus-en analisi berbera eginez, Bilbon bezala, erreferentzia-adierazleek goranzko aldakuntzak izan dituzte. 2018an, garraio-konpainiak 41 linea izan, 32 egunekoak eta 9 gauekoak; luzera 11,2 kilometro hedatu da, 545,6 kilometrorara arte. Autobusen parkeak 132 unitateak mantendu ditu, baina 7 ibilgailu elektriko/hibrido berri gehitu dira, beste 7 konbentzional ordezkatzeko. Plantilla ere hazi egin da, 15 langile berrirekin, 521 langilera iritsiz.



Gasteizko hiri-garraioen konpainiaren (TUVISA) 2018 ekitaldia egonkortasunak markatu du. Sareko lineak (15 guztira, 10 egunekoak eta 5 gauekoak) eta sarearen luzera (203,5 kilometro) berdin mantendu dira; autobusen parkeak unitate bat galdu du (87tik 86ra igaroz, eta 5 unitate hibridorekin); eta plantillan goranzko aldakuntza egon da, 12 langile berriekin (guztira, 343 dira).

#### 206. koadroa Hiri-garraioaren bilakaera

Kontzeptua	Bilbo		Donostia		Gasteiz	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
Ibilitako km baliagarriak (m)	6.425	6.380	6.771	6.883	4.490	4.537
Garraiatutako bidaiariak (m)	25.458	25.055	28.402	29.169	15.162	15.759
Diru-bilketa (m euro)	11.183	11.122	19.639	20.455	6.752	6.876
Ustiapenaren emaitza (m euro)	--	--	-14.987		--	--
Tarifak (euro)	1,3/0,65	1,3/0,65	1,75	1,75	1,4/0,6	1,4/0,6

(--): Txosten hau egitean ez zeuden datuak eskuragarri.

Iturria: Transportes Colectivos SA; Cía. Del Tranvía de San Sebastián SA; Transportes Urbanos de Vitoria SA.

Konpainia bakoitzaren jarduera-balantzean sakonduz, eta Bilbobusekin hasita, eskura ditugun ia-ia adierazle guztiek murrizketak erregistratu dituzte 2018an. Hala, 45 mila kilometro baliagarri gutxiago ibili dira (-% 0,7) eta 403 mila bidaiari gutxiago garraiatu dira (-% 1,6); eta horrek eragina du konpainiaren negozio-zifran: 11.122 mila euro bildu dira (-% 0,5).

Dbus-en inguruan eskura dagoen informazioa landuz, egoera mesedegarriagoa da, adierazleek hazkundera erregistratu baitute 2017arekin alderatuz. Zehazki, azken ekitaldian, 6.883 mila kilometro baliagarri ibili dira (% 1,7 gehiago), bidaiarien bolumena hazi da (% 2,7; guztira, 29.169 mila bidaiari), eta horrek 20.455 mila euroko bilketa izan du ondorio (+% 4,2).

Amaitzeko, Gasteizko hiri-garraioari dagokionez, 2018an hazkunde berriak egon dira TUVISAren adierazleetan. Guztira, 4.537 mila kilometro baliagarri ibili dira (+% 1,1), eta 15.759 mila bidaiari garraiatu dira (aurreko ekitaldian baino % 3,9 gehiago). Testuinguru horretan, bilketa 6.876 mila eurokoa izan da; % 1,8ko hazkundera 2017ko balioekin alderatuta.

**3.3 ITSASO BIDEZKO GARRAIOA** Itsaso bidezko garraioak balio positiboetan bukatu du 2018 ekitaldia, izan ere, mundu-mailako itsas merkataritzak % 2,6ko hazkundea erregistratu du; hala eta guztiz ere, aurreko ekitaldiko jardueraren azpitik kokatu da (% 4,5). Hori guztia kontuan hartuta, ANAVEk (Espainiako Ontzi Elkarteak) argitaratutako informazioarekin bat, 2018an marka historiko berri bat lortu da garraiatutako tonen bolumenean (11.832 milioi tona).

**207. koadroa** Itsaso bidezko munduko merkataritza

	<i>(M Tm)</i>			
Merkantziak	2016	2017	2018 <sup>(*)</sup>	% Δ 18/17
Solteko salgai solido nagusiak <sup>(1)</sup>	3.008	3.150	3.189	1,2
Petrolio gordina eta produktuak	2.974	3.059	3.094	1,1
Beste solteko salgai solido batzuk	1.893	1.949	2.023	3,8
Edukiontzietako kargak	1.698	1.797	1.874	4,3
Karga orokor konbentzionala	855	889	915	2,9
Beste solteko salgai likido batzuk <sup>(2)</sup>	639	686	735	7,1
<b>Guztira</b>	<b>11.068</b>	<b>11.529</b>	<b>11.832</b>	<b>2,6</b>

(\*): Behin-behineko datuak.

(1): Ikatza, burdin mea, alea.

(2): Gas likidotuak eta produktu kimikoak.

Iturria: Anave, Clarkson.

Mundu-mailako merkataritzaren bilakaeran sakonduz eta merkantzia motaren arabera garraioari dagokionez, jasotako datuek argi uzten dute aztertutako partida guztietan bilakaera positiboa egon dela, nahiz eta aldakuntzen intentsitatea ezberdina izan. Solteko salgai solido nagusiek merkataritzaren % 27 hartzen dute eta azken urtean % 1,2ko hazkundea erregistratu dute; ondoren, petrolio gordin eta produktuen atala dago, oso hurbil (% 1,1) eta antzeko garrantzi espezifikoarekin (% 26,1). Edukiontzietako kargek eta beste solteko salgai batzuek dinamismo handiagoa izan dute (% 4,3 eta % 3,8, hurrenez hurren), % 15,8 eta % 17,1eko ordezkagarritasunarekin, hurrenez hurren. Karga orokor konbentzionalak, bere aldetik, % 7,7ko parte-hartzea izan du, eta 2018an % 2,9 hazi da jarduera. Zenbateko txikieneko partida (% 6,2), berriz, beste solteko salgai likido batzuk izan da, baina baita bilakaera onena izan duena ere (% 7,1).

**208. koadroa** Espainiako itsas merkataritza

	<i>(m Tm)</i>		
Kontzeptua	2017	2018	% Δ 18/17
Esportazioak	104.188	104.502	0,3
Inportazioak	211.009	214.157	1,5
Kabotajea	46.610	48.648	4,4
<b>Guztira</b>	<b>361.807</b>	<b>367.307</b>	<b>1,5</b>

Iturria: Anave, Estatuko Portuak.

Estatu-mailako merkantzien itsas merkataritzan ere hedapena izan da 2018an; hori bai, nahiko moderatua. Azken ekitaldi honetan, hazkundera moteldu da, aintzat hartuta 2017ko % 6,4ko hazkundera 2018an % 1,5era igaro dela. Horiek horrela, itsas jarduera nazionala 367.307 mila tonatan zifratu da, inportazioak garrantzi handieneko partida direlarik (% 58,3); azken honek jarduera osorako aipatutakoarekin bat datorren hazkunde moderatua izan du (% 1,5, eta 2017an % 8). Esportazioek ere antzeko joera erakutsi dute, % 28,5eko kuotarekin eta, dezima batzuei esker, ekitaldia balio positiboetan itxiz (% 0,3). Azkenik, kabotajea da bilakaera positiboena (% 4,4) islatzen duen partida, parte-hartze askoz txikiagoarekin (% 13,2).

Nazioarteko eta maila nazionaleko egoeraren magnitude nagusiak aztertu ondoren, jarraian EAEko bi merkantzia-portuetako jardueraren balantzea egingo dugu: Bilboko Portua (Bizkaia) eta Pasaia Portua (Gipuzkoa).

Erreferentziako portuarekin hasiz, hau da, Bilboko Portuarekin, 2018an jarduera hazi dela egiaztatu da (35.695 mila tona). Urte arteko % 4ko hazkundera izan da trafikoa, 2013tik % 23ko hazkundera pilatuz, nahiz eta aldi horretan zehar balio negatiboa izan den ekitaldi batean (2016). Deskargak, % 62,5eko garrantzi espezifikoarekin, nahiz kargak, % 37,2ko ordezkagarritasunarekin, % 3,1 eta % 5,7 areagotu dute beren jarduera 2017ko balioen aldean. Zuzkidurak parte-hartze txikia izan du (% 0,3) eta ia aldaketarik gabe mantendu da.

#### 209. koadroa EAEko portu nagusietako trafikoa

(m Tm)

Kontzeptua	Bilbo			Pasaia		
	2016	2017	2018	2016	2017	2018
Deskargak	19.766,1	21.637,3	22.314,2	1.947,6	1.664,2	1.733,2
Kargak	12.182,6	12.557,7	13.269,3	1.446,2	1.255,5	1.355,4
Zuzkidura	109,4	112,0	111,7	33,3	29,1	25,1
Tokiko trafikoa	9,1	0,0	0,2	0,0	0,0	0,0
Arrantza	0,0	0,0	0,0	27,6	26,0	24,6
<b>Guztira</b>	<b>32.067,3</b>	<b>34.306,7</b>	<b>35.695,4</b>	<b>3.454,7</b>	<b>2.974,8</b>	<b>3.138,3</b>

Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaia Portuko Agintaritza.

Portu gipuzkoarrean ere analisi bera egiten badugu, joera-aldaketa bat hautematen da, duela urte batzuetako hazkunde-bideari berriro helduz eta, guztira, 3.138,3 mila tona garraiatuta. Murrizketen bihurtzeko baten ondoren, badirudi portuak berriro ere indarra berreskuratu duela, gehienbat bi partida nagusiei esker: deskargak (guztizkoaren % 55,2), % 4,1eko hazkundearekin, eta kargak (% 43,2), % 8ko igoera nabariarekin.

**210. koadroa Merkantzien guztizko trafikoaren osaera**
*(m Tm)*

Kontzeptua	Bilbo			Pasaia		
	2016	2017	2018	2016	2017	2018
Petrolio-produktuak	15.614,7	16.236,4	16.367,3	--	--	--
Merkantzia orokorra	9.499,5	9.868,0	10.335,1	2.294,7	2.085,3	2.085,6
Solteko salgai solidoak	4.362,1	4.543,2	4.757,9	1.099,2	834,4	1.003,0
Beste solteko salgai likido batzuk <sup>(*)</sup>	2.472,5	3.547,5	4.123,2	--	--	--
Gainerakoak	118,5	111,7	111,9	60,9	55,1	49,7
<b>Guztira</b>	<b>32.067,3</b>	<b>34.306,7</b>	<b>35.695,4</b>	<b>3.454,7</b>	<b>2.974,8</b>	<b>3.138,3</b>

*(\*) Datua gas naturalaren eta beste solteko salgai batzuen baturari dagokio. Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaiaiko Portuko Agintaritza.*

Analisiarekin jarraituz eta trafikoaren osaerari dagokionez, Bilboko kaian, hazkunde orokortuen testuinguruan, portaerarik onena solteko salgai likidoei dagokie (% 16,2), % 11,6ko parte-hartzearekin. Antzeko erritmoan hazi dira merkantzia orokorreko eta solteko salgai solidoen balioak (% 4,7), baina garrantzi espezifiko oso ezberdinekin: % 29 eta % 13,3, hurrenez hurren. Petrolio-produktuen partidan, zeinak garrantzi handiena baitu (% 45,9), ez dago ia bilakaerarik; ekitaldia balio positiboetan itxi da dezima batzuegatik.

Pasaian, trafikoaren osaera bi partidetan oinarritzen da. Alde batetik, merkantzia orokorra, % 66,5eko garrantzi espezifikoarekin eta 2017ko jarduera-bolumen berberarekin; eta, bestetik, % 32ko parte-hartzearekin, solteko salgai solidoak (nekazaritzako elikagaien sektorea eta eraikuntza), gorakada nabarmena izan dutenak (% 20,2), 2016an erregistratutako antzeko balioetara bueltatuz. Eta, azkenik, portuko trafikoa osatzeko, gainerako merkantzien partida dugu, beheranzko joerarekin (-% 9,8), guztizkoaren % 1,6 hartuz.

**211. koadroa Kanpoko trafikoa eta kabotajea**
*(m Tm)*

Kontzeptua	Bilbo			Pasaia		
	2016	2017	2018	2016	2017	2018
Inportazioa	19.234,1	21.175,3	21.778,5	1.912,2	1.619,6	1.675,2
Esportazioa	11.027,1	11.103,6	11.387,4	1.446,2	1.255,5	1.355,4
Kabotajea	1.687,5	1.916,1	2.417,7	35,4	44,6	58,0
<b>Guztira</b>	<b>31.948,7</b>	<b>34.195,0</b>	<b>35.583,5</b>	<b>3.393,8</b>	<b>2.919,7</b>	<b>3.088,6</b>

*Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaiaiko Portuko Agintaritza.*

Kanpoko trafikoari eta kabotajeari dagokienez, urtea aintzat hartutako adierazle guztietan hazkundeak lortuz bukatu da. Bi portuetan egoera berbera da: kabotajea, garrantzi txikiena duen partida (% 6,8 Bilbon eta % 1,9 Pasaian), dinamismo handiena duena da (% 26,2 eta % 30). Halaber, bi portuetan, inportazioak hartzen du jardueraren zatirik handiena (% 61,2 eta % 54,2), eta hazkunde moderatua erregistratu du (% 2,8 eta

% 3,4). Aitzitik, Bilboko Portuan esportazioa hazi bada ere (% 2,6), Pasaian hazkunde hori indartsuagoa izan da (% 8koa), eta sarrera-tasa % 32koa izan da Bilbon eta % 43,9koa Pasaian. Azpimarratzekoa da Pasaian ezarritako joera-aldaketa, izan ere, aurreko ekitaldian inportazioek nahiz esportazioek murrizketa nabarmenak izan zituzten (-% 15,3 eta -% 13,2).

### 212. koadroa Bilboko Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2018

		(m Tm)	
Esportazioak		Inportazioak	
Gasolina	1.496,7	Petrolio gordina	11.245,5
Produktu kimikoak	1.189,8	Produktu siderurgikoak	2.260,0
Produktu siderurgikoak	872,6	Gas naturala	2.113,6
Beste mineral ez-metaliko batzuk	785,1	Soja-babak	1.009,5
Zementua eta klinkerra	727,4	Produktu kimikoak	842,1
Beste petrolio-produktu batzuk	701,5	Edukiontzien tara	531,1
Beste batzuk	5.614,3	Beste batzuk	3.776,7
<b>Guztira</b>	<b>11.387,4</b>	<b>Guztira</b>	<b>21.778,5</b>

*Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Geuk egina.*

Datuetan sakonduz eta Bilboko Portuko esportazioen osaerari erreparatuz, gasolinak buruan jarraitzen du, % 13,1eko parte-hartzearekin; eta bigarren postuan, produktu kimikoak aurkitzen dira, % 10,4ko garrantzi espezifikoarekin. Bestalde, hauek izan dira bi partida horien areagotzeak: % 18,2 eta % 435, hurrenez hurren. Gainerako produktu nagusien parte-hartzeak bi balio hauen artean ezarri dira: produktu siderurgikoei dagokien % 7,7 (-% 0,2ko bilakaera) eta beste petrolio-produktu batzuei dagokien % 6,2 (-% 22ko bilakaera). Inportazioei dagokienez, petrolio gordina beste partiden aldean gailentzen da, trafikoaren erdia hartuz (% 51,6), eta % 9,5eko urte arteko aldakuntza bereganatuz. Ondoren, % 10 inguruko ordezkagarritasunarekin, produktu siderurgikoak (% 14,1) eta gas naturala (% 6,3) kokatu dira. Azkenik, soja-babek (% 4,6), produktu kimikoek (% 3,9) eta edukiontzien tarak (% 2,4) osatzen dute inportazioen mapa.

### 213. koadroa Pasaiaiko Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2018

		(m Tm)	
Esportazioak		Inportazioak	
Produktu siderurgikoak	694,6	Produktu siderurgikoak	710,8
Automobilak eta horien piezak	387,0	Papera eta orea	180,7
Zementua eta klinkerra	87,2	Ongarri natural eta artifizialak	149,3
Eraikuntza-materialak	77,4	Pentsuak eta bazkak	129,2
Erauzketako beste mineral batzuk	33,8	Burdin txatarrak	120,5
Beste merkantzia batzuk	75,5	Beste merkantzia batzuk	384,7
<b>Guztira</b>	<b>1.355,4</b>	<b>Guztira</b>	<b>1.675,2</b>

*Iturria: Pasaiaiko Portuko Agintaritza. Geuk egina.*

Pasaiairi dagokionez, produktu siderurgikoak daude kanpoko eta barneko trafikoaren buruan, portuko jardueraren % 51,2 eta % 42,4 beregain hartuz, nahiz eta lehen adierazleak beheranzko bilakaera izan (-% 3,5) eta bigarrenak ia gora egin ez duen

(% 0,9). Esportazioen atalean, automobilak eta horien piezak guztizkoaren % 28,6 hartu du, balioak % 6,3 areagotuz. Gainerako produktuek, aldiz, parte-hartze askoz txikiagoa erregistratu dute. Horien artean, Zementua eta Klinkerra partida nabarmentzen da, izandako dinamismoagatik (% 200eko hazkunde esponentziala). Inportazioen kasuan, produktu siderurgikoen ondotik Papera eta oreka partida dago, % 10,8ko parte-hartzearekin eta % 18,5eko trafikoaren areagotzearekin. Ondoren, bi digituetatik azpiko ordezkagarritasuna duten produktuak aurkitzen dira. Horietatik, bilakaerarik onena Ongarri naturalak eta artifizialak partidak eskuratu du (% 36,1), 2017an bosgarren sailkatzetik 2018an hirugarren jartzea lortu baitu.

**214. koadroa Bilboko Portua. Herrialdeen arabeko trafikoa, 2018**

*(m Tm)*

Herrialdea	Kargak	Deskargak	Guztira
Erresuma Batua	2.239,4	1.465,0	3.704,4
Estatu Batuak	2.010,0	904,0	2.913,9
Mexiko	209,5	2.598,9	2.808,4
Espainia	1.881,9	535,8	2.417,7
Brasil	621,7	1.663,6	2.285,3
Libia	0,3	1.730,5	1.730,8
Herbehereak	971,5	697,5	1.668,9
Norvegia	046,1	1.392,8	1.438,8
Nigeria	027,5	1.302,5	1.330,0
Irak	02,1	1.083,3	1.085,4
Belgika	779,6	269,5	1.049,1
Errusia	072,6	858,8	931,4
Txina	163,6	647,9	811,5
Beste batzuk	4.243,7	7.164,2	11.407,9
<b>Guztira</b>	<b>13.269,3</b>	<b>22.314,2</b>	<b>35.583,5</b>

*Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Geuk egina.*

Bizkaiko kaiko bazkide komertzial nagusiak kontuan hartuta, 2018an Europa Atlantikoa izan da jarduera handiena erakutsi duena, trafikoaren % 32rekin; ondoren, Amerika Ipar Atlantikoa, % 17rekin; eta azkenik, Afrika Atlantikoa, % 8rekin. Herrialdeei dagokienez, Erresuma Batuak hartu du lehen postua, tokiko trafikoaren % 10,4rekin. Ondoren, AEB eta Mexiko daude, biak % 8 inguruan, eta 2017rekin alderatuta posizioak trukatu. Espainia, % 6,8ko parte-hartzearekin, eta Brasil, % 6,4koarekin, laugarren eta bosgarren ezarri dira; eta lehenengo bosten rankinga itxiz, Libia aurkitzen da (% 4,9ko garrantzi espezifikoa), gehien hazi den herrialdeetako bat izateagatik nabarmentzen dena, 2018 honetan 6 postu igo baita.

## 215. koadroa Bilboko Portua. Magnitude ekonomikoak


Kontzeptua	2016	2017	2018	(m euro) % Δ 18/17
Ustiapeneko sarrerak eta kanonak	65.211	68.779	70.594	2,6
Ustiapeneko gastuak	34.530	33.446	34.646	3,6
Amortizazioak	28.467	29.492	29.841	1,2
Ustiapeneko emaitza	5.485	6.124	5.925	-3,2
Ekitaldiko Emaidza	3.255	5.471	5.949	8,7
Cash Flow	37.207	41.087	41.715	1,5
Ibilgetu materiala	502.731	529.635	520.941	-1,6

*Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza.*

Bilboko Portuaren finantzaketari arreta jarrita eta haien balantzean argitaratutako informazioaren arabera, negozio-zifrak bilakaera positiboa izan du, 2017ko 68,8 milioi eurotik 2018ko 70,6 milioi eurora igaroz. Horrenbestez, negozio-bolumena % 2,6 hazi da; nolana ere, aldakuntza hori aurreko urtean erregistratutakoa baino txikiagoa da (% 5,5). Ekitaldiko emaitzari erreparatuta, 2018an 6 milioi euro inguruan kokatu da, eta % 8,7ko igoera hauteman du 2017arekin alderatuta. Era berean, banku-zor garbia 42,5 milioi euroan ezarri da (39,8 milioi 2017an); zorpetze handiagoa xedatu da Kai-Mutur nagusiaren lehen fasea finantzatzeko. Nabarmendu beharreko beste kontu bat, Portuko Agintaritzaren 2018-2022 aldirako Plan Estrategikoan aurreikusitakoaren arabera, era mailakatuan portuko tasak jaitsiko direla da, Portutik merkantzia pasatzearen kostua murrizteko helburuarekin.

Halaber, azpimarratu behar da, 2018an, lehen aldiz, ferryz edo gurutzaontzi bidez Bizkaian sartu edo bertatik atera diren 200.000 turisten atalasea gainditu dela. Datu horrek esan nahi du % 7,5eko hazkundea izan dela 2017. urtearekin alderatuta. Brittany Ferries konpainiako ferryak, Bilboko Portua-Portsmouth ibilbidea egiten duenak, 132 eskala egin eta 114.173 bidaiari eraman ditu. 2018an, 59 gurutzaontzi iritsi dira Getxora, 2017an baino 2 gutxiago, eta guztira, 86.500 inguru izan dira bertako bidaiariak (2017an baino 2.800 gehiago).


31. grafikoa Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Bilboko Portuan



Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza.



32. grafikoa Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Pasaiaiko Portuan



Iturria: Pasaiaiko Portuko Agintaritza.

216. koadroa Pasaiaiko Portua. Herraldeen araberako trafikoa, 2018

Herraldea	Deskargak	Kargak	Guztira
Erresuma Batua	125,6	573,7	699,3
Belgika	217,1	221,2	438,3
Suedia	265,3	5,7	271,0
Alemania	241,7	24,2	265,9
Irlanda	61,1	157,2	218,2
Herbehereak	141,0	74,0	214,9
Finlandia	109,3	7,5	116,7
Aljeria	71,4	44,4	115,8
Ukraina	66,7	0,0	66,7
Kanada	14,1	52,4	66,5
Frantzia	51,5	12,1	63,6
Espainia	63,6	0,0	63,6
Egipto	51,0	0,0	51,0
Beste batzuk	253,9	183,1	437,0
<b>Guztira</b>	<b>1.733,2</b>	<b>1.355,4</b>	<b>3.088,6</b>

(m Tm)

Iturria: Pasaiaiko Portuko Agintaritza. Geuk egina.

Analisia Pasaiaiko Portura mugatuz, Erresuma Batuak guztizko trafikoaren % 84 hartzen du, portuko jardueraren buruan kokatuz (% 22,6). Belgika bigarren postuan kokatzen da (% 14,2), eta Suediak (% 8,8) dezima gutxi batzuegatik kendu dio hirugarren postua Alemaniari (% 8,6). Rankingean bosgarren eta seigarren, ia balio berdinekin, Irlanda eta Herbehereak daude, % 7ko ordezkagarritasunarekin. Halaber, azpimarratzekoa da Finlandia Portuko bazkide komertzial nagusien artean sartu izana, Aljeriarekin protagonismoa partekatuz; zazpigarren eta zortzigarren daude rankingean.

Bidaiariei dagokienez, 5 itsasontzi porturatu dira Pasaian, guztira 63.235 pertsona garraiatuta. Berritasun gisa, 2018ko irailean, Pasaiaiko Portuak, Avilés (Asturias) eta Vilagarcía de Arousako (Galizia) bere homologoekin lankidetzan, aukera turistiko berri bat jarri du martxan: "Donejakue bideko gurutzaldia", erromesaldi-bide ospetsua ezagutzera eman nahi duena, bidaia itsasoz eginez.

### 3.4 AIRE BIDEZKO GARRAIOA

Analisia aire bidezko garraiora mugatuz, 2018an adierazle guztiek ekitaldia balio positiboetan itxi dute. Laugarren urtez jarraian, jarduera hedatu da; izan ere, aurten, bi digituko hazkundera izan da bidaiarien mugimenduan EAE eta Nafarroako aireportuetan.

## 217. koadroa EAE eta Nafarroako aire bidezko trafikoa\*

Urtea	Aireontziak			Bidaiariak (m)			Merkantziak (Tm)		
	Guztira	% Δ	EAE eta Naf./Espainia %	Guztira	% Δ	EAE eta Naf./Espainia %	Guztira	% Δ	EAE eta Naf./Espainia %
2012	73.424	-9,6	3,8	4.648,6	1,9	2,4	36.958,5	-1,2	5,7
2013	60.156	-18,1	3,4	4.211,8	-9,4	2,2	40.044,1	8,3	6,3
2014	59.996	-0,3	3,3	4.406,2	4,6	2,2	45.055,3	12,5	6,6
2015	63.211	5,4	3,3	4.659,0	5,7	2,3	49.255,0	9,3	6,9
2016	64.124	1,4	3,1	5.043,1	8,2	2,2	55.116,9	11,9	6,9
2017	68.033	6,1	3,1	5.505,5	9,2	2,2	62.445,9	13,3	6,8
2018	72.558	6,7	3,2	6.105,3	10,9	2,3	63.408,0	1,5	6,3

(\*): 2018rako behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

2018an, EAE eta Nafarroako lau aireportuen —Loiu (Bilbao), Foronda (Gasteiz), Donostia (Hondarribia) eta Noain (Iruñea)— jardueraren balantze bateratua oso positiboa izan da: 3 adierazletik 2 hobetu dituzte beren erregistro propioetan, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Zehazki, aireontzien trafikoa % 6,7 hazi da (% 6,1 2017an); bidaiarien kopuruak izan du gorakada handiena (% 10,9), baina garraiatutako merkantzien bolumenak hazkunde-erritmo askoz txikiagoa eta 2017koaren oso azpikoa erregistratu du (% 1,5, % 13,3ren aldean). Azpimarratu behar da bidaiarien kopuruan erregistratutako bi digituko hazkundeak gehieneko marka historikoa hautsi duela, 6 milioiak gaindituz. Merkantziek, aldiz, bilakaera eten dute; ekitaldia 63.408 tona garraiatuta bukatu da, baina hori da, hala ere, hamarkadako erregistrorik onena. Aireontzien mugimenduari dagokionez, 2017ko portaera-patroia errepikatu da, eta 72.000 unitateak gainditu dira.

Estatu osoko datuei erreparatuz, aireontziek bidaiarien kopuruak besteko bilakaera izan dute (% 5,8ko hazkundera), biak EAE eta Nafarroako aireportuen errendimenduaren azpitik areagotu dira. Aitzitik, merkantzien kasuan, Estatuan portaera askoz ere positiboagoa ezarri da, aintzat hartuta ia % 10eko hazkundera erregistratu dela.

## 218. koadroa Aireportukako aireontzien trafikoa\*

(unitate)

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		EAE eta Naf.		EAE eta Naf./Espainia %	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018
<b>Trafikoa</b>												
<b>guztira</b>	<b>46.990</b>	<b>49.966</b>	<b>5.683</b>	<b>6.422</b>	<b>6.925</b>	<b>6.415</b>	<b>8.435</b>	<b>9.755</b>	<b>68.033</b>	<b>72.558</b>	<b>3,1</b>	<b>3,2</b>
Barnekoa	27.580	28.778	5.134	5.395	6.141	5.681	3.657	3.998	42.512	43.852	5,4	5,3
Nazioartekoa	19.410	21.188	549	1.027	784	734	4.778	5.757	25.521	28.706	1,7	1,9

(\*): 2018rako behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

Lurraldeen araberako ikuspegitik eta aireportu bakoitzeko jardueran arreta jarrita, aireontzi kopuruari buruzko lehen adierazleak aireportu bakoitzaren ahalmena zehazten du. Loiuak, 2018an 50.000 aireontzietatik hurbileko trafikoarekin (% 68,9ko parte-hartzea), % 6,3ko hazkundera jasan du. Gasteizko aerodromoak (Foronda), 9.755 aireontziko trafikoarekin, igoera nabarmena izan du 2018an (% 15,6), EAE eta Nafarroako guztizko trafikoan % 13,4ko ordezagarritasuna lortuz. Iruñea eta Hondarribiako aireportuek, antzeko garrantzi erlatiboekin (% 8,9 eta % 8,8), intentsitate ezberdineko bilakaera izan dute: lehenak % 13ko gorakada erregistratu du, bigarrenak, aldiz, % 7,4ko murrizketa.

Nabarmentzekoa da Bilbon nazioarteko aireontzien trafikoak tokikoaren gaineko bilakaera arina izan duen arren (% 9,2 eta % 4,3ko urte arteko aldakuntza), Gasteizen (% 20,5 eta % 9,3) eta, batez ere, Iruñean (% 87,1 eta % 5,1) biziagoa izan dela alde hori; Donostian, berriz, bi kopuruak negatiboak izan dira (-% 7,5 eta -% 6,4). Hori guztia aintzat hartuta, barneko trafikoa gailentzen da nazioartekoaren aldean Bilbon (% 58) eta, batez ere, Iruñean (% 84) eta Donostian (% 89), baina ez Forondan (% 41).

**219. koadroa Aireportukako merkantzien trafikoa\***

(Tm)

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		EAE eta Naf.		EAE eta Naf./Espainia %	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018
<b>Trafikoa guztira</b>	<b>1.956</b>	<b>1.216</b>	<b>7,3</b>	<b>29,3</b>	<b>3,2</b>	<b>6,7</b>	<b>60.479</b>	<b>62.156</b>	<b>62.446</b>	<b>63.409</b>	<b>6,8</b>	<b>6,3</b>
Barnekoa	996	348	0,0	0,0	2,8	6,7	15.712	17.179	16.681	17.534	12,9	13,5
Nazioartekoa	960	868	7,3	29,3	0,4	0,0	44.767	44.977	45.765	45.875	5,8	5,2

(\*): 2018rako behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

Merkantzien trafikoan zentratuz, Gasteiz finkatu da lehen postuan, jardueraren ia guztizkoa hartuz (% 98); hala ere, 2018an hazkundera moteldu du (% 2,8ko gorakada, 2017ko % 16ren aldean). Nazioarte-mailan oinarritzen da jardueraren zati handiena (% 72), ekitaldia aurrekoaren maila berberetan mantenduz, trafiko nazionala hazten den bitartean (% 9,3). Bestalde, Loiu dagokionean, merkantzien trafikoa murriztu egin da, garraiatutako bolumenean % 37,8ko beherakada erregistratuz (% 1,9ko parte-hartzea du guztizkoaren gainean). Iruñeak eta Donostiak hazkunde nabarmenak izan dituzte merkantzien mugimenduan; lehenak nazioarteko eremuan eta bigarrenak eremu nazionalan. Hala ere, garraiatutako merkantzien bolumena ezberdina izan da: 29,3 eta 6,7 tona, hurrenez hurren.

## 220. koadroa Aireportukako bidaiarien trafikoa\*

(m)

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		EAE eta Naf.		EAE eta Naf./España %	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018
<b>Trafikoa</b>												
<b>guztira</b>	<b>4.974</b>	<b>5.469</b>	<b>166</b>	<b>206</b>	<b>282</b>	<b>289</b>	<b>84</b>	<b>141</b>	<b>5.506</b>	<b>6.105</b>	<b>2,2</b>	<b>2,3</b>
Barnekoa	2.839	3.140	154	160	279	288	42	71	3.315	3.659	4,5	4,5
Nazioartekoa	2.135	2.329	12	46	3	1	42	70	2.191	2.446	1,2	1,3

(\*): 2018rako behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

Analisia EAE eta Nafarroako aireportuetako bidaiarietara mugatuz, Bilbok EAE eta Nafarroako erreferentziako aireportu gisa duen posizioa indartu du, % 89,6ko parte-hartzearekin, eta, lehen aldiz, 5 milioi bidaiarien muga gaindituz. Tokiko trafikoak eta nazioartekoak antzeko bilakaera (% 10 ingurukoa) eta garrantzi espezifikoa (% 57 eta % 43, hurrenez hurren) izan dituzte. Donostiak, EAE eta Nafarroako trafikoaren % 4,7 bereganatuz, bidaiari nazionalen garrantzi handieneko (ia % 100) segmentuan hazkundera erregistratu du (% 3,2), nazioartekoa murriztu duen bitartean (-% 66,7). Noingo aerodromoan, ekitaldia bidaiarien hazkunde nabarmenarekin itxi da (% 24,1); izan ere, igoera moderatua (% 3,9) erregistratu da garrantzi handieneko segmentuan, hau da, nazioarteko merkatuan (% 78), eta baita beste gorakada oso nabarmen bat ere nazioartekoan (% 283,3), % 22,3ko garrantzi espezifikoarekin. Forondak izan du parte-hartze txikiena (% 2,3), non bidaiarien bolumena nabarmen areagotu baita (% 67,9); bertan, trafikoa orekatua da bidaiarien motaren arabera, eta proportzio bereko bilakaera izaten ari da.

## 221. koadroa Aireportuko trafikoaren hazkundera (2018/2017)\*

Aireportua	Bidaiariak		Aireontziak		Merkantziak	
	Mila	% Δ	Unitateak	% Δ	Tm	% Δ
Bilbo (Loiu)	496	10,0	2.976	6,3	-740	-37,8
Iruñea (Noain)	40	24,1	739	13,0	22	301,8
Donostia (Hondarribia)	8	2,7	-510	-7,4	3	106,4
Gasteiz (Foronda)	57	67,3	1.320	15,6	1.677	2,8
<b>EAE eta Naf.</b>	<b>600</b>	<b>10,9</b>	<b>4.525</b>	<b>6,7</b>	<b>962</b>	<b>1,5</b>

(\*): 2018rako behin-behineko datuak.

Iturria: AENA.

Hori guztia aintzat hartuta, aurreko ekitaldiarekiko alderaketa eginez gero, nabarmentzekoa da 4 aireportuek izandako portaera ona garraiatutako bidaiarien bolumenari dagokionez; Forondak izan du urte arteko aldakuntza onena, baina, zalantzarik gabe, Loiu izan da, balio absolutuetan hazkunde handiena, 496 mila bidaiari gehiago izan baititu. Egoera berbera da, neurri batean behintzat, aireontzien kasuan. Forondak erregistratu du bilakaera onena eta Bilbok, aldiz, jarduera baikorrena,

Hondarriak ekitaldia balio negatiboekin itxi duen bitartean, aireontzien mugimendua murriztuz (-510). Merkantziei dagokienean, Foronda da protagonista nagusia, eta Loiuk izandako murrizketa ere nabarmentzen da (-% 37,8).

Kapitulua bukatze aldera, jarraian urte honetako berritasunak jasotzen dira.

Loiuko aireportuan, 2018an lortutako 5 milioi bidaiarien marka gaindituko dela aurreikusten da 2019an. Izan ere, Iberiak jada iragarri du Bilbon % 16 hazteko asmoa duela, 300.000 plaza baino gehiago eskaintzera iritsi arte Loiuko aireportuaren eta Madrilaren artean. Aireportuko Zuzendaritzaren aurreikuspenetan terminala birmoldatzea ere barneratzen da, zeinetatik langileak aterako baitira, hegazkineratzeko azalera handiagoa sortzeko.

Noaini dagokionez, Lufthansa iritsi eta Frankfurtera bidaia erregularrak egiten direnetik, aireportuak nabarmen handitu du bidaiarien kopurua, baina oraindik urrun dago 2007an lortutako markatik, milioi erdi bidaiari baino gehiago kontabilizatu baitziren urte horretan. Aireportua ibilbide berriak planteatzen ari da, Iruñea konexio-puntu gisa erabiliko dutenak; Bartzelona aukera bat da. Baina beste ibilbide potentzial batzuetarako bezalaxe —adibidez, hegoaldearekiko zeharkako konexioa—, konpainiek horien bidez lortuko luketen errentagarritasuna aztertu behar dute.

Foronda aintzat hartuta, aireportuaren jarduera merkantzien trafikoa oinarritzen den arren, aireportuak helmuga berrietara hegaldi komertzialak areagotzen jarraitzen du. 2018an eskaintza Milan/Bergamo, Kolonia, Sevilla, Tenerifeko hegoaldea eta Palmara bazen ere, orain dela gutxiko informaziotik ondoriozta daiteke Dubrovnik, Katowice, San Petersburgo, Praga, Malta eta Nurenberg bezalako helmuga berriak sar litezkeela, hegaldi erregularren bidez.

Hondarriari erreparatuz, bidaiarien bolumena handitu arren, beherakada handia izan du aireontzien trafikoa 2018an. Aireportuaren jarduera areagotzeko proposamenak planteatzen jarraitzen duten honetan, Hondarribia-Madril ibilbideak aldaketak izan ditu ordutegietan, eta joan-etorriko bi maiztasun bertan behera utzi dira.



## 5. FINANTZA SEKTOREA

## 1. IKUSPEGI OROKORRA

2018an % 3,6ko mundu-mailako hazkundera erregistratu zen, baina aurreko ekitaldian baino maila pixka bat txikiagoan (+% 3,8). Zentzu horretan, ekonomia aurreratuek portaera ona islatzen dute (+% 2,9 AEBrako eta +% 1,8 Eurogunerako), baina ez dira suspertzen ari diren ekonomien dinamismoa lortzera iritsi (+% 4,5). Bigarren talde horretan, nabarmentzekoa da Txinaren (+% 6,6) eta Indiaren (+% 7,3) portaera; bitartean, Errusia eta Brasilena apalagoa da (+% 2,3 eta % 1,1, hurrenez hurren). Beste alde batetik, NDFren 2019 eta 2020rako aurreikuspenek bere horretan jarraitzen dute, nabarmentzeko aldaketarik gabe. Horiek horrela, 2019 eta 2020rako, % 3,2 eta % 3,6ko mundu-mailako hazkundera aurreikusten da, ondorio hauek lortuz: % 1,8 eta % 1,7 ekonomia aurreratuentzat -beheranzko joera arin batekin- eta % 4,3 eta % 4,8 garapen bidean ari direnentzat.


NDFren arabera, ekonomia globala, 2017an eta 2018aren hasieran hazkunde handia izan ondoren, nabarmen moteldu da urtearen bigarren erdian. Hazkunderaren ahultze hori, besteak beste, arrazoi hauengatik gertatu da: Txina eta AEBren arteko tentsio komertzial gorakorra -eta horrek berekin dakarren konfiantza-galera eta ondorio negatiboak suspertzen ari diren herrialde kalteberetan-, akordiorik gabeko Brexit bat gertatzeko arriskua, Alemanian eta Frantzia espero dena baino hazkunde ekonomiko txikiagoa izatea, eta Italiako zorraren eta fiskalitatearen ziurgabetasuna (eta horrek Eurogunean dituen ondorioak). Hala ere, alderdi horiek benetako mehatxua badira ere, aldeko beste faktore batzuek (jarduera ekonomikoaren dinamismoa, enpleguarena eta mundu-mailako merkataritzarena, finantzaketa-baldintzak, inflazio-helburuak betetzea...) adierazitako kontrako faktoreak konpentsatzen dituzte oraindik.

Bestetik, Espainiako ekonomiaren hedapenak aurrera jarraitu zuen 2018an (+% 2,6), baina 2017an baino pixka bat txikiagoa izan zen (+% 3,1). Hala, barneko eskaria indar handiz mantendu bazen ere, beherakada hori esportazioen moteltze nabarmenaren ondoriozkoa da. Ildo horretan, adierazitako mehatxuen eta Alemania bezalako EBko beste herrialde gako batzuetan sortutako ziurgabetasun eta kontrako faktoreen -ibilgailuen ekoizpenaren beherakada, emisio kutsatzaileen estandar berriei lotuta- ondorioak areagotu egin ziren; izan ere, EB merkatu-xede nagusia izanik, Espainiako esportazioetan eragina egon da. Barneko eskariari dagokionez, etxebizitzek eta enpresek gastuaren bilakaera positiboa islatu zuten, beren errenten portaera hedakorrari, beren ondare-posizioaren hobekuntzari eta baldintza onetako finantzaketa-aukerari esker.



Espainiako ekonomiaren hazkuntza-espektatibak, bere aldetik, positiboak izaten jarraitzen dute 2019 eta 2020rako (+% 2,2 bi kasuetan), baina aurreko urteetako baino dinamismo txikiagoarekin (+% 3,0 eta +% 2,6). Hala, fase hedakorren amaiera-zikloan sakontzen da, hein batean. Zentzu horretan, Espainiako Bankuak egin behar hauek azpimarratzen ditu: lan-merkatuaren egiturazko hutsak zuzentzea, banku-sistemaren ahalmena indartzea ekonomia finantzatzeko, eta hazkunde ekonomiko eta sozial endogenoaren ahalmenean zahartzearen eraginari aurre egiteko prestatzea.

33. grafikoa Kanbio-tasa: Euroa versus dolarra\*




(\*): Eguneko batez besteko balioen batezbestekoa.  
Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Bitartekaritza finantzarioaren erreferentziarako bi aldagaietan -kreditua eta gordailua- arreta jartzen badugu, ikusiko dugu Espainiak sektore pribatuaren desapalankamendu-joeran jarraitzen duela. Hala, kreditu-saldo biziak behera egin du (-% 4,1), baita EAEn eta Nafarroan ere (-% 3,9), berreskuratze-bidetik aldenduz. Zentzu horretan, saldo bizian amortizatutako bolumena nagusitzen da, 2018an zehar egindako eragiketa berrien aurrean. Horiek horrela, inbertsioaren berreskurapena finkatzen doa; Espainian eta EAE eta Nafarroan, areagotu egin dira hipoteken kopurua (+% 10,3 eta +% 5,8) eta horien batezbesteko zenbatekoa (+% 5,6 eta +% 4,7). Hala ere, Espainian eta EAE eta Nafarroan etxebizitzak erosteko 2018an sinatutako hipoteken munta (345.186 eta 22.088 hipoteka, hurrenez hurren) % 41,3koa da (oraindik ere), eta 2008an (balio handieneko urtea) erregistratutako % 58,8. Hau da, etxebizitzaren inbertsio erreferente gisa, etxebizitzaren erosketaren merkatua 2013an erregistratutako balio txikienetatik aldentzen ari da. Hortaz, 2018a urte positiboa izan da, nahiz eta jarduera-mailak oraindik ere 2010era arte lortutakoetatik urrun dauden.

Beste alde batetik, sektore pribatuko gordailuen saldoak gora egiten jarraitzen du Espainian (+% 1,6), eta antzeko neurrian, baita EAE eta Nafarroan ere (+% 1,5). 2018an erregistratukoaren antzeko bilakaera da, eta honi lotzen zaio: aurrezpenaren errentagarritasun txikia gordailu tradizionaletan, eta aurrezpen finantzarioko beste figura batzuen arriskua eta hegakortasuna. Horiek horrela, sektore pribatuko gordailuen saldoa 2018an 1,165 eta 0,094 bilioi eurokoa da Espainian eta EAE eta Nafarroan. Horrela, EAE eta Nafarroako gordailuen ratioa Espainiaren gainean % 8koa da; portzentaje hori BPGaren antzekoa da (% 7,8), eta biztanleriarena baino pixka bat txikiagoa (% 6,0). Gainera, posizio horien zati handi bat berehalako likidezia-figurekin bat dator (% 76,8 agerikoak edo aurrezki erakoak), eta jarraian, eperakoak (% 19,1) eta beste modalitate batzuk (% 4,1) daude. Izan ere, azken urteetan, gordailuen zati handi bat eperako modalitateetatik likidezia-eskuragarritasun handiagoko formuletara aldatu da.

Beste alde batetik, inbertsio kolektiboko erakundeen (IKE) ondareak behera egin du erakundeen terminoetan (-% 3,9), baita lortutako funtsen bolumenean ere (-% 3,3). Zentzu horretan, IKEen ondarearen % 89,5 inbertsio-funts higigarriei dagokie, zeinak ondarearen bolumenari dagokionez, portaera desberdina islatzen baitute modalitatearen arabera: errenta finkokoak murriztu egin dira (-% 6,0), errenta aldakorrekoak hazi (% 1,5) eta beste batzuk egonkor mantendu dira (-% 0,1).

**34. grafikoa**      **Ibex-35aren bilakaera. Hileko itxiera-balioaren gaineko urtetik urterako aldakuntza-tasa**



*Iturria: Espainiako Bankua eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala.*

Akzioen mundu-mailako merkatuek 2018. urtea galera orokortuekin itxi dute, eta 2019 eta 2020rako espektatiba zalantzarazkoagoekin. Bestetik, hegakortasuna indarrez itzuli da bonu-merkatuen prezio eta errentagarritasunetara (publikoak nahiz pribatuak), eta arrakala handi bat mantendu da 10 urterako tasa estatubatuar eta europarren artean

(bigarrenetan tentsioa gailenduz). Hortaz, akzioen eta bonuen merkatuek bilakaera desberdina izan dute hegakortasunari dagokionez.

Zentzu horretan, Espainiako burtsa-merkatuetan, 2018an, joera horiek ere presente egon ziren, ondorio negatiboekin eta modu nabarmenean akzioen bigarren mailako merkatuen kontratazioaren bolumenean (-% 9,7). Izan ere, IBEX-35ak % 15eko balio-galera sufritu zuen urtean zehar, eta urtea 8.539,9 punturekin itxi zuen; hau da, orain arte finkatzen ari zen oinarriaren azpitik. Portaera negatibo horrek ere eragina izan zuen indize global eta europar nagusietan. Hala, Dax-Xetra (-% 18,7) eta Eurostoxx-50 (-% 14,8) indizeek antzeko murrizketak erregistratu zituzten, FT-SE 100 (-% 11,7) eta CAC-40 (-% 11,4) atzean zituztela, eta murrizketa arinagoekin, baita Dow Jones (-% 6,1) eta Nasdaq (-% 4,5) indize estatubatuarrak ere.

## 222. koadroa Kreditu-erakundeak eta EFC

Kontzeptua	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Erakunde kopurua. Guztira</b>	<b>292</b>	<b>272</b>	<b>262</b>	<b>250</b>	<b>245</b>	<b>238</b>
Gordailu-erakundeak	241	224	217	206	205	198
Espainiako gordailu-erak.	155	138	135	124	122	115
EFC/ECAOL	50	47	44	43	39	39
<b>Enpleguak Guztira</b>	<b>217.878</b>	<b>208.291</b>	<b>202.954</b>	<b>194.263</b>	<b>192.626</b>	<b>187.182</b>
Gordailu-erakundeak	212.991	203.305	197.825	189.280	187.472	181.999
EFC/ECAOL	4.577	4.665	4.812	4.695	4.830	4.874
Kreditu ofiziala	310	321	317	308	324	309

*Oharra:* Erakunde kopurua. Guztizkora bitarteko aldea bat dator atzerriko sukurtsalekin (gordailu-erakundeak) eta kreditu ofizialarekin (1 erakunde).

*Iturria:* Espainiako Bankua.

Kreditu-erakundeek<sup>1</sup> agenteen kreditu- eta aurrezpen-posizioen eskaintzaren zati handiena bideratzen dute, zeinak krisialdia sartu zenetik berregituratze nabarmena erregistratu baitute. Zentzu horretan, 2018an, gordailu-erakundeen kopurua 198ra areagotu zen, beste urte batez ere murrizketa bat izan ondoren (-% 3,4). Hala eta guztiz ere, sistemaren zati handiena izaten jarraitzen dute (% 83,2), eta horien ia bi heren (% 58,1) Espainiako erakundeak dira. Bestetik, zenbait urtez jarraian beherakadak izan ondoren, kreditu-erakunde finantzarioen kopurua egonkor mantendu da (39 erakunde). Horrenbestez, esan genezake sistema jada finkatuta dagoela eta berregituratze-prozesua -2012tik indarrean dagoena- bukatzen ari dela.

Logikoa den moduan, berregituratze organikoko prozesu horrek ere doikuntza garrantzitsua ekarri du kreditu-erakundeetako lanpostuetan. Hala, 2008tik 2017ra enpleguaren heren bat galdu da kreditu erakundeetan (-% 30,8); hau da, 85.675 enplegu

<sup>1</sup> Bankuak, garai bateko aurrezki-kutxak eta kreditu-kooperatibak dira gordailu-erakundeak, zeinak beste kreditu-erakunde finantzario batzuekin batera kreditu-erakundeen sektorea osatzen baitute.

gutxiago dira (9.519 enplegu gutxiago urtean, batez beste). Joera hori 2018an errepikatzen da, non berriro ere 5.444 enpleguren galera garbia erregistratzen baita (-% 2,8), 2017an erregistratutakoa baino are handiagoa (-% 0,8). Horren arrazoia izan da langile berriek ezin izan dituztela lana utzi duten langileen kopuruak<sup>1</sup> estali.

**223. koadroa Gordailu-erakundeak. Bulego kopurua**

Urtea	EAE	Nafarroa	Espainia
2016	1.426	531	28.643
2017	1.361	508	27.320
2018	1.314	485	26.011

*Iturria: Espainiako Bankua.*

Berregituratze hori Estatuko gordailu-erakundeen bulego-sarearen bilakaerak baldintzatzen du beti. Hala, 2008 eta 2017 artean, gordailu-erakundeek 18.342 bulego itxi zituzten Estatuan, eta joera hori 2018an errepikatu da, berriz ere 1.309 bulego galduz 2017. urtearekin alderatuta. EAEn eta Nafarroan, berriz, 47 eta 23 bulego itxi dira azken ekitaldian. Hala ere, jarduera finantzarioen eta aseguruetakoen taldearen Gizarte Segurantzako afiliazioaren bilakaera aztertuz gero, esan genezake sektorea egonkortasun edo, are gehiago, nolabaiteko gorakadako fase baten hasieran dagoela. Horiek horrela, afiliazioa Estatuan hazi egin da (+% 2,9), eta EAEn eta Nafarroan egonkor mantendu da (-% 0,1 eta +% 0,2, hurrenez hurren). Ondorioz, batez ere bezeroen beharretan izan den aldaketaren eraginez (eguneroko eragiketak digitalki egiten dira, eta ez aurrez aurre), erakundeek beren bulego-sarearen tamaina egokitu behar izan dute.

**224. koadroa Afiliazioa jarduera finantzarioetan eta aseguruetakotan**

Urtea	EAE	Nafarroa	Espainia
2016	14.307	3.456	322.803
2017	13.733	3.370	321.481
2018	13.717	3.377	322.545

*Oharra: Hileko batez besteko afiliazioa, urte bakoitzeko abenduan. Erregimen orokorra*

*Iturria: Gizarte Segurantza.*

Azkenik, 2018an, interes-tasa baxuek gordailu-erakundeen emaitzak baldintzatu dituzte, baina, hala ere, marjina finantzarioa edo interesena egonkor mantentzea lortu da (+% 0,2) eta, gainera, marjina gordinaren gorakada bat erregistratu da (+% 2,2). Bestetik, ustiapen-gastuak beherantz doitu dira (-% 2,5) eta langileenek % 2,1eko beherakada erregistratu dute aurreko ekitaldiarekin alderatuta; horrela, oinarri-maila berri bat sortuz (13.648 milioi euro). Beste alde batetik, nabarmentzekoa da zuzkidura garbietarako esleipenean izandako beherakada (2.182 milioi euro, -% 39,3), zeinak aktibo finantzarioen

<sup>1</sup> Erretiroak eta sustatutako bajak, nagusiki.

nariaduragatiko galera-partidan erregistratutako murrizketa handiarekin batera (-% 66,0), ustiapenaren emaitzaren dinamismoa izugarri igoarazten du (+% 124,7).

Emaitza hori ere ulergarria da aintzat hartzen badugu, 2018an, beste aktibo batzuen nariaduragatiko inputazioa aurreko urtekoa baino askoz txikiagoa izan dela (2.189 milioi euro, -% 76,4). Gauzak horrela, zergen aurreko emaitza 14.445 milioi eurokoa da, alegia, aurreko urteko datua baino askoz hobea (-647 milioi euro).

## 2. KREDITU ERAKUNDEAK

### 2.1 KREDITUAREN BILAKAERA

#### Kredituaren bilakaera Estatuan

Kreditu-erakundeek 2018 ekitaldia 2,58 bilioi eurotan baloratutako aktiboarekin itxi dute. Zifra hori 2017an erregistratutakoa baino txikiagoa da (-% 2,8), eta horrela, atzerapenezko lau ekitaldi pilatzen dira, orotara, % 14,8ko galerak metatuz 2013az geroztik. Kreditua da aktiboaren partida nagusia (1,73 bilioi euro) eta % 2,3ko urte arteko beherakada erregistratu du, aurreko ekitaldiko berreskurapen puntuala etenez; horiek horrela, 2010etik, kreditu-partidaren saldoa % 27,7 murriztu da.

Aktiboa honako epigrafe hauek osatzen dute: akzioei eta partaidetzei (beste enpresa batzuetan) dagokion epigrafeak eta aipatutakoak ez diren eta kreditu-erakundeen inbertsio-erabakiak bideratzen dituzten gainerako balio eta tituluei dagokionak. Guztira, 0,56 bilioi euro dira, eta bi kasuetan posizioak murriztu egin dira 2017ari dagokionez, akzio eta partaidetzen beherakada (-% 8,1) bestelako tituluetakoa (-% 1,1) baino handiagoa delarik.

Aktiboaren egitura ez da aldatzen, eta kreditu-inbertsioak jarraitzen du zati nagusia bereganatzen (% 67,0), horrela, bere partaidetza egonkortuz; izan ere, azken urtean, 2011az geroztik izan duen ekarpen portzentual handiena erregistratu du. Bestalde, akzioak eta partaidetzak ez diren balioetako inbertsioak gorakada bat izan du partaidetzan (% 12,4tik % 12,6ra); aldiz, akzioek eta partaidetzek, konstante mantendu dute beren ekarpena eta ez da ia aldatu 2017. urtearekiko (% 9,8tik % 9,3ra).

#### 225. koadroa Kreditu-erakundearen aktiboaren osaera

Kontzeptua	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Guztira</b>	<b>3.025.756</b>	<b>2.912.824</b>	<b>2.782.793</b>	<b>2.646.981</b>	<b>2.652.505</b>	<b>2.577.660</b>
Kredituak	1.926.174	1.805.615	1.767.699	1.718.815	1.766.467	1.726.181
Balioak, akz. eta part. izan ezik	492.801	492.346	415.493	365.826	329.512	326.042
Akzioak eta partaidetzak	280.357	261.536	246.274	243.811	259.602	238.449
Sektorizatu gabeko aktiboak	326.424	353.327	353.327	318.529	296.924	286.988

(M euro)

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kredituaren banaketan, nabarmentzekoa da Beste Sektore Egoiliar batzuei (BSE) dagokien zenbatekoa, 2018an 1,2 bilioi eurokoa dena eta urte arteko beherakada berri bat erregistratzen duena (-% 3,6). Hortaz, familia eta enpresen desapalankamendu-joera mantentzen da, baina hau murrizten doa eta, jada, azken zortzi urteetan

erregistratutakoa baino txikiagoa da. Are gehiago, 2019. urte hasieran, etxeetarako finantzaketa ez-hipotekarioaren gorakada bat hauteman da (kontsumorako kredituak); hala ere, oraindik iraganean erregistratutako maximoetatik urrun aurkitzen da.

Bestalde, kreditu-inbertsioaren gainerako jomugek, termino nominal eta portzentualetan, partaidetza txikiagoa dute. Gauzak horrela, kanpoko sektore bideratutako kreditua garrantzi handieneko bigarren partida da (0,2 bilioi euro), eta urte arteko hazkuntza handia erregistratu du (+% 18,7). Kreditu-sistemara bideratutako kreditu-partida 0,2 bilioi eurokoa izan da, -% 9,7ko atzerakada erregistratuz 2017an lortutako saldoari dagokionez. Atzerapen-joera hori Administrazio Publikoetara bideratutako kredituarekin (0,069 bilioi euro) bat dator. Zentzu horretan, segmentu hori da urte arteko aldakuntza negatibo handiena erregistratu duena (-% 11,7); hala ere, esan beharra dago bere ekarpena dela guztizko kredituan garrantzi txikiena duena.

#### 226. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera

Kontzeptua	(M euro)					
	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Guztira</b>	<b>1.926.174</b>	<b>1.805.615</b>	<b>1.767.655</b>	<b>1.718.815</b>	<b>1.766.467</b>	<b>1.726.181</b>
Kreditu-sistema	210.536	155.097	164.206	163.053	234.694	211.861
AP	87.140	101.313	89.972	88.471	78.110	68.956
Beste sektore egoiliar batzuk	1.448.244	1.380.101	1.327.123	1.276.140	1.253.944	1.208.315
Beste ez-egoiliar batzuk	180.254	169.104	186.354	191.151	199.719	237.049

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Beraz, honakoa da kreditu-erakundearen kreditu-saldoaren banaketa: % 70 beste sektore egoiliar batzuei dagokie (edo sektore pribatuari), % 13,7 kanpoko sektoreari, % 12,3 kreditu-sistemari eta % 4 Administrazio Publikoari. Aurreko urteetako egitura mantendu da, erakundearen kreditu-jardueraren osan "beste sektore egoiliar batzuk" epigrafea nagusi delarik; hala ere, adierazitako desapalankamendu horren ondorioz, bere ekarpena arinki murriztu da azken urteetan.

Ondorioz, 2018. urtea kreditu-saldo bizian izandako beherakada berriagatik (-% 2,3) nabarmentzen da, bezero-segmentu ia guztiek (kreditu-sistema, administrazio publikoak eta beste sektore egoiliar batzuk) urte arteko aldakuntza negatiboa izan baitute, eta kanpoko sektorearen bilakera positiboak ez du hau konpentsatzen. Gauzak horrela, kreditu berrien sorkuntza progresiboki berreskuratzen ari bada ere -jarduera ekonomikoaren eta ia agente guztien finantzaketa beharren berraktibazioarekin bat-, ez da gauzatzen diren amortizazioak konpentsatzeko behar besteko errimoan gertatzen.

## Kredituaren jomuga Estatuan

Beste sektore egoiliar batzuen kreditu-jomugak<sup>1</sup> honako hauek barne hartzen ditu: merkataritza-kreditua, eperako beste zordun batzuk eta beste mailegu batzuei buruzko epigrafea, zeinak ageriko zordunen figurak, errentamendu finantzarioa eta kobrantza zalantzagarriko kredituak biltzen dituen. Adierazitako hiru epigrafeek azken urteetan erregistratutakoaren antzeko bilakaera islatzen dute, “eperako beste zordun batzuk” partidaren arteko beherakada berri bat nabarmentzen delarik (-% 1,0), zeinak emandako kredituaren osagai nagusia izaten jarraitzen duen. Bestetik, beste mailegu batzuen partidak nabarmen egin du behera (-% 22,6), eta adierazi beharra dago 2018 ekitaldiaren amaierako zenbatekoa 2013an lortutako saldoaren erdia dela jada. Azkenik, merkataritza-kreditua ia egonkor mantendu da (-% 0,1), lau ekitaldiz jarraian hazi ondoren.

Beste sektore egoiliar batzuen segmentuko kreditu-saldo biziaren egitura, kredituaren jomugaren arabera, mantendu egin da; “eperako beste zordun batzuk” (% 85,9) izan da partida nagusia, beste mailegu batzuk atalak progresiboki garrantzia galdu du (2013ko % 17,6tik egungo % 10,1era), merkataritza-kredituak partaidetza irabazi duen bitartean (% 4). Nolanahi ere, multzo osoa aintzat hartuta, azken partida horrek pisu oso txikia du.

### 227. koadroa Kreditu-erakundeak. Kredituak motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.

Kontzeptua	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Guztira</b>	<b>1.448.244</b>	<b>1.380.101</b>	<b>1.327.123</b>	<b>1.276.140</b>	<b>1.253.944</b>	<b>1.208.315</b>
Merkataritza-kreditua	34.570	36.606	42.640	45.058	48.764	48.723
Eperako beste zordun batzuk	1.159.366	1.117.315	1.098.012	1.064.196	1.047.827	1.037.815
Beste mailegu batzuk	254.308	226.180	186.471	166.886	157.353	121.777

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Gordailu-erakundeek emandako kredituaren xedeari erreparatzen badiogu, aintzat hartutako lau osagaietatik hirutan urte arteko aldakuntza negatiboa dela ikus daiteke. Gauzak horrela, ekoizpen-jardueretara bideratutako kredituaren saldo bizia % 7,6 murriztu da, eta atzerapenezko zortzi ekitaldi lotzen ditu, % 46,0ko pilatutako murrizketarekin. Era berean, etxebizitzak erosi eta birgaitzera bideratutako kredituaren zenbatekoa zortzigarren urtez jarraian murriztu da (-% 1,4), eta 2011rekin alderatuz, % 21,7ko metatutako galera islatzen du. Azkenik, beste kreditu batzuen epigrafeak ere beherakada izan du (-% 2,9), eta % 59,0ko murrizketa pilatzen du 2008rekin alderatuta (lortutako balio maximoa).

<sup>1</sup> Ekitaldi honetatik aurrera, Espainiako Bankuak ez du informazio bereizirik eskaintzen eperako beste zordun batzuen inguruan, berme erreal batean oinarritzen diren kredituei dagokienez; eta, horien barruan, hipoteka modalitatearen pean sinatutakoak. Aldaketa hori Europar Batasuneko sailkapen-eredurako egokitzapena dela eta gertatu da (Europako Banku Zentrala).



Ondorioz, aztertutako kredituaren jomugaren segmentuek (ekoizpen-jarduerak, etxebizitza eta beste kreditu batzuk) % 4,6ko urte arteko jaitsiera bateratua erregistratu dute. Murrizketa hori ez da konpentsatzea lortzen kontsumo iraunkorreko ondasunen finantzaketara bideratutako kredituen jarduera onarekin. Zehazki, 2018an, segmentu horri lotutako kreditu-saldoak, hirugarren urtez jarraian, hobekuntza nabarmena (+% 14,2) erregistratu du, eta 2015az geroztik % 72,0ko berreskurapena metatu da; izan ere, ez da halako zifrarik lortu 2009tik.

#### 228. koadroa Gordailu-erakundeak. Kreditua jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk


*(M euro)*

Kontzeptua	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Guztira</b>	<b>1.392.384</b>	<b>1.328.189</b>	<b>1.274.656</b>	<b>1.222.541</b>	<b>1.199.079</b>	<b>1.150.229</b>
Ekoizpen-jarduerak	687.736	647.426	619.954	582.060	570.220	526.659
Etxebizitzak erostea eta birg.	592.278	568.212	541.032	524.780	511.355	504.165
Kontsumo iraunkorreko ond.	19.869	21.615	20.576	24.464	30.975	35.386
Beste kreditu batzuk	92.501	90.936	93.094	91.237	86.529	84.019

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kreditu-erakundeek beste egoiliar batzuen sektoreari emandako 1,2 bilioi euroko kreditutik, gutxi gorabehera erdia ekoizpen-jarduerari (% 45,8) eta etxebizitzak erosi eta birgaitzeari (% 43,8) dagozkie, zeina kontsumo iraunkorreko ondasunetara bideratutako ekarpenekin (% 3,1) eta beste kreditu batzuenekin (% 7,3) osatzen den. Aintzat hartu behar da egitura portzental horrek urtez urte behera egiten duen kreditu-saldo biziari egiten diola erreferentzia (1,5 bilioi eurotik 1,2ra, 2012tik 2018ra).

#### 35. grafikoa Kreditu-erakundeak. Kreditua jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk




Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

### Kredituaren bilakaera EAEn eta Nafarroan

2018 ekitaldiaren amaieran, EAEn eta Nafarroan erabilgarri dagoen kreditu-saldo bizia 84.619 milioi eurokoa da, % 3,2ko urte arteko atzerapena erregistratu ondoren, 2017an hasitako beheranzko joera areagotzen duena (-% 0,6). Ekitaldi honetan, aintzat hartutako bi esparruek atzera egin dute: EAEk (-% 3,4) eta Nafarroak (-% 2,2). EAEko lurraldeetan, beheranzko joera hori ere partekatzen da, baina intentsitate desberdinekin; murrizketa handiena Araban gertatu da (-% 14,0), Gipuzkoa (-% 2,3) eta Bizkaiaren (-% 1,2) aurretik.

**36. grafikoa**      **Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituaren bilakaera**



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

2018an, EAEn eta Nafarroan indarrean dagoen kredituaren bilakaerak Estatu osorako adierazitako desapalankamendu-joera orokorra partekatzen du, zeina 2008tik ematen den: 2018 ekitaldiaren amaieran, EAEn eta Nafarroan erabilgarri dagoen kreditu bizia (84.619 milioi euro) 2008an lortutako gehieneko balioa baino % 30,0 txikiagoa da, eta zenbateko hori ia egonkor mantentzen da 2014tik. Espainiaren kasuan, murrizketa hori % 36,2koa izan da.

Hala ere, azken biurtekoaren bilakaerari dagokionez (2017-2018), portaera bereizi bat hautematen da. Hori horrela, kontuan hartutako bi bezero-segmentuetan kredituaren bilakaerak EAEn eta Nafarroan portaera desberdina izan du: Administrazio Publikoentzako balioa positiboa izan den bitartean (+% 3,7), beste sektore egoiliar batzuen emaitza negatiboa (-% 3,9) izan da. Estatuan, berriz, portaera negatiboa da bi kasuetan (-% 11,6 eta -% 4,1, hurrenez hurren).

Aztertutako lurralde-esparruetan, beste sektore egoiliar batzuen segmentuko kreditu-saldo biziaren bilakaerak atzerapen berri bat islatzen du EAEn (-% 4,6), Bizkaian (-% 6,1), Araban (-% 3,9) eta Gipuzkoan (-% 1,7) izandako beherakada dela-eta. Lurraldeen araberako banaketa mantentzen da, eta erdia baino gehiago Bizkaiari (% 59,7) dagokio, Gipuzkoa (% 27,1) eta Araba (% 13,2) atzetik dituela. Banaketa egonkorra da, Bizkaiaren posizioaren finkatze-joera batekin<sup>1</sup>, pixka bat bereizten dena (adibidez) EAEn sortutako barne produktu gordinaren banaketatik (Eustat), zeina % 16,3, % 51,0 eta % 32,7koa den, hurrenez hurren, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako (Eustat, 2018).

### 229. koadroa Gordailu-erakundeak. Agenteen eta lurraldearen arabera

*(M euro)*

Lurraldea	Urtea	AP	BSE	GUZTIRA
Araba	2016	2.416	8.154	10.570
	2017	2.531	8.011	10.542
	2018	1.369	7.699	9.068
Bizkaia	2016	3.875	38.300	42.175
	2017	3.505	37.849	41.354
	2018	5.329	35.535	40.864
Gipuzkoa	2016	706	18.113	18.819
	2017	576	18.389	18.965
	2018	450	18.085	18.535
EAE	2016	6.997	64.567	71.564
	2017	6.612	64.249	70.861
	2018	7.148	61.319	68.467
Nafarroa	2016	1.155	15.172	16.327
	2017	1.338	15.183	16.521
	2018	1.100	15.052	16.152
EAE eta Nafarroa	2016	8.152	79.739	87.891
	2017	7.950	79.432	87.382
	2018	8.248	76.371	84.619
Espainia	2016	83.866	1.222.530	1.306.396
	2017	74.339	1.199.107	1.273.446
	2018	65.740	1.150.228	1.215.968

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

2018an, Administrazio Publikoen kreditu-saldo bizia murriztu egin da Estatuan (-% 11,6), baina EAEn eta Nafarroan areagotu egin da (+% 3,7), bereziki Bizkaian (+% 52,0), zeinak Araban (-% 45,9), Gipuzkoan (-% 21,9) eta Nafarroan (-% 17,8) erregistratutako beherakadak konpentsatzen dituen.

Estatuan Administrazio Publikoei emandako kreditua BSEren kredituaren guztizkoaren % 5,4 da, eta beheranzko profila islatzen du (% 5,8 eta % 6,4, 2017an eta 2016an). EAE eta Nafarroan (% 9,7), eta bereziki EAEn (% 10,4), partaidetza hori Estatuan baino handiagoa da, baina beheranzko joera hori partekatzen dute 2017 eta 2016arekin

<sup>1</sup> Gordailuen lurraldekako banaketan ere gauza bera gertatzen da.

alderatuta (% 9,1 eta % 9,3 EAE eta Nafarroan, eta % 9,3 eta % 9,8 EAEn). Azkenik, ratio portzental honek desberdintasunak ageri ditu EAEn barruan: Araban (% 15,1) eta Bizkaian (% 13,0) pisu handiagoa du Gipuzkoarekin (% 2,4) alderatuta, zeinak ekarpen minoritarioa duen.

### **Beste adierazle batzuk: hipoteken eraketa eta ibilgailuen matrikulazioa.**

Etxeen inbertsio-segmentu nagusiak etxebizitzaren eta ibilgailuen erosketa eta birgaitzea dira. Jarraian, hipoteka berrien eratzeari eta ibilgailu berrien salerosketari buruzko informazioa aurkezten da, Estatuan, EAEn eta Nafarroan izan duen bilakaera aintzat hartuta informazioa osatuz.

2018an, 345.186 hipoteka berri eratu ziren Estatuan, eta horrek % 10,3ko urte arteko hazkuntza dakar; 2013tik, jarduera horren elkarren segidako bosgarren berreskurapen-ekitaldia da. Izan ere, 2013an erregistratu zen 2008az geroztik baliorik txikiena (199.703 hipoteka). EAEn 17.473 hipoteka berri eratu ziren, Estatuarekin alderatuz urte arteko hazkuntza txikiagoarekin, (+% 4,0 Estatuko +% 10,3ren aurrean), baina kasu honetan ere, laugarren ekitaldiz jarraian hazi da, balio txikiena 2014an erregistratu ondoren (11.469 hipoteka). Nafarroan, 4.615 hipoteka berri eratu dira, hazkuntza izan duten bost ekitaldi lotuz, eta Estatuarena gainditzen duen urte arteko jarduerarekin (% 13,4).

Hala eta guztiz ere, orain dela gutxi izandako bilakaera positibo hori gorabehera, aintzat hartu behar da 2018an Estatuan, EAEn eta Nafarroan eratutako hipoteken kopurua (oraindik ere) 2008an (balio handieneko urtea) erregistratutakoen % 41,3, % 55,1 eta % 53,6koa dela; hau da, oraindik alde handia dago krisiaren aurreko mailekiko.

**230. koadroa      Etxebizitzaren gaineko hipoteka berrien eraketa**

Kontzeptua	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Espainia</b>						
Hipoteka kop.	199.703	204.302	246.767	282.707	312.843	345.186
Zenbatekoa guztira (milioi €)	19.973	20.891	26.339	31.037	36.665	42.709
<i>Batez besteko zenb. (mila €)</i>	<i>100,01</i>	<i>102,25</i>	<i>106,74</i>	<i>109,79</i>	<i>117,20</i>	<i>123,73</i>
<b>EAE</b>						
Hipoteka kop.	12.146	11.469	14.283	15.574	16.799	17.473
Zenbatekoa guztira (milioi €)	1.464	1.380	1.852	2.049	2.231	2.446
<i>Batez besteko zenb. (mila €)</i>	<i>120,53</i>	<i>120,29</i>	<i>129,65</i>	<i>131,59</i>	<i>132,83</i>	<i>139,98</i>
<b>Nafarroa</b>						
Hipoteka kop.	3.170	3.710	3.769	3.990	4.069	4.615
Zenbatekoa guztira (milioi €)	345	384	389	405	430	504
<i>Batez besteko zenb. (mila €)</i>	<i>108,88</i>	<i>103,37</i>	<i>103,11</i>	<i>101,45</i>	<i>105,72</i>	<i>109,16</i>

*Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.*

Estatuan 2018an eraturako hipoteken guztizkoagatik lortutako moneta-balioa 42.709 milioi eurokoa da, 2012tik urte guztiei dagozkien balioak gaindituz, baina oraindik ere 2009 eta 2010 artean sortutako batez besteko balioaren (73.859 milioi euro) erdia arinki gainditzeko du. Guztira, hipotekako batez besteko zenbatekoa 123.727 eurokoa da, eta 2009ko batez besteko balioa (117.803 euro) gainditzeko du, 2012tik ekitaldiz ekitaldi areagotu ondoren.

2018an EAEn eraturako hipoteken guztizko balioa 2.446 milioi eurokoa da, % 9,6ko urte arteko hazkuntzarekin, hipoteka kopuruan erregistratutako gorakada (+% 4,0) gaindituz. Horiek horrela, batez besteko zenbatekoa 139.981 eurokoa da, 2012tik erregistratutako zifra handiena, baina 2009an eta 2010ean lortutako balioak baino txikiagoa (145.260 euro). Nafarroan eraturako hipoteken zenbateko osoak kontuan hartu diren lurraldeen arteko urte arteko hazkuntza handiena islatzen du (+% 17,2), baina lortutako batez besteko zenbatekoa 109.161 euroan geratzen da, EAEn (139.981 euro) eta Estatuan (117.803 euro) lortutako batez besteko zenbatekoaren azpitik.

Azken hamarkadan, hipoteken merkatua erabat berregituratu da, maileguaren bizitza erabilgarrian zehar aldaketak jasan dituzten hipoteken bolumenean ikus daitekeenez<sup>1</sup>. Izan ere, joera hori agortzen ari da: 2009an, Estatuan hirurehun mila hipoteka baino gehiagoren baldintzak aldatu ziren bitartean, 2018an, 48.011 izan dira. EAEk eta Nafarroak bilakaera hori partekatzen dute, aldatutako 1.227 eta 296 hipotekarekin, hurrenez hurren. Joera horrek, beste faktore batzuen artean, inplikaturako agente guztien kultura finantzario hobea islatzen du, eta horrek abusibotzat jotako zenbait klausularen presentzia mugatzen duten ebazpen judizialak aplikatzea ahalbidetu du. Hobekuntza horrek aldean artean hitzartutako estipulazioak doitzea dakar, hartutako zorra itzultzea erraztuz.

### 231. koadroa Aldaketa notarialak erregistratu dituzten etxebizitzaren gaineko hipotekak

Kontzeptua	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Espania	271.680	188.991	184.262	154.436	129.109	105.550	87.217	56.269	48.011
EAE	2.751	1.856	2.138	1.925	1.684	1.863	1.520	1.160	1.227
Nafarroa	1.433	902	882	681	583	616	477	371	296

Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.

<sup>1</sup> Zehazki, hauei egiten die erreferentzia: nobazioa (hipoteka kontratatu ondoren egiten den eta kontratua berriro negoziatzeko aldean borondateen akordio berri bat eskatzen duen edozein aldaketa), hartzekodunaren subrogazioa (banketxez aldatzea, eta, beraz, kontratuak baldintza berriak izatea) eta zordunaren subrogazioa (hipotekaren titularra aldatzea, titular berriaren onarpenarekin; kontratuan aldaketak egon daitezke edo ez). Hauek dira adierazitako aldaketan alderdi nagusiak: epea, zenbatekoa, erreferentzia mota eta/edo aplikaturako diferentziala.

Bestetik, ibilgailu berrien erosketak orain arte izandako joera iraunkorrari eusten dio, egungo automobil-parkea berritzea sustatzen duten planen babesarekin. EAEn, Nafarroan eta Estatuan, 2012. urtea izan zen inflexio-puntua, zeinetan ibilgailu berrien salerosketa-eragiketen gutxieneko balioa erregistratu baitzen. Ondoren, berreskurapen handiko bi urte etorri ziren, beharbada, aurreko urteetan atzeratuta gelditutako eragiketak egin zirelako.

Dirudienez, 2017 eta 2018 bitartean berreskuratze-joera hori lasaitu egin da, eta, hala, 2018an % 7,0ko urte arteko gorakada egon da Estatuko ibilgailu berrien salerosketan, alegia, aurreko urteetan baino portaera moderatuagoa izan du (+% 7,7, +% 10,0 eta +% 20,9). Guztira, 1,321 milioi ibilgailu baino gehiago matrikulatu dira; alegia, 2012an erregistratutakoen bikoitza (0,699 milioi ibilgailu). Urte horretako zifra, lehen aipatu bezala, 2008tik erregistratutako baxuena izan zen. 2018an EAEn eta Nafarroan matrikulatutako ibilgailuak 41.701 eta 13.243 dira, eta urte arteko % 5,2 eta % 7,5eko gorakada izan dute, hurrenez hurren. Bi kasuetan, 2018an erregistratutako zifrak 2012koak baino handiagoak dira (25.616 EAEn eta 7.034 Nafarroan).

### 232. koadroa Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera. Turismoak

*(Unitate kop.)*

Kontzeptua	2014	2015	2016	2017	2018
Espainia	855.308	1.034.232	1.147.007	1.234.932	1.321.438
EAE	32.300	37.601	38.547	39.622	41.701
Nafarroa	9.170	10.690	10.814	12.314	13.243

*Iturria: Anfac.*

### Berankortasunaren bilakaera<sup>1</sup>

Berankortasun-adierazleak kobrantza zalantzarikoko kredituaren ratioa zehazten du, erabilitako kreditu biziaren gainean. 2009tik, ratio hori hazten joan da, 2013an bere goreneko mailara iritsi arte (% 13,8). Une horretatik aurrera behera egin zuen, 2018an % 5,8 erregistratu arte. Berankortasun-ratioaren bilakaerak ondo laburtzen du krisialdiak (zorra ez ordaintzea) eta erregistratutako desapalankamendu finantzarioak izandako eragina; egoera hori sortzea ahalbidetu zuten, halaber, finantzaketa-eskaria txikiagoa izateak eta emakida berriari eustek, hori betetzeko bermeei lotutako eskakizun handiagoak ezarriz.

<sup>1</sup> Ez dugu autonomia-erkidegoen arabera bereizitako informaziorik.

**233. koadroa      Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera.**  
**Beste sektore egoiliar batzuk.**

(M euro)

Urtea	Zalantzazko kr.	Kredituak	(Zalantz./Kred.) x 100
2013	191.748	1.392.384	13,8
2014	167.473	1.328.189	12,6
2015	129.984	1.274.653	10,2
2016	112.275	1.222.511	9,2
2017	94.175	1.199.106	7,9
2018	67.196	1.150.229	5,8

Iturria: *Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

Berankortasunak bezeroen segmentu desberdinetan izan duen bilakaerak agerian uzten du joera nagusia beherakorra dela. 2018an, ekoizpen-jardueren berankortasun-ratioa % 6,9koa izan zen; alegia, adierazle horrek etxeko segmentuan izan zuen balioa baino pixka bat altuagoa (% 4,9). Bigarrenik, kontuan izan behar da ekoizpen-jarduerak askotariko jarduerak hartzen dituztela bere gain, eta, hortaz, berankortasun-mailak ere askotarikoak direla, hasi industriaren<sup>1</sup> eta nekazaritza eta arrantzaren segmentuari dagokion balioetik (% 6,3) eta eraikuntza-jardueren<sup>2</sup> balioetara arte (% 14,0). Hirugarren tokian, ekoizpen-jardueren artean alde handiak badaude ere, denek jarraitzen dute berankortasun-ratioa beherantz doitzen. Beste era batera esanda, segmentu guztietan, zalantzazko kredituaren magnitudean (zenbakitzailea) eginiko murrizketak gainditu egiten du erabilitako kreditua (berankortasun-koefizientearen izendatzailea).

<sup>1</sup> Sinatutako maileguren batez besteko bolumenarengatik, zeina zerbitzuetako edozein jarduerarena baino askoz ere handiagoa den, jardueraren tipologia eta horren inbertsio-beharrak direla eta.

<sup>2</sup> Kalte handia jasan zuen krisialdiaren aurreko kreditu-hedapenagatik eta jarduera horren ondorengo gainbeheragatik (aktiboan balio-galera, salmenten beherakada, enpresa-likidazioak, etab.).

**234. koadroa** Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasun-tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.

(guztizkoaren gaineko % zalantzagarririk)

Kontzeptua	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Zalantzazkoak guztira</b>	<b>13,8</b>	<b>12,6</b>	<b>10,2</b>	<b>9,2</b>	<b>7,9</b>	<b>5,8</b>
<b>Ekoizpen-jarduerak</b>	<b>20,9</b>	<b>18,9</b>	<b>14,9</b>	<b>13,3</b>	<b>10,4</b>	<b>6,9</b>
Nekazaritza eta arrantza	13,6	12,2	10,2	9,1	7,5	6,3
Industria	13,8	13,3	11,2	9,1	8,8	6,3
Eraikuntza	35,3	33,7	30,9	29,7	24,5	14,0
Zerbitzuak	21,0	18,9	14,4	13,0	9,9	6,6
<i>Higiezinak</i>	<i>38,0</i>	<i>36,2</i>	<i>27,4</i>	<i>25,4</i>	<i>18,2</i>	<i>9,6</i>
<i>Finantzak (ez banka)</i>	<i>3,3</i>	<i>2,4</i>	<i>2,1</i>	<i>2,1</i>	<i>0,3</i>	<i>0,3</i>
<i>Merk. eta konp.</i>	<i>15,2</i>	<i>15,6</i>	<i>12,9</i>	<i>11,5</i>	<i>10,5</i>	<i>9,1</i>
<i>Garraioa eta bilt.</i>	<i>13,7</i>	<i>17,3</i>	<i>13,1</i>	<i>8,3</i>	<i>6,4</i>	<i>5,4</i>
<i>Ostalaritza</i>	<i>23,2</i>	<i>20,4</i>	<i>17,2</i>	<i>14,6</i>	<i>10,8</i>	<i>7,9</i>
<i>Bestelako zerbitzuak</i>	<i>13,3</i>	<i>12,2</i>	<i>9,9</i>	<i>8,8</i>	<i>8,7</i>	<i>6,4</i>
<b>Beste helburu/etxe batzuk</b>	<b>6,7</b>	<b>6,6</b>	<b>5,5</b>	<b>5,4</b>	<b>5,3</b>	<b>4,9</b>
Etxebizitzak erostea eta birg.	5,8	5,7	4,7	4,6	4,6	3,9
Beste batzuk	13,5	12,2	10,0	10,0	9,2	9,2
<b>Gainerakoak</b>	<b>12,2</b>	<b>6,3</b>	<b>16,6</b>	<b>7,0</b>	<b>13,2</b>	<b>7,5</b>

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Etxeetako berankortasunaren bilakaerak ere behera egin du, 2018an % 4,9ra iristeraino. Ratio hori beti izan da ekoizpen-jardueretako ratioa baino baxuagoa, bereziki etxebizitzak erostearen eta birgaitzearen segmentuko berankortasun-ratioari dagokionez (% 3,9).

Azkenik, nabarmendu behar da ratio horrek behera egin duela eta zor berankorraren zenbatekoa gero eta txikiagoa dela. Ondorengo taulan ikus daitekeenez, bezeroen segmentu guztietan murrizketa garrantzitsua izan da kobrantza zalantzagarriko kreditu-saldoetan, erregistratutako saneamendu-prozesu garrantzitsua islatuz.



235. koadroa    **Gordailu-erakundeak. Zalantzazko kredituaren bilakaera, helburuen arabera.**  
**Beste sektore egoiliar batzuk.**

Kontzeptua	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<i>(M euro)</i>						
<b>Zalantzazkoak guztira</b>	<b>191.748</b>	<b>167.473</b>	<b>129.984</b>	<b>112.275</b>	<b>94.175</b>	<b>67.196</b>
<b>Ekoizpen-jarduerak</b>	<b>143.511</b>	<b>122.312</b>	<b>92.186</b>	<b>77.335</b>	<b>59.943</b>	<b>36.540</b>
Nekazaritza eta arrantza	2.477	2.145	1.824	1.706	1.506	1.318
Industria	14.846	14.085	11.773	9.407	9.121	6.421
Eraikuntza	20.315	15.961	12.947	11.304	8.053	3.901
Zerbitzuak	105.874	90.120	65.641	54.918	40.813	24.899
Higiezinak	66.265	53.732	36.670	30.275	19.759	8.387
Finantzak (ez banka)	2.871	2.385	2.067	1.690	274	163
Merk. eta konp.	10.438	10.467	8.659	7.768	7.506	6.681
Garraioa eta bilt.	4.761	4.968	3.635	1.690	1.920	1.611
Ostalaritza	7.094	5.686	4.612	3.881	2.889	2.057
Bestelako zerbitzuak	14.534	12.883	9.981	9.026	8.465	6.002
<b>Beste helburu/etxe batzuk</b>	<b>46.530</b>	<b>44.171</b>	<b>34.736</b>	<b>33.652</b>	<b>32.712</b>	<b>29.688</b>
Etxebizitzak erostea eta birg.	34.080	32.308	25.204	23.930	23.274	19.904
Beste batzuk	12.450	11.863	9.532	9.722	9.438	9.784
<b>Gainerakoak</b>	<b>1.707</b>	<b>990</b>	<b>3.080</b>	<b>1.288</b>	<b>1.970</b>	<b>968</b>

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

## 2.2 GORDAILUEN BILAKAERA

### Estatuko kreditu-erakundeetako gordailuak

Estatuan, kreditu-erakundeek 1,836 bilioi euroko gordailu-bolumenarekin<sup>1</sup> itxi dute 2018a; zifra hori 2017an erregistratutakoa baino baxuagoa da (-% 1,6). Zentzu horretan, 2018an berriro ere 2017an etendako beheranzko joera nagusitu da, eta 2008an lortutako gehieneko baliotik (2,327 bilioi euro) urrundu da. Osagaien bilakaera heterogeneoa da: behera egin dute kreditu-sistemako gordailuek (-% 12,1) eta kanpoko sektorekoek (-% 3,9); aldiz, gora egin dute Administrazio Publikoekin lotutako gordailuek (+% 16,3) eta beste sektore egoiliar batzuek (+% 0,8). Gauzak horrela, pasibo-posizio horien bi heren beste sektore egoiliar batzuen sektoreari dagozkio (% 66,0) eta gainerako herena hauen artean banatuta dago: kreditu-sistema (% 15,7), kanpoko sektorea (% 14,4) eta Administrazio Publikoak (% 3,9). Azken horrek eutsi egiten dio aurreko ekitaldietako proportzioari, aldaketa handirik gabe.

<sup>1</sup> Kontuan izan behar da ez dagoela pasibo-posizioetako aurrezkiaren neurri osorik; hortaz, gordailu-figuretainantz bideratzeaz gain, beste inbertsio-xede batzuetara lekualdatu ahal izan dira, hala nola, funtsetara, balioetara edo beste forma batzuetara (higiezinak, esaterako).

**236. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditu-erakundeetako gordailuak, agenteen arabera.**

*(M euro)*

Kontzeptua	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Gutzizkoa</b>	<b>2.065.401</b>	<b>1.997.363</b>	<b>1.940.297</b>	<b>1.866.552</b>	<b>1.866.973</b>	<b>1.836.493</b>
• Kreditu-sistema	381.293	311.533	302.810	288.158	327.483	287.838
• AP	63.485	76.150	77.058	54.371	61.722	71.785
• Beste sektore egoiliar batzuk	1.314.129	1.289.280	1.261.388	1.242.580	1.202.893	1.212.837
• Beste ez-egoiliar batzuk	306.493	320.400	299.061	281.444	274.874	264.033

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Hurrengo koadroan bereizita agertzen da "Beste sektore egoiliar batzuk" (BSE) segmentuaren gordailuen osaera, horien denbora-epareen arabera. 2018an, sektore pribatuko gordailuetako saldoaren hiru laurden (% 76,8) ageriko edo aurrezki erako modalitateari dagozkio, eta bosten bat (% 19,1) eperako posizioetan sartuta dago. Bestetik, eragiketa finantzario konplexuagoekin lotutako gordailu-formulen ekarpena oso txikia da: % 4,1.

**237. koadroa Kreditu-erakundeak. Gordailuak moten arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.**

*(M euro)*

Kontzeptua	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Gutzizkoa</b>	<b>1.314.129</b>	<b>1.289.280</b>	<b>1.261.388</b>	<b>1.242.580</b>	<b>1.202.893</b>	<b>1.212.837</b>
• Agerikoa edo aurrezkia	500.208	562.629	650.098	753.624	857.135	931.257
• Eperakoa	677.143	597.338	508.753	403.567	286.365	231.450
• Beste batzuk	136.778	129.313	102.537	85.389	59.393	50.130

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*


Aintzat hartutako figura bakoitzeko gordailuen banaketak aldakuntza nabarmena izan du azken bost urteetan. Hain zuzen, 2013an, hau izan zen agerikoen, aurrezkien eta bestelako posizioen banaketa: % 38,1, % 51,5 eta % 10,4; eta gaur egun honakoa da: % 76,8, % 19,1 eta % 4,1. Horrenbestez, ikusi da gordailuen zati handi bat eperako modalitatetik likidezia handiagoko beste formula batzuetara mugitu dela. Lekualdaketa hori etengabea eta uniforme da 2013tik, eta arrazoi nagusia aurrezki-figura horien ordainsaria oso erakargarria ez izatea oso da, bereziki eperako gordailuari dagokiona. Hala, posizio likidoenen gorakadaren kausa izan daiteke dirua jarri dela ordainsariak hobetuko direlakoan, edo beste aurrezki-forma edo aurrezki-xede batzuk aukeratu direla.

**Gordailuen bilakaera EAEn eta Nafarroan**

2018an, EAeko eta Nafarroako gordailuetako saldoa 98.889 milioi eurokoa izan da, urte arteko % 2,5eko gorakadarekin, eta bat etorritz Estatuan lortutako emaitzarekin (+% 2,3). Era berean, beste sektore egoiliar batzuek eginiko gordailuek gora egin dute (+% 1,5),

segmentu horrek Estatuan izandako portaeraren antzekoa mantenduz (+% 1,6). Hori horrela, EAEk eta Nafarroak Estatu osoko gordailuetan duten partaidetzaren portzentajea % 8,0an finkatu da.

**37. grafikoa** Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuen bilakaera.



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

2018an, gordailuen guztizko saldoak (beste sektore egoiliar batzuk eta Administrazio Publikoak) gora egin du bai Nafarroan (+% 3,2) eta baita EAEn (+% 2,3) ere. Emaitza on horren arrazoia aztertutako lurralde guztietan egon den jardura positiboa da. Ildo horretan, nabarmentzekoa da Gipuzkoan erregistratutako gorakada (+% 4,2); eta horren atzetik daude Araba (+% 2,7) eta Bizkaia (+% 1,2).

Beste sektore egoiliar batzuen epigrafean zentratuz, ikus dezakegu 2018an % 0,9 hazi direla EAEko sektore pribatuko gordailuak. Lurraldeka, Arabak (+% 2,6) eta Gipuzkoak (+% 3,7) portaera positiboa izan dute, baina ez dira Bizkaiaren atzerapena (-% 1,1) konpentsatzera iristen. Dena den, bilakaera desberdin horrek ez du aldaketa nabarmenik ekarri EAEko beste sektore egoiliar batzuen segmentuko gordailuari eginiko lurralde-ekarpenean; hala, ekarpen horren erdia Bizkaiari dagokio (% 54,6), eta gainerakoa Gipuzkoaren (% 32,1) eta Arabaren (% 13,3) artean banatzen da. Amaitzeko, Nafarroaren egoera (+% 4,2) EAEko hiru lurraldeena baino hobea da.

Administrazio Publikoei lotutako gordailuen saldoaren urte arteko portaera hegakorragoa da eta "egoitza efektu" baten menpe egon daiteke. Horrela, Bizkaiak saldo horren bi heren (% 65,9) hartzen ditu, eta gainerakoa Arabak (% 22,0) eta Gipuzkoak (% 12,2). Orokorrean, EAE eta Nafarroako Administrazio Publikoen gordailuen % 82,6 EAERI dagozkio, eta % 17,4 Nafarroari. Azkenik, EAEko eta Nafarroako guztizko saldoak Estatu Administrazio Publikoen gordailuen guztizkoaren % 7,5 hartzen du.

**238. koadroa    Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta Administrazio Publikoen gordailuak.**

(M euro)

Lurraldea	Urtea	AP	BSE	GUZTIRA
Araba	2016	519	9.600	10.119
	2017	926	9.977	10.903
	2018	967	10.234	11.202
Bizkaia	2016	2.004	40.554	42.558
	2017	1.887	42.572	44.459
	2018	2.902	42.102	45.005
Gipuzkoa	2016	379	23.062	23.441
	2017	414	23.886	24.300
	2018	537	24.774	25.311
EAE	2016	2.902	73.216	76.118
	2017	3.227	76.435	79.662
	2018	4.406	77.110	81.518
Nafarroa	2016	571	15.602	16.173
	2017	1.061	15.778	16.839
	2018	931	16.440	17.371
EAE eta Nafarroa	2016	3.473	88.818	92.291
	2017	4.288	92.213	96.501
	2018	5.337	93.550	98.889
Espainia	2016	53.412	1.140.814	1.194.227
	2017	60.910	1.146.917	1.207.827
	2018	70.862	1.165.030	1.235.892

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

**Aurrezkiaren beste adierazle batzuk**

2018an, Estatuko familien errenta gordin erabilgarriak gora egin du (+% 3,2), eta gora egiten duen elkarren segidako bosgarren ekitaldia da. Nolanahi ere, familien aurrezki gordinak behera egiten jarraitzen du 2013tik, eta joera hori areagotu egin da azken bi ekitaldietan: etxeetako aurrezki gordinaren tasa (2018) % 4,1ekoa da, alegia, oso urrun dago 2009tik 2013ra bitartean erregistratutako % 8-9tik.

Aurrezki-tasaren beherakada hori askotariko faktoreen ondorioa izan daiteke; esate baterako, aurrezkiaren gorakada etxeetako errentetan erregistratutakoa baino txikiagoa izatea enplegua nabarmen berreskuratzen ari den une honetan. Bestetik, egonkortasun ekonomiko handiagoko egoera batean, etxeek beren aurrezkiarekin finantzatzen ari diren kontsumo- eta inbertsio-mailak berreskuratzen dituzte, kontuan hartuta aurrezkiek gordailu tradizionaletan ematen duten ordainsari txikia eta beste aurrezki-figura finantzario batzuek duten hegakortasuna. Nolanahi ere, badirudi aurrezki-tasa txiki hori arriskutsua izan daitekeela etxeek espero gabeko gorabeherei erantzuteko duten ahalmen finantzarioari dagokionez, nahiz eta ez dauden orain dela hamarkada bat bezain apalankatuta. Azkenik, enpresen arloan, aurrezki gordinaren tasak pixka bat behera egin

du eta % 32,4koa izan da 2018an; hortaz, gelditu egin da azken aldian gertatzen ari zen muskulu finantzarioaren berreskurapena.

### 239. koadroa Errenta gordin erabilgarria, balio erantsi gordina eta aurrezki gordina


Kontzeptua	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<i>(M euro)</i>						
<b>Etxeak</b>						
• Errenta gordin erabilgarria	778.824	785.894	806.629	822.303	836.991	864.115
• Aurrezki gordina	63.917	62.058	59.623	54.704	39.218	35.623
• Aurrezki-tasa (%)	8,2	7,9	7,39	6,65	4,69	4,12
<b>Soz. ez-finantzarioak</b>						
• Balio erantsi gordina	542.922	553.516	579.888	603.831	637.475	659.785
• Aurrezki gordina	160.537	158.818	175.910	195.138	210.394	213.596
• Aurrezki-tasa (%)	29,6	28,7	30,3	32,3	33,0	32,4

Iturria: Espainiako Kontabilitate Nazionala. Kontu ez-finantzarioak. Geuk egina.

### Interes-tasaren, kostuaren eta ordainketaren bilakaera

Europako Banku Zentralak % 0ko erreferentzia-interesa dauka finkatuta (2016ko martxoa). 2019ko apirilean baieztatu zuen horrela mantenduko dela 2019aren amaierara arte eta, edonola ere, "inflazioa % 2aren azpitik, baina hortik gertu, mantenduko dela bermatzeko behar adina denborara arte".

### 38. grafikoa Birfinantzaketa interes-tasaren bilakaera. Europako Banku Zentrala.



Iturria: Europako Banku Zentrala.

Aplikaturako interes-tasak bat datoz erakundeek beren bideragarritasunari eusteko eskain ditzaketan baldintzekin (bitartekotza finantzarioko marjinak). 2018an, etxeen

segmentuan, etxebizitzara eta beste helburu batzuetara bideratutako maileguei aplikatutako tasek gora egin dute; aldiz, kontsumora bideratutakoak (ohikoenak izaten dira) murriztu egin dira (eskaintzen eta modalitate finantzarioen arteko lehiakortasuna). Hain zuzen, aldakuntza horiek alderantzikatu egin dute azken urteetan hiru finantzaketa-eragiketa motetan nagusitu den joera.

2018an, etxebizitzaren erosketari aplikatutako tasak % 1,99koak izan dira; 2017arekin alderatuta hazi egin dira pixka bat, baina 2011n aplikatutako tasaren erdia dira (% 3,58). Enpresen finantzaketari aplikatutako tasei dagokienez, 2018an merkatu egin dira zenbateko txikiena dutenak (% 2,33tik % 2,08ra); alabaina, zenbateko handiagoko eragiketei aplikatutako tasak onuragarriagoa izaten jarraitzen du (% 1,53).

Etxeetako aurrezkiei dagokienez, ordainsaria ia nulua da aurrezki-modalitate guztietan, eta, gainera, pixka bat atzera egiteko joerak bere horretan jarraitzen du ia kasu guztietan. Bestetik, sozietate ez-finantzarioen gordailuen ordainsaria pixka bat altuagoa da, baina oso txikia izaten jarraitzen du eta diruaren prezio ia nuluari dagokio.

**240. koadroa Kreditu-erakundeak. Etxeetarako<sup>(2)</sup> eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berriei aplikatutako interes-tasak (TEDR)**

	2015	2016	2017	2018
	(%)			
<b>ETXEETARAKO<sup>(2)</sup> MAILEGUAK ETA KREDITUAK</b>				
– Etxebizitza <sup>(1)</sup>	1,98	1,91	1,83	1,99
– Kontsumoa <sup>(1)(3)</sup>	7,56	7,12	7,24	6,90
– Beste helburu batzuk <sup>(1)</sup>	3,77	3,62	3,36	3,54
<b>SOZIESTATE EZ-FINANZARIOETARAKO MAILEGUAK ETA KREDITUAK</b>				
– Zorpekoak	2,34	1,66	1,55	1,75
– 250.000 € <sup>(1)</sup> -ra arteko kredituak	3,26	2,64	2,33	2,08
– 250.000 eta 1.000.000 € <sup>(1)</sup> arteko kredituak	2,05	1,79	1,68	1,55
– 1.000.000 € <sup>(1)</sup> baino gehiagoko kredituak	1,96	1,60	1,51	1,53
<b>ETXEEN GORDAILUAK<sup>(2)</sup></b>				
– Agerikoak	0,12	0,06	0,04	0,03
– Eperakoak <sup>(1)</sup>	0,39	0,11	0,08	0,05
• 1 urte arte	0,35	0,10	0,07	0,05
• 2 urte baino gehiago	0,24	0,07	0,08	0,06
<b>SOZIESTATE EZ-FINANZARIOEN GORDAILUAK</b>				
– Agerikoak	0,24	0,15	0,10	0,08
– Eperakoak <sup>(1)</sup>	0,31	0,13	0,16	0,37
• 1 urte arte	0,29	0,11	0,17	0,39
• 2 urte baino gehiago	0,66	0,48	0,33	0,76

(1): Batez besteko tasa haztatua, produktu desberdinei dagokienez, epearen arabera. Abenduaren 31n.

(2): Etxeak eta etxeen zerbitzura dauden irabazi asmorik gabeko erakundeak.

(3): 2010eko maiatzetik, kreditu-txartelen bidez emandako kreditua ere sartzen da.

TEDR: Definizio mugatuko tasa efektiboa, hau da, UTB komisiorik gabe.

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

### 3. INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEAK

2018an, 4.386 Inbertsio Kolektiboko Erakunde (IKE) zeuden erregistratuta Espainiako merkatuan; haien ondarea, guztira, 289.661 milioi eurokoa zen. Hala, azken ekitaldian ere, behera egin du era horretako erakundeen kopuruak (-% 3,9), baita hartutako funtsen kopuruak ere (-% 3,3).

IKEen artean, lau figura nagusi hauek daude: Higarrietako Inbertsio Funtsak (HIF) dira figura nagusia; izan ere, ondare osoaren % 89,5 hartzen dute, 2018an beherakada txiki bat izan ondoren (-% 2,3). Bigarren figura Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietateak (SICAV) dira; guztizkoaren % 9,6 hartzen dute, eta behera egin dute kopuruan eta ondarean (-% 4,2 eta -% 11,4, hurrenez hurren). Gainerako IKEak inbertsio librekoak dira, modalitate sinplekoak (% 0,8) edo konposatukoak (% 0,2); horiek irudi globala osatzen dute, baina oso pisu txikia dute.

Guztira, IKEen ondareak behera egin du, baina tresnen kopuruak beherakada handiagoa izan du; ondorioz, erakunde bakoitzaren batez besteko ondarea zertxobait handitu da (+% 0,7), eta 66,1 milioi eurokoa da. Hazkunde-joera hori mantendu egiten da HIFetan (+% 1,4) eta IKEko IKEetan (+% 13,9). Bitartean, SICAVak eta inbertsio librekoak txikitu egin dira (-% 7,5 eta -% 5,6, hurrenez hurren), 2017 ekitaldiaren aldean. Dena den, HIFak dira batez beste ondare-bolumen handiena dutenak (160,2 milioi euro); atzetik dituzte, oso urrun, SICAVak (10,3 milioi euro), inbertsio libreko IKEak (46,2 milioi euro) eta IKEko IKEak (66,7 milioi euro).

IKEen ondarean egon den atzerakadaren bilakaeran eragina izan dute, alde batetik, errenta finkoaren ordainsarien tasa baxuek (batez ere zor burujabearen kasuan), baita balore-merkatuen aldakortasunak ere (errenta aldakorren errentagarritasun galera); horrez gain, aurrezki posizioen ordainsarien interes-tasa baxuen testuinguruak ere eragin die.

**241. koadroa** Finantza arloko Inbertsio Kolektiboko Erakundeen ondarea eta kopurua

Kontzeptua	Ondarea (M euro)		Erakunde kopurua	
	2017	2018	2017	2018
Inbertsio Funtsak (HIF)	265.195	259.095	1.676	1.617
Inbertsio-sozietateak (SICAV)	31.425	27.836	2.833	2.713
Inbertsio libreko IKE (ILIKE)	2.192	2.263	47	49
Inbertsio libreko IKEen IKE	472	467	8	7
<b>Guztira</b>	<b>299.283</b>	<b>289.661</b>	<b>4.564</b>	<b>4.386</b>

*Iturria: CNMV. Urteko txostena.*

### HIF eta SICAVen ondarearen banaketa

Inbertsio funtsen ondarea honako hauek osatzen dute: nagusiki, finantza-inbertsioen zorroa (% 93,0); ondoren, diruzaintza-ildoak (% 6,5) eta, oso pisu txikiarekin, beste hartzekodun eta zordun batzuen saldo garbia. Bestalde, 2018an HIFetan erregistratutako ondarearen beherakada txikia finantza-inbertsioen zorroan egondako murrizketek (% -1,5) eta diruzaintzako posizioen murrizketek (-% 15,5) azaltzen dute.

2018an, inbertsio-zorroaren bilakaerak erakusten du bolumena murriztu egin dela barne-zorroari dagokionez (-% 10,3); aldiz, kanpo-zorroaren posizioak hazi egin dira (+% 3,1). Era horretan, HIFen inbertsio-egituren bi herenek kanpo-zorroari egiten diote erreferentzia (% 64,2), eta heren batek, berriz, barne-zorroari (% 28,8). Horren eraginez, sakondu egin da gauzatutako posizioen berregituraketa; hala, 2011 eta 2018 artean, bi zorroen banaketa ia alderantzikatu egin da. Laburbilduz, estatuko inbertsio-tresnetako posizioak deseginez joan dira (erakargarritasun gutxiago), kanpoko merkatuen mesedetan (ordainsari hobeak).

Barne-zorroko posizio guztiek atzera egin dute, bereziki kreditu-erakundeetako gordailuek (-% 32,4) eta zorra ordezkatzeko balioek (-% 8,8), baita, neurri oso txikian, ondare-tresnek (-% 0,4) ere.

Bestalde, 2018an, HIFen kanpo-zorroaren zenbatekoak (166.523 milioi euro) bikoiztu egin zuen barne-posizioen saldoa (74.486 milioi euro). Urte arteko bilakaerari dagokionez, hazi egin da zorren baloreetako inbertsioa (+% 9,3); hori izan da, gainera, guztizkoarekiko ekarpenik handiena egin duena (% 44,5). Hala ere, gainerako posizio esanguratsuek behera egin dute. Ildo horretatik, hiru atalen ekarpenak orekatuago daude (% 44,5, % 16,0 eta % 39,4, zorren balioei, ondare-tresnei eta IKEEi dagokienez, hurrenez hurren) barne-zorroan baino (% 67,9, % 14,6 eta % 9,4, hurrenez hurren).

Termino agregatuetan, HIFen bi zorroen ondarea zorra ordezkatzeko balioen (% 48,1), Inbertsio Kolektiboko Erakundeen (% 28,0) eta ondare-tresnen (% 14,5) artean banatzen da, eta kreditu-erakundeetako gordailuekin (% 2,3) osatzen da.



242. koadroa Higarrietako inbertsio-sozietateen eta -funtsen ondare-banaketa, balio eraginkorraren arabera

(M eurotan)

Kontzeptua	Inbertsio-funtsak <sup>(1)</sup>			Inbertsio-sozietateak		
	2017	2018	%Δ 18/17	2017	2018	%Δ 18/17
<b>Ondarea</b>	<b>265.195</b>	<b>259.095</b>	<b>-2,3</b>	<b>31.425</b>	<b>27.836</b>	<b>-11,4</b>
<b>Finantza-inbertsioen zorroa</b>	<b>244.598</b>	<b>241.016</b>	<b>-1,5</b>	<b>28.805</b>	<b>24.841</b>	<b>-13,8</b>
Barne-zorroa	83.032	74.486	-10,3	6.229	5.032	-19,2
Zorraren balio adierazgarriak	55.389	50.538	-8,8	1.654	1.434	-13,3
Ondare-tresnak	10.912	10.868	-0,4	2.675	2.194	-18,0
Inbertsio kolektiboko erakundeak	7.626	6.985	-8,4	1.626	1.194	-26,6
Kreditu-erakundeetako gordailuak	8.657	5.855	-32,4	236	164	-30,4
Eratorkiak	441	235	-46,7	-6	0	-66,7
Beste batzuk	7	5	-24,0	40	46	16,4
Kanpo-zorroa	161.557	166.523	3,1	22.566	19.804	-12,2
Zorraren balio adierazgarriak	67.794	74.079	9,3	4.397	4.242	-3,5
Ondare-tresnak	27.082	26.661	-1,6	6.988	5.979	-14,4
Inbertsio kolektiboko erakundeak	66.100	65.624	-0,7	11.154	9.541	-14,5
Kreditu-erakundeetako gordailuak	75	21	-71,8	0	0	0,0
Eratorkiak	505	136	-73,1	19	28	42,9
Beste batzuk	1	1	-12,3	9	15	63,1
Zalantzasako inbertsioa, inbertsio berankorra edo auzipeko inbertsioa	9	8	-15,6	9	6	-39,7
<b>Diruzaintza</b>	<b>19.988</b>	<b>16.897</b>	<b>-15,5</b>	<b>2.422</b>	<b>2.732</b>	<b>12,8</b>
<b>Zordun/hartzekodun garbiak</b>	<b>608</b>	<b>1.182</b>	<b>94,3</b>	<b>198</b>	<b>263</b>	<b>32,9</b>

(\*): Hortik kanpo daude inbertsio libreko IKEak (ILF eta ILIKEF).

Iturria: CNMV. Urteko txostena.

2018an, SICAVen ondareak ere behera egin zuen (-% 11,4), inbertsio-zorroaren bolumenean egondako beherakadaren ondorioz (-% 13,8). Alderantziz, diruzaintza-ildoaz hazi egin da (+% 12,8). Bestalde, inbertsioaren osaera aurreko ekitaldietan izandakoaren antzekoa da; izan ere, barne-zorroa eta kanpo-zorroa txikitu egin dira (-% 19,2 eta -% 12,2, hurrenez hurren). Horrez gain, kanpoko posizioek ia ez dute pisurik galdu, eta SICAVek egindako inbertsioaren ia hiru laurdeneko ekarpena egin dute (% 71,1).

SICAVen barne-zorroan egindako inbertsioen osaera aztertuta, 2018an aipagarria da IKEri dagokion bolumenean egondako murrizketa (-% 26,6), baita kreditu-erakundeetan egindako gordailuen murrizketa ere (-% 30,4). Bestalde, SICAVen kanpo-zorroan egindako inbertsioei dagokienez, aipatzekoak dira ondare-tresnei esleitutako posizioetan eta IKEei esleitutakoetan erregistratutako beherakadak (-% 14,4 eta -% 14,5 hurrenez hurren). Era horretan, kanpo-zorroan ekarpenik handiena egin duten epigrafeak IKEak (% 48,2), ondare-tresnak (% 30,2) eta zorrak zorraren balio adierazgarriak (% 21,4) izan dira.

## HIFen tipologia

Funtsen tipologia askotarikoa da, inbertsio-osagai nagusiak kontuan hartuta; guztira, bost multzo edo taldetan sailka daitezkeen 15 aldaera daude: monetarioa, errenta finkoa, errenta aldakorra, beste funts batzuk (inbertsioaren itzulketari dagokionez duten bermearen arabera) eta funts globalak. Hala, 2018an, errenta aldakorreko posizioak eta funts globalak indartu egin dira. Bestalde, hiru esparruetan (funts kopurua, parte-hartzaileak eta ondarea) pisua galdu duen figura bakarra bestelako funtsak dira. Bitartean, errenta finkoaren bilakaera gorabeheratsua izan da (gorakada txikia funts kopuru eta parte-hartzaileetan, eta beherakada ondarean).

Beste alde batetik, ez da aldaketa nabarmenik egon funts tipologia bakoitzak funtsen osotasunera egiten dieten ekarpenetan. Hala, errenta finkokoak guztizkoaren laurden bat dira (% 24,4) eta funts aldakorrak ia heren bat (% 30,9); beste funts batzuek beste heren bateko ekarpena egiten dute ia (% 29,0) eta funts globalak zortziren bat dira (% 14,0). Azkenik, monetarioek oso pisu txikia dute (% 1,5). Parte-hartzaile kopuruari eta ondareari dagokionez, errenta aldakorrekoek pisua irabazi dute (% 32,8 eta % 23,1, hurrenez hurren), baita globalek ere (% 13,4 eta % 16,3). Alderantziz gertatu da errenta finkoen (% 31,2 eta % 38,8) eta beste funtsen (% 19,0 eta % 19,2) kasuan. Bukatzeko, monetarioen posizioa ez da bakarra; izan ere, parte-hartzaileetan pisua irabazi du, baina ondarea murriztu egin da (% 3,6 eta % 2,6).

**243. koadroa Higigarrietako Inbertsio Funtsen (HIF), partaideen eta ondarearen banaketa, zorroaren osaeraren arabera (abenduaren 31)**

Kontzeptua	Funts kop.		Parte-hartzaile kop.		Ondarea (M €)	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
Monetarioa	27	26	342.481	400.085	7.122	6.810
Errenta finkoa (euro)	208	198	1.890.702	1.929.903	55.907	53.874
Errenta finkoa (nazioartekoa)	55	55	394.364	379.559	7.535	6.206
Errenta finko mistoa (euro)	74	79	565.190	677.738	20.509	21.719
Errenta finko mistoa (nazioartekoa)	81	89	632.333	510.419	22.898	18.752
Errenta aldakor mistoa (euro)	48	43	124.671	112.815	3.631	3.287
Errenta aldakor mistoa (nazioartekoa)	128	141	459.737	511.475	18.756	19.969
Errenta aldakorra (euro)	111	113	710.928	831.115	12.203	12.178
Errenta aldakorra (nazioartekoa)	211	236	1.865.367	2.225.366	24.065	24.405
Kudeaketa pasiboa	202	172	638.966	543.192	19.478	16.139
Errendimendu finko bermatua	79	67	190075	165.913	5.457	4.888
Errendimendu aldakor bermatua	162	150	497.846	484.182	14.295	14.231
Berme partziala	26	13	29.687	10.478	1.122	325
Itzulketak absolutua	104	99	858.170	930.641	16.706	14.173
Globalak	225	242	1.086.937	1.501.730	35.512	42.137
Bokaziorik gabe	0	2	0	2.958	0	2
<b>HIF guztira</b>	<b>1.741</b>	<b>1.725</b>	<b>10.287.454</b>	<b>11.217.569</b>	<b>265.195</b>	<b>259.095</b>

*Iturria: CNMV. Urteko txostena.*

Amaitzeko, 2018an, errenta finkoko funtsen ekarpena, eurotan, funts, parte-hartzaile eta ondare osoaren gainean (% 16,1, % 23,2 eta % 29,2, hurrenez hurren) gainditu egiten ditu beste nazioarteko dibisa batzuenak (% 8,3, % 7,9 eta % 9,6). Alabaina, banaketa kontrakoa da errenta aldakorraren taldean: nazioarteko dibisen posizioek (% 21,9, % 24,4 eta % 17,1) ia bikoiztu egiten dute eurotan baloratutako funtsen proportzioa (% 9,0, % 8,4 eta % 6,0).

lido zehatzei dagokienez, garrantzitsuenak errenta aldakorreko nazioarteko funtsak, errenta finkoko eurotako funtsak eta funts globalak dira. Lehenak bi milioi parte-hartzaile baino gehiago ditu, eta bigarrena ia bi milioira iristen da; hirugarrenak milioi eta erdi ditu. Horien ondarea 24.405, 53.874 eta 42.137 milioi eurokoa da, hurrenez hurren.

## 4. BURTSA-MERKATUA

2017an berreskuratze handia izan ondoren, 2018. urtea burtsa-jardueraren atzerakada batekin itxi da, hazkuntza txikiagoko aurreikuspenak direla-eta. Aurreikuspen horiek ekonomia garatuei (Espainia barne) aplikatzen zaizkie, eta hein handi batean, honako arrazoi hauetan oinarritzen dira: tentsio komertzialak, Italia bezalako herrialdeen zorraren iraunkortasunari lotutako ziurgabetasunak, Alemanian eta Frantzian BPGak espero zena baino murrizketa handiagoa izatea, edo Brexitaren negoziazioaren bukaeraren inguruko ziurgabetasuna. Bestetik, garapen bidean dauden merkatuek azken urtean nolabaiteko egonkortasuna islatu dutela azpimarratu behar da.

Era berean, agintaritza monetarioen jarduketak espektatiben ildotik jarraitu du. Zentzu horretan, 2018an zehar AEBko Erreserba Federalak hitzartutako interes-tasen lau igoerak nabarmendu behar dira (laugarrena +% 0,25ekoa), horrela, esku-hartze tasa % 2,25-%2,5eko tartean kokatzen delarik. Europako Banku Zentralak, aldiz, bere esku-hartze tasa aldaketarik gabe mantendu zuen (% 0) eta bultzada monetario ez-konbentzionalari amaiera eman zion. Hala ere, tasetan berreskuratzea izango dela adierazten zuten etengabeko iragarpenak gorabehera, esan beharra dago hori oraindik ez dela gertatu, eta gainera, 2019ko lehen zatian badirudi atzeratu egingo direla, hazkunde ekonomikoaren moteltzearen espektatibekin bat etorritz.

Faktore multzo horrek berebiziko garrantzia izan du 2018an jarduera ekonomikoa -batez ere herrialde garatuetan- agertoki ez hain lehiakor batera eramateko (2017a baino lehenagoko urteetan ohikoagoa zena): baldintza finantzarioak, oro har, aldekoak izan diren bitartean, hazkuntza orokorraren erritmo ahulagoak balio-merkatuen hegakortasuna elikatu du.

Burtsa-indize nagusien urte arteko bilakaera murriztu egin da 2017arekin alderatuta, baina ez intentsitate berarekin. Kotizazioaren murrizketa handiena izan duten indizeak Europari eta Japoniari dagozkionak dira. Lehen esparruan, Frankfurtoko (-% 18,7), Madrilgo (-% 15,0) eta Eurostoxx (-% 14,8) indizeen beherakadak dira nabarmentzekoak, baita, ondoren, Londres (-% 11,7) eta Pariskoak (-% 11,4) ere. Nikkei indizeak ere antzeko portaera izan du (-% 12,2). Emaitza horien aurrean, AEBko indizeek, behera egiten badute ere, tasa moderatuagoak erregistratzen direla esan behar da. Horrela, Dow Jones indizeak % 6,1eko beherakada erregistratu du, eta Nasdaq indizeak, bestalde, % 4,5ekoa.

## 244. koadroa Burtsa-indize nagusien bilakaera

Urtea	Ibex-35 (Madril)	CAC-40 (Paris)	Dax-Xetra (Frankfurt)	FT-SE 100 (Londres)	Dow Jones (New York)	Nikkei (Tokio)	Eurostoxx 50	Nasdaq Composite
2016	9.352,1	4.862,3	11.481,1	7.142,8	19.764,1	19.114,4	3.290,5	5.383,1
2017	10.093,1	5.339,4	12.979,9	7.622,9	24.837,5	22.784,5	3.524,3	6.950,2
2018	8.539,9	4.678,7	10.559,0	6.734,0	23.062,4	20.014,8	2.986,5	6.584,5
<i>Urte arteko aldakuntza (%)</i>								
2016	-2,0	4,9	6,9	14,4	13,4	0,4	0,7	7,5
2017	7,4	9,8	13,1	6,7	25,7	19,2	7,1	29,1
2018	-15,0	-11,4	-18,7	-11,7	-6,1	-12,2	-14,8	-4,5

*Oharra: Abenduaren 31n.*

*Iturria: Ekonomia Adierazleen datu-basea. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.*

Azkenik, nabarmendu behar da 2018ko urtarrilaren 3an indarrean sartu zela 2014/65/UE Zuzentaraua, tresna finantzarioen merkatuei buruzkoa -MiFID II-, baita 600/2014 Erregelamendua ere -MiFIR-; besteak beste, merkatuentzako arau zorrotzagoak ezartzen dituena. Lehenak Inbertsio Zerbitzuen Enpresen baimen eta funtzionamendu baldintzak arautzen ditu. Zentzu horretan, jada, indarrean zeuden alderdi batzuk zabaltzen ditu, eta honako esparru hauetan zentratzen da: inbertitzailearen babesa indartzea (informazioa, komunikazioa, ulergarritasuna); Europako arauak zabaltzea produktu eta zerbitzu berrietara; baldintzak zabaltzea enpresa operatzaileentzat edo merkatu arautuentzat; eta aseguratzea eta datuak babestea EBn operatzen duten hirugarren herrialdeetako enpresen artean. MiFIR-ek gardentasuna arautzen du, negoziazioa baino lehen eta ondoren, hauekin lotuta: agintaritzak eskudunak eta inbertitzaileak, eta datu-zerbitzuen hornitzaileen eskakizunak eta betebeharrak, beste alderdi batzuen artean. 2018ko irailean, bi araudi horiek Balio Merkatuen Legean jaso ziren, lege-dekretu bidez<sup>1</sup>.

## 4.1 IKUSPEGI OROKORRA

### Lehen mailako edo jaulkipeneko merkatuak

Akzioen, jaulkipenen edo SEPen segmentuan, aldakuntza negatiboa erregistratu da 2018an, zehazki, -1.795 milioi euroko jaitsiera. Hori dela eta, hautsi egin da 2016az geroztik indarrean zegoen hazkuntza-dinamika, eta 2017an baino 15.981 milioi euro gutxiago erregistratzen dira. Bestalde, beste balore batzuen segmentuan, guztirako saldoa 32.043 milioi eurokoa da, eta bolumen hori 2017koa baino txikiagoa da (35.998 milioi euro), baina 2016koa baino handiagoa (-4.713 milioi euro).

<sup>1</sup> 14/2018 Errege Lege Dekretua, irailaren 28koa, Balioen Merkatuko Legearen testu bategina aldatzen duena. Azken hori urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen (BOE 236. zenbakia).

Horrenbestez, adierazitako merkatuko bi segmentuek -balioak eta akzioak-, bilakaera ezberdinak eta intentsitate ezberdinekoak izan ondoren, antzeko murrizketa-bilakaera islatzen dute, berreskuratze-aldi bat igaro ondoren. Hain zuzen ere, burtsara ateratzeko aurreikusitako kolokazio-eragiketeta kopuru esanguratsu bat ezeztatu egin da burtsa-merkatuen ziurgabetasunaren ondorioz.

**245. koadroa Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Inbertsio-funtsetako partizipazioak eta akzioak. Jaulkipen garbiak eta salmenta-eskaintza publikoak**

(M euro)

Kontzeptua	2016	2017	2018	Urte arteko aldakuntza	
				Aldak. 17/16	Aldak. 18/17
<b>Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Balio nominalak</b>	<b>-4.713</b>	<b>35.998</b>	<b>32.043</b>	<b>40.711</b>	<b>-3.955</b>
- Finantza-erakundeak	-32.855	20.724	-12.163	12.131	8.561
• Finantza-erakunde monetarioak	-21.558	8.719	12.495	30.277	3.776
• Bestelako finantza-bitartekariak	-11.297	-29.443	-24.658	-18.146	4.785
- Administrazio publikoak	25.299	46.903	37.929	21.604	-8.974
• Administrazio zentrala	27.847	46.962	41.684	19.115	-5.278
• Autonomia-erkidegoak	-2.549	106	-3.621	2.655	-3.727
• Tokiko udalbatzak	0	-165	-134	-165	31
- Sozietate ez-finantzarioak	3.343	9.819	6.277	6.476	-3.542
<b>Akzio kotizatuak eta ez-kotizatuak</b>	<b>5.098</b>	<b>16.092</b>	<b>-548</b>	<b>10.994</b>	<b>-16.640</b>
- Kapital-zabalkuntza. Funtsen ekarpena	5.098	14.186	-1.795	9.088	-15.981
• Finantza-erakundeak	2.571	8.197	1.199	5.626	-6.998
• Sozietate ez-finantzarioak	2.527	5.989	-2.994	3.462	-8.983
- Salmenta-eskaintza publikoak	0	1.906	1.247	1.906	-659
<b>Jaulkipen garbien eta salmenta-eskaintza publikoen guztizkoa</b>	<b>385</b>	<b>52.090</b>	<b>31.495</b>	<b>51.705</b>	<b>-20.595</b>

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Akzioak ez diren balioen saldoarekiko ekarpen handiena sektore publikoko jaulkipen garbiak osatzen dute, 2018an 37.929 milioi eurora igoz (2017an baino -8.974 milioi euro gutxiago). Ekarpen hori Administrazio Zentralari esker lortzen da, zeinak saldoaren ekarpen osoa egiten duen, administrazio autonomikoen eta tokiko udalbatzen erregistro negatiboak estaliz. Izan ere, lehenengoa zifra negatiboetan sartzen da berriro, 2017an izandako gorakada (106) positiboaren ondoren.

Finantza-erakunde segmentuan, saldo negatiboa (-12.163 milioi euro) erregistratu da aurreko ekitaldiarekin alderatuz, zeinetan saldoa positiboa izan baitzen. Horrela, amortizazioak lehenetsi dira jaulkitako bolumenaren aurretik. Finantza-erakunde

monetarioek<sup>1</sup> eginiko jaulkipenek saldo positiboa izan dute (12.495 milioi euro), 2017ko balioen gaineretik. Hain zuzen ere, guztizkoan, beren profila sendotu dute, baina ez dira bestelako finantza-bitartekariak<sup>2</sup> erregistratutako saldo negatiboa konpentsatzera iristen.

Akzio kotizatuen eta ez-kotizatuen negozioaren segmentuari lotutako jaulkipenei dagokienez, 2018a beherakada nabarmenarekin amaitu da, eta balio negatiboetan geratu dira (-548 milioi euro). Aintzat hartu behar da finantza-erakundeen saldoa (1.199 milioi euro) eta salmenta-eskaintza publikoenak (1.247 milioi euro) ez dutela konpentsatzen sozietate ez-finantzarioen saldo negatiboa (-2.994 milioi euro), eta horrek 2017ra arte izandako joera positiboa hausten du.

### **Bigarren mailako merkatuak: burtsak**

Espainiako burtsa-merkatuen bilakaera ez zen indize global eta europar nagusietan izandako pilatutako galera handien eraginetik kanpo geratu. Hala, IBEXek<sup>3</sup> %15eko galerak pairatu zituen, eta ekitaldia 8.539,90 punturekin itxi zuen, orain arte erregistratzen ari zen mailatik (10.000 puntu) urrun eta azpitik. Gainera, 2019ko lehen zatian badirudi hegakortasun handiko eta berreskuratze-joera gabeko dinamika hori mantendu egin dela.

Errenta aldakorreko negoziazioa (akzioak) 586.723 milioi euroko balioan finkatu da, %9,7ko urte arteko atzerapenarekin. Eraitza horrek azken bi ekitaldietan antzemandako finkatze-joera hausten du -zeinetan negoziazioa 650 milioi euro inguruan kokatu baitzen-; eta, beraz, gertatzen ari zen enpresa kotizatuen indizearen, kontratazioaren eta balio handitzearen berreskuratzea eteten da. Hori dela eta, 2018an, Espainian kotizatutako konpainien merkatu-balioa, arinki, bilioi bat euroren azpitik geratu zen (991.000 milioi euro), %13,2ko urte arteko beherakada erregistratu ondoren.

Amaitzeko, 2018an burtsak garrantzi handia izaten jarraitu zuen, finantzaketa berria lortzeko tresna gisa (kapital-gehikuntzen, kotizazio-onarpen berrien eta saltzeko eta erosteko eskaintza publikoen bidez). Alabaina, finantzaketa-mota horrek ere Europako eta Espainiako kotizazioen portaera negatiboaren eragina izan du; izan ere, finantzaketa

<sup>1</sup> Barne hartzen ditu kreditu-erakundeak eta egoitza eremuan duten finantza-erakunde guztiak, zeinen jardura honako hau baita: FEMak ez diren erakundeen gordailuak eta etorriko diren gordailuen ordezkioak jasotzea, eta kredituak ematea edo balioetan inbertitzea beren kabuz —gutxienez termino ekonomikoetan—. Azken talde hori, funtsean, merkatu monetarioko funtsek osatzen dute.

<sup>2</sup> Nagusiki, aseguru-konpainiak, pentsio-funtsak edo mutualitateak, higiezin inbertsio sozietateak, inbertsio-funtsak, hipoteka-kredituen sozietateak, leasing-eko erakundeak, factoring-ekoak, diru-merkatuko sozietate bitartekariak eta elkarrenganako bermeko sozietateak.

<sup>3</sup> 26 urte bete zituen 2018ko urtarillan.

erakartzeko eragiketen guztizko kopurua 2017koaren antzekoa izan bada ere, zenbatekoak pixka bat baxuagoak izan dira, batez beste. Bestetik, Espainiako burtsa-merkatuen arriskuaren gaineko hegakortasun-indizeak txikia izaten jarraitzen du 2018an (% 15,04), ia aldakuntzarik gabe aurreko ekitalditik (% 15,3).

Bankak -eta, neurri txikiagoan, higiezin zerbitzuek- merkatuan eta indize esanguratsuenetan duen garrantzia dela-eta, Espainiako burtsa-merkatuaren bilakaera baldintzatu du; izan ere, beherakada handienak sektore horietako enpresetan gertatu dira. Aldiz, enpresa ez-finantzarioen portaera positiboagoa izan da, baina ez dute behar adinako kontrapisurik izan merkatuaren joera orokorra aldatzeko. Ildo horretan, alderdirik positiboena da ikerketaren eta teknologia berrien arloan pisu handiena duten jarduerekin lotutako enpresek bilakaera ona izan dutela.

**246. koadroa Burtsa-merkatua. Negoziatutako bolumenen balio efektiboa**

*(M euro)*

Tituluak	2016	2017	2018	%Δ 18/17
Funts publikoak	4.775	265	0	-100,0
Beste obligazio batzuk	659	170	0	-100,0
• Bankuak	0	0	0	0,0
• Gainerakoak	659	0	0	0,0
<b>Obligazioak, guztira</b>	<b>5.434</b>	<b>435</b>	<b>0</b>	<b>-100,0</b>
Akzioak (SIBE, Burtsa art. Lot. Sist.)	650.908	650.012	586.723	-9,7
• Bankuak	227.957	239.766	197.428	-17,7
• Elektriakoak	90.080	79.854	71.043	-11,0
• Eraikuntza	36.789	26.633	22.936	-13,9
• Komunikazioa	66.127	71.265	58.069	-18,5
• Gainerakoak	229.956	232.494	237.247	2,0
Gainerako akzioak (Korro Sist. Kont.)	480	480	480	0,0
• Madrilgo Burtsa	360	360	360	0,0
• Bartzelonako Burtsa	120	120	120	0,0
• Bilboko Burtsa	0	0	0	0,0
• Valentziako Burtsa	0	0	0	0,0
<b>Akzioak, guztira</b>	<b>651.388</b>	<b>650.492</b>	<b>587.203</b>	<b>-9,7</b>

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

Taula horren arabera, ikus daiteke oro har beherakadak egon direla aztertutako ia sektore guztietako bolumen negoziatuen balio efektiboan: komunikazioak eta bankak beherakada nabarmenak izan dituzte (-% 18,5 eta -% 17,7), eta behera egin dute eraikuntzak eta enpresa elektrikoek ere (-% 13,9 eta -% 11,0). Gainerako sektoreen taldea da gora egin duen bakarra (+% 2,0), baina ez da adierazitako beherakadak konpentsatzera iristen. Hala, 2018an negoziatutako bolumenaren ia bi heren (% 59,5) aipatutako lau sektore nagusien artean sortzen da. Hain zuzen, heren bat bankak hartzen du (% 33,6), eta horren atzetik daude enpresa elektrikoak (% 12,1), komunikazioa (% 9,9) eta eraikuntza (% 3,9). Gainerako % 40,4a gainerako jardueri dagokie (% 4,7 puntu egin du gora 2017aren aldean).



**Bigarren mailako merkatuak: errenta finkoa**

2018an, errenta finkoko merkatuan beharpena erregistratu zen epe laburreko errenta finkoko aktiboen (zor-agiriak) zirkulazio-bolumenean. Horren arrazoiak bi dira: batetik, ez dira batere erakargarriak inbertitzaile instituzionalentzat (errentagarritasun txikia dutelako); eta, bestetik, sistemako likidezia handia dela-eta, ez dira hain beharrezkoak jaulkitzaileen ikuspegitik.

Zor publikoaren kasuan, aldiz, Altxorraren adierazleek gorantz jarraitzen dute eguneroko eragiketetan; hain zuzen, % 47,3ko gorakada esanguratsua erregistratu dute 2018an. Ildo horretan, eguneko batez besteko negoziazio horren % 84,3 bonu eta obligazio ohikoenei dagozkie (ez-bereiziak), % 12,9 Altxorraren Letrei eta % 2,8 besterik ez balio bereiziei. Gora egin dute aipatutako multzo guztiek, baina nabarmentzekoa da gorakada handia izan duela bonu eta obligazio ohikoenen negoziazio-jarduerak (+% 50,6).

**247. koadroa Errenta finko publikoaren bigarren mailako merkatuan negoziatutako bolumenak: Estatuaren zorra <sup>(1)</sup>**

*(M euro)*

Kontzeptua	2016	2017	2018	%Δ 18/17
<b>CADE sistema - ARCO sistema <sup>(2)</sup></b>	<b>40.824</b>	<b>44.297</b>	<b>65.252</b>	<b>47,3</b>
– Bonu eta obligazio ez-bereiziak	32.375	36.512	54.982	50,6
– Bonu eta obligazio bereiziak	382	855	1.840	115,2
– Altxorraren Letrak	8.067	6.930	8.430	21,6

(1): Eskurako, eperako eta berrerosteko eragiketa-negoziazioen eguneroko zifren batez bestekoa. 2017tik aurrera, araudi-aldaketa dela-eta, errenta finko pribatuko merkatuek ez dituzte argitaratu negoziazioaren gehiengoaren datuak (sistemako erabiltzaileen arteko salerosketa zuzenak).

(2): 2017an, Espainiako Bankuaren Idazpenen Zentralaren (CADE) lehengo sistemaren kudeaketa Espainiako Burtsa eta Merkatuen Taldearen esku geratu zen, ARCO izenarekin, eta Europako T25 sistemarekin homologatu zen.

Iturria: Altxor Publikoaren hileroko estatistikak. Ekonomia eta Enpresa Ministerioa.

Azkenik, MEFFaren bilakaerak (produktu deribatuetan espezializatua) agerian uzten du jarduerak % 2,6 egin duela atzera 2018an, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Horrela, aukera finantzarioak ia egonkorak badira ere (-% 0,8), gerokoek areagotu egiten dute beherakada hori (-% 5,0), egindako kontratuei eta eragiketei dagokienez. Ildo horretan, behera egin dute aztertutako kontzeptu guztiek; soilik IBEX indizeei lotutako gerokoek egin dute gora, pixka bat bada ere (+% 1,2).

248. koadroa Geroko eta Aukera Finantzarioen Espainiako Merkatua (MEFF)\*

Kontzeptua	2016	2017	2018	(mila kontratu) %Δ 18/17
Geroko finantzarioak guztira	16.304	17.939	17.045	-4,98
– Indizeen gaineko gerokoak (IBEX)	6.837	6.268	6.342	1,18
– Akzioen gaineko gerokoak	9.467	11.671	10.703	-8,29
Aukera finantzarioak guztira	26.123	24.620	24.421	-0,81
– Indizeen gaineko aukerak (IBEX)	3.222	4.304	4.183	-2,81
– Akzioen gaineko aukerak	22.901	20.316	20.238	-0,38
<b>MEFF guztira</b>	<b>42.427</b>	<b>42.559</b>	<b>41.466</b>	<b>-2,57</b>


(\*): Egindako eragiketak.

Iturria: BME (Espainiako Burtsak eta Merkatuak).

## 4.2 BILBOKO BURTSA

Bilboko Burtsaren indize orokorrak behera egin zuen 2016an (-% 5,6) eta gora 2017an (+% 5,9). 2018an, aldiz, % 15,7ko aldakuntza negatibo nabarmena izan zuen, aurreko urtearen amaierako datuekin konparatuta. Oro har, 2018. urtean, indizearen balorazioa aurreko ekitaldietan baino maila baxuagoetan kokatu da, eta batez ere, 2017an baino baxuago (1.636,0 eta 1.330,1 punturen artean). Orokorrean, joera beheranzkoa eta jarraia izan da, etenik gabe.

39. grafikoa Kotizazio Indize Orokorra. Bilboko Burtsa (2018)



Iturria: Bilboko Burtsa.

**249. koadroa Bilboko Burtsaren Indize Orokorra (2000 indizea). Azken balioa, maximoa eta minimoa**

Urtea	Azkena	Maximoa	Minimoa
2010	1.615,18	1.975,39	1.398,65
2011	1.366,61	1.808,89	1.210,76
2012	1.331,00	1.443,33	974,81
2013	1.658,57	1.660,80	1.231,66
2014	1.668,99	1.849,71	1.601,52
2015	1.578,45	1.941,39	1.530,92
2016	1.489,50	1.542,97	1.283,77
2017	1.577,50	1.748,99	1.479,05
2018	1.330,08	1.635,95	1.330,08

Oharra: Oinarria 2000, 1999ko abenduaren 31koa.

Iturria: Bilboko Burtsa. Indizeak. Grafiko historikoak.

Kontratazio-bolumenari dagokionez, 2018ko Bilboko merkatuko transakzioen balorazioa 112.922 milioi eurokoa izan da, urtetik urterako % 4,2ko beherakadarekin. Horrela, kontratazio-bolumena aurreko urtekoa baino baxuagoa izan da (117.825 milioi euro) eta 2015ekoa baino askoz ere baxuagoa (180.713 milioi euro), baina 2016an erregistratutakoa baino altuagoa (107.132 milioi euro). Azkenik, bigarren urtez jarraian, errenta finkoko kontratazioa nulua izan da, kontrataziorik gabeko joera finkatuz. Azken batean, Bilboko Burtsak 2018an izan duen bilakaera bat dator gainerako burtsa-merkatuekin; alegia, hegakortasuna eta zuhurtzia ditu ezaugarri, perspektiba solidorik ez dagoelako eta, seguruenik, sistemaren beste alderdi batzuetan gehiegizko likidezia dagoelako.

**250. koadroa Bilboko Burtsako kontratazio-bolumena. Balio efektiboak\***

Kontzeptua	(M euro)				
	2015	2016	2017	2018	%Δ 18/17
<b>E. aldakorra - (SIBE)<sup>(2)</sup></b>	<b>180.713</b>	<b>107.132</b>	<b>117.825</b>	<b>112.922</b>	<b>-4,16</b>
<b>Errenta finkoa</b>	<b>1.856</b>	<b>2.116</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>-</b>
Eragiketa-aretoa <sup>(1)</sup>	0	0	0	0	-
Elektronikoa (SEND) <sup>(2)</sup>	0	0	0	0	-
SAC-CL-BVB <sup>(3)</sup>	1.856	2.116	0	0	-
<b>Guztira</b>	<b>182.570</b>	<b>109.248</b>	<b>117.825</b>	<b>112.922</b>	<b>-4,16</b>

(\*): Erosketak + salmentak.

(1): Korroen merkatu tradizionala.

(2): SIBE (Espainiako Burtsa arteko Lotura Sistema) etengabeko merkatuak eta SEND (Zorra Negoziatzeko Sistema Elektronikoa), AIAF merkatuarekin loturik eta txikizkarietara zuzenduta.

(3): Kontuko Idazpenen eta Bilboko Baloreak Konpentsatu eta Likidatzeko Zerbitzuak (SAC-CL-BVB) EAEko zor publikoa kudeatzen du 1991. urteaz geroztik, eta, 1993. urtetik aurrera, Bilboko Burtsaren gainerako balio eskusiboak.

Iturria: Bilboko Burtsa.